

INFORMAZIO ATZIPENA, GARDENTASUNA ETA DATU BABESA DBEB-REN DOKTRINA

Iñaki Pariente de Pradaren zuzendaritzapean



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

INFORMAZIO ATZIPENA, GARDENTASUNA ETA DATU BABESA

DBEB-REN DOKTRINA

Iñaki Pariente de Pradaren zuzendaritzapean



Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de Protección de Datos



Agencia Vasca de Protección de Datos – Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71 - 3º
01008 – VITORIA-GASTEIZ

avpd@avpd.es
www.avpd.es

Informazio atzipena, gardentasuna eta datu babesa: DBEBren doktrina

ISBN: 978-84-697-2101-8

D.L. VI 881-2014

Lan hau Creative Commons-da



Aitortu (cc by)

Aske zara:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeke
- Lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- **Aitortu** - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzaera eman ez haien babesa duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>

Liburu hau da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan lan egin duten eta lanean ari diren pertsona guztien ahaleginaren emaitza, azken hamar urteotan gogor saiatu direlako, gero eta hobeto ulertu eta ezar dadin Euskadin datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea.

Eskuliburu honek bildu, hautatu eta modu ordenatuan egituratuta argitaratu ditu informazio atzipenari, gardentasunari eta datu babesari buruzko irizpenak.

AURKIBIDEA

1. Sarrerako azterlana	9
2. Irizpenak	25
I. Informazioa atzitzeko eskabideak kontrol politikoaren esparruan	25
CN05-022 (2006-01-31) / Udal bateko departamentu desberdinetako datu pertsonalak bere udalkideei lagatzea.	26
CN09-038 (2009-06-30) / Batzarkide batek foru aldundiak eta foru enpresa publikoek kontratatutako langileei buruzko informazioa eskuratzea.	35
CN09-040 (2009-09-11) / Toki administrazio bateko talde politiko batek espediente bat eskuratzea.	43
CN13-051 (2014-01-21) / Lan kontratazioko espediente bat legebiltzarkide bati lagatzea	51
CN14-004 (2014-02-25) / Sarreraren eta irteeraren zerrenda lagatzea korporazioko kide bati.	59
CN14-027 (2014-07-22) / Legebiltzarkide bati lagatzea administrazioaren eraikin bateko segurtasun sistemak grabatutako irudiak.	69
II. Informazioa atzitzeko eskabideak bereziki babestutako datuak daudenean tartean	75
CN07-009 (2007-08-06) / Osakidetza larrialdietan artatutako eta auto istripuengatik ingresatutako pertsonen datuak lagatzea.	76
CN10-035 (2011-02-22) / Datu-lagatzea sindikatuari Prebentzio Legea betetzeko.	83
CN12-006 (2012-07-26) / Lan poltsetako kideen bereziki babestutako datuen berri izatea.	87
CN12-039 (2013-01-30) / Ezgaitasun izaera argitaratzea hautaketa prozesu batean.	94

III. Publizitate aktiboa eta datu pertsonalak web orrian argitaratzeko aukera	105
CN06-015 (2006-10-02) / Udalaren web orrian osoko bilkuren eta udalbatzako batzordeen aktak argitaratzea.	106
CN07-024 (2007-09-12) / BOE eta TUE etxebizitzak lortzeko zozketetan parte hartutako pertsonen zerrendak eta esleipen zerrendak agertzea herritarrentzako arreta bulegoan eta web orrian.	121
CN07-028 (2007-12-18) / Gogoan izan beharreko datuen babesaren inguruko alderdiak unibertsitateko lan-eskaintza publikoan.	126
CN10-031 (2010-12-23) / Aldi baterako lan poltsa bateko gainontzeko parte-hartzaileen datuak atzitzea.	133
CN13-017 / (2013-06-11) / Datuak argitaratzea web orri batean.	139
CN13-041 (2013-11-11) / Osoko bilkurak grabatzea eta argitaratzea.	148
CN13-047 (2013-12-12) / Kirol federazioko web batean argitaratzea.	158
IV. Partikularrek administrazio informazioa atzitzea	165
1. Orokorrean	165
CN08-038 (2008-12-30) / Erizainen elkargo ofizial batek osasun erakundeetako plantilletako erizainen zerrendetan sarbidea izatea.	166
CN09-044 (2009-10-26) / Hildako pertsona baten historia klinikoa eskuratzea.	173
CN11-033 (2011-12-12) / Hirigintza datuak lagatzea herritarrei.	178
CN12-010 (2012-11-23) / Artxibo historikoak atzitzea.	185
CN13-052 (2014-01-30) / Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroko datuak lagatzea.	198
CN13-053 (2014-02-12) / Aurrezki Kutxetako Goi-kargudunen Erregistroa Atzitzea.	209

2. Hautaketa prozesuetan	217
CN09-046 (2009-10-26) / Hautaketa prozesuetako parte hartzaileen datu pertsonalak lagatzea.	218
CN12-024 (2012-09-11) / Norgehiagoka prozesu batean gainontzeko parte-hartzaileen datuak atzitzea.	229
3. Sindikatuek administrazio informazioa atzitzea	233
CN06-029 (2006-12-01) / Langileen jaiotza-data hauteskunde sindikaletarako hautesleen erroldan sartzea.	234
CN06-031 (2007-02-01) / Ikastetxe publikoen ordezkapen eta plantillen datuak lagatzea sindikatuari.	240
CN11-019 (2011-07-18) / Lan poltsei buruzko informazioa lagatzea.	247
V. Beste administrazio batzuek atzitzea administrazio informazioa	257
CN09-016 (2009-06-18) / Alokairuen gaineko datuak poliziari lagatzea.	258
CN12-029 (2013-01-24) / Adin txikikoen datuak lagatzea absentismoa eta desekolatzea desagerrarazteko.	267
CN14-005 (2014-03-11) / Foru ogasun batek egindako ikuskapen prozedura bateko datuak udal bati lagatzea	272
3. Gaiei aurkibidea	278

SARRERAKO AZTERLANA: DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN IRITZIA GARDENTASUNAZ ETA INFORMAZIOAREN ATZIPENAZ.

ZERGATIK EGIN DUGU BILDUMA BAT DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAK GARDENTASUNARI ETA INFORMAZIOAREN ATZIPENARI BURUZ GARATU DUEN DOKTRINAREKIN?

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu zuen legeak hamar urte bete ditu aurtan, eta duela hilabete batzuk ospatu genuen legearen urteurrena. Eusko Legebiltzarrak 2004ko otsailaren 25ean onartu zuen Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fintxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzekari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

Geroago, 2005. urtearen bueltan, Agentzia sortzeko izapideak, oinarritzko antolaketa eta halakoak bukatu ondoren, hasi zen herritarrek eta administrazio publikoek egingdako galderei erantzuten, beti ere bere eskumen esparruaren barruan.

Jadanik 420 irizpen baino gehiago egin ditugu.

Agentziaren doktrina aztertu ondoren, konturatu ginen 90 irizpen baino gehiago, hau da, irizpenen ehuneko handi bat gardentasunak eta informazioaren atzipenak datu pertsonalak babestearekin duten harremanari buruzkoak zirela.

Horregatik, iruditu zitzaigun irizpen horietako batzuk, ustez garrantzitsuenak, bildu ahal genituela eta gure solaskideei aurkeztu, baina ondo antolatuta eta oharrekin, hobeto eta argiago ulertzeko Agentziak gai horren gainean garatu dituen iritziak.

Beraz, bilduma hainbat gairen arabera antolatu dugu: 1) Informazioa atzitzeko eskabideak, kontrol politikoaren esparruan. 2) informazioa atzitzeko eskabideak, bereziki babestutako datuei dagokienez. 3) Publizitate aktiboa eta datu pertsonalak web orrietan argitaratzea. 4) Pertsona fisikoek edo juridikoek informazio administratiboa atzitzea. 5) Administrazioek beste administrazio batzuetako informazio administratiboa atzitzea.

Multzo horietan sailkatu dugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren urte hauetako jardura. Hala ere, nahi duenak Agentziaren web orrira www.avpd.es jo dezake zuzenean, irizpen horiek edo argitaratutako beste guztiak eskuratzeko.

Besterik ez. Espero dut bilduma hau probetxugarria izatea erabiltzen duten guztientzat.

LEHENENGO GAIA: INFORMAZIOA ATZITZEKO ESKABIDEAK, KONTROL POLITIKOAREN ESPARRUAN.

Agentziak kontsulta asko jaso ditu galdetzen ea legebiltzarkideek edo zinegotziek baduten aukerarik administrazioaren edo eskuetan dagoen dokumentazioa atzitzeko, administrazio botere betearazlea dela kontuan izanda.

Halakoetan konpondu behar izaten den arazo handiena da argitzea ea kontrol politikoa burutzeko lege gaikuntzarik dagoen ala ez; gaikuntza egonez gero, zein helmen duen, eta kasu konkretu bakoitzean nola ezar daitekeen aurreikuspen hori.

Beraz, horrekin lotuta bi dira aztertu beharreko esparruak: bata da udal esparrua eta bestea esparru legegilea, beste era batera esanda, batzar nagusien arloa eta Eusko Legebiltzarrarena.

Hasteko, udal esparrua aipatuko dugu. Zinegotzien atzipen eskubideak direla eta, Agentziak egin duen interpretazioaren funtsezko alderdi bat da halakoetan bi eskubideen artean gertatzen den talka, hau da, honako oinarritzko bi eskubideen artean ebazti behar dela: bata da zinegotziaren atzipen eskubidea, eta bestea zinegotziak eskatu duen informazioan ageri diren datu pertsonalen jabeak duen eskubidea bere datu pertsonalak babestuta egon daitezen.

Lan honetan bildu ditugun irizpenetan jasotako jurisprudentzia oso argigarria da. Hona irizpenetan aipatzen diren Auzitegi Gorenaren hainbat epai: 1988ko ekainaren 27koa; 1998ko maiatzaren 9koa; 1999ko azaroaren 5koa; 2002ko urriaren 11koa; 1989ko uztailaren 18koa; 2000ko azaroaren 17koa; 1995eko maiatzaren 5koa; 1997ko apirilaren 21koa eta 2000ko martxoaren 14koa, besteak beste.

Gai hau argitzeko hainbat alderdi hartu behar dira kontuan: lehenengoa da informaziorako eskubidea funtsezkoa dela zinegotzien eginkizunetarako. Eskubide horren jatorria Konstituzioaren 23. artikulua da. Bigarrena da eskubidea nola erabili behar den, eta hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean eta Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu era Araubide Juridikoko Erregelamenduan dago araututa; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2 artikulua fiskalizazio eginkizuna eta gobernu organoak kontrolatzeko eginkizunak aipatzen ditu, besteak beste. Beraz, harreman zuzena ezarri behar da informazioa atzitzeko zinegotziek duten eskubidearen eta kontrol eginkizunaren artean. Baina ezin dugu ahaztu funtsezko elementu bat: informazio atzipenari ezarri behar zaizkion mugak.

Horretarako, Agentziak uste dut, oraintsu berretsi duenez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak aitortzen duela zinegotziek euren udalean dagoen informazioa eskuratu ahal izateko behar den lege gaikuntza. Baina, datu babesak ñabar-dura bat gehitzen du kontu honetan: **ezinbestekoa izango da informazioa eskatu duten zinegotziei komunikatzen dizkieten datuak egokiak eta garrantzitsuak izatea eta ez izatea gehiegizkoak** komunikazioak lortu nahi duen helbururako, hau

da, zinegotziek gauzatu ahal izan ditzaten legez esleituta dauzkaten kontrol eta fiskalizazio eginkizunak.

Horretaz gain, maiz gertatzen den beste gauza bat da -eta Legebiltzarraren esparruko kontrol politikoa burutzeko eskubideaz aritzen garenean ikusiko dugu- kontrol politikoaren xede den esparru materialak bereziki sentsibleak izan daitezkeela, edo esparru horietan behintzat bereziki babestutako datuak izatea tartean daudenak. Halakoetan, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren (DBLO) 7. artikuluan jasotako datuak (bereziki babestutako datuak) direnean, gogoan izan behar da halako datuek babes handiagoa dutela segurtasunaren, atzipenaren eta ezereztearen esparruan besteak beste; eta kontu eta zuhurtzia handiz hartu behar dira erabakiak esparru horietan.

Lurralde historikoetako batzar nagusien esparruan ere informazio atzipenari buruzko zalantzak egon izan dira maiz, batez ere batzarkideren batek dena delako foru aldundiari dokumentazioaren bat eskuratu nahi duela eskatu dionean.

Lehengo kasuan bezala, argi utzi behar dugu datu pertsonalak lagatzeaz ari garela; beraz, hasteko egiaztatu egin behar da ea datuak lagatzeko lege gaikuntzarik dagoen ala ez, hau da, jakin behar da ea legeren batean aurreikusita dagoen halako datu lagatzerik ala ez. Batzar nagusietako erregelamendua aztertuta, kasu horretan atera genuen ondorioa izan zen bazegoela hori egiteko nahikoa lege gaikuntza, hau da, legeak baimena ematen zuela datuak lagatzeko. Hala eta guztiz ere, askotan kontua izaten da aurrez aurre dauden bi eskubide aztertzea eta horien arteko oreka lortzeko gomendioa garatzea, baina kontuan hartuta eskubide bi horiek, hau da, datuak babesteko eskubidea eta exekutiboa kontrolatzeko eskubidea ez direla erabatekoak.

Eskubideen arteko **proporzionaltasun azterketa** hori egin beharko du dagokion parlamentuko organoak. Agentziak ezin du inoiz organo hori ordeztu. Era berean, dokumentazioa eman ala ez erabakitzeko, kontuan hartu beharko da zein den eskabidean adierazitako datu lagatzearen helburua. Ezin da aipatu gabe utzi disoziazio prozesua, Agentziari egindako irizpen eskabide askotan aipatu dutelako. Disoziazio prozedurak datu pertsonalen izaera iraungitzen du, eta horrek esan nahi du disoziatu ostean ez direla datu pertsonalak izango, datuak disoziatuta daudenean, pertsonarik ezin delako identifikatu edo pertsonak ez direlako identifikagarriak.

Batzar nagusiei dagokienez, gai honi buruz egindako kontsultei buruzko bi irizpen jaso ditugu bilduman, eta lege gaikuntza badagoela ikusi eta gero, bietan azpimarratu dugu dokumentazioa emateko orduan kalitatearen printzipioa ere bete behar dela; hau da, nahiz eta datuak komunikatzeko berariazko lege baimen bat egon eta hori betez egin datu lagatzea, baloratu egin beharko da kontu handiz ea laga beharreko datuak **egokiak, garrantzitsuak eta proporzionalak** diren lortu nahi den helbururako. Ondorioz, balorazioa egin beharko dute eskatzaileak -eskatzaileak daki eskabidearen helburua zein den- eta datuak laga behar dituen organoak.

Bukatzeko, kontrol politikoaren eskubideaz baliatuta eskuratutako informazioaren **geroko erabilera** aipatu behar da. Parte hartzaile guztiek izan behar dute kontuan kontrol politikoa burutzeko eskubidea baliatuta lortzen den dokumentazioa bakar-bakarrik testuinguru horretan erabil daitekeela, eta ezin dela bestelako helburuetarako erabili. Beste era batera esanda, horrela lortutako informazioak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren eskakizunak bete beharko ditu.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ikuspegi hori berretsi egin du duela gutxi, eta **Eusko Legebiltzarraren** eskaera bati erantzunez urtarrilean egindako irizpen bat jaso dugu bilduma honetan horren adierazgarri. Irizpenean berretsi egin ditugu orain arteko irizpenetan eta azterketan azaldutako printzipioak. Lehenengo eta behin egiaztatu dugu Legebiltzarraren Erregelamenduan badagoela lege gaikuntza (11. artikulua). Doktrinak eta jurisprudentziak ere aztertu dute gaikuntza, eta, beraz, berriro ere egiaztatu dugu egon badagoela lege gaikuntza. Bigarrenik, informazioa lagatzeko funtsezkoa den lege oinarri hori argi utzi eta gero, aztertuko dugu zein den legebiltzarkideak gobernuari eskatu dion informazioaren edukia. Kasu honetan arazoa da ea pertsonen buruzko datu zehatz batzuk eman daitezkeen ala ez; izan ere, lan kontratu baten espediente osoa eskatu baitute, eta espedienteetan test psikoteknikoak edo nortasun testak egiteko prozedura dago jasota. Kasu honetan esan behar da, lege gaikuntza badago ere, DBLOren 4. artikuluan jasotako datuen kalitatearen printzipioa ezarri behar dela; eta horrez gainera, aztertu behar dela ea datuak egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak diren informazio eskabideak duen helbururako. Kasu zehatz honetan jakin behar da ea exekutiboaren gaineko kontrol politikoaren helburua lortzeko funtsezkoa den jakitea deitutako lanposturako aurkeztutako hautagai guztien test psikoteknikoen datu guztiak, ala informazio hori disoziatzeko modurik ba ote dagoen, hau da, ea test psikoteknikoen emaitzak jakin daitezkeen, baina pertsona jakinekin lotu beharrean, hautagaiei esleitutako zenbakiei edo kodeei lotuz; eta, horrela, pertsona horien identitatea babes-tuta geratuko da. Berriro esango dut: hori egin daiteke hautagaien identitatea jakitea ez bada garrantzitsua helburua lortzeko. Kasu honetan seguruenez helburua da jakitea ea plaza hartu duen pertsonak lortu duen puntuaziorik altuena hautaketa prozesuan.

BIGARREN GAIA: INFORMAZIOA ATZITZEKO ESKABIDEAK, BEREZIKI BABESTUTAKO DATUEI DAGOKIENEZ.

Bereziki babestutako datuei dagokienez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hainbat aldiz eman behar izan du iritzia partikularrek egindako informazio eskabideen eta administrazio batzuk beste batzuei egindako eskabideen gainean.

Adibidez, behin Agentziari galdetu zioten ea zilegi zen osasunari buruzko datuak bidaltzea Euskal Osasun Zerbitzutik Osasun Sailera, eta gerora handik Herrizaingo Sailera.

Trafiko istripuak gertatzen direnean, arreta hobetzeko sistema bat ezartzei buruzko kasu bat zen. Gure abiapuntua izan zen pentsatzea arreta hobetzeko planifikatu zu-

ten sistemak helburu legitimoa zuela, nahiz eta horrek garrantzirik ez izan datu pertsonalen lagapenak baliozkotzeko; izan ere, datuak legez laga ahal izateko, ez da hain garrantzitsua helburua; garrantzitsua dena da ea kegezko gaikuntzarik dagoen ala ez, eta ea ukituaren adostasunik dagoen ala ez; eta irizpide hori dago irizpenaren oinarrian.

Trafiko istripuetan kaltetutako pertsonen emandako osasun asistentziari buruzko datuak zentralizatuta edukitzea, eta gero informazio hori aztertzea prebentzio epidemiologikoa egiteko, eta, ondorioz, zerbitzua hobetzea, horixe da politika horren xedea; eta beste gauza batzuen artean istripuetan egon diren zaurituen egoeraren bilakaeraren berri izan nahi du, eta horrela jakin, bidez batez, zenbat hildako egon diren gerora, istripuetan hildakoen estatistiketan jaso ahal izateko, istripuen prebentzio ondorioetarako.

Eskabidea aztertu genuenean, lehenengo egin genuena izan zen ikustea ea datuak **"Historia klinikoa"** fitxategitik atera ahal ziren, pazienteen datuak hor zeudelako jasota, nahiz eta beste fitxategi batzuetatik ere atera zitezkeen datuak. Era berean, ez genuen garbi beharrezkoa zen ala ez pertsonen identitatea jakitea istripuak aurrerantzean izango zuen bilakaera zehazteko; izan ere, hasiera batean ez zuelako datu garrantzitsua ematen eskabidearen helbururako.

Kasu honetan Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 f) artikuluan jasotako salbuespenetako bat ezarri genuen, eta ez zen behar izan ukituaren adostasunik datuak lagatzeko, datuak azterketa epidemiologiko bat egiteko laga behar zirelako.

Baina, gai honek azpian badu zailtasun bat. Salbuespena behar bezala ezarri nahi bada, jakin egin behar da zer esan nahi duen "azterketa epidemiologikoa" kontzeptuak. Beraz, irizpen honen bidez egindako azterketaren alderdi garrantzitsuena da argi esaten duela azterketa epidemiologikoak egiteko datuak lagatzeko salbuespenetako bat ezar daitekeela; baina, horrek ez du esan nahi ikertu beharreko gaia gai arrunta eta ohikoa denik, hori orain arte esandakoaren kontrakoa delako.

Beraz, esan daiteke ondorioa dela, hau bezalako gaietan, hau da, osasun datuak hain garrantzitsuak diren gaietan, ezin dela onartu datu lagatze globalak egitea, datuak babesteari buruzko araudia aintzat hartzen badugu. Aitzitik, datuak istripuetan hildakoei buruzkoak badira, halakoetan bai, halakoetan zilegi da datuak lagatzea, hildako pertsonen ez zailako ezarri behar Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa.

Beste irizpen interesgarri bat ere badago, administrazio publiko bateko lan poltsetan dagoen pertsona baten **ezgaitasun egoera** zein den jakitea zilegi den ala ez argitzen duena. Datu hori jakin daitekeela dioen lege erregimena Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. a) artikuluan dago, artikulua horrek xedatzen duelako interesdunek edozein unetan jakin dezaketela prozeduren izapideak zertan diren, eta prozedura horietako agirien kopiak lor ditzaketela. Prozeduraren alderdirik azpimarragarriena da eskabidea egin zuen pertsona ezgaitasun egoeran zegoela eta jakin nahi zuela ea zein ezaugarri zituzten ezgaitasun egoeran zeuden eta

zerrendetan zeuden gainontzeko pertsonak. Auzi hau ebazteko funtsezkoa izan da hasiera-hasieratik kalitatearen printzipioa, hau da, eskatzaileak bere intereseko informazioa asetzeko beharrezko datuak eskuratzea duela, eta, hartara, lan politzako beste baten ezgaitasun egoera kontrolatu; baina, ezin duela jakin ezgaitasunaren gradua edo ezgaitasunaren arrazoia, ez delako beharrezkoa bere eskabidearen helbururako.

Antzeko beste kontsulta bat ere izan genuen. Kontsulta baten bidez galdetu ziguten ea zilegi zen datuak dagokion aldizkari ofizialari lagatzea eta ea bertan argitaratu zitekeen pertsona bat ezgaitua dela, pertsona hori funtzio publikoan sartu eta gero, txanda murriztuan parte hartu ostean. Halakoetan, esan behar horrela jokatzeko da pertsonen osasun datuak modu indiskriminatuan lagatzea dela. Lehenengo eta behin aztertu behar da ea halako datu lagatzea egiteko lege gaikuntzarik dagoen ala ez, eta egon badago; izan ere, hautaketa prozesuan parte hartu duten gainontzeko pertsonen eskubidea baitute haien eskubideak baliatzeko behar duten informazioa eskuratzeko. Kasu honetan, kontuan hartuz gero osasun datuak direla, falta botatzen da osasun datuak lagatzeari buruzko berariazko araudi bat. Eta halakorik ez dagoenez, aurrez aurre dauden bi eskubideen gaineko printzipio orokorrak hartu beharko dira kontuan (datu babeserako eskubidea eta hautaketa prozesu batean parte hartzen duten pertsonen eskubidea). Ondorioz, proportzionaltasunean oinarritutako azterketa egin ondoren eta kaliteren printzipioa ezarri ostean, irizpenak -eta ez dago interpretazioa beste era batera egiterik, arau falta ikusita- honakoa dio: "esan behar dugu lortu behar dela ahalik eta gutxien kaltetzea hautaketa prozesuan dauden intimitaterako eta datu pertsonalak babesteko eskubideak, batez ere ikusita datu pertsonalak babesteari buruzko araudiak babes berezia ematen diela osasun datuei".

HIRUGARREN ALDERDIA: PUBLIZITATE AKTIBOA ETA DATU PERTSONALAK WEB ORRIAN ARGITARATZEKO AUKERA.

Administrazio-gardentasunaren printzipioaren funtsezko alderdi bat da publizitate aktiboa deritzon publizitate mota. Halakoetan administrazioak bere kabuz egiten dituen ekintzak daude tartean, eta ez da herritarren berariazko eskabiderik egoten. Gainera, publizitateak dena delako administrazio publikoari buruzko informazioa erakusten du orokorrean. Baina, argitaratuta agertzen den informazioak sarri administrazio kideen nahiz zenbait herritarren datu pertsonalak eduki ditzake; eta, horregatik, komeni da arautzea halako informazioa administrazioen web orrietan nola erabili, gehienetan web orriak erabiltzen direlako publizitaterako.

Agentziak kontsulta asko jaso ditu horrekin lotuta, esate baterako, ***osoko bilkuren saioen aktak udal web orrietan jartzeari buruzkoak***, edo osoko bilkuren grabazioei buruzkoak.

Gai hau aztertzen hasteko, lehendabizi aztertu behar da tokiko organoen garapenari eta funtzionamenduari buruz indarrean dagoen araudia, eta organo horien publizitateari buruzkoa. Adibidez azpimarratzeko da Toki Erakunde Antolamendu, Funtzionamendu

eta Araubide Juridikoko Erregelamenduak dioena: osoko bilkuren saioak publikoak direla, eta osoko bilkuraren eta gobernu batzordearen erabakiak argitaratu eta jakinarazi egin behar direla, legearen arabera.

Esate baterako, Toki Erakundeentzako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduak dio korporazioko idazkariak osoko bilkura bakoitzaren akta egin behar duela.

Arau horiez gain, badira beste batzuk ere, orain aztertuko ez ditugunak, baina irizpenean zehatz eta zorrotz garatuta daudenak, eta horiek kontuan hartuta, ikus daiteke gai honen inguruan arau asko daudela indarrean, eta beharbada komeniko litzatekeela datu babesari buruzko araudiaren arabera uztartzea denak. Azken finean, egin behar duguna, eta Agentziak egindako lana gidatu duen asmoa izan da publizitatearen arloko eta datu babesaren arloko lege erregimena artikulatzea. Kasu honetan honako ondorioak atera zituen irizpenak: batetik, indarrean dagoen legediak dioenez, korporazioaren erabakien kopiak eman egin behar direla, horrek ez duelako datuak babesteko eskubidea urratzen. Eta, bestetik, akten kopia sinpleak ere egin ahal izango direla, pertsonen intimitateari kalterik egiten ez badiote, hau da, bereziki babestutako datuak ez bada bertan agertzen. Erabakiak jendaurrean jartzeari dagokionez, esan behar da zilegi dela, baldin eta laburpen bat jartzen bada; eta horrek esan nahi du bakarrik garrantzizkoak diren datuak argitaratu behar direla, hau da, ezabatu egin beharko direla egokiak eta garrantzitsuak ez diren eta gehiegizkoak diren datu pertsonalak, informazio "orokorra" bakarrik emateko.

Agentziak beste antzeko hainbat kasutan ere hartu du esku; esate baterako, **babes ofizialeko etxebizitzentzako esleipenduen** zerrendak argitaratzeari buruzko kontsulta bat. Kasu horretan hainbat datu argitaratzeko asmoa zutenez, lehenengo eta behin aztertu behar izan genuen ea datu horiek argitaratzeko lege gaikuntzarik ba ote zegoen. Baina, nahiz eta lege gaikuntza egon, kontuan izan behar da halako informazioa legezko helburua lortzeko beharko den denbora tartean bakarrik egon beharko dela jendaurrean. Horretaz gain, Agentziak garrantzi handiko kontua iritzi zion, datu pertsonalak jendaurrean jartzerakoan, datu horiek atzitu ditzaketen pertsonen ohartarazi egin behar zaiela eta esan, datuak jendaurrean badaude ere, horrek ez duela esan nahi datu horiek gero erabil daitezkeenik; hain zuzen ere, hori ezin delako jendearen eskurako iturritzat jo. Beraz, datu horiek erabiltzeko, datuetan ageri diren pertsonen adostasuna beharko da. Eta amaitzeko, jendaurrean zein datu mota jarri nahi diren aztertu beharko da, eta kontuan izan bakar-bakarrik argitaratu beharko direla jendaurrean jarrita lortu nahi den **helburua betetzeko egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak diren datuak**. Beraz, helburua bada etxebizitzentzako esleipendunak identifikatzea, pertsona horien izen-abizenak argitaratzea nahikoa da pertsona horiek identifikatzeko, eta beraz, esan daiteke oro har NAN zenbakia jartzea gehiegizkoa dela; ondorioz, hobeto ez jartzea. Baina konponbide honek ez du beti balio. Argitalpen kasuak banan-banan aztertu beharko dira, argitalpen bakoitza egiteko legeak zer dioten aztertu, eta argitalpenaren helburua zein den kontuan hartu ere bai; eta hori guzti hori dakigunean, arau bat finkatu argi izateko argitalpenetan zein datu jaso behar diren eta zein ez.

Funtzio publikoan sartzea dela eta, kontsulta ugari jaso ditu Agentziak. Adibide bat jartzearen, CN07-028 Irizpena aipatuko dugu. Kasu honetan argi ikusten da zer pentsatzen duen Agentziak hautaketa prozesuetako informazioaz, hau da, **hautaketa prozesuaren bilakaeraren berri ematen duen zein informazio jar daitekeen jendearen eskura argitaratuta, web atarietan edo beste toki batzuetan**. Datu pertsonalak lagatzeari buruz ari gara berriro. Beraz, lehenengo jakin beharrekoa da ea datuak lagatzeko lege gaikuntzarik dagoen ala ez. Ikusi dugu badagoela, zeren funtzio publikoari buruzko legediak eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak babesten baitute hautaketa prozesuen publizitatea. Funtzio publikoan sartzeko hautaketa prozesuen publizitate printzipioa Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 33. artikuluan dago jasota. Abiapuntua horixe da. Baina, hala eta guztiz ere, horrek ez du argitzen zein datu mota argitaratu daitezkeen. Ez du esaten aldi baterako onartuen zerrendak eta kanpoan geratu direnen zerrendak argitaratu behar diren ala ez, zein azterketa edo probetako emaitzak argitaratu behar diren, eta abar. Beraz, ez dago erantzun bakar bat. Eta jakin nahi bada zein datu argitara daitezkeen, erabaki beharko da zein datu diren beharrezkoak argitalpena eginda lortu nahi den helburua betetzeko. Hori ikusita, egin behar den lehenengo gauza da erreferentziazko araudia aztertu eta azterketatik ondorioztatu "zertarako" argitaratu behar diren datuak, hau da, arazoa zentratzeko, helburuaren printzipioa zehaztu beharko da. Horrelako azterketa bat egin beharko da hautaketa prozesu bakoitzaren faseak argitaratzeko aukerak ikusteko. Azterketa egin ostean erabaki beharko dugu ea zilegi den datuak web orri batean argitaratzea. Aztertzen ari garen kasuan erabaki beharko da, batetik, pertsona bakoitzak informazioaren zein zati ikusi ahalko duen; eta, bestetik, zein informazio ikus dezaketen besteek, hau da, bereizi egin behar da zer den argitalpen murriztua eta zer argitalpen orokorra. Era berean, kontuan izan behar da argitaratutakoa ezabatu egin beharko dela argitalpenaren oinarrian zegoen helburua beteta dagoenean.

Lehen aipatu ditugu **osoko bilkuren saioak grabatzeagatik sortzen diren arazoak**. Adibidez, 2013an kontsulta bat egin ziguten osoko bilkuren saioak grabatzeari buruz, eta ea bertara joaten direnek hau da, publikoak eta talde politikoek audio edo bideo bidez grabatu ahal zituzten saioak, gero Interneten bidez zabaltzeko. Kontsultan grabazioari buruz egindako galdera dela eta, lehengo eta behin esan genuen konponbide teknikoak egon daitezkeela zinegotziak bakarrik grabatzeko, zinegotziak jendaurrean egon behar dutelako karguan dihardutenean. Bestalde, Agentziak uste du ekitaldian dauden pertsona guztien adostasuna behar dela grabatzeko, korporazioko kideena izan ezik; ezin delako ezarri CN 13-041 Irizpenean aztertutako lege gaikuntza. Horretaz gain, esan behar da jurisprudentziak ere aztertu izan duela udaletako osoko bilkuren saioak grabatzearen kontua, eta azterketatik atera duen ondorioa da partikularrei ezin zaiela grabazioak egitea debekatu, hala eginez gero, Konstituzioaren 20.1. d) artikulua ere murriztu egingo litzatekeelako, hau da, herritarrek hedapenezko edozein bitartekoren bidez komunikatzeko edo egiazko informazioa askatasunez jasotzeko duten eskubidea.

Alde horretatik, Agentziak gaiaren inguruan atera duen ondorioa da grabazioak egiteko bertaratu direnen adostasuna beharko dela (ez, ordea, osoko bilkurako kideena); baina udalak grabazioak egin ditzakeela bere autoantolakuntza ahala baliatuta. Gero, graba-

zioak fitxategi batean jaso beharko dira, eta legezko betebeharrak bete ostean, udalaren web orrian erabiltzeko moduan egongo dira. Era berean, beste kontrol agintaritza batzuk esandakoarekin bat, gure irizpenak ebatzi zuen osoko bilkuren saioetara joaten den publikoak grabazioak egin ditzakeela. Azkenik, askotan aztertu dugun kontu bat aipatu behar dugu berriro ere: erabakiak laburtuta argitaratu behar dira.

LAUGARREN ALDERDIA: PERTSONA FISIKOEK EDO JURIDIKOEK INFORMAZIO ADMINISTRATIBOA ATZITZEA: "GARDENTASUN PASIBOA" DELAKOA.

Leku berezia eta garrantzitsua gorde diogu bilduma lan honetan ***partikularrek informazio administratiboa atzitzeko*** kontuari, uste dugulako gardentasunaren kontzeptuaren muina edo oinarria dela. Gardentasun aktiboa da administrazioak adierazten duena bere jarduera erakusten duenean bere kabuz eta berak nahi duelako. Hori egiteko web orriak eta antzeko bitartekoak erabiltzen ditu. Edozelan ere, gardentasunaren benetako agerpena atzipen eskubidea da. Partikularrak eskabide bat egiten badu, gaur egun jadanik legediak onartzen duen eskubidea baliatu duelako, eta kontuan izanda eskubidearen edukia handituz joango dela gardentasunari buruzko legea indarrean sartzen denean, batez ere gure inguruan, gardentasunari buruzko euskal legea egiten dutenean, bada testuinguru horretan aztertu eta balioztatu beharko dira, batetik, partikularren eskubidea informazioa eskatzeko, eta, bestetik, eskatutako dokumentazioan jasota dauden datu pertsonalen jabeek duten eskubidea euren datu pertsonalak babestuta egon daitezen.

Azterketaren lehenengo zatian ikusi dugu zer den ***partikularren atzipen eskubidea oro har***, eta Agentzian planteatu dizkiguten arazoak eskubide horrekin lotuta.

Hurrengo zati honetan, berriz, beste honako arazoak ikusiko ditugu: ***Erizaintzako Diplomatuaren Elkargo Ofizialak egindako eskabide bat administrazioan plaza bat betetzen ari diren profil horretako funtzionario publikoen zerrendak atzitu ahal izateko***. Administrazioak eskabidea ezetsi egin zuen, eta adierazi zuen pertsona horien datu pertsonalak babestu egin behar direla. Kasu horretan, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legearen 11.2.a) artikulua eta Osasun Lanbideen Antolamenduari buruzko 44/2003 Legearen 5.2 artikulua ezarritako lege esparrua eta elkar-go profesionalen eginkizunak eta eskumenak aztertu eta gero, atera genuen ondorioa izan zen erizaintzan diplomatutako profesionali buruzko halako datu pertsonalak komunikatzea zilegi dela, datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera.

Agentziak beste era bateko kontsultak ere jaso ditu, esate baterako, ***hildako senideei buruzko datuak atzitzeko eskubidea baliatzeari buruz partikularrek*** egindako kontsultak. Gai hori CN09-044 Irizpenean landu genuen adibidez. Bertan eskatu zuten osasun datuak atzitzeko eskubidea baliatzea, baina datu babesaren ikuspegitik azterketa egin eta gero, kontrol agintaritzek atera dugun ondorioa da (Datuak Ba-

besteko Espainiako Agentziaren eta Madrileko Erkidegoko Datuak Babesteko Agentziaren doktrina kontuan hartuta) ez dagoela eragozpenik hildakoaren senideak hildako senidearen osasun datuak eskuratu ditzan, honako baldintzak betez gero: hildakoak ez badu berariaz adierazita utzi datuak lagatzeko debekua, datu atzipenak hildakoaren intimitatea ez urratzea, kalterik ez egitea parte hartu duten profesionalen ohar subjektiboek, hirugarrenei ere kalterik ez egitea, eta Pazientearen Autonomiari buruzko 41/2002 Legeak ezarritako irizpideak (18.3 artikulua) betetzea.

Beste irizpen garrantzitsua bat da CN11-033 Irizpena, bertan aztertu delako administrazioak duen informazioa atzitzeko eskubidea. Irizpenak aztertzen du **ea udalerrri bateko herritarrek eskubiderik duten udalak epealdi jakin batean emandako obren lizentziak eskuratzeko**. Arazoa ondo kokatzea funtsezkoa da, eta, horretarako, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak zehazten duen sailkapena kontuan hartuta, esan behar da datu pertsonalak lagatzeaz ari garela, hau da, Legearen 3. artikulua dioenaren arabera, "interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea". Agentziak uste du datu horiek lagatzeko eta aldi berean Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa betetzeko, legeren batek babestu behar duela lagapena. Eta, adibidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak ez du babesten, eskatzaileak ez direlako interesdunak, hau da, partikularrek ez dutelako egiaztatu interesdunak direnik; eta zinegotziak ere ez dira, zinegotziak izanez gero, aurreko irizpenetako ondorioen batek balioko zuelako.

Hala eta guztiz ere, Agentziak aurkitu du nahikoa lege gaikuntza Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen 11.2 a) artikuluan eta Lurzuari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean. Horren guzti horren ondorioz, gure irizpidea da datuak komunikatzea zilegi dela, eta ez dagoela datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubiarekin kontrajarrita. Edozelan ere, esan behar dugu eskabidean ez direla jaso behar helburua lortzeko beharrezkoak ez diren datuak. Kasu honetan helburua denez ematen diren lizentziak kontrolatzea, horretarako beharrezkoak diren datuak bakarrik emango dira eta ez gehiago; eta ezingo da eman osoko bilkuran eman direnak baino gehiago.

Agentzian administrazio erregistroei buruzko kontsultak ere izan ditugu, esate baterako, **Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroak** egindako datu pertsonalen lagapenei buruzko bat. Lehengo eta behin datu pertsonalak lagatzeaz ari garela esan behar dugu. Kalifikazio hori dagokio. Izan ere, Erregistroan inskribatuta dauden datuak informazio eskatzaile bati eman behar zaizkio, eta, beraz, publiko egin. Erregistroak kirol taldeei, kirol elkartei eta antzekoei buruzko egintzak erregistratzen ditu, adibidez, taldeak eratu egiten direla edo desagertu. Merezi du aipatzea, garrantzi handia duelako, Erregistroari buruzko arudia aztertu eta gero, ez dugula aurkitu publizitate murriztua egiteko aurreikuspenik, edo publizitate orokorraren eta mugatuaren arteko bereizketarik. Beraz, hasiera batean, esan dezakegu ez dela adostasunik behar informazio horrekin lotutako datu pertsonalak inskribatzeko, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak horretarako gaikuntza ematen duelako. Eta Erregistroaren publizitateak publiko osoa harrapatzen du orokorrean, eta ez dago informazioa eskuratzeko legezko

murritzetarik. Informazio eskabidean eskatutako datuen titularrei ere ez zaie esan behar euren datuak laga egin dituztenik, kirolari buruzko legeak mota horretako informazioa laga daitekeela esaten duelako.

Interes berezia duen beste kontsulta bat ere aurkeztu zuten Agentzian. Eusko Jaurlaritzako Finantza Zuzendaritzak kontsulta bat egin zigun galdetzeko ea **Aurrezki Kutxetako Goi-kargudunen Erregistroa**rekin lotutako informazioa ematerik bazuten unibertsitate irakasle bati, unibertsitate ikerketa bat egiteko. Irizpenaren bidez ebatzi genuen datu horiek lagatzeko (berriro datu pertsonalak lagatzeari buruz ari gara) ezin dela baliatu DBLOren 11.2 e) artikuluko salbuespena. Nahiz eta, DBLOk aurreikusten duen zilegi dela administrazio publikoen artean datuak elkarri lagatzea, ikerketa helburuarekin. Hala ere, kasu honetan zilegi da, baldin eta ikerketa helburuak uzten badu, informazioa disoziatuta ematea, hau da, ezabatu egin beharko dira eman eta bidaltzen den informaziotik pertsona identifikatuei edo identifikagarriei buruzko aipamen guztiak. Bestalde, arreta berezia jarri behar da pertsona identifikagarriaren figuran, ez delako nahikoa izen-abizena ezabatzea; izan ere, konbinaketak eginda pertsona identifikatzea ahalbideratzen duen bestelako informazioa ere ezabatu egin beharko delako, eta horrek esan nahi du arreta handia jarri behar dela era horretako prozeduretan.

Hautaketa prozesuetan prozesuko beste hautagai batzuen informazioa eskuratzeko eskabideei buruz egin ditugun irizpenak hartu ditugu partikularrek informazio administratiboa atzitzeari buruzko atal honen bigarren zatia ren gidalerrotzat.

Atal honetan jaso ditugun bi irizpenetan daude finkatuta datu pertsonalak babestearen esparruan funtsezkoak diren printzipioak. Lehenengo eta behin aipatu behar da onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratzen direnean datu pertsonalak lagatzen direla. CN09-046 Irizpenak kontu hori aztertu zuen, langileen batzordeei eta ordezkariak komunikatu zizkietelako onartuen eta baztertuen zerrendak. Eta irizpenean ateratzen zen ondorioa izan zen datu horiek komunikatzea ez dagoela DBLOren kontra, lege babesa dagoelako. Hala ere, esan behar dugu antzeko datu lagatzeak egin nahi badira, komeni dela alde aurretik aztertzea, argi izan behar delako badagoela lege gaikuntza eta lege gaikuntza berariazkoa dela ere bai.

Kontsulta tipikoa izaten da **hautaketa prozesu batean parte hartzen ari den batek prozesuko gainontzeko parte hartzaileen informazioa eskuratzeko eskabidea egitea**. Horrelako eskaerak maiz egiten dira, eta eskatzaileak badu eskubidea jakiteko zein diren gainontzeko hautagaien emaitzak eta baldintzak prozesuaren barruan, horrela jakin dezakeelako balorazio okerren ondorioz edo prozesuko akatsen ondorioz, kalterik jasan duen. Halakoetan badago datuak lagatzeko gaikuntza ematen duen lege bat: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea. Lege horrek dioenez, pertsona orok du informazioa atzitzeko eskubidea, interesduna bada. Kasu honetan pertsona partikularra eskubide hori baliatzen ari da. Bestalde, halakoetan argi eduki behar da baliatzen den eskubidea ez dela datu pertsonalak babesteko esparruko araudian jasotako eskubide bat, datu pertsonalak babesteko esparruko eskubideak norberaren datu pertsonalak atzitzeko eskubidea

aitortzen duelako. Eta kasu honetan parte hartzaile guztiak dira hautaketa prozesuko interesdunak; beraz, denek dute gainontzeko parte hartzaileei buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea, bai eta prozesuan aurkeztu diren gainontzeko pertsonen titulazioa eta esperientzia jakiteko ere; baina, kontuan izanda, hautaketa prozesuaren emaitzarekin edo prozesuren bilakaera egokiarekin zer ikusia duten datuak baino ezin direla eman. Beraz, kasu honetan atzipen mota hau baliatzeko eskubidea ondo aztertu behar da, eta ikusi ea eskuratu nahi diren datuek garrantzia duten prozesuaren baitan. Bestalde, ez dira emango gehiegizkotzat jotzen diren datuak edo prozesuarekin zer ikusirik ez dutenak, atzipenaren helburuarekin zer ikusia izan behar dutelako.

Azkenik, atal honetako hirugarren zatian hiru irizpen jaso ditugu ***sindikatuiei eta informazioa atzipenari buruz***. Irizpen hauetan azterketaren ardatza izan da ikustea zein motatako datua eskatu duten, eta ea datuak zer ikusirik duen sindikatuak enpresan edo administrazioan burutzen dituzten legezko eginkizunekin. Halakoetan funtsezkoa da sindikatuak burutzen dituzten eginkizunak aztertzea eta elkarrekin lotzea sindikatuen eskumenen gaineko lege-araua eta datu lagatzea. Aztertu dugun kasuan, indarrean dagoen legediak dio langileen batzordeek eta ordezkariak dituzten eginkizunetako batzuk direla langileen lan baldintzak gainbegiratzea eta lan baldintzekin zer ikusi duten alderdi guztien jakitun izatea. Besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren zenbait epai aztertu genituen irizpenetan, sindikatu askatasunerako eskubidea interpretatzen dutenak, eta atera genuen ondorioa izan zen zilegi dela sindikatu ordezkariak jakinaraztea langileekin zer ikusia duten datuak. Hala ere, ondorio horri ñabardura bat egin behar zaio, ez delako zehaztu zein diren komunikatu daitezkeen datuak. Komunikazioa egin behar duen administrazioak aztertu beharko du zein datu eman ditzakeen; eta, horretarako, kasu bakoitzean kontuan izan beharko du zein den bete nahi den helburua. Bide batez, gomendio bat ere egiteko baliatu genuen, jardunbide egoki gisara, eta zera da, datuen titularrak diren pertsonen azaltzea agian datu pertsonalak jendaurrean jarriko direla edo laga egingo direla.

BOSGARREN ALDERDIA: BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEK INFORMAZIO ADMINISTRATIBOA ATZITZEA.

Administrazio espedienteetan dagoen informazioa atzitzeari buruzko zenbait galdera egin dizkigutenez, horien gaineko beste hainbeste irizpen egin ditugu guk ere.

Esate baterako, 2009an galdetu ziguten ea ***Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak informaziorik eman ahal zion polizia***. Hau da, ea eman ahal zion polizia Bizkaian ia urte beteko epealdian indarrean zeuden alokairuei buruzko informazioa. Poliziari datuak lagatzeko, eta datuen titularra den pertsonaren adostasunik gabe lagatzeko, nahitaezkoa izango da poliziaren ikerketa bat egotea datu lagatzearen helburuaren oinarrian; eta poliziak erroldako datuak atzitu behar baditu, badago berariazko lege gaikuntza: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen zazpigarren xedapen gehigarria. Irizpen horretan atera genuen ondorioa zen egia dela lagatzaileak baduela

poliziak egindako eskabidean ageri diren argudioak aztertzeo aukera eta informazio gehiago eskatzeko ere bai, eta horrela jakin ea eskabideak betetzen dituen Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpen honetako aurreikuspenak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak aurretik egindako beste batzuetan finkatutakoak.

Atal honetan jaso dugu **adin txikikoen datu lagatzeen** inguruan sorten den problematika ere. Kasu honetan azterketaren xedea da aztertzea udal batek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lurralde ordezkariari egin beharreko datu lagatzea. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua arautzen du biztanleen udal erroldako datuak lagatzeko bete behar diren baldintzak. Kasu honetan hezkuntzan badago berariazko lege aurreikuspen bat esaten duena hezkuntza administrazioak bermatu behar dituela eskolaratzea eta gurasoek edo tutoreek parte hartzen dutela eskolaratzean eragina duten erabakietan eta ikasleen hezkuntza-prozesuetan. Hori guzti hori Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 71.4 artikuluan dago xedatuta. Edozelan ere, eta datu lagatze hau egiteko baimena ematen duen lege gaikuntza dagoen arren, esan behar dugu bestelako udal fitxategietan dauden datuak lagatzeko, adingabekoen gurasoen edo legezko tutoreen baimena beharko dela, baldin eta datuak adingabekoaren egoera pertsonala edo familia egoera adierazten badute eta goi-mailako segurtasuna behar duten datuak egon badaitezke bertan.

VI ONDORIOAK.

Ondorioen artetik, gure ustez bereziki nabarmentzekoa da Datuak Babesteko Euskal Bulegoak jarrera oso irekia agertu duela beti datuak atzitzeko eskubideari dagokionez eta administrazioak duen informazioa erakustearen alde egon dela. Horren adierazgarri dira bilduma honetan jaso ditugun irizpenak eta gardentasunari buruzko eta administrazio publikoek duten informazioa atzitzeari buruzko gure beste laurogeita hamar edo gehiago irizpen.

Hain zuzen ere, Agentziak inork baino gehiago nahi du datu babesari buruzko legea ondo ulertzea. Sarri ikusten dugu administrazioek oso jarrera ezkorra dutela esku artean duten informazioa emateko orduan, eta horren arrazoia da ez dutela araudia behar bezala interpretatzen. Izan ere, eman beharreko dokumentazioan pertsona baten izen-abizenak agertzea nahiko arrazoi izaten da dokumentaziorik ez emateko, eta informazioa emateko asmorik ez duten administrazioek datu pertsonalak daudela argudiatzen duten eskatzaileari informazioa ez emateko.

Baina, ez da jarrera egokia, eta araudiaren interpretazio okerra dago horren atzean. Datuak babesteko araudiak eskatzen duena da datu pertsonalak bildu edo tratatzen dituen organizazio, enpresa edo erakundeak, datuak tratatzen dituenean, partikularrekiko harremanak legearen arabera esparru juridikoaren baitakoa izan behar duela; eta nahitaezkoa dela datu bilketa egitean partikularri informazioa ematea eta adostasuna eskatzea, eta tratamendua legearen arabera izatea. Gainera, administrazioek

datuak gordetzeko obligazioa dutela kontuan hartuta, organizazioak datuak lagatzeko asmoa badu, legean aurreikusitako printzipioak bete behar ditu nahitaez: datuen titularraren adostasuna beharko du, edo, bestela, datuak lagatzeko baimena ematen duen lege-gaikuntza egon beharko da, datuak laga behar badira.

Administrazio publiko batek datu pertsonalak dituen dokumentazioa badu, eta dokumentazio hori ematen badu, argi dago datu-lagatzeaz ari garela; eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluko definizioaren arabera, datuak lagatzeak esan nahi du “interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”. Edozelan ere, legeak ez du beti debekatzen datuak lagatzea. Baina, debekatu egiten du datuak lagatzea, baldin eta partikularren alde aurreko adostasunik ez badago edo datuak lagatzeko gaikuntza ematen duen legerik ez badago. Eta legea izan behar da, eta ez edozein administrazio arau. Beraz, hori kontuan edukita, onena da lege araubidea kasuz kasu ezartzea, eta aztertzea ea datuak lagatzeko lege bidezko gaikuntzarik dagoen ala ez.

Horretarako, komeni da horretan aditua den erakunde batek egitea azterketa, eta ahal bada, honako ikuspegi biak izatea erakunde horrek: batetik, ikustea herritarrek eskubidea dutela administrazio publikoen esku dagoen informazioa eskuratzeko; eta, bestetik, informazio hori lagatzeko baimena ematen duten berariazko arauak dauden ala ez ikusteko gaitasuna ere izatea.

Gehienetan egon da datuak lagatzea ahalbideratu duen legeren bat, eta halakoetan Agentzia datuak lagatzearen alde agertu da.

Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea indarrean sartzen denean, aldaketak ekarriko ditu, eta indarrean dagoen sistema moldatu edo egokituko du. Eta horixe dio lege honek, hain zuzen ere; agintzen duelako uztartu egin behar direla legea ezartzeko printzipioak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ezartzen dituen irizpideak. Gure esparru autonomikoan ere, laster gardentasunari buruzko lege bat onartuko dutenez, komeni da informazioa eskuratzeko eskubidearen interpretazio eta kontrol organo bat egotea, ikuspegi bikoitz hori duena eta elkarren ondoan ibili behar duten eskubide bi horien ikuspegi bikoitzean oinarrituta interpretatuko duena indarrean dagoen araudia. Benetan uste dugu **Datuak Babesteko Euskal Bulegoak** izan behar duela, eskubide dualtasunaren interpretatzen bidea kreditatutako duen organoa izanda, gardentasunari buruzko arau berria interpretatu eta ezartzeko ardura hartzen duen organoa, bazterrean utzita interpretazioa zailtzen duten organoak, gardentasunari buruzko ikuspegi monokromatikoa dutelako.

Iñaki Pariente de Prada

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria

I.
INFORMAZIOA ATZITZEKO
ESKABIDEAK KONTROL
POLITIKOAREN ESPARRUAN

Udal bateko departamentu desberdinetako datu pertsonalak bere udalkideei lagatzea

Data: 2006-01-31

CN05-022

***“Udalbatzakideek beren karguak betetzeko duten informazioa eskuratzeko eskubidea eta datuak babesteari buruzko araudia, bereziki datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoa eta hura garatzeko araudia, elkarren aurka egon daitezkeela eta,”* Laudioko Udaleko....k egindako kontsultari buruzko txosten juridikoa.**

AURREKARIAK

2005eko azaroaren 4an, Laudioko Udalekok igorritako idatzi bat sartu zen Datuak Babesteko Euskal Bulego honetan, eta bertan gorago aipatutako gaiari buruzko kontsulta bat egiten zuen.

Kontsulta igortzeko idatzi horretan ondokoa zegoen adierazita:

“2005eko irailaren 30ean (Erregistroko 11.582 zk.) Udal honetako zinegotzi batek informazio-eskaera bat egin dio Alkatetza-Lehendakaritzari ondoren azalduko den moduan:

HONAKOA ESKATZEN DU:

Gure eskura ondoko dokumentazioa jartzea

Erroldatuta dauden edo azken bi urteetan erroldatuta egon diren atzeritarrei buruz Udaletxe honek dituen datu guztien kopia osoa eta eguneratua: izen-abizenak, helbidea, nazionalitatea, lan-egoera, familiaren osaketa eta egoera, jasotako gizarte- laguntzak (laguntzak, subsidioak, ordainketa-salbuespenak...) etab.”

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko 2/2004 Legearen 17. artikulua, n) atalean, honako zeregina esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Arestian aipatutako araudiari jarraiki, Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio egindako galderari erantzutea.

IRIZPIDEAK

I

Kontsultan egindako planteamendu zuzenetik erraz ondoriozta daitekeenez, oinarritzko bi eskubideren artean sortu den “aurkakotasunari” erantzun nahi zaio.

Jarraian erantzun hori ematen saiatuko gara eta, horretarako, “lehentasunezko” (Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2005eko ekainaren 1eko Epaian erabiltako hitzak erabiltzearen) oinarritzko eskubidea aukeratzeko bidea ez hartzen ahaleginduko gara; aitzitik, beste bide bat aukeratzeko dugu, interpretaziozkoa eta aurrekoa gainditzen duena, funtsean beren jabeek erabiltzeari kalte egin gabe bi eskubideak harmonizatu edo orekatuko dituen bidea.

II

Zinegotzien informazioa eskuratzeko eskubideari dagokionez, Auzitegi Gorenaren doktrinatik atera daitezkeen elementu nagusitzat har daitezkeenak azalduz has gaitezke ahalegin horietan.

Epai ugari arduratu dira gai honetaz (1988ko ekainaren 27ko, 1998ko maiatzaren 9ko, 1999ko azaroaren 5eko, 2002ko urriaren 11ko, 1989ko uztailaren 19ko, 2000ko azaroaren 17ko, 1995eko maiatzaren 5eko, 1997ko maiatzaren 5eko edo 2000ko martxoaren 14ko Auzitegi Gorenaren epaiak, besteak beste) eta, beraz, horietatik jada finkatutako jurisprudentzia-doktrina bat ondoriozta daiteke.

Ados egon gaitezke zinegotzien informaziorako eskubideari dagokionez doktrina horrek oinarri dituen funtsezko elementuak ondokoak direla esatean:

1.- Informaziorako eskubidea funtsezko elementua da zinegotziak bere gain hartzen duen ordezkaritz-funtzioa betetzean. Ondorioz, informaziorako eskubide hori Espainiako Konstituzioko 23. artikuluan aipatutako parte-hartze politikoaren funtsezko edukia da eta, zehazki, artikuluko horren bigarren puntuarena. Izan ere, konstituzio- arauak bere eraginkortasun guztia galduko luke, kargua betetzea beharrezkoa duen informazioa ukatuz nahierara baldintzatua edo galarazia balitz.

2.- Lege-forma duen eskubidea da. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko (TAOL) 77. artikulua eta, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Lege Jaurbidearen Araudia onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuko, 14., 15. eta 16. artikuluek, Udal bakoitzaren Araudi Organikoak ahaztu gabe, eskubide hori erabiltzeko erregimen juridikoa jasotzen dute.

3.- Erregimen juridiko horren arabera (eta bereziki TAOLeko 77.1 artikulua eta Antolakuntza eta Jarduera Araudiko -AJA- 14.1 artikulua arabera), zinegotzien informaziorako eskubidea zuzenean eta estuki lotuta dago “haren funtzioaren gara-

penarekin,” eta bereziki, TAOLeko 22.2 a) artikulua adierazten duen bezala, “gobernu-organoak kontrolatu eta ikuskatzeko” funtzioekin. Zeregin hori da, “informaziorako eskubidea babesteaz gain, Udalbatzaren Osoko Bilkuran proposatu, eztabaidatu eta erabaki aurrekoak izan behar duten datuak ezagutzeko betebeharra ezartzen duena” (1988ko abenduaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia), “informazio- eskaeraren marea zinegotziek burutu behar duten gobernu-ekintzaren kontrol naturalean baitago” (1988ko ekainaren 27ko Auzitegi Gorenaren epaia).

Beraz, eskura ditzaketen aurrekariak, datuak eta txostenak, gobernu-ekintzaren ikuskapenaren eta kontrolaren bitartez udal-kudeaketan zinegotzi gisa, dituzten funtzioetan sartzen diren gaiak ondo ezagutzen laguntzen dutenak dira, betiere dagokien ikuskapen-helburua aurrekari, datu eta dokumentu horiek ezagututa bakarrik gauza daitekeen neurrian. Gainera, “... Udalbatzak egiaztatu beharko du zinegotziak lortu nahi duen helburua ez dela zinegotzien informaziorako eskubidea informazio horren erabilerak helburutzat bere funtzioa garatzea izatearekin lotzen duena” (1995eko abenduaren 5eko, 1997ko maiatzaren 28ko eta 1998ko maiatzaren 9ko Auzitegi Gorenaren epaiak).

Puntu honetan nahitaez aipatu behar da Kanariar Irletako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren 2003ko azaroaren 24ko Epaia (Las Palmas, Kanaria Handikoa), bere epaia jada aipatu ditugun arrazonamendu berdinetan oinarritzeaz gain, bere gertakari-hipotesian zinegotziek egindako informazio-eskaera “Gizarte Gaietako zinegotziak aipatu bezala irailean eman zituen laguntza-espeditante guztiei” buruzkoa zelako.

4.- Zinegotzien informaziorako eskubideak ere baditu mugak. Muga horiek ere jada aipatu ditugun TAOLeko eta AJAko artikuluetan aurreikusitako erregimen juridikotan jasota daude.

Horrela bada, muga horietako bat, hain zuzen, gorago esandakoaren alderantzizkoa da. Hau da, informaziorako eskubidea zinegotziaren berezko funtzioak betetzeko aitortzen bada, asmoa ez da “informazioa hedatzeko edo jakin-min hutsarengatik nahiz esamesaka aritzeko edo bestelako sasi-xede baterako biltzea” (2003ko apirilaren 24ko Kanaria Handiko Auzitegi Nagusiaren Epaia).

Era berean, “Udalbatzakideei aitortzen zaien eskubide hori erabiltzeak, bai eta hura erabiltzea ukatzen duen erabakiak ere, arrazoitua izan behar dute” (Andaluziako Auzitegi Nagusiaren, Granadako Salaren, 1988ko uztailaren 30eko Epaia), eta zentzu horretan “udaleko gai mugatu eta espezifikoei buruzkoa izan behar du” (2000ko azaroaren 17ko Auzitegi Gorenaren Epaia).

III

Bestalde, Espainiako Konstituzioko 18.1 eta 4. artikuluetan jasotako oinarrizko eskubideei dagokienez (intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea, hurrenez hurren), konstituzio-doktrinan zehar ibilbide zabala egin beharrik izan gabe nahikoa da, lehenari dagokionez, xedatzen duena jada finkatutzat har daitekeela gogora ekartzea:

“Espainiako Konstituzioko 18.1 artikuluan emandako norberaren intimitaterako eskubidea norberaren nortasunari estuki lotutako oinarrizko eskubide bat da eta, inolako zalantzarik gabe, gizabanakoaren duintasunaren ondorio da. Izan ere, Espainiako Konstituzioko 10.1 artikulua “norberarentzat gordetako berezko esparru bat aitortzen eta eskatzen du, besteen ekintzaren eta ezagutzaren aurrean, beharrezkoa baita, gure kulturaren jarraibideen arabera, gizakiaren gutxieneko kalitate- bizitzari eusteko” (Urriaren 14ko Auzitegi Konstituzionalaren 170/1997 Epaia, abenduaren 1eko 231/1988 4. O. , urriaren 17ko 197/1991 3. O., otsailaren 28ko 57/1994, 3. O., maiatzaren 9ko 143/1994 5. O., abenduaren 16ko 207/1996, 6. F, eta azaroaren 8ko 202/1999 2. F, beste askoren artean, eta Konstituzio Auzitegiaren urriaren 18ko 156/1990 Epaia).”

Era berean, konstituzio-agindu horren 4. idatz-zatiari dagokionez, azaroaren 30eko Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 Epaia ondokoa xedatzen du espresuki:

“Datuen babeserako eskubideak datu horiei buruz erabakitzeke boterea bermatzen die norbanakoei. Berme horrek botere publikoei informazio horren iturri bilakatzeko debekua ezartzen die, bai eta informazio hori behar ez bezala lortu edo zabaltzetik ondoriozta daitezkeen arriskuak saihesteko betebeharra ere. Baina norberaren datu pertsonalei buruz erabakitzeke botere horrek ez du inolako baliorik interesdunak ez badaki zein datu diren hirugarren batzuek dituztenak, zeinek dituzten eta zertarako.”

...

Horrela bada, datuak babesteko oinarrizko eskubidea zaintzeko xedea ez da murrizten pertsonaren datu intimoetara bakarrik, aitzitik, beste edozein motatako datuei ere badagokie, hirugarrenek haiek ezagutu edo erabiltzeak jabearen eskubideetan, oinarrizkoak direnetan nahiz besteetan, eragina izan badezake. Izan ere, datuen babeserako eskubidearen helburua ez da norbanakoaren intimitatea bakarrik, horretarako baitago Espainiako Konstituzioko 18.1 artikulua ematen duen babesa, datu pertsonalak baizik.. Ondorioz, datu pertsonal publikoei ere badagokie, publikoak izan arren, edozeinek ezagutzeko modukoak izan arren, ez baitote ihes egiten interesdunak duen erabakitzeke botereari, hark duen datuen babeserako eskubideak hala bermatzen du eta. Gainera, horregatik, datuak pertsonalak izateak ez du esan nahi babesa pertsonaren bizitza pribatuari edo intimoari buruzko datuek bakarrik dutenik, babestutako datuak pertsona hori

identifikatzen edo identifikatzeko aukera ematen duten, hau da, haren ideologiazko, arrazazko, sexuzko, ekonomiako edo bestelako profila osatzeko balio duten guztiak, edota baldintza jakin batzuetan norbanakoarentzat mehatxu bat izan daitekeen beste erabilera baterako balio duten guztiak direla baizik.”

Aurreko jurisprudentzia gogora ekartzea garrantzitsua bada, ez du garrantzi gutxiago, txosten honen helburuetarako, aipatzen ari garen eskubideek batzuetan eta ezarritako baldintzetan izan ditzaketen mugak gogoratzeak.

Hortaz, ez dago sobera Pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentarauak, 1995eko urriaren 24koak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eskubide horri mugak jartzeko aukera aurreikusten duela gogoratzea. Une honetan zehazki zuzentzarako 13.1 artikuluan aurreikusitakoa interesatzen zaigu:

“Europar Batasuneko kideek legezko neurriak hartu ahal izango dituzte 6. artikuluko 1. idatz-zatian, 10. artikuluan, 11. artikuluko 1. idatz-zatian, eta 12. eta 21. artikuluetan aurreikusitako eskubideen helmena mugatzeko, mugatze hori tarteka bada ere c), d) eta e) hizkietan aurreikusitako agintaritzak publikoak betetzearekin lotuta dagoen kontrol-, ikuskapen- edo arautze-funtzioa zaintzeko beharrezko neurria denean.”

6.- Kontrol, ikuskaritza edo araugintzako funtzio hori erlazionatuta dago, nahiz eta noizean behin izan, c), d) eta e) letretan aurreikusitako kasuetan, herri aginpidearekin.”

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara itzuliz, muga horiek zehazteaz ere hau arduratuko da. Eta beraz, honek behin eta berriz xedatuta du ondokoa:

“Halaber Auzitegi honen doktrina da “intimitaterako eskubidea ez dela absolutua, gainerako oinarritzko eskubideak ez diren bezala, eta galdu egin daitekeela konstituzionalki garrantzitsuak diren interesen aurrean, betiere eskubide hark jasango duen murrizketa aurreikusitako legezko helburua lortzeko beharrezkoa bada, hura lortzeko neurrizkoa bada eta eskubidearen funtsezko edukia errespetatzen badu» (Konstituzio Auzitegiaren 57/1994, 6. O., eta 143/1994, 6.OF., Epaia)”

Gorago aipatutako Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 Epaia berak ondokoa ezartzen du zentzu berean:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatzea baimentzeko eskubideak (LOPDko 6. artikulua) inolaz ere ez dakar berekin datu horiek hirugarrenei lagatzea, era berean datu horien babeserako oinarritzko eskubidearen edukia barnean hartzen duen ahalmen espezifiko bat baita. Eta, beraz, datuok biltzea eragin zuten helburuak ez diren beste helburu batzuekin datu horiek tratatzeko hirugarren bati lagatzeak, helburu horiek hasierakoekin bat etortzea gerta daiteke ere, (LOPDko 4.2 artikulua) jabetza eta erabilera berri bat izatea esan nahi du eta ondorioz interesdunaren adostasuna behar du. Ahalmen hori konstituzio-mailako garrantzia duten eskubideak eta ondasunak kontuan hartuta bakarrik muga daiteke

eta, hortaz, justifikatuta egon behar du, neurrizkoa izan behar du eta, gainera, Legeak ezarri behar du, datuen babeserako oinarritzko eskubideak ez baitu beste mugarik onartzen.”

IV

Oinarritzko bi eskubideen mugak horrela zehaztu ondoren eta LOPDko 11.2a) artikulua kontuan hartuta, ondoriozta daiteke TAOLeko 77. artikulua Udaletako zinegotziei datuak lagatzea baimentzen duela eta, oro har, datuen komunikazio hori ez dela 18.4 artikuluan aurreikusitako oinarritzko eskubidearen kontrakoa, lagapen-xede diren datuen titularrei dagokienez.

Halere, kontsultaren edukia aintzat hartuta (*“Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia ezagutu nahi nuke...”*) eta gorago aipatu den gairatzeko interpretazio-ahaleginari erantzun nahirik, erantzunak zinegotziek politikan parte hartzeko duten eskubidea ahalbidetu behar du, funtsean, aldi berean oinarritzkoa den herritarren datu pertsonalen babeserako eskubideari kalterik eragin gabe.

Gure ustez, horretarako, hipotesi zehatz honetan zinegotzi eskatzaileei komunikatutako datuen erabilerak izango dituen xedeekiko egokiak izan behar dutela dioten printzipio orokorra, LOPDko 4. artikularen 1. eta 2. idatz-zatietan ikus daitekeena, ekarri behar dugu hona:

“1. Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legítimoak izan beharko dira.

2. Tratatu beharreko izaera pertsonaleko datuak zein xederekin bildu diren kontuan hartu eta ezin izango dira erabili xede horrekin bateraezinak diren.”

Datu pertsonalen babesari buruzko erregimen juridiko guztiaren sorburu izan den printzipio orokor horren arabera, eta orain eskatzen diren datuen bilketak helburutzat, dagokien prozedurak bideratzeaz gain, espediente horietan udalak izan duen jokabidearen kontrola ahalbidetzea dela kontuan izanik, printzipio hori betetzeko (eta ondorioz komunikazioa datu pertsonalen babesari buruzko araudiari egokitzeko), zinegotzi eskatzaileari edo eskatzaileei komunikatzen zaizkien datuak komunikazio horrek duen helburua betetzeko, hau da, zinegotzi horiek legez esleituta dituzten kontroleko eta ikuskapeneko funtzioak betetzeko egokiak eta neurritzak izan beharko dute.

Bestalde, hori da gai hau landu duen Auzitegi Gorenaren jurisprudentziatik atera daitekeen irtenbidea.

Hala jasota dago Auzitegi Gorenaren 1989ko otsailaren 9ko Epaian:

“Beraz, gaiaren mamiari helduz, prozesuan esku hartu dutenetatik inork ez ditu zalantzan jartzen zinegotziek udalkide gisa dituzten erabaki, kontrolatu eta ikuskatzeko ahalmenak, ezta zeregin horiek betetzeko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 77. artikulua eta Antolakuntza eta Jarduera Araudiko 14. artikulua aitortzen dieten, Udaleko zerbitzuek dituzten eta zinegotzi horien funtzioa betetzeko beharrezkoak diren aurrekari, datu edo informazioak eskuratzeko eskubidea ere; hori guztia Konstituzioko 23.1 artikulua esparrian. Horregatik, konpondu beharreko arazoaren puntu larria da Alkatetzak, errekurso honek aztergai izan duen eskaera ukatzeko eman duen arrazoa: hain zuzen ere, Estatistika Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen printzipioen aplikazioa. Printzipio horietako bat lege-gorputz horretako 4.2 eta 13. artikuluetan jasota dagoen estatistika-sekretuarena da, eta kasu honetan errol-dan jasotako datu pertsonalei dagokienez, intimitaterako oinarritzko eskubidea zaintzera zuzenduta dago.

Azken batean, ikusten dugunez, zinegotziei Konstituzioko 23.1 artikulua aitortzen dien gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen eta herritar guztiei Konstituzioko 18.1 artikulua ematen dien intimitate pertsonalerako eskubidearen arteko mugak zehaztean jarri da arreta.

Toki Erregimeneko Legeriak ez digu erantzun espezifikorik ematen gai honi buruz; izan ere, errolda dokumentu publikoa dela esateak ez digu balio, izaera hori ez baita aitzakia haren eskuragarritasuna bereizi gabea dela eta are gutxiago errolda osatzeko aurrekarien eskuragarritasuna justifikatzeko. Gabezia horren aurrean, zilegi izan liteke kontu zehatz honi buruz Estatistika Funtzio Publikoaren Legean jasotako irizpideak oinarritzat hartzea. Lege horren abiapuntua estatistika-sekretua bermatzeko printzipioa bada ere, sekretu hori estatistika-zerbitzuek informatzaileengandik zuzenean lortutako datu pertsonalak estatistika-helburuak ez direnetarako erabiltzeko debekuan datza (14.3. artikulua), eta estatistikako langile guztiek estatistika-sekretua gordetzeko betebeharra dutela ezartzen du (17. art.). Gainera, 4.4. artikulua xedatzen du, espezialitatearen printzipioa betez, estatistika-zerbitzuei estatistikak egiteko jasotzen dituzten datuak haiek biltzea justifikatu zuten helburuetarako erabil ditzan eska dakiekeela.

Jakina, estatistika-langilearen nozioa ezin da parekatu udal-esparruan zinegotziek beren gain hartzen duten hiritarren ordezkaritzaarekin, baina egia da alkatearen ekintzak onartuz nahiz kontrolatu eta ikuskatuz, zinegotziak legez udal-errol-dan lantzen parte har dezaketela eta, batez ere, errolda osatzen duten udalerriko egoiliarren eta iragaitzazko pertsonen zerrenda errealtatearekin bat datorrela ziurtatzeko. Hortaz, zentzu horretan haien ordezkaritza-funtzioari argi eta garbi erantzuten dio errekurso-egileek errolda eta honen aurrekariak aztertzeko alkateari egin dioten eskaerak, azterketa horren helburu espezifikoak zerrenda errealtatearekin bat datorrela kontrolatzea delako. Bestalde, horrek ez ditu salbuesten, helburu hori bete ondoren dagokien pertsonen intimitaterako eskubi-

*dea urra dezaketen datu pertsonalekiko sekretu-eginbeharrari lotuta geratzetik”
(Azpimarrak gurea dira).*

Luzea izan arren, aipamenak merezi du kontsultan planteatutakoen antzeko arazoak jasotzen dituelako eta, gatazka konpontzeko, gorago jada aipatu ditugun erabaki- elementuak erabiltzen dituelako.

Hortaz, zinegotziei dagozkien “erabaki, kontrolatu eta ikuskatzeko ahalmenak” abiapuntutzat hartuta, “parte-hartze politikorako eskubidearen eta intimitaterako eskubidearen arteko mugak zehaztea” datuen erabilerak dituen “helburuak” oinarritzat hartuta egiten da eta, horrek guztiak, azkenik, han planteatutako errekurtsioa onetsi eta errekurtsioa jarri duten zinegotziek eskatutako informazioa lortzeko duten eskubidea aitortzera garamatza.

Hipotesi zehatz bakoitzerako datu egokiak zein diren behar bezala baloratzek, Bulego honen ustez, zinegotziei politikan parte hartzeko duten eskubidea egoki erabili eta aldi berean funtsean pertsonak duten datu pertsonalen babeserako eskubidea errespetatzeko aukera emango dien oreka-puntu batera hurbiltzea ahalbidetuko luke, neurri handi batean.

Zentzu horretan, baita, zinegotziek emaitza bera inoren izena identifikatzeko beharrik izan gabe lortzeko aukera ere aztertu behar litzateke, LOPDko 11.6 artikulua “disoziazio-prozedura” izendatu duenaz baliatuz, hau da, datu pertsonalak datu disoziatuak lortzeko moduan tratatuz. Datu disoziatuak dira ukitutako pertsona edo interesdun bat identifikatzeko aukerarik ematen ez dutenak.

Dena den, eta amaitzeko klausula gisa, zinegotziek sekretu-eginberrak dutela gogoraz behar da.

V

Halaber, ohartarazi behar da, orain eskatzen diren datuei dagokien udal-jarduerako esparru materialetako batek ezaugarri bereziak dituenez (“gizarte-laguntzak”) eta, alde batetik, eskatzaileak egin nahi duen kontrolaren azken xedea zein den eta, bestetik, lortu nahi dituen datuak zein diren (kontsulta “etab.” batekin amaitzen baita) zehazki ezagutu gabe, ez litzateke arraroa izango eskaera horrek LOPDko 7. artikuluan xedatutakoaren arabera “bereziki babestuta” dauden datu pertsonalen komunikazioa barnean hartzea. Hau da, litekeena da arrazazko jatorriari, erlijioari, osasunari eta baita bizitza sexualari buruzko datuak eskatzea.

Datuei buruzko erregimen juridikoaren azterketa zehatza egiteko unea hau ez bada ere, Bulego honen betebeharra da gutxienez datu horiek adostasuna, komunikazioa, segurtasun-neurriak, disoziazio-premiak, etab. bezalako alderdietan bete behar dituzten lege-aurreikuspen bereziak eta indartuak gogoraraztea.

VI

Azkenik, esan beharra dago ez dagokiola Datuak Babesteko Euskal Bulego honi, Udalari berari baizik, gutxienez ondokoei buruzko balorazio egokiak egitea:

Eskatzaileek beren funtzioak behar bezala betetzeko informazio hori behar duten.

Egindako eskaerak toki-araubideak eskatutako baldintzak betetzen dituen.

Ikuspegi material edo kudeaketako ikuspegi zorrotz batetik, bideragarria den ala ez.

Eskaera hori beste bide batzuetatik betetzeko aukera dagoen ala ez.

ONDORIOAK

1.- Zinegotziek legez esleituta duten ikuskatu eta kontrolatzeko funtzioa betetzeko haiei datu pertsonalak komunikatzeak, behar adinako estaldura du abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoan, Toki Araubideko Oinarrien Legeko 77. artikuluari dagokionez.

2.- Zinegotziek esleituta duten ikuskapen eta kontroleko helburu zehatzarekiko egoiak eta neurrizkoak diren datu pertsonalak komunikatu ahal izango dira.

3.- Datu horiek zeintzuk diren eta eskaeraren baldintzak betetzen diren ala ez baloratzeari horretarako eskumena duten udal-organoei bakarrik dagokie.

4.- Hala dagokionean gauzatzen den datuen komunikazioa segurtasun-gaietan Udalak berak ezarrita dituen protokoloen barruan egingo da (LOPDko 9. eta 20. artikulua, Datu pertsonalak jasotzen dituzten fitxategi automatizatuaren segurtasun-neurriei buruzko araudia onartzen duen ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuari dagokionez).

5.- Dena den, irizpen honetan jasota geratu den bezala, komunikatutako datu pertsonalen hartzaileek LOPDko 10. artikuluan xedatuta dagoen sekretu-eginbeharra bete behar dute.

Batzarkide batek foru aldundiak eta foru enpresa publikoek kontratatutako lan-gileei buruzko informazioa eskuratzea

Data: 2009-06-30

CN09-038

XXXXXko Foru Aldundiko XXXXX-(e)k honako gaiari buruz egindako kontsultaren gaineko irizpena: biltzarkide batek egindako zenbait informazio eskabide.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2009ko ekainaren 3an XXXXXko Foru Aldundiko XXXXX-(e)k bidali-tako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki ho-rren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkian honakoa adierazi zuen:

“Kontsulta honako gertakariari buruzkoa da:

XXXXXko Batzar Nagusietako Mahaiak, maiatzaren 11ko bilkuran, XXXXX-(e)k egindako zenbait dokumentazio-eske onartu ditu izapidetzeko. Honekin batera bidaltzen dizkizut eskabideak. Hona hemen eskaeren erregistro-zenbakiak: 810, 811, 812, 813, 814, 815, 816, 817, 818, 819, 820, 821, 822, 823, 824, 825, 826, 827, 828, 829, 830, 831, 832, 833, 834, 835, 836, 837, 838, 839, 840, 841 eta 842.

XXXXXko Foru Aldundiko sailek foru enpresa publikoek kontratatutako per-tsonalari buruzko informazio-eskea da.

Informazio-eskaera hori bi erakundeen arteko datu pertsonalen komunikazioa edo datu-lagatzea denez, eta titularren adostasunik ez dagoenez; eta kontuan hartuta, datu horiek lagatzeko, bermea erabatekoa izan behar dela, eta jakinik cu-rriculum vitaeetako datuak lagatzean Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren irizpideak urratu daitezkeela, batez ere, datu-lagatze batek bete behar dituen premiazkotasunaren irizpidea, egokitasun irizpidea eta gehiegizko tratamenduaren irizpidea (datuen kalitatea).

Datu-babesaren arloko irizpide juridiko hobeak eskatu nahi dugu, jarraibide egokiak izateko egin dizkiguten eskaerei erantzuteko eta aurrerantzean XXXXXko Batzar Nagusiek XXXXXko Foru Aldundiari egin ahal dizkiotenei ere erantzun ahal izateko.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Ba-besteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 arti-kuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta-idazkian eskatzen da Datuak Babesteko Euskal Bulegoak balioko jarraibide bat emateko, Batzar Nagusiek egiten dituzten informazio eskaerei erantzuteko balio duena.

Gure ustez, “jarraibide” terminoa egokia da, ezen Bulegoak hori baino ezin baitu egin. Izan ere, Bulegoak ez du zertan jakin Batzar Nagusiek egindako galdera zehatzak zein diren eta ez du zertan eman galdera horietako bakoitzari dagokion erantzuna eta ez du zertan esan ze informazio helarazi behar den Batzar Nagusietara.

Aldundiak eskatutako jarraibidea ematen saiatuko gara, eta, horretarako, informazio eskaera zein esparrutan egin den hartu behar da kontuan; eta esan behar da botere exekutiboaren eta legegilearen arteko harremanen esparrukoa dela. Zehatzago esanda, plantetau zaigun kasuan informazio/dokumentazio eskea botere legegileak exekutiboa kontrolatzeko duen eginkizunaren esparruan kokatu behar da. Beraz, horretaz jardungo dugu lehendabizi.

Zentzu horretan, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere, eman izan du bere iritzia botere exekutibotik zenbait parlamenturi egindako datu lagatzeei buruz.

Kontrol agintaritza biek esandakoa kontuan hartuta, datu pertsonalak babestearen ikuspuntutik hurbilduko gara auzi honetara; izan ere, ikuspuntu horretatik begiratzuz gero, kontsulta-egileari eskatzen diotena datu-komunikaziotzat edo datu-lagatzetzat jo behar baita -hau da, interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea [DBLOren 3 i) artikulua eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 3 h) artikulua]-. Beraz, ezinbestean ekarri behar da gogora DBLOren 11.2a) artikulua; izan ere, artikulua horren arabera, datu pertsonalak lagatzeko, datuen lagapena lege batek baimenduta badago, ez delako beharko datuon titularraren adostasunik.

Hori horrela izanik, eskatutako jarraibidea landu ahal izateko, egin behar dena da ea datu-lagatzea baimentzen duen legerik dagoen ala ez egiaztatu. Eta, zentzu horretan XXXXXko Batzar Nagusien Erregelamenduko 13.1 artikulua aipatu behar da. Hona hemen artikulua horrek dioena:

“Batzarkideek, jagokezan egitekoak ahalik eta ondeen bete ahal izateko, Foru Aldundiaren esku egon daitezcan zehaztasun, argipide eta agiriak eskatu lekiez. Eskabideok idatziz egin beharko dira, eskegilearen Batzarkide-Taldea ekintza horren jakitun dala adierazoz eskabidean.”

XXXXXko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 1987/3. Foru Arauaren 7 c) artikulua honako xedatzen du:

“Batzar Nagusiei hauexek dagozkie:

c) Foru Aldundiaren iharduketa kontrolatu eta sakatzea, honetarako informazio egokia izango dutela, xede horiek betetzeko.”

Foru Arauaren 47. artikulua honakoa xedatzen du:

“Foru Aldundiak eta bere kideek, Batzar Nagusien Erregelamenduak ezar ditzan arauen kalterik gabe, honakook egin beharko dituzte:

c) Batzar Nagusiei, behar ditzaten informazioa eta laguntza ematea.”

Esandako guztiak kontuan hartuta eta DBLOren 11.2 a) artikulua ikuspuntutik begiratuta, zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea, izaera orokorrarekin bada ere, biltzarkide batek Gobernuari egindako dokumentazio. Datu-lagatzeei legezketasuna honako arau hauek ematen diete izaera orokorrarekin eta DBLOren 11.2 a) artikuluan xedatutako baldintzekin: Batzar Nagusietako Erregelamenduak (alde batera utzita ondorio haue-tarako legebiltzarretako erregelamenduek duten izaera berezia: “lege indarra duten arauak dira zentzu materialean” hala xedatzen baitu “Konstituzio Auzitegiak) eta o-tsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak.

Ondorio horretara heldu dira bai Datuak Babesteko Espainiako Agentzia bai Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, goian aipatutako txosten eta irizpenetan.

II

Beste alde batetik, ordea, Bulego honek dituen eginkizunetatik garrantzitsuena da datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea behar bezala babesten dela zain-tzea. Baina, ezin da alde batera utzi, hau bezalako kasuetan gertatzen dena, hau da, eskubide horretaz gain, beste eskubideren bat ere badagoela tartean. Beraz, ezin gara erantzuten ahalegindu, tartean dauden gainontzeko eskubideak kontua hartu gabe.

Argi dago legebiltzarkidea Konstituzioaren 23.2 artikuluan aurreikusitako oinarritzko es-kubideaz balitu zela galdera egin zuenean. Eskubide hori legez eratuta dago eta Kon-s-tituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan aztertu du. Konstituzio Auzitegiak eskubide

horren gainean egindako doktrina kontuan hartuta, kasu honetarako interesekoena azpimarratu nahi dugu:

“... parlamentuko kideen aldeko norbanakoen eskubide hau sortzen da... eta eskubide honi esker administrazioari informazioa eskatu ahal izango zaio, beti ere Erregelamenduak ezartzen duen eran eta betekizunekin, ... eta eskubidea diputatu karguaren estatusarekin batera datorrenez, Konstituzioaren 23.2 artikulua bermatzen duen oinarritzko eskubidean txertatzen da eta haren zati bihurtzen da (irailaren 20ko 161/1988 KAE).”

Urriaren 15eko 203/2001 KAEk ere honakoa dio:

“Konstituzioaren 23.2 artikulutik datorren eskubide horrek administrazio publikoari informazio jakin bat eskatzeko eta informazioa jasotzeko eskubideak hartzen ditu bere baitan.”

Era berean, lehengo epaiak honakoa xedatzen du:

“Botere publikoek ezin dute eskubide konstituzionalik urratu haien eskumenez baliatzean baina, hala ere, administrazioek, legebiltzarkideen informazio-eskeak jasotzen dituztenean, nahitaez bete beharko dituzte kasuan-kasuan hiru-garrenen eskubide konstituzionalak babesten dituzten arauak, baldin eta dena delako gaian kaltetuak badira.”

Gauzak horrela, oinarritzko bi eskubide aintzat hartzea eskatzen duen kasu bat da aztertu behar duguna. Eta Bulegoak uste du bi eskubideen arteko harremanak ez direla gatazkatsuak izan behar, eta ez dela bata bestearen gainetik jarri behar, kontrara baizik, bien arteko oreka eta neurritasuna bilatu behar dela; izan ere, jurisprudentzia konstituzionalak etengabe baitio oinarritzko eskubideak ez direla erabatekoak.

“...eta Konstituzioaren arabera garrantzi handia duten zenbait interes haien gainetik jar daitezke, lortu nahi den helbururako eskubidea murriztea ezinbestekoa bada, proportzionala bada, eta eskubidearen funtsezko edukia ez badu urratzen» (otsailaren 28ko 57/1994 KAE, 6. arrazoibidea; maiatzaren 9ko 143/1994 KAE, 6. arrazoibidea; apirilaren 10eko 98/2000 KAE, 5. arrazoibidea; uztailaren 10eko 186/2000 KAE, 5. arrazoibidea; uztailaren 2ko 156/2001 KAE, 4. arrazoibidea) (apirilaren 3ko 70/2002 KAE, 10. arrazoibidea).”

Horrela, auzia balitz ukitutako pertsonaren datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidean esku-hartzerik ba ote dagoen ala ez argitzea, esan beharko litzateke, goian aipatu dugun jurisprudentzia guztia kontuan hartuta, egon badagoela eskubidean esku-hartzerik egitea, era abstraktuan behintzat, eta esku-hartzeak baduela hura babesten eta baimentzen duten behar besteko lege-babesa. Bulegoaren iritziz, Batzar Nagusien Erregelamenduak eta 3/1987 Foru Arauak emango liokete esku-hartzeari lege-babesa.

Hala ere, begi bistakoa da jakinarazi behar diren datuen proportzionaltasuna baloratzea ez dela Bulego honen eginkizuna, Bulegoak hori egingo balu, botere betearazlearen eta legegilearen arteko harremanetan esku hartzen arituko litzatekeelako oso era bidegabean eta ezin justifikatzeko moduan.

Beraz, Bulegoa bat dator Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren tesiarekin, hau da, antzeko kasu batean 327/2005 irizpenean adierazi zuenarekin. Hona hemen:

“...jakinarazi behar diren datuen proportzionaltasuna baloratzea ez dela Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eginkizuna”.

III

Goian deskribatutako esparru horren baitan saiatu behar dugu topatzen alderdi bien-tzat baliokoa izan daitekeen eta jokoan dauden oinarritzko bi eskubideak asebetetzeko egokia izan daitekeen jarraibideren bat.

Erantzuna emateko, ordea, bestelako arau-esparru batetik abiatu behar da, ez datu-babesaren arau-esparrutik.

Bulegoak datu-babesaren ikuspuntutik jardun dezakeenez, gehienez ere egin dezakeena da jarraibideak topatzen laguntzea, baina datu pertsonalen babesaren ikuspuntutik indarrean dauden oinarritzko eskubideak gogoraraziz. Datu-komunikazioari buruzko irizpideak DBLOren II. tituluan daude jasota. Bestalde, irizpide horiek kasu zehatz bati nola ezarri erabakitzea, tartean dauden bi erakundeen eginkizuna da.

Zentzu horretan, berretsi egin behar dugu goian ateratako ondorioa -orokorra izanik, kasuan kasu zehaztu egin beharko litzateke-, eta, beraz, esan behar da DBLOren 11.2 a) artikulua babesten duela datu-komunikazioa, eta Batzar Nagusien Erregelamenduak eta aipatu ditugun foru arauak baimentzen dutela.

Hala ere, Bulegoak gogora ekarri behar du -beti ere auzi honetan interesdunak diren bi aldeei zor zaien begirunearekin eta laguntzeko asmo hutsarekin- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko legearen 4. artikuluan xedatutako datuen kalitatearen printzipioa bete egin behar dela.

Kezkatuta gaude ohikoa delako -eta hau guzti hau batzarkideei eta gobernuari zor zaion errespetuekin eta zuhurtzia guztiekin diogu-, Bulegoan maiz ikusi baitugu, datuak eskatu eta eskatutako datu horiek komunikatu izan direla goiko printzipioa behar bezala kontuan hartu gabe.

Hona hemen legeak printzipioaz dioena:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.”

Bulegoak gaine-gainetik baino ezin du jakin zein den informazio-eskea egiten dutenen helburua. Are gehiago, ezin dio ezer aldatu, zuzendu, gehitu edo kendu informazio-eskeari, ez eta, informazioa bidali aurretik, gobernua egin behar duen balioespenari ere.

Baina esan beharrean gaude informazio-eskeak era zehatzagoan eginez gero, berdin-berdin gauzatuko litzatekeela informazio-eskearen helburua, datuen titularren oinarritzko eskubideari batere kalterik egin gabe.

Bulegoaren iritziz, badago jokatzeko modu bat oso garbia, oinarritzko eskubidea kalteztzen ez duena. Modu hori DBLOren 11.6 artikuluan dago xedatuta. Horren arabera:

“Komunikazioa egin aurretik disoziazio-prozeduraren bat egin bada, ez da aplikatuko aurreko paragrafoetan ezarritakoa.”

Esan behar dugu datu disoziatuek ez dutela ezelako eragozpenik datu babesaren ikuspuntutik, eta Bulegoak uste du maiz disoziatutako datuen bidez berdin-berdin lor daitezkeela pertsona identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datuen bidez lor daitezkeen helburu berak.

Horretaz gain, azpimarratu behar da printzipio horixe bera 3/1987 Foru Arauaren 7 c) artikuluan ere jasota dagoela, berariaz aipatzen dituelako “informazio egokia” eta “xedeak”.

Beste alde batetik, Bulegoa seguru dago datuak lagatzen dituen DBLOren 9. artikulua eta DBLO garatzen duen Erregelamenduak ezartzen dituzten segurtasun arloko betebeharren jakitun dela eta informazio eskatzaileak ere badakiela zein diren bere betebeharrak eta zein esparrutan erabil dezakeen informazioa. Baina hala ere, Bulegoak uste du ez datorrela gaizki betebeharrak horiek gogoraraztea, eta horretarako, DBLOren II. Tituluan azalduta dauden eta kasu honetan aplikagarri diren datu-babesari buruzko printzipio nagusiak aipatu nahi ditu labur-labur.

IV

Gutxi gehiago du, beraz, esateko Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.

Hala ere, goian esan bezala, laguntzeko asmoz, eta tartean dauden organoek har ditzaketen erabakiei zor zaien begirune guztiarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aditzera eman nahi du -eta goragoko paragrafoetan ere esana du- organo edo erakunde horientzat lagungarriago izan daitezkeela datu-babesarekin zerikusirik ez duen beste esparru bat.

Beraz, Datuak babesteko Espainiako Agentziaren 372/2005 eta 267/2008 txostenetatik transkribatu dugun paragrafoa kontuan hartuta, kontrol agintaritzek ez badute erabakiak hartzeko ahalmenik, horrek esan nahi du botere legegilearen eta exekutiboaren arteko harremanen esparruan bilatu behar dela nahitaez konponbidea.

Batzar Nagusien Erregelamenduak aurreikusita du informazioa eskatzeko eta bidaltzeko prozedura, 13. artikuluaaren bigarren paragrafoan.

“Eskabidea Batzar Nagusietako Lehendakariari egingo jako, Foru Aldundiari bialdu deion; Aldundiak gehien jota hogeita hamar eguneko epe barruan erantzun beharko dau, edo, epe berean, erantzutea eragotzi dagien legeetan oinarrituriko arrazoiak idatziz adierazo.”

Baina artikulua horrek xedatzen duen hori Konstituzio Auzitegiak antzeko egoeretarako eman duen interpretazioarekin osatu behar da.

Ez dagoenez beste manurik, gogora ekarri behar dugu Erregelamenduaren 139.2 artikulua dioena, nahiz eta galderei buruz izan:

“Foru Aldundiak erantzuna epe horren barruan bialdu ezean, Batzar Nagusietako Lehendakariak, eskegileak eskatuta, jagokon Batzordearen hurrengo saioko Gai-Zerrendan sartu daitela aginduko dau, ahozko erantzuneskeen bideraketea izan dagian. Foru Aldundiari erabagi horren barri emongo jako.”

Agerian jarri nahi dena da, eta hori da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ondorioa, ukitutako bi eskubideen arteko oreka erdiesteko modurik egokiena dela legebiltzarraren egoitzan bertan planteatzea kasu bakoitza.

Beste organo legegile batzuetako beste erregelamendu batzuk ere konponbide horixe bera hartu dute, eta gure iritziz konponbide egokia da. Hala egin dute Gipuzkoako Biltzar Nagusiek eta Eusko Legebiltzarrak ere 2008ko abenduko Erregelamenduan.

Hona hemen erregelamendu horren 11. artikuluko 3. eta 4. artikuluek diotena:

“Eskatutako dokumentazioaren izaeratik edo indarrean dauden arauengatik ezin baldin bada dokumentazioaren kopiarik bidali, Administrazioak, horren orde, administrazio-egoitzetara sartzeko aukera eman ahal izango dio legebiltzarkideari. Halakoetan, legebiltzarkideak egoki iritzitako oharra hartu ahal izango ditu. Eskatzen diren dokumentuak teknikoki oso konplexuak direnean, aztergaian adituak diren laguntzaileak eraman ahal izango ditu legebiltzarkideak, betiere Legebiltzarrean egiaztatuta badago legebiltzarkidearen legebiltzartaldearen aholkulari direla.

Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumenta-

zioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikulua honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurlearitzaren erabakiarekin bat dato-rra adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arazoak azalduz, edo Jaurlearitzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlearitzari. Jaurlearitzak berriro ukatzen baldin badu, lehendakariak horren berri eman beharko dio Legebiltzarrari hurrengo osoko bilkuran.”

ONDORIOA

Eskatutako datu-komunikazioa ez dago datu pertsonalak babesteari buruzko araudiari kontrajarrita, irizpen honetan adierazitako baldintzen arabera.

Toki administrazio bateko talde politiko batek espediente bat eskuratzea

Data: 2009-09-11

CN09-040

XXXXXXko Foru Aldundiko XXXXX-(e)k Batzar Nagusiek helarazitako espediente-eskaera bati buruz egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2009ko ekainaren 12an XXXXXko Foru Aldundiko XXXXX-(e)k bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkian honakoa adierazi zuen:

“Toki administrazio bat espediente jakin bat izapidetzen ari bada, eta hirugarren bat edo administratu bat interesduna izanik, Batzar Nagusiek espedientea eskatzen badute, nahitaez eman behar zaio espedientea eskaera egin duen talde politikoa?”

Hala bada, zein baldintza edo betekizun bete behar da?

Eta espedientea bukatuta badago?”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) lettrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultari erantzun arrazoitua eman aurretik, Bulegoak badu berariaz aipatu nahi duen alderdi bat, lagungarria izan daitekeelako erantzunak izan dezakeen helmena finkatzeko.

Hain zuzen ere, hasteko, azpimarratu behar da kontsulta nola egin den kontuan hartuz gero (labur eta zehaztasunik gabe), Datuak Babesteko Euskal Bulegoak zuhurtzia handiz erantzun behar duela, gerta daitekeelako eskatu zaionaz ondo ez jabetzea. Izan ere, kontsulta-idazkiak ez du aipatzen zein “toki erakundez” ari den, zein espediente motaz ari den edo zein den espedientea eskatzeko arrazoia. Beraz, esan bezala, Bulegoak zuhurtzia handiz jokatu behar du, ematen duen erantzuna era batera edo bestera uler daitekeelako, kasuaren arabera.

Horretaz gain, kontsulta-idazkiak aipatzen duen obligazioari buruz (“... *nahitaez eman behar zaio espedientea* ...”) esan behar da Bulegoak ez dakiela obligazio hori dagoen ala ez. Bulegoak asko jota esan dezakeena da ea datu pertsonalen balizko komunikazioa DBLOren araberkoa den ala ez. Baina, ezin du esan “obligaziorik” dagoen ala ez. Zentzu horretan, Lege Organikoan ez dago aurreikusita datu-komunikazioa egiteko obligaziorik dagoenik: Lege Organikoak egiten duena da finkatu zein kasutan ez duen oinarrizko eskubidea urratzen datu-komunikazioak.

II

Aurreko horrek guztiak eramaten gaitu, gure ustez, kasu honetako ardatza den alderdira. Izan ere, datuak komunikatzeko obligazioa (edo debekua) beste araudiren batean egongo da, baina ez datu-babesaren arloko araudian. Eta, hain zuzen ere, araudi hori aztertzen ari garen kasu konkretuari aplikatuz gero, jakin ahal izango dugu datu-komunikazioa oinarrizko eskubideari egokitzen zaion ala ez.

Beraz, erantzun egokia eman ahal izateko, kontuan hartu behar da informazio eskaera oso esparru berezian egiten dela, botere exekutiboaren eta legegilearen (edo beste “agintaritza publiko” batzuen) arteko harremanen esparruan egin baita. Aztertzen ari garen kasuan informazioa/dokumentazioa eskatuz egin da eskea (hori esan nahi duela ematen du idazkiko “*espedientea eskatzen badute*” adierazpenak, eta horri helduko diogu lehendabizi.

Zentzu horretan, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eman izan dute botere exekutibotik zenbait parlamenturi egindako datu-lagatzeei buruz duten iritzia.

Kontrol agintaritza biek esandakoa kontuan hartuta, datu pertsonalak babestearen ikuspuntutik hurbilduko gara auzi honetara; izan ere, ikuspuntu horretatik begiratzuz gero, eskatzen dena datu-komunikaziotzat edo datu-lagatzetzat jo behar baita -hau da, interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea (DBLOren 3 i) artikulua eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 3 h) artikulua)-. Beraz, ezinbestean ekarri behar da gogora DBLOren 11,2a) artikulua; artikulua horren arabera, datu pertsonalak lagatzeko, datuen lagapena lege batek baimenduta badago, ez delako beharko datuon titularraren adostasunik.

Hori horrela izanik, eskatutako jarraibidea landu ahal izateko, egin behar dena da egiaztatu ea datu-lagatzea baimentzen duen legerik dagoen ala ez. Eta, zentzu horretan XXXXXko Batzar Nagusien Erregelamenduko 13. artikuluko 1. eta 3. paragrafoak aipatu behar dira. Hona hemen artikuluko horiek diotena:

“Batzarkideek, jagokezan egitekoak ahalik eta ondeen bete ahal izateko, Foru Aldundiaren esku egon daitezcan zehaztasun, argipide eta agiriak eskatu leikiez. Eskabideok idatziz egin beharko dira, eskegilearen Batzarkide-Taldea ekintza horren jakitun dala adierazoz eskabidean.”

Era berean, Batzarkideek, XXXXX (e)ko Jatorrizko Lurraldean zeozelango eragina izan leikien gaiak dirala eritxita, gaiok buruzko agiriak eskatu leikiez Autonomia-Elkarteko Jaurtze-Sailei zein bestelako herri-agintariei, eskaria Batzar Nagusietako Lehendakariaren bitartez egingo jakela.”

XXXXX-(e)ko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 1987/3. Foru Arauaren 7 c) artikulua honako xedatzen du:

“Batzar Nagusiei hauexek dagozkie:

c) Foru Aldundiaren iharduketa kontrolatu eta sakatzea, honetarako informazio egokia izango dutela, xede horiek betetzeko.”

Foru Arauaren 47. artikulua honakoa xedatzen du:

“Foru Aldundiak eta bere kideek, Batzar Nagusien Erregelamenduak ezar ditzan arauen kalterik gabe, honakook egin beharko dituzte:

c) Batzar Nagusiei, behar ditzaten informazioa eta laguntza ematea” .

Esandako guztiak kontuan hartuta eta DBLOren 11.2 a) artikulua ikuspuntutik abiatuta, zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea, izaera orokorrarekin bada ere, biltzarkide batek Gobernuari egindako dokumentazio eske baten ondorioz datu pertsonalak lagatzea legezkoa dela; Batzar Nagusietako Erregelamenduak (alde batera utzita ondorio hauek tarako legebiltzarretako erregelamenduek duten izaera berezia: “lege indarra duen arauak dira zentzu materialean”; hala dela xedatzen du “Konstituzio Auzitegiak), eta otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak ematen die datu-lagatzeei lege-baimena izaera orokorrarekin eta DBLOren 11.2 a) artikulua xedatzen dituen baldintzen arabera.

Ondorio horretara heldu dira bai Datuak Babesteko Espainiako Agentzia bai Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, goian aipatutako txosten eta irizpenetan.

III

Beste alde batetik, ordea, Bulego honek dituen eginkizunetatik garrantzitsuena da datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea behar bezala babesten dela zaintzea. Baina, ezin da alde batera utzi, hau bezalako kasuetan gertatzen dena, hau da, eskubide horretaz gain, beste eskubideren bat ere badagoela tartean. Beraz, ezin gara erantzuten ahalegindu tartean dauden gainontzeko eskubideak kontua hartu gabe.

Argi dago legebiltzar taldea, eskabidea eginez, Konstituzioaren 23.2 artikuluan aurreikusitako oinarritzko eskubideaz balitu zela galdera egin zuenean. Eskubide hori legez eratuta dago eta Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan aztertu du. Konstituzio Auzitegiak eskubide horren gainean egindako doktrina kontuan hartuta, kasu honetarako interesekoena azpimarratu nahi dugu:

“... parlamentuko kideen aldeko norbanakoen eskubide hau sortzen da... eta eskubide honi esker administrazioari informazioa eskatu ahal izango zaio, beti ere Erregelamenduak ezartzen duen eran eta betekizunekin, ... eta eskubidea diputatu karguaren estatusarekin batera datorrenez, Konstituzioaren 23.2 artikulua bermatzen duen oinarritzko eskubidean txertatzen da eta haren zati bihurtzen da (irailaren 20ko 161/1988 KAE).”

Urriaren 15eko 203/2001 KAEk ere honakoa dio:

“Konstituzioaren 23.2 artikulutik datorren eskubide horrek administrazio publikoei informazio jakin bat eskatzeko eta informazioa jasotzeko eskubideak hartzen ditu bere baitan.”

Era berean, lehengo epaiak honakoa xedatzen du:

“Botere publikoek ezin dute eskubide konstituzionalik urratu haien eskumenez baliatzean baina, hala ere, administrazioek, legebiltzarkideen informazio eskeak jasotzen dituztenean, nahitaez bete beharko dituzte kasuan-kasuan hirugarrenen eskubide konstituzionalak babesten dituzten arauak, baldin eta dena delako gaian kaltetuak badira.”

Gauzak horrela, oinarritzko bi eskubide aintzat hartzea eskatzen duen kasu bat da aztertu behar duguna. Eta Bulegoak uste du bi eskubideen arteko harremanak ez direla gatazkatsuak izan behar, eta ez dela bata bestearen gainetik jarri behar, kontrara baizik, bien arteko oreka eta neurritasuna bilatu behar dela; izan ere, jurisprudentzia konstituzionalak etengabe baitio oinarritzko eskubideak ez direla erabatekoak.

“...eta Konstituzioaren arabera garrantzi handia duten zenbait interes haien gainetik jar daitezke, lortu nahi den helbururako eskubidea murriztea ezinbestekoa bada, proportzionala bada, eta eskubidearen funtsezko edukia ez badu urratzen» (otsailaren 28ko 57/1994 KAE, 6. arrazoibidea; maiatzaren 9ko 143/1994 KAE,

6. arrazoibidea; apirilaren 10eko 98/2000 KAE, 5. arrazoibidea; uztailaren 10eko 186/2000 KAE, 5. arrazoibidea; uztailaren 2ko 156/2001 KAE, 4. arrazoibidea) (apirilaren 3ko 70/2002 KAE, 10. Arrazoibidea.”

Horrela, auzia balitz ukitutako pertsonaren datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidean esku-hartzerik ba ote dagoen ala ez argitzea, esan beharko litzateke, goian aipatu dugun jurisprudentzia guztia kontuan hartuta, egon badagoela eskubidean esku-hartzerik egitea, era abstraktuan behintzat, eta esku-hartzeak baduela babesten eta baimentzen duten behar besteko lege-babesa. Bulegoaren iritziz, Batzar Nagusien Erregelamenduak eta 3/1987 Foru Arauak emango liokete esku-hartzeari lege-babesa.

Hala ere, begi bistakoa da jakinarazi behar diren datuen proportzionaltasuna baloratzea ez dela Bulego honen eginkizuna, Bulegoak hori egingo balu, botere betearazlearen eta legegilearen arteko harremanetan esku hartzen arituko litzatekeelako oso era bidegabean eta ezin justifikatuzko moduan.

Beraz, Bulegoa bat dator Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren tesiarekin, hau da, antzeko kasu batean 327/2005 irizpenean adierazi zuenarekin. Hona hemen:

“... Jakinarazi behar diren datuen proportzionaltasuna baloratzea ez dela Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eginkizuna.”

IV

Goian deskribatutako esparru horren baitan saiatu behar dugu topatzen alderdi bientzat baliokoa izan daitekeen eta jokoan dauden oinarritzko bi eskubideak asebetetzeko egokia izan daitekeen jarraibideren bat.

Erantzuna emateko, ordea, bestelako arau-esparru batetik abiatu behar da, ez datu-babesaren arau-esparrutik.

Bulegoak datu-babesaren ikuspuntutik jardun dezakeenez, gehienez ere egin jarraibideak topatzen lagundu dezake, baina datu pertsonalen babesaren ikuspuntutik indarrean dauden oinarritzko eskubideak gogoraraziz. Datu-komunikazioari buruzko irizpi-deak DBLOren II. tituluaren daude jasota. Baina, irizpide horiek kasu zehatz bati nola ezarri erabakitzea, tartean dauden bi erakundearen eginkizuna da.

Zentzu horretan, berretsi egin behar dugu goian ateratako ondorioa -orokorra izanik, kasuan kasu zehaztu egin beharko litzateke-, eta, beraz, esan behar da DBLOren 11.2 a) artikulua babesten duela datu-komunikazioa, eta Batzar Nagusien Erregelamenduak eta aipatu ditugun foru arauak baimentzen dutela.

Hala ere, Bulegoak gogora ekarri behar du -beti ere auzi honetan interesdunak diren bi aldeei zor zaien begirunearekin eta laguntzeko asmo hutsarekin- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko legearen 4. artikuluan xedatutako datuen kalitatearen printzipioa bete egin behar dela.

Kezkatuta gaude ohikoa delako -eta hau guzti hau batzarkideei eta gobernuari zor zaion errespeturekin eta zuhurtzia guztiekin diogu-, Bulegoan maiz ikusi baitugu, datuak eskatu eta komunikatzen direla goiko printzipioa behar bezala kontuan hartu gabe.

Hona hemen legeak printzipioaz dioena:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.”

Bulegoak gaine-gainetik baino ezin du jakin zein den informazio-eskea egiten dutenen helburua. Are gehiago, ezin dio ezer aldatu, zuzendu, gehitu edo kendu informazio eskeari, ez eta, informazioa bidali aurretik, gobernuak egin behar duen balioespenari ere.

Baina esan beharrean gaude informazio-eskeak era zehatzagoan eginez gero, berdin-berdin gauzatuko litzatekeela informazio eskearen helburua, datuen titularren oinarritzko eskubideari batere kalterik egin gabe.

Bulegoaren iritziz, badago jokatzeko modu bat oso garbia, oinarritzko eskubidea kaltezen ez duena. Modu hori DBLOren 11.6 artikuluan dago xedatuta. Horren arabera:

“Komunikazioa egin aurretik disoziazio-prozeduraren bat egin bada, ez da aplikatuko aurreko paragrafoetan ezarritakoa.”

Esan behar dugu datu disoziatuek ez dutela ezelako eragozpenik datu babesaren ikuspuntutik, eta Bulegoak uste du askotan disoziatutako datuen bidez berdin-berdin lor daitezkeela pertsona identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datuen bidez lor daitezkeen helburu berak.

Horretaz gain, azpimarratu behar da printzipio horixe bera 3/1987 Foru Arauaren 7 c) artikuluan ere jasota dagoela, berariaz aipatzen dituelako “informazio egokia” eta “xedeak”.

Beste alde batetik, Bulegoa seguru dago datuak lagatzen dituen DBLOren 9. artikulua eta DBLO garatzen duen Erregelamenduak ezartzen dituzten segurtasun arloko betebeharren jakitun dela eta informazio eskatzaileak ere badakiela zein diren bere betebeharrak eta zein esparrutan erabil dezakeen informazioa. Baina hala ere, Bulegoak uste du ez datorrela gaizki betebeharrak horiek gogoraraztea, eta horretarako, DBLOren II. Tituluan azalduta dauden eta kasu honetan aplikagarri diren datu-babesari buruzko printzipio nagusiak aipatu nahi ditu labur-labur.

V

Gutxi gehiago du, beraz, esateko Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.

Hala ere, goian esan bezala, laguntzeko asmoz, eta tartean dauden organoek har ditzaketen erabakiei zor zaien begirune guztiarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aditzera eman nahi du -eta goragoko paragrafoetan ere esana du- organo edo erakunde horientzat lagungarriago izan daitekeela datu-babesarekin zerikusirik ez duen beste esparru bat.

Beraz, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 372/2005 eta 267/2008 txostenetatik transkribatu dugun paragrafoa kontuan hartuta, kontrol agintaritzek ez badute erabakiak hartzeko ahalmenik, horrek esan nahi du botere legegilearen eta exekutiboaren arteko harremanen esparruan bilatu behar dela nahitaez konponbidea.

Batzar Nagusien Erregelamenduak 13. artikuluaen bigarren paragrafoan aurreikusita du informazioa eskatzeko eta bidaltzeko prozedura, .

“Eskabidea Batzar Nagusietako Lehendakariari egingo jako, Foru Aldundiari bialdu degian; Aldundiak gehien jota hogeita hamar eguneko epe barruan erantzun beharko dau, edo, epe berean, erantzutea eragotzi dagien legeetan oinarrituriko arrazoiak idatziz adierazo.”

Baina artikulua horrek xedatzen duen hori Konstituzio Auzitegiak antzeko egoeretarako eman duen interpretazioarekin osatu behar da.

Ez dagoenez beste manurik, gogora ekarri behar dugu Erregelamenduaren 139.2 artikulua dioena, nahiz eta galderei buruz izan:

“Foru Aldundiak erantzuna epe horren barruan bialdu ezean, Batzar Nagusietako Lehendakariak, eskegileak eskatuta, jagokon Batzordearen hurrengo saioko Gai-Zerrendan sartu daitela aginduko dau, ahozko erantzuneskeen bideraketea izan dagian. Foru Aldundiari erabagi horren barri emongo jako.”

Agerian jarri nahi dena da, eta hori da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ondorioa, ukitutako bi eskubideen arteko oreka erdiesteko modurik egokiena dela legebiltzarraren egoitzan bertan planteatzea kasu bakoitza.

Beste organo legegile batzuetako beste erregelamendu batzuk ere konponbide horixe bera hartu dute, eta gure iritziz konponbide egokia da. Hala egin dute XXXXXko Biltzar Nagusiek eta Eusko Legebiltzarrak ere 2008ko abenduko Erregelamenduan.

Hona hemen erregelamendu horren 11. artikuluko 3. eta 4. artikuluek diotena:

“Eskatutako dokumentazioaren izaeratik edo indarrean dauden arauengatik ezin baldin bada dokumentazioaren kopiarik bidali, Administrazioak, horren orde, administrazio-egoitzetara sartzeko aukera eman ahal izango dio legebiltzarkideari. Halakoetan, legebiltzarkideak egoki irizitako oharak hartu ahal izango ditu. Eskatzen diren dokumentuak teknikoki oso konplexuak direnean,

aztergaian adituak diren laguntzaileak eraman ahal izango ditu legebiltzarkideak, betiere Legebiltzarrean egiaztatuta badago legebiltzarkidearen legebiltzar- taldearen aholkulari direla.

Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumentazioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikulua honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurilaritzaren erabakiarekin bat dato- rrela adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arrazoiak azalduz, edo Jaurilaritzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlari- tzari. Jaurilaritzak berriro ukatzen baldin badu, lehendakariak horren berri eman beharko dio Legebiltzarrari hurrengo osoko bilkuran.”

VI

Beraz, esandako guztia kontuan hartuta, Bulegoaren ustez, atera daitekeen ondorioa da esandako guzti horrek (beti ere pentsatuz kontsulta-idazkia horretaz ari dela, “es- pedientea”, “interesduna” edo “espedientea bukatuta” bezalako adierazpideak erabil- tzen baititu) ez lukeela eraginik izango Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen balizko ezarpenean (baina, beti ere -eta hori berretsi nahi dugu- kontsultaren idazkia horretaz ari bada).

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ez dagokio esatea ea 30/1992 Legean xedatu- takoa kasu honetan ezargarria den ala ez, eta ez dagokio esatea legea, aplikagarria izanez gero, horren arabera erabakiko den administrazio espedienteak helaraztea nahi- taezkoa ala ezinezkoa den -alde batera utzita espedienteak izapidetzen ari den ala buka- tuta dagoen-. Badagokio esatea, ordea, 30/1992 Legea aplikatuko balitz, aplikazioak ez lukeela eraginik izango Bulegoari dagokion ikuspuntutik, hau da, datu pertsonalak babestearen ikuspuntutik; izan ere, Legea aplikatuko balitz, eta espedienteak dauden datuak komunikatu beharra egongo balitz, legezko gaikuntza horri lehen aipatu du- gun bestea gehitu behako litzaioke; eta, kontrara, komunikazioa ezinezkoa balitz, ezin izango zen datu pertsonalen tratamendurik egin, eta, ondorioz, horrek ez luke eraginik izango oinarritzko eskubidean.

ONDORIOA

Eskatutako datu-komunikazioa ez dago datu pertsonalak babesteari buruzko araudiari kontrajarrita, irizpen honetan adierazitako baldintzen arabera.

Lan kontratazioko espediente bat legebiltzarkide bati lagatzea

Data: 2014-01-21

CN13-051

Legebiltzarkide batek egindako informazio eskabide baten ondorioz Eusko Jaurlaritzak espediente oso bat lagatzea ea datu babesaren araudiaren arabera den argitzeko irizpena

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2014 abenduaren 4an Eusko Legebiltzarrak helarazitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Idazkiak zioen legebiltzarkide batek Eusko Legebiltzarreko Mahaiari babesa eskatu ziola XXXXX kontratazio espedienteari buruz Jaurlaritzari egin zion informazio eskaera zela-eta Jaurlaritzak emandako erantzunagatik; eta Mahaiak 2013ko azaroaren 26an egin zuen bileran erabaki zuela Datuak Babesteko Euskal Bulegoari horren gaineko kontsulta bat egitea.

Legebiltzarreko ekimenaren espediente osoa helarazi zuten, eta honako dokumentuak ere bai:

- Legebiltzarkideak Eusko Jaurlaritzako sailburuari egindako hasierako informazio eskaeraren kopia bat.
- Sailburuaren erantzunaren kopia bat.
- Eusko Jaurlaritzak emandako erantzunaren aurrean, Eusko Legebiltzarreko Mahaiari egindako babes eskaeraren kopia bat.

Eusko Legebiltzarrak helarazi zigun idazkiak honakoa ere xedatzen du:

“Kontsultak aipatzen du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak duen eragina Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko harreman esparruan, hau da, ea Legebiltzarreko erregelamendua ezin den datu lagatzeak baimentzeko besteko arau orokor eta baliogarritzat jo [11.2 a) artikulua]; ea zein izan daitekeen informazioa emateko modua, datu pribatuak behar bezala babestuta; eta ea Agentziak auzi honetan zer jotzen duen garrantzitsutzat.

Azkenik, komeni da aipatzea Jaurlaritzatik jasotzen den dokumentazioa Legebiltzarreko talde guztien artean banatzen dela eta ez bakarrik eskatu duenari.”

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu diote ea oinarrizko eskubidearekin bat datorren legebiltzarkide batek Eusko Jaurlaritzari eskatutako dokumentazioa atzitzea. Zehatz esateko, pertsona baten lan kontratazioaren espedientea eskatu zen.

Interesduna ez den beste pertsona bati interesdunaren datuak lagatzea datu lagapena da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) arabera.

Datu lagatzeen lege erregimena DBLOren 11. artikuluan dago jasota, eta artikulua dio datuak lagatzeko arau orokorra dela interesdunak adostasuna agertzea (11.1 artikulua). Hala ere, arau orokorrak salbuespen batzuk ditu, eta 2. idatz-zatian daude. Kasu honetan a) letran ezarritakoak du garrantzia:

“Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Beraz, aztertu beharko dugu ea ba ote dagoen nahikoa lege gaikuntza ukituaren adostasunik gabe datuak laga ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren II. Tituluak EAEko botereak arautzen ditu, era I. Kapitulua Eusko Legebiltzarrari buruzkoa da, eta 25. artikulua Legebiltzarren eginkizunak arautzen ditu:

“25. artikulua.

1. Eusko Legebiltzarrak legegintza-agintea du, aurrekontuak onartu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzen du, beti ere Estatutu honen 37. artikuluan aipatutako erakundeen eskumenei kalterik eragin gabe.”

Eusko Legebiltzarraren erregelamenduari buruzko aipamena 27.1 artikuluan dago:

"27. artikulua.

1. Legebiltzarrak legebiltzarburua, Mahaia eta Batzorde Iraunkorra hautatuko ditu bere kideen artean. Osoko Bilkuratan eta Batzordetan jardungo du.

Legebiltzarrak berak finkatuko du bere barne-araudia, eta legebiltzarkideen gehiengo osoz onartu beharko da."

Konstituzioaren 72.1 artikulua ere antzeko zerbeit dio Gorte Nagusiei buruz:

"72. artikulua.

1. Ganberek beren araudiak ezartzen dituzte; euren aurrekontuak autonomiaz onesten dituzte; eta, bi-bion adostasunez, Gorte Nagusietako Langileen Estatutua ematen dute. Araudiei eta horien eraldaketari dagokionez, azken botazioa egingo da haien osotasunari buruz, eta, botazio horretan, erabateko gehiengo hartu beharko da."

Bestalde, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren I. Tituluko III. Kapituluak (legebiltzarkideen estatutuari buruzkoa da) 10. artikulutik 16. artikulura bitartean arautzen ditu legebiltzarkideen eskubideak eta abantailak. Gure auziari dagokionez, 11. artikuluan jarri behar dugu arreta:

"11. artikulua.

1. "Legebiltzarkideek, beren eginkizunak modurik eraginkorrean betetzeko, dituzten datuak, txostenak eta dokumentazioa eskatu ahal izango dizkiete Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei, instituzioei, erakunde publikoei eta enpresa publikoei. Eskaera egitean, legebiltzarkidearen taldeak eskaeraren berri baduela adieraziko da."

2. Eskaera, betiere, lehendakariaren bidez zuzenduko zaio dagokion administrazioari. Administrazioak 20 eguneko epea izango du, gehienez, eskaera betetzeko edo, bete ezin badu, epe berean, horretarako dituen arazoak idazki baten azaltzeko.

3. Eskatutako dokumentazioaren izaeragatik edo indarrean dauden arauengatik ezin baldin bada dokumentazioaren kopiarik bidali, Administrazioak, horren orde, administrazio-egoitzetara sartzeko aukera eman ahal izango dio legebiltzarkideari. Halakoetan, legebiltzarkideak egoki irizitako oharra hartu ahal izango ditu, eta orobat dokumentuen kopiak eskuratu ere

Eskatzen diren dokumentuak teknikoki oso konplexuak direnean, aztergaian adituak diren laguntzaileak eraman ahal izango ditu legebiltzarkideak, betiere Legebiltzarrean egiaztatuta badago legebiltzarkidearen legebiltzar-taldearen aholkulari direla.

4. Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumentazioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikuluko honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurlaritzaren erabakiarekin bat datorrela adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arrazoiak azalduz, edo Jaurlaritzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlaritzari. Jaurlaritzak berriro ukatzen baldin badu, Legebiltzarrari kontu eman beharko dio hurrengo osoko bilkuran.

5. Era berean, Euskal Herriari era batera edo bestera eragiten diola uste duten informazio oro eskatu ahal izango diete legebiltzarkideek Estatuko Administrazioari eta autonomia-erkidegoetako gobernu-organoei, bai eta Europar Batasuneko instituzioei ere. Eskaera Legebiltzarreko lehendakariaren bidez eta legeetan aurreikusitakoari jarraituz egingo da.

6. Legebiltzarkideek orobat, beren egitekoak bete ditzaten, beharrezko informazio eta dokumentazioa jasotzeko eskubidea dute, zuzenean Legebiltzarretik edo beren legebiltzar-taldearen bitartez. Eskatutakoa emateko betebeharra dute kasuan kasuko zerbitzuek.”

Artikulu horrek administrazioei, erakundeei, organismoiei eta enpresei datuak, txostenak era dokumentuak eskatzeko behar beste ahal aitortzen die legebiltzarkideei. Baina, legebiltzarren erregelamendua denez, eta ez denez lege bat, ez dago argi arau hori nahikoa den datu lagatzea legezkoa izateko.

Merezi du hona ekartzea Gorte Nagusietako letratu den Manuel Alba Navarrok Konstituzioaren 72. artikulua gainean egindako oharra. Oharra Diputatuen Kongresuaren web orrian argitaratu zuten eta honakoa dio: *“Parlamentuko Erregelamendua ezin da parekatu Konstituzioaren 97. artikuluren babespean Gobernuak emandako legeekin, nahiz eta erregelamendu deitu tradizioz. Izan ere, Konstituzioari zuzen-zuzenean lotuta dagoen (KAE 101/1983) arau primarioa baita, eta horregatik lege balioa du, nahiz eta legearen berezko indarrik ez izan (KAE 119/1990) eta KAE 226/2004, 227/2004 eta KAE 301/2005). Hori dela eta, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren kontrako deklarazake (Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 27.2 d) artikulua eta Konstituzio Auzitegiaren 44/1995, 177/2002, 234/2000 eta 101/2008 epaiak), nahiz eta arau guztiak ez izan konstituzionaltasunaren blokekoak (KAE 36/1990).”*

Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 20ko 118/1988 Epaiaren hirugarren lege oinarriak zera dio:

*“Parlamentuetako erregelamenduak lege-indarreko lege eta arauen pare jar-
tzeak erregelamenduak zuzenean eta erabat inpugnatzeko aukera ematen du,
bai eta bere konstituzionaltasuna kontrolatzeko aukera ere, konstituziokontra-
tasun errekursoaren bidez.”*

Ebazpenak zein argiak diren ikusita, pentsatu behar dugu Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduak ere baduela nahikoa lege gaikuntza, eta, beraz, DBLOren 11.2 a) artikuluan ezarritako salbuespena ezar daitekeela, ukituaren adostasuna ez eskatzeko. Eta hala dela uste dute datu babesaren esparruko beste kontrol agintari batzuk ere, dena delako autonomia erkidegoko legebiltzarrak bertako gobernuari egindako eskaerak aztertzean. Beste kontu bat da, eta kontu konplexua da bestalde, lege gaikuntza horren mugei buruzkoa, segidan aipatuko duguna.

II

Eskatutako informazioa lagatzeko lege gaikuntza egon badagoela argi utzi eta gero, lege gaikuntzaren helmena zehaztu behar da.

Kontsulta honetan legebiltzarkide batek, Legebiltzarraren Erregelamenduaren babesarekin, pertsona baten kontratazioari buruzko espedientearen gaineko informazioa eskatu zuen; hau da, *“xxxxx(r)en lan kontratazioari buruzko espediente osoaren kopia bat, prentsan egindako publizitatea, frogatutako merezimenduak eta hautaketa prozesua.”*

Eusko Jaurlaritzak emandako erantzunak dio *“espediente osoa emanez gero, DBLOn xedatutako urratzeko arriskua dagoela, espedienteak hautagaien datu pertsonalak dituelako, eta batzuk bereziki babestutako datuak direlako; adibidez, test psikoteknikoak edo nortasunekoak”*. Hori dela eta, ezinezkotzat jotzen du DBLOren 11.2 d) artikuluko salbuespena ezartzea, eta honakoa bidali zuen: *“prozesuaren laburpen bat honakoekin: prentsan agertu zuen iragarkia, aholkularitza enpresako hautaketa-prozesuko erreferentzia zenbakia, eta XXXXX dela lanpostuko profilerak ondoen egokitzen den hautagaia dioen ondorioen txostena”*.

Lege gaikuntza frogatuta dago, baina ez DBLOren 11.2 d) artikuluan, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. eta DBLOren 11.2 a) artikuluetan baizik.

Legezko gaikuntzak esan nahi du alferrik dela esatea espedientearen datu pertsonalak daudela, horrek ez duelako balio Legebiltzarrari informazioa emateko obligazioa bertan behera uzteko. Eta bereziki babestutako datuak badaude, hau da, test psikoteknikoen emaitzak edo nortasunekoak, horrek esan nahi du horien gaineko beste azterketa bat egin behar dela.

Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmenaren Azalpen Memorian (45. atala) osasunari buruzko datu pertsonalen kontzeptu zabala dago jasota, eta esaten du osasunari buruzko datu dela pertsona baten garai bateko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisiko edo mentalari buruzko informazioa, pertsona hilda egon arren ala bizirik. Alkohola eta droga gehiegi kontsumitzea buruzko informazioa ere multzo horretan sartzen da.

DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5 g) artikulua xedatzen du osasun datuen definizioa:

“g) Osasunarekin zerikusia duten datu pertsonalak: norbanakoaren osasun fisiokoari edo buru osasunari buruzko garai bateko, oraingo eta etorkizuneko informazioa. Zehazki esanda, osasunarekin zerikusia duten datutzat hartuko dira zenbaterainoko ezintasuna duten adierazten duten datuak eta informazio genetikoak ematen dutenak.”

Ikusten denez, osasun datuen kontzeptu oso zabala proposatu dute, eta test psikoteknikoetako informazioa ere horren barruan sar daitekeela uste dugu. Datu psikoteknikoak eta psikologikoak osasun datutzat hartu izan dituzte zalantzarik gabe datuen babesaren arloko kontrol agintaritzek. Esate baterako, Datuak Babesteko Kataluniako Kontrol Agintaritzaren CNS 38/2009 irizpenean adierazi zuten ebaluazio psikoteknikoetatik datozen datuak osasunarekin zer ikusia duten datuak direla, hain zuzen ere, datu psikologikoak direlako, eta azterketa egin dutenen gaitasunak eta nortasuna ebaluatu izanaren emaitza direlako. Kataluniako kontrol agintaritzaren ustez, datu psikologikoen tratamenduek, ebaluatutako pertsonen profil osoak sortzen dituzte, eta hortik are sentsibleagoak diren beste datu batzuk ondorioztatu daitezke, esate baterako, sinemen moralak eta erlijiosoak edo pertsonen bizitza sexuala.

Gogoeta horiek kontuan hartuta, ulertu behar dugu kontsulta honetan laga nahi diren datuak osasunaren arloko datuak direla; eta, beraz, aztertu behar da ea lehen ikusi dugun lege gaikuntzak balio duen osasun datuetarako.

DBLOren 7.3 artikulua arautzen du osasun datuen tratamendua, eta berariazko adostasuna ala lege gaikuntza behar direla dio.

“7. artikulua.

...

3. “Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori.”

Lege gaikuntzak direla eta ez direla, Konstituzio Auzitegiak esana du norberaren inimitaterako oinarritzko eskubideak izan ditzakeen balizko murritzaketek honako baldintzak bete behar dituztela: konstituzioan oinarritutako legeren bat izan behar dutela

euskarri, proportzionalak izan behar dutela eta zehatz-mehatz adierazi beharko dituztela neurri murriztailearen oinarri material guzti-guztiak (Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 30eko 292/2000 Epaia, 16. lege oinarria; eta martxoaren 23ko 70/2009 Epaia, 3. lege oinarria). Epaia horrexen 11. lege oinarriak dio oinarritzko eskubide bat murrizten duen legeak ezin duela oinarritzko eskubidea urratu eta eskubidea baliatzea ezinezkoa egiteko moduan edo Konstituzioaren bermea baliogabetzeko moduan finkatu mugak. Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, lege aurreikuspen murriztaileak *“lege izaera”* izan behar du (KAE 49/1999, 5. lege oinarria; KAE 169/2001, 6. lege oinarria eta KAE 184/2003, 2. lege oinarria).

Lehen esan dugunez, badaude hainbat aurreikuspen ahalbideratzen dutenak parlamentuko organoei adostasunik gabe lagatzea datuak, adibidez Herriaren Defendatzaileari (11.2.d artikulua) edo Parlamentuari berari (Erregelamenduaren 11. artikulua eta DBLOren 11.2 a artikulua); baina artikulua horietan xedatutakoek ez dute berariaz jasotzen osasun datuak laga daitezkeenik; beraz, azaldu dugun teoria hitzez hitz ezarri gero, ezinezkoa izango litzateke Legebiltzarrari osasun datuak lagatzea.

Baina, hala ere, doktrinak hainbat kasutan lege izaeraren betekizuna malgutzeko joera izan du. Merezi du gogoratzea Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko zuzendaria izandako Antonio Troncoso Reigadak esandakoa Parlamentuko hainbat organori edo Parlamentuari berari egiten zaizkien datu lagatzeak aztertu zituenean:

“Baina legeek ez dute jaso, bestea bezala, osasun datuak laga ahal zaizkien Herriaren Defendatzaileari, Kontuen Auzitegiari edo Parlamentuari. Hala ere, badirudi zilegi dela datu horiek komunikatzea, hirurak oinarritzko eskubideak babesten dituzten eta boterearen kontrol demokratikoa egiten duten organoak direlako; eta halakoetan, beharrezkoa den gutxienezko informazioa baino ezin izango da eman, kalitatearen printzipioa bete nahi bada” (Antonio Troncoso Reigada, *“Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legeari egindako oharra”*, 1002. or., Thomson Reuters argitaletxea, 2010).

Autore horren ustez Parlamentuak boterearen gaineko kontrol demokratikoa burutzeko eginkizuna duenez, eginkizunak berak egiten du zilegi osasun datuak lagatzea. Horrekin lotuta esan behar dugu DBLOren 7.3 artikulua bereziki babesten dituen datuen tratamenduetarako, hau da, osasun datuen tratamenduetarako, kontrol agintaritzek argi adierazten dute datu tratamenduaren oinarrian dagoen helburu bera izan behar dutela; beraz, datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak baino ezin izango dira tratatu. (DBLOren 4 artikuluan xedatuta dagoen datuen kalitatearen printzipioa). Beraz, kontsulta honetan aztertzen ari garen auziari erreparatuz gero, esan daiteke kalitatearen printzipioa betetzeko, hautaketa prozesuan garrantzia izan duen informazioa bakarrik komunika daitekeela; hau da, osasunarekin zer ikusia duen informazioa eskatu ahal izango da, baina bakarrik hautaketa prozesuaren emaitzan eragina izan badu.

Baina, horrez gain, zilegi da, kalitatearen printzipioarekin bat, kontuan hartzea informazioa modu disoziatuan eskatzeko aukera ere badagoela, hau da, prozesuan parte har-

tu duten baina lanpostua eskuratu ez duten pertsonen datu identifikatiboak kenduta eskatzea; hala jokatura helburua lortzen bada behintzat.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 4.1 artikulua aldarrikatzen duen datuen kalitatearen printzipioak honakoa xedatzen du;

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.”

Printzipio horrek arrazionaltasun irizpidea txertatzen du informazioa erabiltzen denean, eta lege gaikuntza badago ere, ezin izango da gehiegizko tratamendurik egin. Esanak esan, eman beharreko informazioaren proportzionaltasunaren gaineko balorazioa egitea ez dagokio Agentziari, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11.4 artikulua xedatzen duenez:

“11.4. artikulua.

Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumentazioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikulua honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurlaritzaren erabakiarekin bat dato-rra adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arazoak azalduz, edo Jaurlaritzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlaritzari. Jaurlaritzak berriro ukatzen baldin badu, Legebiltzarrari kontu eman behar-ko dio hurrengo osoko bilkuran.”

Artikulu horrek dioenez, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, Mahaiarekin adostuta, baloratuko du (Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpideka kontuan hartuta, egoki irizten badio) ea ados dauden ala ez Eusko Jaurlaritzaren erabakiarekin; eta Agentziak ezin du esku hartu Legebiltzarreko bi erakunde horien eginkizunetan, erabaki egokia hartzeko irizpideak ematea baino ez baitagokio Agentziari.

Azkenik, ezin dugu esan gabe utzi Eusko Jaurlaritzari egindako informazio eskaerekin gerora egiten diren tratamenduek ere berdin-berdin bete beharko dutela datu babesaren arloko araudia; eta, beraz, ezin izango dela egin lege babesik ez duen tratamendurik.

Sarreraren eta irteeraren zerrenda lagatzea korporazioko kide bati

Data: 2014-02-25

CN14-004

Korporazioko kide batek udaleko sarreraren eta irteeraren erregistroen zerrenda hileroko bidaltzeko egin duen eskabideari buruz XXXXX Udalak egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2014ko urtarrilaren 16an XXXXX Udalaren (Bizkaia) idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Udalak aurkeztutako irizpen-eskaeraren idazkiak honakoa dio:

“Korporazioko kide batek alkatetzari eskatu dio udaleko sarreraren eta irteeraren erregistroen zerrenda bidaltzeko hileroko. Hori dela eta, honako honen bidez, galdetu nahi dizugu ea udalak eman ahal dizkion agiri horiek, datu babesaren ikuspegi kontuan hartuta.

Era berean, zuen laguntza eskatzen dugu jakiteko ea zuzena den astero korporazioko kideei bidaltzen diegun udal dekretuen zerrenda.”

Honi atxikita doakizue sarrera eta irteera erregistroaren zerrenda eta udal dekretuen zerrenda.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Udalak egin duen kontsulta bi oinarritzko eskubideen artean gertatzen den “talkari buruzkoa” da: bata, Konstituzioaren 23. artikulua aitortzen duen parte hartze politikorako eskubidea da, eta bestea Konstituzioaren 18.4 artikulutik eratorritako datu pertsonalak babesteko eskubidea da.

Auzi hau, eta zehatzago esanda, zinegotziek sarreren eta irteeren erregistroa atzitzeko zein aukera duten, aztertu izan du lehenago ere Datuak Babesteko Euskal Bulegoak; eta hainbat irizpenetan ikus daiteke bere doktrina, adibidez, CN10-001 irizpenean. Irizpen hori Agentziaren web orrian dago eskuragarri. Zinegotziei aldiro informazioa bidaltzeko kontua ere aztertu izan dugu Agentzian, adibidez, CN11-036 irizpenean, eta bereziki CN11-027 irizpenean.

Agentziaren doktrina labur azalduz, esan behar dugu lehendabizi, zinegotziei informazioa komunikatzea datu lagatzea dela, datu babesaren ikuspuntutik:

Datu lagatzea zer den dioen definizioa DBLOren 3 i) artikuluan dago xedatuta:

“Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”

DBLOren 11. artikulua arautzen du datu lagatzeen lege erregimena, eta 1. idatz-zatiak dio datuak laga ahal izateko, adostasuna nahitaezkoa dela, eta 2. idatz-zatiak dio adostasuna noiz ez den nahitaezkoa, hau da, zein salbuespen dauden. Salbuespenen artea badago bat kasu honetan aipatu beharrekoa eta 11.2 a) artikuluan dago jasota: “Lege batak baimentzen badu lagapena”. Beraz aztertu beharko dugu ea lege baimenik dagoen.

Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea Konstituzioaren 23. artikuluan dago jasota:

“Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, zuzen-zuzenean nahiz ordezkari bidez; ordezkariok askatasunez hautatuko dira, sufragio unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan.

Eskubidea dute, orobat, berdintasun-baldintzetan funtzio eta kargu publikoetara heltzeko, legeek ezartzen dituzten betekizunekin”

Gainera, tokiko hautetsien informazio-eskubideei buruzko Auzitegi Gorenaren 1995eko abenduaren 9ko Epaia aipatu daiteke:

“Korporazioko kideek karguan aritzeko behar duten informazioa eskuratzeko eskubidea (...) funtsezkoa da korporazio horien funtzionamendu demokratikorako eta Konstituzioaren 23. artikulutik eratorritako gai publikoetan parte hartzeko oinarritzko eskubiderako. Informazio egokia izatea funtsezko baldintza bat

da osoko bilkuretako eta gainontzeko kide anitzetako organoetako eztabaidetan eta bozketetan parte hartzeko, kontrol eta fiskalizazio eginkizunak behar bezala burutzeko edo dena delako zinegotziak esleituta dituen kudeaketa arloko ardurak baliatzeko, azken finean, erantzukizun zibilaren eta zigor-erantzukizunaren menpean dago beren kargua betetzerakoan egindako egintza eta ez-egiteak di-rela-eta (TAOLen 78. artikulua). Hori dela eta, Sala honetako jurisprudentziak zorroztasun handiz aztertu izan ditu beti eskubide horren mugak edo murrizketak.”

Toki Araubidearen Oinarriak (TAOL) arautzen dituen 7/1985 Legearen 77. artikulua eta Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari (AJA) buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 14., 15. eta 16. artikuluek xedatzen dute nola gauzatu behar den tokiko esparruan gai publikoetan parte hartzeko printzipio konstituzionala.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 77. artikulua honakoa ere xedatzen du:

“Toki-korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku egon eta beren eginkizunak garatzeko beharrezko aurrekariak, datuak edo argibideak alkate edo lehendakariengandik edo gobernu-batzordearengandik lortzeko eskubidea.”

Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamendua 14., 15. eta 16. artikuluek garatzen dute lege aurreikuspen hori; eta xedatzen dutenaren arabera, eskubideaz baliatzeko, lehendabizi korporazioko kideek eskatu egin behar dute informazioa. AJAren 14. artikulua honakoa dio:

“1. “Toki-korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku egon eta beren eginkizunak garatzeko beharrezko aurrekariak, datuak edo argibideak alkate edo lehendakariengandik edo gobernu-batzordearengandik lortzeko eskubidea.”

2. Informazioa eskuratzeko eskabidea administrazio isiltasunagatik onartutzat joko da, baldin eta lehendakariak edo gobernu batzordeak ez badute eskaera ukatzen duen ebazpenik edo akordiorik ematen, eskabidea egiten den datatik hasi eta bost egun epean.

3. Edozelan ere, dokumentazio argigarria ukatzen bada, arrazoitutako ebazpen edo akordio bidez egin beharko da.”

Korporazioko kideek informazioa eskatzeko eskubidea dutela egiaztatu ondoren, esan dezakegu datuak adostasunik gabe lagatzeko gaikuntza edo baimena ematen duen legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 77. artikulua dela.

II

Kontuan hartu beharrekoen atalean ikusi dugu lege gaikuntza egon badagoela zinegotziei datuak lagatzeko titularren adostasun beharrik gabe. Lege gaikuntza argi badago ere, gogoan izan behar ditugu datu babesaren beste funtsezko printzipio batzuk ere bai, esate baterako, DBLOren 4. artikulua aitortutako kalitatearen printzipioa:

“ 4. artikulua: Datuen kalitatea.

1. Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

2. Tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako. Ez dira joko helburu bateraezintzat datu horiekin gero egiten diren tratamenduak, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako badira.”

Bere garaian CN10-001 irizpenak aztertu zuen zelan uztartzen diren datuen kalitatea-
ren printzipioa eta zinegotziei datuak lagatzeko lege gaikuntza. Hona irizpena:

Hala eta guztiz ere, planteamendu orokor hau kasu bakoitzari aplikatu behar zaio eta kasu bakoitzeko baldintzak kontuan hartuta. Baldintza horiek kontuan hartuta eta goiko interpretazio hori gainditzen duen erantzun bat lortu nahian, esan behar da erantzunak zinegotzien parte hartze politikorako eskubidea ahalbideratzeaz gain, ez diola funtsezko kalterik egin behar herritarrek datu pertsonalen babeserako duten oinarritzko eskubideari.

Horrek eskatzen du, gure ustez, mahai gainera ekartzea irizpide orokor hau: datuak garrantzitsuak izan behar direla korporazioko kideei egiten zaien datu komunikazioaren helburuekiko. DBLOren 4. artikuluko 1. eta 2. paragrafoan dago jasota printzipio hori, eta horren arabera:

“1. Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

2. Tratatu beharreko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren helburuetarako.

Kontrara, ez du datu babesaren arloko araudia beteko, baldin eta datu pertsonalak korporazioko kideei komunikatzen bazaizkie eta datu pertsonalak ez badira garrantzizkoak eta neurrikoak zinegotziek esleituta dauzkaten eginkizunetarako.

Honako hau da Auzitegi Gorenak gai honen inguruan egindako jurisprudentziatik atera daitekeen konponbidea.

Hori horrela, hona hemen 1998ko otsailaren 9ko AGEk dioena:

*“Gaiaren muinean sartuz, parte hartzaileetako batek ere ez du zalantzan jartzen udaletako kide diren aldetik, zinegotziek dituzten erabakitze, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko eskumenak, ez eta eskumen horietaz baliatu ahal izateko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 77. artikulua eta Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamenduaren 14. artikulua aitortzen dieten eskubidea ere; izan ere, eskubide horren arabera, Korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku dauden aurrekariak, datuak edo argibideak, **eta beren eginkizunak garatzeko beharrezkoak direnak**, eskuratzeko eskubidea. Bestalde, hori guzti hori Konstituzioaren 23.1 artikulua barruan dago. Horregatik guztiagatik, ebatzi beharreko gaiaren alderik larriena da Alkatetzak errekurso honen jatorrian zegoen eskaera ukatzeko erabilitako idazkietan eman dituen arrazoiak: Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean ezarritako irizpideak aipatzen dituelako eta irizpide horien artean sekretu estatistikoa arautzen duten 4.2 eta 13. artikulua daudelako eta sekretu horren xedea izatez da intimitaterako oinarrizko eskubidea babestea, Erroldan jasotako datu pertsonalak direla eta.*

Azken finean, ikusten dugu auziaren giltzarria dela gai izatea bi eskubide hauen arteko mugak finkatzeko: batetik, Konstituzioaren 23.1 artikulua zinegotziei aitortzen dien eskubidea gai publikoetan parte hartzeko, eta bestetik, Konstituzioaren 18.1 artikulua herritar guztiei aitortzen dien intimitaterako eskubidea.

Toki Araubideak ez digu gai honi buruzko erantzun zehatzik ematen, nahiz eta Errolda dokumentu publikoa dela aldarrikatu, dokumentu publikoa izan arren Erroldako sarbidea ez delako edonolakoa eta are gutxiago Errolda osatzeko aurrekarietarako sarbidea.

*Erantzunik ezean, Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko Legeak gai honi buruz jasotzen dituen irizpideetara jo dezakegu inspirazio bila. Hortaz, Lege horretan sekretu estatistikoa bermatzea da helburua, **eta sekretuaren xedea da zerbitzu estatistikoetako informatzaileengandik zuzenean jasotako datu pertsonalak helburu estatistikoak ez diren bestelako helburuetarako ez daitezela erabili** (14.3 artikulua). Horretarako xedatzen du estatistika arloko langile guztiek dutela estatistika arloko sekretu gorde beharra betetzeko obligazioa (17. artikulua). Bestalde, 4.4 artikulua estatistika zerbitzuei agintzen die, espezialitatearen irizpidea kontuan hartuta, estatistikak egiteko jasotako datu pertsonalak*

*datu horiek eskuratzeko **orduan ezarrita zeuden helburuetarako baino ez erabiltzea.***

Estatistika eremuko langileen izaera eta udalerrri mailan zinegotziek duten herritarren ordezkari izaera ezin diren arren parekatu, egia da zinegotziek legearen babesa dutela, edo alkatearen egintzak kontrolatuz edo fiskalizatuz edo egintzok onartuz, Udal Errolda egiten parte hartzeko. Eta legearen babesa dute, batez ere, Errolda osatzen duten udalerriko egoiliarak eta pasadizokoak benetako egoera islatzen duten ala ez ziurtatzeko. Beraz, zentzu horretan, errekurso egileek Alkateari egin zioten Errolda aztertzeko eskaera guztiz bat dator zinegotzien ordezkari izaerarekin, haien asmoa zelako ziurtatzea ea han jasotakoa eta benetako egoera bat zetozen. Nahiz eta, horrek ez duen esan nahi behin haien eginkizuna burutu ondoren, aztertu diren datuen titularren intimitaterako eskubidea kaltetu dezaketen datu pertsonalen gaineko sekretu gorde beharra betetzetik salbuetsita daudenik.”

Luzea bada ere, merezi du aipamena egiteak, adierazi duguna argitzeko balio duelako eta lehendik ere erabili ditugun argudioak direlako.

Beraz, zinegotziek dituzten *“erabakitze, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko ahalmenetatik”* abiatuta, *“parte hartze politikorako eskubidearen eta intimitaterako eskubidearen artean dauden mugak ezartzeko,”* datuak *“zertarako erabiliko diren”* hartzen da aintzat. Ondorioz, horrek esan nahi du zinegotziek aurkeztutako errekursoa onartu egin behar dela eta zinegotzi errekurso-egileei aitortu egin behar zaiela eskatu duten informazioa jasotzeko eskubidea.

Eskaerako helbururako datu garrantzitsuak zeintzuk diren behar bezala balioestea lortuz gero, horrek bera emango zuen bidea, Bulego honen ustez, halako oreka moduko bat lortzeko zinegotziek politikan parte hartzeko duten eskubidea behar bezala gauzatu dadin eta datu pertsonalen babeserako pertsonen eskubidea ere funtsean babestuta egon dadin.

Zentzu honetan, kontuan hartzekoa izango zen zinegotziek ere antzeko emaitzak lortzeko aukera izan dezaketela pertsonak izenetik identifikatzeko beharrik gabe, horretarako, DBLOren 11.6 artikulua ezarritako *“disoziazio prozedura”* erabiliz, hau da, datu pertsonalak tratatzea datu disoziatuak lortzeko moduan. Datu disoziatutzat ulertuko da interesduna edo ukitua identifikatzen uzten ez duen datua.

Edozelan ere, eta bukatzeko asmoz, gogoratu behar dugu, DBLOren 10. artikulua xedatzen duenez, zinegotziek gorde egin behar dutela sekretua eta, ez badute betetzen, zuzenean egotzi ahal izango zaiela bete ez izana.

Bestalde, zinegotziei aldiro bidaltzen zaien informazioak ere datuen kalitatearen printzipioa bete behar du, CN11-027 Irizpenean esan genuenaren arabera:

“Hala eta guztiz ere, lehendabizi gogora ekarri behar da erregelamendu garapenak korporazioko kideen informazio eskubidea informazioa eskatu izanarekin lotzen duela, eta horixe da AJAren 14. artikuluaen 2. idatz-zatiak ere xedatzen duena: “Ulertuko da informazioa atzitzeko eskubidea onartu egin dela...”

Udal gobernua kontrolatzeko eginkizunaz ari garela hartu behar dugu kontuan, eta kontrola egin ahal izateko, lehenengo datuak eskatu behar dira, hau da informazioa eskatu egin behar da.

Tokiko araudiak bereiztu egiten du udal organoek noiz eman behar duten ofizioz informazioa eta noiz eman behar den informazioa kontrol eginkizunetarako bereziki. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak V. Tituluan (“Toki-erakundeei buruzko xedapen orokorrak”) dagoen I. Kapituluko (“funtzionameduaren araubidea”) 46. artikulua dio osoko bilkurak deitzeko honela jokatu behar dela:

“Gutxienez bi egun baliodun aurretik egin behar da osoko bilkuretarako deia, presako bilkura berezien kasuan izan ezik, osoko bilkurak sendetsi beharko baitu presatasun hori. Gai-zerrendan sartutako gaien dokumentazio osoa zinegotzien edo diputatuen eskura egon behar da deialdiko lehenengo egunetik korporazioko idazkaritzan, eztabaidarako oinarri izango baita, eta hala badagokio, baita bozketarako ere. (TAOLen 46.2 artikulua)”

Artikulu hori irakurri ostean, esan dezakegu legeak zuhurtziaz jokatzen duela datu babesari dagokionez, esaten baitu gai-zerrendan sartutako gaien dokumentazio osoa zinegotzien edo diputatuen eskura egon behar dela korporazioko idazkaritzan. Ikusten dugunez, tokiko gobernuaren organo gorenaren bilerarako deia bada ere, arauak hainbat berme ezartzen ditu dokumentazioa lagatzeko, hau da, datu pertsonalak lagatzeko.

AJAren 80. artikulua udaleko osoko bilkuretarako deialdiak arautzen ditu 2. idatz-zatian:

“Osoko bilkuren deietan bertan aztertuko diren gaien buruzko gai-zerrendak gehituko dira, ahalik eta xehetasun handienarekin, eta bilkuran onartu behar diren aurreko bilkuretako akten zirriborroak.”

Horrez gain, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Dekretuak toki erakundeetako xedapen komunak arautzean (V. Titulua) I. Kapituluan (“funtzionamendu erregimena”) honakoa xedatzen du 47.2 artikuluan:

“Premiazko kasuetan izan ezik, ez da aztertuko bilkurako gai-zerrendan jasota ez dagoen gairik. Gai-zerrenda lehendakariak egingo du, eta korporazioko kideen artean banatuko da gutxienez bilkura baino bi egun baliadun lehenago.”

Araudi hori guztia aztertuta ateratzen dugun ondorioa da osoko bilkurak eratzeke ere mugatu egiten dela zein informazio eman, bilkuran aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa eman ordez, nahi duenaren eskura jartzen delako edo bilkuran aztertu beharreko gai-zerrenda “nahikoa xehetasunarekin” bidaltzen delako; eta horrek esan nahi du aldez aurretik balorazioa egin egin dela.

Osoko bilkuraren eraketari ezarritako zuhurtasun irizpide hori erabil dezakegu ea datu babesari buruzko araudia betetzen den balioztatzeke orduan, hau da, korporazioko kideei ebazpenen zerrendak ematen zaizkienean.

Behin eta berriz esan dugunez, badago gaikuntza lege bat korporazioko kideei informazioa ematea legeztatzen duena. Baina, parte hartze politikorako eskubidea gainontzeko oinarritzko eskubideak bezala, ez da erabateko eskubidea, eta beste oinarritzko eskubide batzuen eraginak murriztu dezake, beste eskubide horiek ere babestu beharrekoak direlako, adibidez, datu pertsonalak babesteko eskubidea.

Horrekin lotuta, DBLOk arrazionaltasun irizpide bat proposatzen du informazioa erabiltzeko, hau da, kalitatearen printzipioa. Printzipio horrek lagundu egin ahal digu erabakia hartzeko unean. Printzipioa DBLOren 4. artikuluan dago jasota, eta honakoa xedatzen du:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.”

Udalean aurkeztu duten idazkia ikusita, ematen du udalak ebazpenen zerrenda ematen duela korporazioko kideek *“toki erakunde honetako gobernu organoen fiskalizazioa eta kontrol eginkizunak burutu ditzaten eta ebazpenen edukia eskura ditzaten.”*

Badirudi ebazpenen zerrenda ematea fiskalizazio eginkizuna burutzeko lehen urratsa dela, eta ebazpenen edukia eskura jarrita osatu nahi dela eginkizun hori. Horregatik, eta kontuan izanda ebazpenen zerrendak udal jardueraren berri emateko bakarrik banatzen direla, eta korporazioko kideek informazio gehiago nahi badute, informazio gehiago eskuratzeko aukera ere badutela, uste dugu ebazpenen zerrendan ez dela datu pertsonalik egon behar.

Datu pertsonalak emateko arrazoirik ez badago, are gutxiago dago bereziki babestutako datuak emateko. DBLOren 7.2 eta 7.3 artikuluek diote zer diren bereziki babestutako datuak. Datu horiek babes araubide berezia dute. Hona 7.2 artikulua dioena:

“Ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio eta sinesmenaren berri ematen duten datu pertsonalak ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin bakarrik trata daitezke.”

Bestalde, lege berak honakoa xedatzen du 7.3. artikuluan:

“Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori.”

Hori hala dela ziurtatzen dute kontrol agintaritzek emandako irizpenek ere; adibidez, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 0301/2009 Txostena aipa dezakegu. Txostenak dio ez duela onartzen zinegotzi batek pertsona fisiko baten zerga datuak jakiteko eskubidea duenik, uste duelako legebiltzarreko batzordeek bakarrik dutela horrelako datuak atzitzeko eskubidea; eta, beraz, korporazioko kideek ez dutela lege babesik horrelako atzipenak egiteko, nahiz eta udal gobernua kontrolatzeko egin-kizunaren baitan behar datu horiek.

Datuen kalitatearen printzipioaren argitan, esan daiteke zinegotziei alkatetzaren eta arloko ordezkarien ebazpen guztiak jakinaraztea, datu pertsonal eta guzti, beharbada ez datorrela bat datu babesaren arloko araudiaren ardatz den proportzionaltasun printzipioarekin.

Zinegotziei informazioa jakinaraztean, zein datu dauden tartean ikusita, gerta daiteke DBLOren 4. artikulua urratzea, hain zuzen ere, tratatzen diren datuak ez direlako egokiak, eta garrantzitsuak edo gehizkoak direlako dena delako tratamenduaren oinarria zegoen helburuarekiko.

Horregatik, udal autonomiari zor zaion errespetu guztiarekin adierazi nahi dugu zerrendek hain funtsezkoa den printzipioa urratzea badakarte, hau da, datuen kalitatea, gure gomendioa dela zerrendak izen eta abizenik gabe ematea. Kontsulta idazkiak dioenez, informazioa ematea lehenengo urratsa da, eta ebazpenen edukia beranduago atzitu ahal da. Beraz, datu babesak hobeto errespetatzen da azaleko informazioa emanda, eta gerora informazio gehiago nahi duten udal taldeetako bozeramaleek edo korporazioko kideek aukera izatea ebazpenen edukia atzitzeko, beti ere, eskubidea egiten badute eta tartean dauden interesak balioztatu eta gero.”

Irizpen horiek erreproduzitu ditugu, bertan adierazitakoa irizpide baliagarria izan daitekeelakoan kontsulta egin digun tokiko erakundeari, eta horietan aurkituko dituelakoan galderentzako erantzunak. Laburbilduz, esan behar dugu Agentziak argi duela zinegotziek badutela kontsultan aipatzen diren datuak atzitzeko lege gaikuntza, baina datuen kalitatearen printzipioa erabiliz gero, ezin zaie datu lagatze masiborik egin, eta bereziki babestutako datuak egonez gero, zuhurtzia handiz ibili beharko da.

Legebiltzarkide bati lagatzea administrazioaren eraikin bateko segurtasun sistemak grabatutako irudiak

Data: 2014-07-22

CN14-027

Legebiltzarkide batek egindako informazio eskabide baten ondorioz XXXXX segurtasun kamerako grabazio bat ikustea ea datu babesaren araudiaren arabera den argitzeko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2014ko uztailaren 14an Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak helarazitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Idazkiak zioen legebiltzarkide batek XXXXX grabazioak eskatu zituela, eta legebiltzarkidea grabazioak ikustera joango dela aholkulari batekin, Eusko Legebiltzarrearen Erregelamenduaren 11.3 artikulua xedatzen duenaren arabera.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu diote ea zer egin daitekeen bateragarriak izateko kasu zehatz honetan bi eskubide hauek: batetik, legebiltzarkideak eta, halakorik egonez gero, Legebiltzarrean behar bezala egiaztatutako aholkulariak, Legebiltzarreko informazio eta kontrol eginkizunak burutzeko, irudi horiek ikusteko duten eskubidea, eta, bestetik, ikusi behar dituzten segurtasun kameretako grabazioetan ageri diren pertsonen datu pertsonalak babesteko eskubidea.

Hasteko, uste dugu argi utzi behar dela irudiak datu pertsonalak direla, hala xedatzen baitute Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3. artikulua (aurrerantzean DBLO) eta DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1 f) artikulua. Azken horrek dio informazio grafikoa edo fotografikoa datu pertsonala dela.

3. artikuluko c) idatz-zatiak xedatzen du zer den datu tratamendua: *“Automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratako datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezerezte eta lagatzea ahalbidetzen dutenak.”* Beraz, irudiekin egiten diren tratamendu (grabazioa egitea, biltzea, lagatzea eta abar) guztiek datu babesaren arloko oinarrizko printzipioak bete behar dituzte.

Interesduna ez den beste pertsona bati interesdunaren datuak lagatzea datu lagapena da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) arabera.

Datu lagatzeen lege erregimena DBLOren 11. artikuluan dago jasota, eta artikulua dio datuak lagatzeko arau orokorra dela interesdunak adostasuna agertzea (11.1 artikulua). Hala ere, arau orokorrak salbuespen batzuk ditu, eta 2. idatz-zatian daude. Kasu honetan a) letran ezarritakoak du garrantzia:

“Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Beraz, aztertu beharko dugu ea ba ote dagoen nahikoa lege gaikuntza ukituaren adostasunik gabe datuak laga ahal izateko.

Gure CN13-051 irizpenean zorrotz aztertu genituen legebiltzarkideen eginkizunak eta legebiltzarkideen eskubideak eta prerrogatibak; eta egiaztatu genuen Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. artikulua administrazioei, erakundeei, organismoei eta enpresei datuak, txostenak eta dokumentuak eskatzeko behar adina ahal aitortzen diela legebiltzarkideei.

Beraz, esan behar dugu Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduak baduela nahikoa lege gaikuntza, eta, ondorioz, DBLOren 11.2 a) artikuluan ezarritako salbuespena ezar daitekeela, ukituaren adostasuna ez eskatzeko. Eta hala dela uste dute datu babesaren esparruko beste kontrol agintari batzuk ere, dena delako autonomia erkidegoetako legebiltzarrek bertako gobernuai egindako eskaerak aztertzean.

II

Eskatutako informazioa lagatzeko lege gaikuntza badagoela egiaztatu eta gero, falta da zehaztea ea gaikuntza zenbaterainokoa den eta ea mugarik duen, izan ere, datu pertsonalak daudela esateak (kasu honetan irudiak dira) ez dio indarririk kentzen Legebiltzarrari informazioa emateko betebeharrari.

Aztertzen ari garen kasuan ez da azaldu zergatik egin duen eskaera hau legebiltzarkideak, baina XXXXX-(e)k esandakoaren arabera, badirudi segurtasuna kameraren grabazioak legebiltzarkidearen eskura daudela, nahi duenean ikus ditzan.

Bidali diguten kontsulta-idazkiak dio eskatutako informazioa sentsiblea denez, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11.3 artikulua ezarriko dela eta legebiltzarkidearekin batera arlo horretan aditua den pertsona bat ere joango dela ikustera, Legebiltzarrean behar bezala egiaztatu dagoena, grabazioak ikusteko eskabidea egin duen legebiltzarkidearen legebiltzar taldeko aholkulari moduan.

Agentziak ez daki zer jotzen duen XXXXX-(e)k “informazio sentsibletzat”, baina datu pertsonalak babesteko esparruan irudiak ez dira bereziki babestutako datutzat edo datu “sentsibletzat” jotzen.

Datu sentsibleak DBLOren 7.2 eta 7.3 artikuluan daude araututa:

“2. Ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio eta sinesmenaren berri ematen duten datu pertsonalak ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin bakarrik trata daitezke. Horren salbuespen dira politika-, filosofia-, erlijio- edo sindikatu-izaerako xedea duten alderdi politikoaren, sindikatuen, konfesio edo erkidego erlijiosoen eta elkartearen, fundazioen nahiz irabazteko asmorik gabeko beste entitate batzuen fitxategiak, euren kideen inguruko datuei dagokienez; hala ere, datu horiek laga daitezzen ukituak aurretiaz emandako adostasuna behar da beti.

3. Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori.”

Araudiak modu berezian tratatzen ditu bereziki babestutako datuak, eta, beraz, datu horiek tratatzeko ezin da ezarri DBLOren 11.2 a) eta e) artikuluetan finkatutakoa, ondorioz, halako datuak tratatzeko, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

Ideologiari, erlijioari eta sinesmenei buruzko datuak badira (Konstituzioaren 16.2 artikulua), DBLOren 7.2 artikulua oso ondo finkatzen ditu Konstituzioaren mugak.

Arrazari, osasunari eta bizitza sexualari buruzko datuak badira, lege batek berariaz baimentzen baditu baino ezingo dira egin tratamenduak, eta legeak ematen duen gaikuntzaren oinarrian interes orokorreko arrazoiak egon beharko dira (DBLOren 7.3 artikulua); eta, horretaz gain, DBLOren 8. eta 11.2 f) artikuluetan aurreikusitako kasuak izan beharko dira.

Esan behar dugu DBLOren 7.3 artikulua bereziki babesten dituen datuen tratamenduetarako, kontrol agintaritzek argi adierazten dutela datu tratamenduaren oinarrian dagoen helburu bera izan behar dutela; beraz, datu egokiak, garrantzitsuak eta neu-

rrikoak baino ezin izango dira tratatu (DBLOren 4 artikuluan xedatuta dagoen datuen kalitatearen printzipioa).

Printzipio orokor horrek arrazionaltasun irizpidea txertatzen du informazioa erabiltzen denean, eta lege gaikuntza badago ere, ezin izango da gehiegizko tratamendurik egin. Oinarrizko eskubidea interes publikoaren edo orokorraren menpe jarritz gero, eskubideari egiten zaion murrizketa beharrezkoa izan beharko da aurreikusitako legezko helburua lortzeko, proportzioanala ere bai, eta murrizten den oinarrizko eskubidearen funtsezko edukia errespetatu behar du behintzat (18/1999 KAE).

Baina, horrez gain, zilegi da, kalitatearen printzipioarekin bat, kontuan hartzea informazioa modu disoziatuan emateko aukera ere badagoela, hau da, prozesuan parte hartu duten pertsonen datu identifikatiboak kenduta ematea, hala jakatuta helburua lortzen bada behintzat.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta informazio eskabideak betetzen baditu Autonomia Estatutua garatuz Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduan finkatutako baldintzak, eta datuak erabiltzen badira bi arau horiek Legebiltzarrari esleitzen dioten kontrol eginkizunarekin lortutako helburuetarako bakarrik, esan behar da kontsultan honetan aztertzen ari garen eskabideak aipatzen duen datu-lagatzeak baduela 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua babesa. Baina, beti ere alde batera utzi gabe datuen eta helburuen arteko proportzionaltasuna, eta fitxategiaren arduradunari aginduta datu eskaeraren helburua betetzeko behar diren datuak bakarrik emateko, behar beharrezkoak direnak bakarrik.

Helburutasun printzipioak garrantzi handia du eta kontuan hartu beharrekoa da erabakitzeke ea legebiltzarkideak egindako eskabidea eta eskabidearen helburua asebetetzeko nahitaezkoa den irudiak ikustea ala ez. Hain zuzen ere, ikusten diren irudiak ez badute zer ikusirik legebiltzarkideak lortu nahi duen helburuarekin, gehiegizko datu tratamendutzat joko da, eta legeak debekatu egiten du hori. Eta kontrara, irudiak ikustea legezkoa izango da Legebiltzarrari esleitutako eginkizunak burutzeko aurkeztu duten eskabidean jasotako helburua lortzeko moduan egiten bada.

Esanak esan, eman beharreko informazioaren proportzionaltasunaren gaineko balorazioa egitea ez dagokio Agentziari, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduen 11.4 artikulua xedatzen duenez:

“Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumentazioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikulua honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurilaritzaren erabakiarekin bat dato-rela adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arrazoiak azalduz, edo

Jaurlaritzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlaritzari. Jaurlaritzak berriro ukatzen baldin badu, Legebiltzarrari kontu eman beharko dio hurrengo osoko bilkuran.”

Artikulu horrek dioenez, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, Mahaiarekin adostuta, baloratuko du (Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpideka kontuan hartuta, egoki irizten badio) ea ados dauden ala ez XXXXXen erabakiarekin; eta Agentziak ezin du esku hartu Legebiltzarreko bi erakunde horien eginkizunetan, erabaki egokia hartzeko irizpideak ematea baino ez baitagokio Agentziari.

Azkenik, ezin dugu esan gabe utzi Eusko Jaurlaritzari egindako informazio eskaerekin gerora egiten diren tratamenduek ere berdin-berdin bete beharko dutela datu babesaren arloko araudia; eta, beraz, ezin izango dela egin lege babesik ez duen tratamendurik. Horrek esan nahi du Legebiltzarrak eta legebiltzarkide eskatzaileak jakin behar dutela ez dutela datuak beste ezertarako erabiltzeko baimenik, eta, beraz, horiei dagokienez, datu tratamenduei, datu lagatzei edo beste edozein erabilerei buruzko lege aurreikuspenak ezarriko direla oso-osorik.

2.

**INFORMAZIOA ATZITZEKO
ESKABIDEAK BEREZIKI
BABESTUTAKO DATUAK
DAUDENEAN TARTEAN**

Osakidetzak larrialdietan artatutako eta auto istripuengatik ingresatutako pertsonen datuak lagatzea

Data: 2007-08-06

CN07-009

“Osakidetzak saileko zuzendaritza bati zenbait datu lagatzeko aukera eta ondoren horietako datu batzuk barne saileko zuzendaritzari lagatzeko” auke-raren inguruan Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak egindako kontsulta dela eta egindako txostena

AURREKARIAK

2007ko martxoaren 15ean Datuak Babesteko Euskal Bulegora Eusko Jaurlaritzaren XXX Zuzendaritzaren idatzi bat iritsi zen, aurretik aipaturiko gaiaren inguruan kontsulta egiteko.

Bidalitako idatziaren kontsulta ondorengoa adierazten da:

“Gure eskumenen ekintzarako beharrezkoak diren datuak jaso nahi genituzke; Osakidetzako ospitaletan auto istripuen ondorioz larrialdietan artatu eta ingre-satutako pertsonen datuak, alegia. Beharrezko datua hauexek izango lirateke: ingresatu dituzten zentroaren kodigoa, izena, abizenak, sexua, jaioteguna, OTIa, probintzia, udalerria, kalea, ingresatu zeneko data eta ordua, alta jaso zueneko data eta ordua, altaren nondik norakoak, diagnostikoa, E kodigoa, araubide eko-nomikoa eta jasotako laguntzaren kostua.”

“Eskatutako datuak Zuzendaritza honen Epidemiologia fitxategian sartuko dira.... Eta adierazitako helburuen artean.... Osasun eta auto istripuen preben-tziorako eta ikerketarako kanpainak egiteko helburua dago.”

“Eskatutako datuek epidemiologia helburuetarako eskatzen dira, auto istripuen banaketa eta arrazoiak aztertu ahal izateko. Helburu hauek lortzeko epidemiologiak indibidualizatutako eta pertsonalizatutako informazioa behar du, eta horretarako, populazioaren lagin zabala behar da EAEko arazoaren benetako irudi bat emateko eta bere prebentzio eta kontrolerako beharrezkoak mekanismoak ezartzeko.”

...

“Epidemiologia zaintza sistema bezala, Osasun Sailak beharrezkotzat jo du auto istripuen gaineko datuak jasotzeko erregistro bat ezartzea.”

“Aipaturiko araudia oinarritzat harturik, Osasun Sailak aurreikusi du funtzio horiek aurrera eramateko datuak izaera pertsonaleko Epidemiologia fitxategian sartu behar direla.”

“Datuak beharrezkoak zaizkigu istripu tasaren arrazoiak zeintzuk diren jakiteko, honek aukera ematen digulako Osakidetzan auto istripuak direla eta ingresatutako pertsonen azterketa estatistikoa egiteko. Estatistika azterketa honek, istripuaren kanpo arrazioen kodifikazioa eskatzen du, E kodigoa deiturikoa, eta Gaixotasunen Nazioarteko Estatistikaren eta osasunarekin lotutako arazoen araberako sailkapena egiten du, -bederatzigarren berrikustea-. Kode honek istripua nola gertatu den jakiteko aukera ematen du, ondoren egingo den azterketarako garrantzitsua. Era honetan, ingresatutako eta artatutako gaixoen bolumena zein den jakin dezakegu, bai eta beren zaurien larritasuna, kokapena edo erabilitako osasun baliabideak ere. Azterketa estatistikorako hurrengo aldagaiak erabiltzen dira: Sexua, adina, bizilekua, barrutia, saila, ingresatu zuteneko data, alta data, diagnostiko nagusia, bigarren mailako diagnostikoa, kanpo-eragina, bermatzailea eta prozesuaren kostua.

“Osakidetzan jaso diren auto istripuen zauritutakoak identifikatzeko beharra Sailaren eta Osakidetza Antolaketa Zerbitzuen arteko kontratu-programen barruan izenpetu da, kalitate konpromiso gisa. E kodigoaren kodifikazioak istripuaren kanpo arrazoiak ezagutzeko aukera ematen du eta zauri traumatikoak izan diren istripuetan lesioa eragin duen istripuaren nondik norakoa bezala ulertzen da.”

“Zuzendaritza honetara Osakidetza datuak lagatzea onartuko balitz, Osasun Sailak Barne Saileko XXX Zuzendaritzari etorkizunean datuen lagapen baten bideragarritasunari buruzko informazioa izan nahi genuke. Lagatzea istripu baten ondorioz Osakidetzan zaindutako pertsona baten heriotzaren datuetara murriztuko litzateke, uste baitugu berau oinarritzko datua dela.”

“Lagatze honen arrazoia, Osasun Saila eta Barne Saila Euskal Autonomia Erkidegoko Bide Segurtasun Batzordearen (urriaren 9an 22/1993 Dekretupean sortua) partaide direlako da. Batzorde hau aholkularitza eta topaketa organo gisa eratu da, Euskal Administrazio Publiko ezberdinen partaidetzarekin, bide segurtasunaren inguruan aritzeko.

“Osasun Saila, bestelako Sail eta Institutuzioen modura, Bide Segurtasunaren, Istripuen ondorengo arretaren, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoaren eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Komitearen eta Sektoreen Mahaiaren partaide da. XXX Zuzendaritzaren bidez bideratzen da mahai honetan daukan presentzia eta ekin-tza zerrenda batean islatzen da.”

“Barne Saileko XXX Zuzendaritzak istripua bera gertatu den unean izandako heriotzen berri du, baina ez istripua izan eta 30 egunera hil direnena. Datu honen berri izatea beharrezkoa zaio Estatuko gobernuarekin elkarlanean aritzeko zirkulazio istripuen estatistika bat osatzeko, 1993ko otsailaren 18ko Aginduaren (istripuen estatistika aldatzen duena), 2. artikulua jasotzen duen bezala.

“Osakidetzak Osasun Sailari datuak lagatzea datuen babesaren araudiaren egokitzen bazaio, aurretik aipaturikoa, ZUZendaritza honek 30 egunerako hildakoen datuak izango lituzke. Eta beraz, uste dugu, datuok gobernu zentralari luza dakizkiokeela 15/1999 Legearen 21.1 artikulua babesean edo lege honen beraren 11.2 e) artikulua babesean, Administrazio Publikoari helburu estatistikoetarako datuen lagatzea delako.”

2/2004 LEGEak, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, Bulego honi 17. artikuluan honako eginkizuna ematen dio:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Goian aipatutako arautegiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egindako kontsultari erantzuteko txostena egitea.

GOGOETAK

I

Kontsulta honetan bi gai planteatzen dira. Lehenengoa egokia den ala ez datuen babeserako araudiaren arabera “Osakidetzak Osasun Saileko XXX Zuzendaritzari datuak lagatzea; auto istripuen ondorioz Osakidetzako larrialdietan artatu eta ospitaletan ingratutako pertsonen datuak (izen-abizenak, sexua, jaioteguna, TISa..), hain zuzen ere.

Bigarrena, Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko XXX Zuzendaritzari datuak lagatzeko aukera.

Lehenengo gaiari erantzuna eman aurretik, eskatzaileak Bulego honi egindako kontsultan oso argi agertzen ez diren zenbait alderdiren inguruko gogoetak egin beharko lirateke.

Lehenengo gogoeta, aipaturiko datuak lortzeko fitxategi edo fitxategien inguruan gordetzen den isiltasunaren ingurukoa da.

Aurrekoa aipatu da 200eko ekainaren 19an Osakidetzako Erakunde Publikoaren Administrazio Batzordeak izenpetutako Hitzarmenaren ondorioz sortutako fitxategia gainera ikusiz gero ondoriozta daitekeelako eskatutako datuak jaso ditzaketen fitxategiak hainbat izan daitezkeela. Datuak jaso nahi den fitxategiaren arabera lagatze erregimena ezberdina izango da.

Bi fitxategi azpimarra daitezke:

“Historia Klinikoa”. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza da arduraduna.

““Larrialdietako Asistentzia jardueraren Erregistroa”. Larrialdietako kudeatzailea da arduraduna.

“*Trafikoa*”, larrialdietako kudeatzailearen ardura.

Bulego honi arduratzen dion beste gai bat kontsultan aurkezten den baieztapena. Honen arabera, “Eskatutako datuek epidemiologia helburuetarako eskatzen dira, auto istripuen banaketa eta arrazoiak aztertu ahal izateko. Helburu hauek lortzeko epidemiologiak indibidualizatutako eta pertsonalizatutako informazioa behar du, eta horretarako, populazioaren lagin zabala behar da EAEko arazoaren benetako irudi bat emateko eta bere prebentzio eta kontrolerako beharrezkoak mekanismoak ezartzeko”.

Bulego honen aburuz, eta kontuan hartuta ez dela epidemiologiak gaietan aditua, gai hau are gehiago korapilatzen da, planteamendu bera, aurrerago, modu honetan egi-ten denean:

*“Datuak beharrezkoak zaizkigu istripu tasaren arrazoiak zeintzuk diren jakiteko, honek aukera ematen digulako Osakidetzan auto istripuak direla eta ingresa-
tutako pertsonen azterketa estatistikoa egiteko. Estatistika azterketa honek, istripuaren kanpo arrazoiaren kodifikazioa eskatzen du, E kodigoa deiturikoa, eta Gaixotasunen Nazioarteko Estatistikaren eta osasunarekin lotutako arazoaren ara-
berako sailkapena egiten du, -bederatzigarren berrikustea-. Kode honek istripua nola gertatu den jakiteko aukera ematen du, ondoren egingo den azterketarako garrantzitsua. Era honetan, ingesatutako eta artatutako gaixoen bolumena zein den jakin dezakegu, bai eta beren zaurien larritasuna, kokapena edo erabilitako osasun baliabideak ere. Azterketa estatistikorako hurrengo aldagaiak erabiltzen dira: Sexua, adina, bizilekua, barrutia, saila, ingesatu zuteneko data, alta data, diagnostiko nagusia, bigarren mailako diagnostikoa, kanpo-eragina, bermatzailea eta prozesuaren kostua.” (azpimarratutakoa guk egin dugu).*

Adierazi nahi da, eta Bulegoak epidemiologiaren gaineko espezializazio falta berriro ere azpimarratuz, identifikazio pertsonalizatu eta indibidualizatutako beharrendaren gaineko baieztapen bat egon arren, Bulego honek ezin dituela behar honen arrazoiak zein-
tzuk diren ikusi, are gehiago aurretik azpimarratutakoak kontuan hartuta.

II

Azterketa hauek egin ondoren, azaldutako gaiaren inguruko erantzun egokia ematen saiatu behar da. Lehenengoa:

Saiakera hau kontsulta egileak aurkezten duen ikuspuntu beretik egingo da, hau da, “epidemiologiaren” ikuspuntutik. Eta, beraz, DBLOren 12f) artikulua erabiltzeko, ez Bulego honek aukera bakartzat jotzen duelako, ez eta egokia dela erakundeak bere jarduerak garatzeko beharrezkoak dituen datuak jasotzeko ere, baizik eta kon-
sulta egileak berak aukeratu duelako.

Ikuspuntu honetatik ez luke zentzurik izango Bulego honek eztabaidatzea kontsulta egin duen erakundeak aitortzen duen helburua “ikerketa epidemiologikoa” egitearena den edo ez, 12f) artikuluaaren terminoetan.

Arrazoi askok eramaten gaituzte aurreko gogoeta horretara.

Lehenik eta behin, kontsulta egin duen erakundeari, azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuaren arabera, Osasun Saileko egitura organikoa onartzen duena, beste batzuen artean, honako eskumena aurrera eramatea egokitzen zaio: “zaintza eta *azterketa epidemiologikoa egitea eta gaixotasunen prebentzioa*.” Beraz, berak baino ezin du hobeto zehaztu nola ulertu behar den azterketa epidemiologikoa.

Bigarrenik, “Epidemiologia” fitxategiak 2005eko ekainaren 1eko Agindua, Osasun sailburuak Osasun saileko fitxategien izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen, helburuetako bat bezala “*osasun prebentziorako eta auto istripuetarako kanpainak egitea eta ikerketak*” ezartzen du. Honek baieztatzen du Sailak gaiaren inguruan duen ikuspuntua, Osasunaren Munduko Erakundeak daukan izaera jasotzen duena.

Ikuspuntu honetatik beraz, DBLOren 11. artikuluko 2f) paragrafoak izaera pertsonaleko datuak lagatzeko baimena salbuesten du, lagatzea azterketa epidemiologikorako erabiltzen denean, erkidegoko edo estatuko osasunaren inguruko legeriak bat esaten duenarekin.

Azterketa epidemiologikoetarako izaera pertsonaleko datuak lagatzeko araubide juridikoa da, beraz, bi araudien edukia.

Edo, bestela esanda, puntu honetan, osasun araudiak DBLOrena arautzen du, Konstituzio Auzitegiaren doktrinara egokitzen den aipamena egiten duelako

Bi araudi hauen harremana, Bulego honen ustez, ez da bat bestearen gainetik egongo, maila edo zehaztasunagatik, baizik eta bien aplikazioan egongo da, DBLOk erkidegoko edo estatuko osasun legeriari egiten dion aipamenean ikus daitekeen bezala.

Zentzu honetan, apirilaren 25eko 14/1986 Osasun Orokorreko Legeak eta ekainaren 26ko 8/1987 Euskadiko Osasun Plangintzako Eusko Legebiltzarreko Legeak, alde batetik, osasun erakunde publikoetan izandako egonaldia eta prozesuaren inguruko informazioaren babesa bermatzen dio gaixoei (10.3 eta 10.1 artikulua hurrenez hurren). Bestetik, osasun sistemaren jardueratzat hartzen da azterketa epidemiologikoak egitea osasun arriskuen prebentzian eraginkorragoa izateko (8.1 eta 9a) artikulua hurrenez hurren).

Bi arau hauek, bestalde, ez dute arautzen azterketa epidemiologikoa egiteko osasun sistemak garatuko duen modua, eta are gehiago, azterketa hauek historia klinikoaren datuak eskatzen dituztenean, kontsultan aipatzen den ustezkoan bezala.

Azaroaren 14ko 41/2002 Gaixoaren Autonomiaren, Eskubideen eta Betebeharren inguruko Informazio eta Dokumentazio Klinikoen Lege Arautzaile Orokorrak, bere 16.artikuluaren aurrekusi du historia klinikoen erabilera. 3. paragrafoan ezartzen du epidemiologiko, osasun publikoko, ikerketako edo irakaskuntzako helburuetarako historia klinikoak izateak, gaixoaren datu identifikagarriak babestu behar dituela asistentzia kliniko izaeratik banandu beharrekoa. Beraz, orokorrean, anonimatua gorde beharko da, gaixoak kontrakoa egiteko baimena eman ez badu.

Aurrekotik atera daitekeen ondorioa da, arau orokor bezala, historia klinikoan azaltzen diren txertaketa datuak ezin zaizkiola hirugarren bati laga azterketa epidemiologikoak egiteko. Horretarako ukituaren adostasuna izan beharko du.

“Arau orokor gisa” adierazpena sartzeak adierazten du posible dela komunikazioa egi-tea titularra identifikatzean eta bere adostasunik gabe, egoera berezietan.

III

Araubide juridikotik Bulego honek atera dezakeen ondorioa da hau, eta laguntzeko borondatearekin, beste irizpen batzuetan uste izan duelako kontsulta egileak beharrezko zituen datuak beste bide batzuetatik lortzeko aukera zuela.

Aukera hau, beti Bulego honen ustez, zailagoa da azaltzen zaigun kasu honetan. Beste kasu horietan (bereziki txertaketarena) ikusten zen beharrezkoa zela titularren datuak izatea nahi zen helburua lortzeko, kasu honetan, aldiz, eta txostenaren lehenengo puntuan azaldu den bezala, Bulego honi zaila iruditzen zaio identifikazio honen beharra finkatzea.

Aurrekoari gehitu behar zaio ez Zuzendaritzaren azalpenek ez eta epidemiologiaren inguruko araudiak ere, oro har, ez dutela titullarrak identifikatzeko beharrik argitzen.

IV

Azaldutako bigarren gaiaren inguruan, ikusi behar da kontsulta egin duen Zuzendaritzari lehenengoari emandako erantzunak baldintzatzen diola. Baina kontsulta egileak berak datuen muga ezartzen dute, eta “Osakidetzan artatutako pertsonen heriotzen datuak” jaso nahi dituela soilik aipatzen du.

Hori horrela izango balitz, ulertu beharko litzateke, datuaren izaerarengatik, datu honek beti hildako bati erreferentzia egingo diola. Eta, beraz, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren doktrinarekin bat, ezingo litzateke datuak babesteko araudia ezarri, DBLOk bere eremua mugatzen duelako pertsonen eskubideen alde, eta heriotza da pertsonalitatea galtzearen arrazoiatariko bat.

Era honetan, eta datuak hildako pertsona bati beti erreferentzia egiten dionean, eta identifikatutako edo identifikagarria den beste pertsona bati buruzko informaziorik ez

duenean, datua lagatzeak ez luke arazorik izango datuen babesaren ikuspuntutik, edo Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ezartzen duen bezala:

*“Hala, bada, datuak babesteko oinarritzko eskubidea da norbanakoak erabakitzea berari buruzko informazioa hirugarren batek jakin dezakeen edo ez, edo erabili dezakeen; horren ondorioz, interesdunak baimena eman behar du datuak laga eta beste batek erabil ditzan, eta horren berri izan behar du. Argi dago eskubide hori desagertu egiten dela heriotzarekin batera, eta, beraz, **hildakoen datuen erabilera ez dago DBLOren aplikazio-eremuaren barruan**. Horrenbestez, datuen jabeak ez bestei inork erabil dezake datu horietara jotzeko eskubidea, eta, beraz, interesdunaren heriotzak berekin dakar hirugarren batek ezin erabili izatea eskubide hori e hildakoaren izenean.”*

ONDORIOAK

Eskatutako datuen lagapena ez zaio DBLOren 11.2 f) artikuluan aurreikusten denari egokitzen.

Datuak lagatzeko planteaturiko gaia Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eskumenen kanpo dago txosten honen IV gogoetan adierazten denarekin bat etorrita.

Datu-lagatzea sindikatuei Prebentzio Legea betetzeko

Datu: 2011-02-22

CN10-035

Prebentzio zerbitzuko bileretara gonbidatutako prebentzioko ordezkariak eta sindikatu ordezkariak amiantoaren eraginpean egondako langileen zerrenda bat ematea ea datu-babesaren arloko araudira egokitzen den galdetzeko, XXXXX ospitaleko segurtasun eta osasun batzordeak egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2010eko abenduaren 22an XXXXX Ospitaleko XXXXX(-e)k goian adierazitako gaiari buruzko irizpen-eskaera jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

BIGARRENA: Eskaera-idazkian honakoa adierazten da:

“Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ente publikoaren Zerbitzu Organizazioa den XXXXX Ospitaleko XXXXX naizenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jotzen dut honako kontsultari erantzun diezaiozuen eskatzeko:

2010eko irailaren 28an ez ohiko bilera monografiko bat egin zen Osasun Zentro honetan dagoen amiantoak dakarren arriskuari buruz. Bileran ospitaleko Prebentzioko Ordezkariek egon ziren, eta eskatu zuten amiantoren arriskupean egon daitezkeen langile guztien zerrenda bat, egiaztatzeko ea erakunde honetako Prebentzio Zerbitzuek egin duten osasuna zaintzeko berariazko programan haien ustez egon behar duten langile guztiak egon dauden.

Ez dugu garbi ea zilegi den bilerara gonbidatutako Prebentzioko Ordezkariek eta sindikatu ordezkariak ematea amiantoaren arriskupean egon daitezkeen langileen zerrenda, identifikazio datuekin. Beraz, horren gaineko txostena eskatzen dizuegu.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia eskatzen da argitzeko ea datuak babes-teko araudiarekin bateragarria den ospitaleko prebentzio ordezkarietara eta sindikatu ordezkarietara lagatzea zentroan amiantoaren arriskuarekin egon daitezkeen langileen ze-rrenda izenduna.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean DBLO) datu-lagapenari buruzko definizio hau ematen du: “Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea” (3. i artikulua).

Datu-lagatzeei buruzko erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago jasota, eta 1. idatz-zatian xedatzen da adostasuna dela datu-lagatzeak egin ahal izateko irizpide orokorra.

“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotutako dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.”

Baina, adostasuna beharrezkoa dela dioen arauak baditu salbuespenak. Salbuespenak 11. artikuluko 2. idatz-zatian daude jasota. Horien artean, a) letran jarri behar dugu arreta:

“a) Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Datuak lagatzeko lege gaikuntzarik ba ote dagoen jakiteko, lege esparru ezargarria aztertu beharra dago.

Hasteko, Espainiako Konstituzioaren 40.2 artikulua xedatzen du, politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarrietako bat dela botere publikoei gomendatzea laneko se-gurtasuna eta higiena zaindu behar dutela. Konstituzioaren agindu horrek esan nahi du langileen osasuna babesteko politika bat garatu behar dela, langileen laneko arris-kuen prebentzioaren bitartez.

Beste alde batetik, Europako Batasunaren esparruan honako arauak ezartzen du Ba-tasuneko Prebentzioko politikaren lege esparru orokorra: Langileen laneko segurta-suna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurriak ezartzei buruzko 89/391/CE Zuzen-taraua. Zuzentaraua barne ordenamendura ekartzeko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea onartu zen. Legearen III. Kapitulua (“Eskubi-deak eta betebeharrak”) 14. artikuluekin hasten da eta artikulua horrek dio langileek modu eraginkorrean babestuta egoteko eskubidea dutela eta enpresariak langileak babestu egin behar dituela laneko arriskuetatik. Administrazio publikoek ere ber-din-berdin babestu behar dituzte bertako langileak.

Langileak behar bezala babesteko, laneko arriskuen prebentziorako plana egin behar dela dio Legeak 16. artikuluan:

“1.Lan-arriskuen prebentzioa enpresako kudeaketa-sistema nagusira bildu behar da, hala enpresako jarduera guztiei dagokienez, nola enpresako hierarkia-maila guztiei dagokienez. Hurrengo lerroakad aipatu lan-arriskuak prebentzeko plana ezarri eta aplikatuz.”

Gainera, Legearen 18. artikulua xedatzen du langileak eta langileen ordezkariak informatu eta kontsultatu egin behar direla eta parte hartu egin behar dutela. Hona hemen 18. artikuluko lehenengo idatz-zatiak dioena:

“1. Lege honetan ezarri babes-eginbeharra betetzeko, enpresaburuak neurri egokiak hartuko ditu, langileek beharrezko informazio guztia jaso dezaten, hurrengo inguruan:

Langileen laneko segurtasun eta osasunerako arriskuak, hala enpresa osoan daudenak, nola lanpostu eta eginkizun bakoitzak dituenak.

Aurreko idatz-zatian aipatu arriskuei aplikatu beharreko babes eta prebentzio-neurri eta -jarduerak.

Lege honen 20. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik hartutako neurriak.

Langileen ordezkariak dituzten enpresetan, enpresaburuak langileei emango die idatz-zati honek aipatu informazioa, ordezkarien bidez; hala ere, langile bakoitza zuzenean informatu behar da, bere lanpostuak edo eginkizunak dituen arriskuez eta arrisku horiei aplikatu beharreko babes eta prebentzio-neurriez.”

Prebentzio zerbitzuei dagokienez, langileen ordezkariak informatzeko obligazio orokor hori osatzeko, 31. artikuluan xedatutakoa hartu behar da kontuan. Bertan dio prebentzio zerbitzuak zer diren:

“Prebentzio-zerbitzu gisa ulertuko da prebentzio-jarduerak gauzatzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen multzoa, langileen segurtasuna eta osasuna modu egokian berma daitezen. Horretarako, aholkuak eta laguntza emango zaizkie enpresaburuari, langileei eta horien ordezkariak zein ordezkari-tza-organo espezializatuei.”

Artikulu horrek enpresariak bere eginkizunak burutzeko zein eginkizun burutu behar dituen esaten du:

“Enpresaburuak ahalbidetu behar du zerbitzu horrek eskura izatea aurreko artikuluko 3. idatz-zatiak aipatu informazioa eta agiriak.”

Goiko artikulua aipatzen dituen artikulua eta idatz-zatiak lehenago aipatu ditugun beste artikulua batzuetara bidaltzen gaituzte:

“Prebentzio-jarduera gauzatzeko, enpresaburuak ahalbidetu beharko du izendatutako langileek eskura izatea lege honen 18 eta 23. artikuluek aipatu informazioa eta agiriak.”

Artikulu horietako lehengoari erreparatuko diogu. Artikulua 23. da eta lehen ere aipatu dugu. Bertan zehazten da zein informazio eman behar zaien laneko eta osasun arloko agintariei. Hala ere, 18. artikulua gogorarazten digu neurri egokiak hartu behar direla langileei honako hauei buruz informatzeko:

“Langileen laneko segurtasun eta osasunerako arriskuak, hala enpresa osoan daudenak, nola lanpostu eta eginkizun bakoitzak dituenak.”

Beraz, arloko araudi hori guztia ikusita, kontsultan aipatzen den eskaera bat dator datu-babesaren arloko araudiarekin, hau da, zilegi da eskatzea “amiantoren arrisku-pean egon daitezkeen langile guztien zerrenda bat, egiaztatzeko ea erakunde hone-tako Prebentzio Zerbitzuek egin duten osasuna zaintzeko berariazko programan haien ustez egon behar duten langile guztiak egon dauden”.

Aurreko guztiak kontuan hartuta, hona hemen Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren

ONDORIOA

Amiantoaren eraginaren arrisku-pean dauden langileen zerrenda ematea prebentzioko ordezkariari eta sindikatu ordezkariari bat dator datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin.

Lan poltsetako kideen bereziki babestutako datuen berri izatea

Data: 2012-07-26

CN12-006

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko aldi baterako lan poltsetan dagoen pertsona batek ea lan poltsetan daudenen ezgaitasun-ezaugarrien berri eman daitekeen galdetuz egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko aldi baterako lan poltsetan dagoen pertsona baten idazkia jaso genuen. Idazkian zera zioen:

“... Eskabide hau egiteko arrazoiak honakoak dira:

Lehenengoa.- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko aldi baterako lan poltsetan egotea...

Bigarrena.- eskumendun organoak legeaz aitortutako ezgaitasun edo minusbalio-tasuna izatea...

Hirugarrena.- lehenengo eta bigarren puntuetan adierazitakoa kontuan izanda, interes legitimoa izatea jakiteko ea GUFeko aldi baterako lan poltsetako zein pertsonak eskuratzen dituzten ezgaitasun-kontratuak, ea zein den pertsona horien hurrenkera zonifikazioaren arabera, ea horietako zeintzuk duten hizkuntza eskakizuna eta ea zein diren GUFeko aldi baterako kontratazioetan eragina duten gainontzeko faktoreak. Era berean, GUFeko aldi baterako kontratazioetan eragina duten faktoreak zein diren jakiteko GUFeko lan poltsetan dagoen edonork duen interes legitimo bera izatea ...

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean enplegu publikoko aldi baterako kontratazioak egiteko erabiltzen diren arauak dira, batetik, aldi baterako lan poltsak kudeatzeko irizpideak, eta, bestetik, ezgaitasun protokoloak, horiei esker betetzen direlako lan poltsak kudeatzeko irizpideen 14. artikuluan ezarritako helburuak.

Ezgaitasun kontratu bat eskuratzeko aukera duen edozeinek jakin nahi badu ea ezgaitasun kontratua berari ala beste bati dagokion, nahitaez jakin beharko du beste nork nahi duen halako kontratu bat eskuratu lan poltsa horietan; bestela, ezin izango du jakin ea ezgaitasun protokoloak behar bezala ezartzen diren, eta are gutxiago ea benetan ezartzen ari diren ...

GUFEn ezgaitasun kontratazioak dira ezelako kontrolik ez duten kontratazioak, eta hala dela gauza objektiboa da.

Ezgaitasun kontratua eskuratu nahi dugunok ezin dugu jakin:

A) Ea ezgaitasun araudia edo protokoloak ezartzen dituzten.

B) Ea behar bezala ezartzen dituzten.

C) Ezin dugu kontrol organora jo bermeekin ...

GUFEn ezgaitasun protokolo batzuk daude lan poltsak kudeatzeko irizpideetako 14. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Protokoloen xedea 14. artikuluan ezarritako helburua betetzea, horiek gabe ezi-nezkoa izango litzatekeelako helburuak erdiestea ...

Idazki hau idatzi duen honek eta GUFeko aldi baterako lan poltsetan dauden ezgaitasundunek oraintxe bertan ezin dugu jakin:

Ea ezgaitasun araudia edo protokoloak ezartzen dituzten.

Ea ezgaitasun araudia edo protokoloak behar bezala ezartzen dituzten.

Eta, horrez gain, ezin dugu erreklamaziorik egin protokoloak betetzen direla kontrolatzen duten batzordeari, bermerik ez dutelako.

Eta hala gertatzen da Foru Erakundeko hautaketak zerbitzuko burutzak honakoa ezarri duelako: "ezgaitasun kontratua nork eskuratu dezakeen dioen faktorea ez da jasoko aldi baterako lan poltsetan beste datuekin batera (hizkuntza eskakizuna, hurrenkera eta abar), babestuta egon behar den datua delako, eta lan poltsa horietako ezgaitasundun pertsonak salatu egin nazaketelako eta datu babesaren esparruko zigorrek jaso dezakedalako."

Enplegu publikoko hautaketa prozesu batean esku hartzen duten datu edo faktoreak, prozesua EPEa izan lan poltsa bat izan ala bestelako izenen bat izan, datua legez eman badaiteke, eta prozesu horren ondorioz, herritarrek enplegu publikoaren esparruko lan kontratu bat eskuratu badezakete, hautaketa prozesuan interes legitimoa dutenek, jakin egin behar dituzte datu horiek zein diren, datuak lan poltsetakoak direlako, faktore horien onuradun direlako eta/edo kontrol organo ere badirelako.

Hautaketa prozesu batean ezkutatuz gero zein den faktoreetako baten onuraduna, hautaketa prozesuko beste guztien eskubidea urratzen da, bai eta horiek

ezartzeko ardura duen pertsonarena ere (alde batera utzita berari inporta zaion ala ez), inpartziala dela pentsa daitekeelako.

Nik neuk ezgaitasuna dudan arren, ez dakit lan poltsan nork gehiago duen edo beste nork eskura dezakeen ezgaitasun kontratu bat.

... esku hartzen duten datuak edo faktoreak publikoak izan behar dute edo lan poltsetan interes legitimoa dutenek atzitzeko modukoak."

BIGARRENA: Herriar horren kontsulta ikusi eta gero, 2012ko martxoaren 29an gaiari buruzko txostena helarazteko eskatu genion Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Urgazpe-nerako Foru Erakundeari.

HIRUGARRENA: 2012ko apirilaren 19an erakunde horren erantzuna jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, eta bertan honakoa zioen:

"... ez deritzogu ondo lan poltsetako partaideetako batek, ezgaitua izateagatik GUFeko lan poltsak kontrolatzea "hautaketa prozesuan interes legitimoa dutenek, jakin egin behar dituztelako enplegu publikoko hautaketa prozesu batean esku hartzen duten datu edo faktoreak" aitzakia tarteko.

Eskatzaileak dioenez, EPE deialdietan bai argitaratzen dira ezgaitasuna duten pertsonen buruzko datuak, enplegu publikoko benetako hautaketa prozesuak direlako. Baina, eskatzailea ez da enplegu publikoko prozesu batez ari, lan poltsen eraketari buruz baizik, nahiz eta lan poltsen jatorria enplegu publikoko prozesu bat izan.

Eskatzaileak nahi duena da lan poltsetako gainontzeko partaideek baino informazio gehiago izan; beste partaideek zerrendak ikusita dakitelako zein den haiei lekua hurrenkeran, adostuta dugun erabaki baten eraginez diskriminazio positiboa aitortu zaien beste guztiek (45 urtetik gorakoek, ezgaitasuna dutenek ...) ere berdin jakin dezakete.

Eskatzaileak nahi duena Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eskumenetatik haratago doa, langileak EPEan ezgaitasundunen txandan parte hartzen dutenen zerrenden bidez identifikatzen direlako eta zerrenda horiek argitaratu egiten direlako, eta gainontzeko partaideek bezalako informazioa dutelako. Beraz, eskatzaileak ezin digu agindu gerta daitezkeen egoera guztiei buruzko informazioa berari emateko, informazioa jada eskura duelako egin diren enplegu publikoaren eskaintzetan."

LAUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta

lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio herritar batek datu babesari buruz egin digun galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Hasteko, esan behar da planteatu diguten gaiak zer ikusi gehiago duela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen duen fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidearekin, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearekin baino. Kontsultaren edukia ikusi eta gero, eta kontsultari atxikitako arrazoiketa juridikoa ikusita, argi dago hala dela.

Administrazio zuzenbidearen esparruko auzia bada ere, eta ez hainbeste datu-babesaren esparrukoa, hainbat ohar egin beharrean gaude, laguntzeko asmo hutsez.

II

Kontsultan aipatzen den datu-tratamendua datu-komunikazioa edo datu-lagatzea da, hala xedatzen baitu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3 i) artikulua:

"Interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea."

DBLOK dioenez, datuak lagatzeko bete behar den arau orokorra adostasuna da:

Hona hemen 11.1 artikulua xedatzen duena:

"Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotutako dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin."

Bigarren artikuluko 2. idatz-zatian arau orokor horrek dituen salbuespenak arautzen dira, eta gure kasuan a) atalak xedatutakoa kontuan hartu beharrekoa da:

"Lege batek baimentzen badu lagapena."

Kasu honetan datu-lagatzea gaitzen duen legea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea da. Zehatzago esanda, Legearen 35 a) eta 37 artikulua.

“35 a) artikulua: Herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan eskubide hauek dituzte:

Herritarrek, prozedura batean interesatu izaera dutenean, tramitazioa zertan den edozein unetan ezagutzeko eskubidea dute eta prozedura horietako agiriaren kopia lortzeko eskubidea dute.”

37.1 artikulua honakoa xedatzen du:

“Herritarrek erregistroetara jotzeko eskubidea dute eta, espedienteren batekoak izanik, administrazioko artxiboetan dauden agirieta irispidea izateko eskubidea, edozein dela ere agiri adierazpidea -idatzia, entzunezkoa nahiz irudizkoa- eta euskarri materiala, espedienteak ikusteko eskaera egiten den egunean espediente horien prozedurak amaituta badaude.”

Bi artiku horiek arautzen dute fitxategiak eta erregistroak atzitzeko era. Lehenengoak izapidetzen ari diren prozedurak arautzen ditu, eta interesdun izaera duten herritarrei fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidea aitortzen die. Bigarrena, bukatutako prozedurei buruzkoa da, eta hasiera batean herritar orori uzten dio horiek atzitzen.

Konstituzioaren 104 b) artikuluan dago manu horien jatorria:

“Legeak arautuko du:

...

“herritarrek artxibo eta erregistro administratiboetara sartzea, salbu eta estatuen segurtasun eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen bizitza pribatuari dagokienez.”

30/1999 Legeak arautzen duen atzipen-eskubidea eta DBLOk arautzen duena ez dira berdinak. Izan ere, DBLOren 15.1 artikulua arautzen duen eskubidea da interesdunak duena doan eskatu eta jasotzeko tratamendupean dauden bere datu pertsonalei buruzko informazioa, eta jakiteko ea zein den datuen jatorria eta ea zein komunikazio egin diren edo egingo diren datuekin. Eskubide hori eskubide guztiz pertsonala da, eta norbere datuak kontrolatzea du helburu. Fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidea, ordea, ez da norbere datuei buruzkoa, hirugarrenen datuei buruzkoa baizik.

30/1992 Legeak arautzen duen atzipen eskubidea kontrolatzea ez da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2009ko uztailaren 8ko epaiak dioenaren arabera:

“Demandatzaileak azaldutako jokaerek ez dute zer ikusirik oinarritzko eskubide honekin, fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidearekin baino. 30/1992 Legeak arautzen du azken eskubide hori (35 a) eta 37.2 artikulua). Hau da, proze-

*dura jakin bateko dokumentazioa eskuratzeari da kontua, eta hori Datuak Babes-
teko Euskal Bulegoaren eskumen esparrutik kanpo dago.”*

Beraz, lan poltsak izapidetzeko ahala duen organoak erabaki behar du ea eskatzailea prozeduran interesduna den ala ez.

Hona hemen interes legitimoari buruz Konstituzio Auzitegiak eman duen definizioa: “interes legitimoa da norbaitek helburu bat erdiesteko duen abantaila edo erabilera juridiko baten titulartasun potentziala, ondare-edukia izan dezakeena ala ez, eta hura gauzatuz gero, benetako bihurtzen dena. Beraz, interes legitimoa egongo da, baldin eta argi eta garbi badago aurkatutako jarduerak eragina duela prozesura doan esfera juridikoan” (Martxoaren 23ko 45/2004 KAE, 1. oinarri juridikoa).

Bulegoak hainbat ohar egin nahi ditu, baina lan poltsen kudeaketa-organoaren eginkizunetan esku hartzeko asmorik gabe. Hona hemen:

Hona hemen Isabel-Cecilia del Castillo Vázquez-ek dioena: “DBLOK are gehiago indartu du gardentasunaren eta sekretuaren artean, jakiteko eskubidearen eta isilik egoteko eskubidearen artean, administrazioak daukan informazioaren berri izateko eskubidearen eta pertsonen pribatutasunerako eskubidearen artean dagoen tentsioa. Eta horrek alderdi juridikoa erabat zaildu du, doktrina sendoenak ere erakusten duenez.

Era berean, LUCAS DURANEk dioena ere kontuan izan behar dugu, hau da, bi printzipio horien arteko tentsioak esan nahi duela printzipio bakoitza ezin dela etengabe aurrera joan norabide batean (hau da, erabateko publikotasuna bultzatuz ala erabateko isiltasuna bultzatuz), kontrako norabidean bultzatzen duen beste printzipio bat dagoelako, eta indarra kentzen diolako -kontrako norabidean bultzatze eginez- eta gardentasunerako norabidean ala isiltasunerako norabidean doazen indarrei kontra egiten dien beste indar bat jartzen dielako parean, bi indarrak ponderatu beharra sortuz. Hartara, zenbaitetan gertatuko da administrazio gardentasuna murriztu egin beharko dela interes zehatz bat dagoelako tartea, eta ponderazioa egin eta gero ikusten delako interes hori interes orokorraren gainetik dagoela.”

...

“Hori dela eta, sekretuak babesten dituen alderdiak atzipenarekin bateragarriak badira, administrazioak ezin izango du ukatu espediente baten atzipena.”

Gure aburuz, aztertzen ari garen kasuaren ezaugarriak dira, batetik, izapidetze fasean dagoen prozedura bateko datu-atzipena dela, bestetik, aldi baterako lan poltsa batzuetako kideak interesdunak direla, eta, hirugarrenik, datu-babesaren ikuspuntutik ez dagoela eragozpenik interesdunek jakin dezaten lan poltsan daudenen izena, zein tokitan dauden lan poltsan eta zein hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten, hala nola ezgaitasun datua edo 45 urtetik gorakoa izatea; baldin eta datuak garrantzitsuak badira lan poltsaren funtzionamendurako.

Kasu honetan ikusi da Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak honako argitaratu zuela 2008ko abenduaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren (86. zk.) 11.953. orrian eta hurrengoetan: “aldi baterako lan poltsak kudeatzeko irizpideen 14. artikulua aldatzea”. Hona hitzez hitz:

“.. Ezgaitasuna duten pertsonak eta 45 urtetik gorako pertsonak gizarteratzeko prozesua errazteko, kontratuen ehuneko hamar, hau da, hamar kontratutik bat, kategoria bakoitzeko ezgaitasuna dutenen edota 45 urtetik gorakoen ataleko pertsoneri eskaintzeko ahalegina egingo da, betiere ezintasunak kontratua bete-tzea galarazten ez badie.

Ezarri den irizpidea hau da: 30 kontratu bakoitzeko, 27 zerrenda orokorrekoak izango dira, bi 45 urtetik gorakoenekoa eta bat, berriz, ezgaitasuna dutenen zerrendakoa.

Kadentzia hori honela gauzatuko da kategoria bakoitzean: 10 kontratu bakoitzeko, 10. kontratua 45 urtetik gorako pertsona bati eskainiko zaio; kadentzia hori berriro errepikatuko da eta, beraz, 20. kontratua 45 urtetik gorako pertsona batentzat izango da ere.

Hurrengo kadentzian, 30. kontratua ezgaitasuna duen pertsona bati eskainiko zaio eta, horrela, berriro hasiko da zenbaketa orokorra, lerroalde honen hasieran ezarritakoaren arabera.

Ezin izanez gero, izapidea hurrengo kontratuan egingo litzateke, eta horrela hurrenez hurren.

Zerrendako kide bat aldi berean ezgaitasuna duen pertsona bat izatea eta 45 urtetik gora izatea gertatuko balitz, ezgaitasuna duen pertsonatzat hartuko litzateke kontratuak eskaintzeari dagokionez”.

Gauzak horrela, eta eskumena duen erakundeak ebatzi behar badu ere herritarrak egin duen eskaera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du kontsulta-egileak, Bizkaiko Gizarte Urgazpeneko Foru Erakundearen aldi baterako lan poltsetako partaideak izanik, baduela lan poltsa horietako gainontzeko partaideen datuak atzitzea, eta horrek ez du datu pertsonalak babesteko araudia urratu behar, datu horiek jakitea eta 45 urtetik gorakoa den edo ezgaitasunen bat duen pertsona den jakitea garrantzitsua bada lan poltsak ondo kudeatzen direla kontrolatzeko.

Hala eta guztiz ere, datu babesari dagokionez ezin dena ontzat jo da ezgaitasun mailaren edo ezgaitasunaren zergatiaren berri ematea, edo lan poltsetako partaideei buruzko beste edozelako informazioa, baldin eta haien intimitateari eragiten badio eta ez bada garrantzitsua herritarrak kasu honetan nahi duen helbururako.

Ezgaitasun izaera argitaratzea hautaketa prozesu batean

Data: 2013-01-30

CN12-039

Gaikuntza Nazionaleko Idazkari kontu-hartzaile lanpostu baterako hautaketa prozesu batean, bere ezgaitasun izaera argitaratu izanari buruz, XXXXXk egin-dako kontsultaren gainean emandako irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2012ko abenduaren 20an XXXXXen idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkia goian adierazitako gaiari buruzkoa zen.

BIGARRENA: Idazkian ondoko galderak egin zizkigun, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak erantzuteko:

“1) Oposizio batean izenak eta abizenak agertzea, hautagaien datu babesaren kontra ez dago?”

2) Uste dut nire ezgaitasuna kontu labaina, pribatua eta pertsonala da, eta ez dut ulertzen zein interes duten txanda bietan parte hartzen dutenek nire ezgaitasun egoeraren berri izateko, pentsatzen dudalako hori nire kalterako izango dela etorkizunean. Uste dut horrek nire pribatutasuna kaltetzen duela eta datu babesaren aurka dagoela. Kontua da egun nire ezgaitasun egoera denek ikusteko moduan dagoela.

Azkenik, eskatzen dut ezgaitasun egoera ez izatea datu publikoa oposizioetan eta ez agertzea zerrendetan izen eta abizenekin.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Irizpen eskaerak bi kontu planteatzen ditu. Lehengo galdera da ea hautaketa prozesu batean izena eta abizena argitaratzea datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera den; eta bigarren galdera da ea datu babesaren arloko araudiarekin bat datorren, bera ezgaitua dela jakitea, berarekin batera gaikuntza nazionala duten toki administrazioako funtzionarioen eskalako idazkaritza kontu hartzailetzako azpieskalan hautaketa prozesu batean parte hartzen duten guztiek.

Datu pertsonalen babesaren ikuspegitik begiratuta, datu horiek jakinaraztea datu lagatze bat da. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikulua arabera, datu lagatzea edo komunikazioa zera da: *"interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea"*.

Baina, DBLOk ez ditu berdin tratatzen datu pertsonalen datu lagatze guztiak. Horregatik, legearen 7. artikulua erregimen berezia du bereziki babestutako datuetarako. Horien artean daude osasun datuak. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Erregela-menduaren 5.1 g) artikulua dio osasun datuen direla honakoak: *Pertsona baten garai bateko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisiko edo mentalari buruzko informazioa. Zehazki esanda, osasunarekin zerikusia duten datutzat hartuko dira zenbaterainoko ezintasuna duten adierazten duten datuak eta informazio genetikoak ematen dutenak."*

II

Beraz, hautaketa prozesu batean parte hartzen dutenen izen-abizenak gainontzeko parte hartzaileei lagatzeko, DBLOren 11. artikuluan xedatutako datuak komunikatzeko erregimena bete beharko da. Hona: *"Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da"*; baina ez da beharko ukituaren adostasunik, baldin eta *"lege batek baimentzen badu lagapena"* [11.2a) artikulua]. Azkenik, artikulua horrek beste hau dio: *"Komunikazioa egin aurretik disoziazio prozeduraren bat egin bada, ez da aplikatuko aurreko paragrafoetan ezarritakoa"*.

Konstituzioaren 103.3 artikulua honakoa xedatzen du: *"Legeak arautuko ditu funtzionario publikoen estatutua, meritu- eta gaitasun-printzipioen arabera funtzio publikoan sartzea, ..."*

Horrekin lotuta, hona Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 55.2 artikulua dioena: *"Estatutu honetako 2. artikuluan jasotako Herri Administrazioek, erakundeek eta organismoek funtzionarioak eta lan-kontratuko langileak hautatzeko erabiltzen dituzten prozeduretan, ongi bermatu behar dituzte bai arestian adierazitako printzipio konstituzionalak baita ondoren ezarritakoak ere: a) Deialdiari eta oinarriei buruzko publizitatea. b) Gardentasuna..."*;

horrez gain, 61.1 artikulua gogorazten du hautaketa-prozesuek, irekiak izateaz batera, lehia askea bermatu behar dutela, betiere, barne sustapenerako ezarritakoari eta diskriminazio positiborako Estatutu honetan jasotako neurriei kalte egin gabe.

Lege beraren (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua) 78. artikulua zera xedatzen du: *“Herri Administrazioek berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioetan oinarritutako prozeduren bitartez beteko dituzte lanpostuak”, eta 62. artikulua arabera, funtzionarioa izateko, besteak beste, “hautaketa prozesu bat gaingitu behar da”.*

Ezgaitasunen bat duten pertsonen buruz, 59.1 artikulua zera dio: *“Enplegu publikoaren eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da gutxienez, ezgaitasunen bat duten pertsonen bete dituzten, betiere, hautaketa-prozesuak gaingitu, ezgaitasuna egiaztatu eta ezgaitasun hori bete beharreko zereginekin bateragarri dela erakutsita, horrela, arian-arian, Herri Administrazio bakoitzak dituen langile guztien ehuneko bira iritsi arte. Ezgaitasuna duten pertsonatzat joko dira aukera berdintasuna, bereizkeriarik eza eta irisgarritasun unibertsala lortzeko abenduaren 2ko 51/2003 Legeko 1. artikulua 2. paragrafoan jasotakoak.*

Ehuneko zazpiko kupoa gordetzeko, honela jokatu da: eskaintzen diren plazen ehuneko bi adimen ezgaitasunen bat egiaztatzen duten pertsonen betetzeko izango dira, eta eskaintako gainontzeko plaza beste edozelako ezgaitasunen bat egiaztatzen dutenekin betetzeko izango dira”.

Era berean, kontuan izan behar dugu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.6 artikulua aukera ematen duela, hautaketa prozesuetan edo edozein motatako norgehiagoka-prozesuetan, jakinarazpenak egin beharrean, argitalpenak egiteko.

Hautaketa probetan datu pertsonalen tratamendua direla eta, Audientzia Nazionalaren 2012ko apirilaren 26ko Epaia oso argigarria da. Epaia aurreko errekurtsio batean eman zuen bera da. Hona hemen:

“Beraz, datu tratamenduak egiteko adostasunik ez da eskatu behar izango, adostasunik interes orokorrekin edo goragoko balioa duten bestelako interesen batekin talka egiten badu, interes horiek datu babesaren gainetik jarri behar direlako.

Honako kasu hau norgehiagoka-prozedura bat denez, Konstituzioaren 103. artikulua xedatzen duena hartu behar dugu kontuan, hau da, batetik, 1. idatz-zatiak dioena: “Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez”; eta, bestetik, 3. idatz-zatiak xedatzen duena: “Legeak arautuko ditu funtzionario publikoen estatutua, meritu- eta gaitasun-printzipioen arabera funtzio publikoan sartzea...” (eta guzti hori Konstituzioaren 23. artikuluekin dago lotuta; geroago aipatuko dugu).

Edozelan ere, datu pertsonalen tratamenduek eskatzen dituzten bermeak ez dira erabili behar norgehiagoka prozesuetan bete behar diren gutxieneko gardentasun eta publizitate betekizun orokorrak bertan behera uzteko edo nolabait indargabetzeko aitzaki gisa. Gardentasun eta publizitate balioak garrantzitsuagoak direnez, ulertzen da kasu honetan interesdunari adostasunik eskatu beharrik ez egotea bere datua tratatzeko, hau da, errekurtsua jarri duen sindikatua datua komunikatzeko.

Ikuspuntu horretatik begiratura, ateratzen dugun ondorioa da ez dagoela norgehiagoka prozeduretan parte hartzen duten pertsonen adostasunik eskatu beharrik prozeduran lortutako kalifikazioak tratatzeko; eta horrek bermatzen die gainontzeko partea hartzaileei norgehiagoka prozedura garbia eta inpartziala izatea. (...)

Egia da 15/1999 Lege Organikoak ez dituela berariaz jasotzen bertan jasotako datu pertsonalen erregimenerako dituen salbuespenak, norgehiagoka prozedurarako gardentasun eta bermeak direla eta; beraz, elkarren aurka dauden interesak baloratu eta ponderatu behar dira, jakiteko zein nagusitzen den. Ponderazioa egin ostean, eta tartean dauden inguruabarrak kontuan hartuta, auzitegi honek argi ikusten du norgehiagoka prozeduraren publizitate eta gardentasun bermeak datu babesaren eskubideari gailentzen zaizkiola. (Sala honek hainbatean egin behar izan ditu horrelako ponderazioak; ikusi 331/205; DF 2/2010 edo 862/2009 errekurtsoen epaiak).

Beraz, bidezkotzat jotzen dugu errekurtsua onetsi eta errekurritutako ebazpena baliogabetzea, interes orokorra nagusitzen delako. Baina, izan behar den bezala, bakar-bakarrik onartuko da norgehiagoka prozeduraren beraren helburuei dago-kienez, BDLOren 4. artikulua xedatzen duenaren arabera (...)."

Beraz, argitalpena babesten duten legediaren arabera erregimenaren xedea da ondasun juridiko publiko bat babestea, hau da, norgehiagoka prozesuko parte hartzaileen informaziorako eskubidea babestea, parte hartzaileek, beste pertsona baten pribatutasuneko eskubidearen aurrean, euren eskubideak ere baliatu ahal izan ditzaten; bestela, ezinezkoa bailitzateke Konstituzioaren 23.2 artikuluan xedatutako oinarriko berdintasun eskubidea aktibatzea.

III

Lehen aurreratu dugunez, kontsulta ezgaitasunaren datuari buruzkoa ere bada, eta Erregelamenduaren 5.1 g) artikulua xedatzen duenez, datu hori pertsonen osasunari buruzko datutzat jo behar da.

Horregatik, ezin dugu alde batera utzi, DBLOren 7.3 artikulua honakoa xedatzen duela: "Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori".

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 219/2008 txostenak dio *“Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 7.3 artikulua ezartzeak esan nahi duela, espezialitate printzipioari helduta, ezinezkoa dela Lege Organikoaren 11.2 artikulua aurreikusten dituen tratamenduak legezkotzat jotzeko arrazoiak aplikatzea bertan aipatutako datuei; ondorioz, kasu jakin batzuetan baino ezin izango dira datu horien tratamendua eta lagapena gaitu: arau berezi batek halakorik jasotzen duenean ala lege orokorrak horrelako datuak berariaz aipatzen ditenean.”*

Arloko araudiak ere gaia arautzeko ahalegina egin du. Esate baterako, Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoko arloko Eskubideak eta Betebeharrak erregulatzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 7.1 artikulua, intimitaterako eskubideari buruzkoa denak, xedatzen du *“osasunari buruzko datuak konfidentzialak direla eta pertsona guztiek dutela konfidentzialtasunerako eskubidea eta inork ezin dituela datuok atzitu, legeren batek baimenduta ez bada”*.

Hona, martxoaren 23ko 70/2009 KAEk xedatutakoa:

“Konstituzioaren 18.1 artikuluan jasotzen den intimitaterako eskubideak bes-teen jakin minetik eta jardueretatik babestu nahi duen esparru bat hartzen du bere baitan, norberarena baino ez dena, eta pertsonen osasun fisiko edo psikikoari buruzko informazioa ere hor kokatu behar da, osasun datuak pertsonen bizitza pribatuaren zati handia direlako (ikus Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2006ko urriaren 10eko Epaia -hemendik aurrera GEEA- [2006 GEEA, 57]; L.L. kasua Frantziaren aurka § 32). Esandako horri gehitu behar zaio Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ohararazpen bat, esaten duena osasunari buruzko informazioaren izaera konfidentzialari zor zaion errespetua Konbentzioaren estatu alderdi guztien sistema juridikoaren funtsezko printzipioaren oinarrian dagoela; eta, beraz, barruko legediak aurreikusi egin beharko ditu osasunari buruzko datu pertsonalak ez komunikatzeko edo zabaltzeko behar diren berme guztiak, baldin eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua aurka badaude (RCL 1999, 1190, 1572) (GEEAren Epaia, Z. kasua, Finlandiaren aurkakoa, 1997ko otsailaren 25ekoa [GEEA 1997, 13], § 95, eta L.L. kasua, Frantziaren aurkakoa, 2006ko urriaren 10ekoa, § 44).

Edozein pertsonaren osasun fisikoari edo psikikoari buruzko informazioa informazio intimoa izateaz gain (Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 4ko 202/1994 Epaia, 2. oinarria, eta maiatzaren 26ko 62/2008 Epaia, 2. oinarria), informazio oso sentsiblea ere bada, giza eskubideen ikuspegitik begiratuta; eta, beraz, babes berezia behar du, intimitaterako eskubidea bermatu nahi bada (Datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren aurrean pertsonak babesteari buruzko Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmenaren 6. artikulua eta Datu Pertsonalen Tratamenduaren arloan Pertsona Fisikoak Babesteari buruzko eta Datu horien Zirkulazio Libreari buruzko 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentaraua [LCEur 1995, 2977]). Intimitaterako eskubideari, beraz, kalte handia egiten zaio, pazientearen adostasunik gabe, pazientearen osasun datuak edo osasunari buruzko txostenak atzitzuz gero.”

Baina, Konstituzio jurisprudentziak (martxoaren 12ko 70/2003 KAE aipatuko dugu guztiaren orde) dio ez dagoela erabateko edo mugagabeko eskubiderik, ez eta oinarritzko eskubideen artean ere. Zenbaitetan Konstituzioak ezartzen dizkie mugak berak aitortutako eskubideei. Beste zenbaitetan, ordea, beste eskubide edo ondasun konstituzional batzuk babestu beharrak dakartza mugok.

Azken finean, osasunari buruzko datuak babesteko eskubidea ez da erabatekoa edo muga gabeko eskubidea; eta konstituzioaren arabera garrantzi handia duten beste ondasun edo interes batzuen azpitik gera daiteke. Baina, Konstituzioan oinarritutako lege-aurreikuspen batek baino ezin izango du jarri muga, eta garrantzi handia izan beharko du aurreikusita dagoen legezko helburua erdiesteko, eta proportzionala izan beharko du; gainera, eskubidearen funtsezko edukia errespetatu beharko du (Idenen erakusgarri, 49/1999 57/1994 KAE, otsailaren 28koa, 6. oinarria; 143/1994 KAE, maiatzaren 9koa, 6. oinarria eta 25/2005 KAE, otsailaren 14koa, 6. oinarria).

Beraz, aztertu behar dugu ea “ezgaitasuna duen pertsona” delako baldintza ez argitaratzeak legezketasun eta proportzionaltasun baldintzak betetzen dituen (egokitasuna, premiazkotasuna eta proportzionaltasuna).

IV

Lehenengo baldintza aztertuz hasiko gara, hau da, ea ba ote dagoen eskubidea murrizten duen legerik, Horretarako, 70/2009 KAEk dioena ekarri behar dugu gogora: *Konstituzioak agintzen duenez, administrazio publikoek pertsona baten osasun datuak atzitu ahal izateko, eta datuok ebaluatu eta kontuan hartu ahal izateko, ez da nahikoa lege batek baimena ematea edo gaikuntza aitortzea. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, legeak zehaztu egin beharko ditu murrizketak, eta murrizketak, beraz, ezingo dira orokorrak eta zehaztasunik gabeak izan; izan ere, intimitaterako eskubidea bala ezina egiten duten edo Konstituzioak intimitaterako eskubideari ematen dion bermea alferrikakoa bihurtzen duten mugak ezarriz gero, intimitate pertsonalerako oinarritzko eskubidea urratu egingo litzatekeelako (292/2000 KAE, azaroaren 30ekoa, 11. oinarria). 49/1999 KAEK dioenez, intimitaterako oinarritzko eskubidea babesteari dagokionez, eskubide horretan eskua hartzeak “nahitaez” eskatzen du lege-aurreikuspen bat eta “zehatz-mehatz xedatu beharko du esku hartzeak zein kasutan eta zein baldintzen arabera egingo diren (4. oinarria); lege-aurreikuspenak “lege izaera” izan beharko du (49/1999 KAE, apirilaren 5ekoa, 5. oinarria; 169/2001 KAE, uztailaren 16koa, 6. oinarria; eta 184/2003 KAE, urriaren 23koa, 2. oinarria).”*

Esan dugunez, administrazioan lanpostuetarako sarbidea eta lanpostuak betetzeko dauden printzipio gidarien oinarrian dagoen interes publikoak legitimatu egiten du datu pertsonalak babesteko eskubidea murriztea, hautaketa prozesuen publizitate eskubidea dagoenean tartean. Baina, arloko araudi guztiak kontuan hartuz gero, ikusten da legedi horrek esparru orokorra baino ez duenez eratzen, ez duela zehazten zein datu mota diren laga daitezkeenak. Edozelan ere, hautaketa prozesu batean parte hartzeko eskubidea eta prozesua gidatzen duten baldintzak esparru horretako arau-

dian daudenez jasota, sarbidearen gaineko arauak hartu behar ditugu kontuan; hobeto esanda, prozesuaren oinarriak.

Hain zuzen ere, prozesuaren oinarrien xedea hautaketa prozesua arautzea denez, lege-arau orokorrak ulertzeko, prozesua arautzen duten arau guztien interpretazio kontestualizatua egin beharko da. Gero arau horiek deialdiko oinarriekin osatu beharko dira, oinarriek eratzen dutelako hautaketa prozesuko legea. Ondorioz, arau horiek lotesleak izango dira dei egiten duen administrazioarentzat eta merezimendu zenbakarriak eta prozesuko parte hartzaileak baloratu behar dituzten batzordeentzat.

Erakunde honetan jaso dugun idazkian aipatzen den hautaketa prozesua arautzen duten oinarri orokorren (2012ko otsailaren 14ko EHAA), 1.2 oinarriak honakoa xedatzen du:

“Eskainitako plazetatik, kasuan kasu dagozkion oinarri espezifikoetan ageri direnak erreserbatuko dira ezgaitasunak dituzten pertsonak bete ditzaten.

Txandan inork izena ez emateagatik edo izangaiek hautaketa-prozesuak gainditzeko gutxieneko baldintzak ez betetzeagatik, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako txandan bete gabe geratzen diren plazak txanda irekiari gehituko zaizkio.”

Sarbideko hautaketa prozesua arautzen duten berariazko oinarriek (2012ko otsailaren 14ko EHEE) zera xedatzen dute:

“1.- Eskainitako plazak.

Estatu osorako gaikuntza duten Toki Administrazio funtzionarioen eskalako idazkaritza-kontuhartzaitza azpieskalari dagozkion hamar (10) plaza betetzeko iragarri da hautaketa-prozesu hau.

Hamar (10) plaza horietatik, bi (2) ezgaitasunen bat dutenen txandarako erreserbatu dira eta beste zortziak (8) txanda irekian aukeratuko dira.

Txandan inork izena ez emateagatik edo izangaiek hautaketa-prozesuak gainditzeko gutxieneko baldintzak ez betetzeagatik, ezgaitasunen bat dutenentzako txandan bete gabe geratzen diren plazak txanda irekiari gehituko zaizkio.”

Oinarri orokorretan dago araututa zein egintza argitaratu behar diren eta non (5, 7.2, 6, 10 eta 12. oinarriak). Normalean informazioa Interneteko helbide elektroniko honetan (www.ivap.org) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen iragarki-oholetan argitaratzen da (onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak, hautaketa prozesuko emaitzak eta kalifikazioak, gainditu dutenen behin-behineko zerrenda, hautatuen behin-behineko zerrenda eta karrerako funtzionarioen izendapena); baina, onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda eta karrerako funtzionarioen izendapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratzen dira.

Datu pertsonalak babesten direla bermatzeko, 3.5 oinarriak zera gogorarazten digu: *“Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da. Fitxategi hori hautaketa-prozesua kudeatzeko eta behin-behineko langileak eta bitarteko funtzionarioak kontratatzeako sortuko den lan-poltsa kudeatzeko baino ez da erabiliko. Fitxategi horren erabilera eta jarduera antolatzeako datu pertsonalak eta datu pertsonalak dituzten herri titulartasuneko fitxategiak babesteko legeriak zehaztutakoari jarraituko zaio -Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea-“.*

Esandako guztia kontuan hartuta, ateratzen dugun ondorioa da lege-manuak eta oinarriak -oinarriak dira lege arau orokorrak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren arau berezi eta osagarriak- denak batera aztertuta, agerian uzten dutela badagoela “ezgaitasunen bat duten pertsonen txanda” delakoan parte hartzen dutenen datua jakinaraztea gaitzen duen aurreikuspen bat eta interes orokor bat ere bai.

Legezko gaikuntza hori nahikoa izan dadin, eta osasun datua dela-eta kontsulta egilearen intimitaterako eskubideari egiten zaion kaltea, Konstituzioaren arabera, legezkoa izan dadin, proportzionala ere izan beharko da nahitaez; eta proportzionala izateko baldintza hau bete behar du: intimitate eskubiderako hain kaltegarria ez den eta helburu bera lortzeko baliagarria den duten beste neurririk ez egotea.

Beraz, interes orokorra (hautaketa probetako publikotasuna eta gardentasuna) eta jokoan dagoen interes partikularra ponderatu behar dira, eta lortu nahi den helburuak nahikoa garrantzi konstituzional izan beharko du, eta datu pertsonalak babesteko eskubideari muga jartzeko nahikoa arrazoi ere.

Deialdiak dioenez, hautagaiek txanda bat ala bestea aukeratu beharko dute, eta aurrerantzean finkatuta geratuko dira prozesuan parte hartzeko baldintzak; ezin izango baitira aldatu, segurtasun juridikoagatik. Era berean, deialdia egiten duen administrazioaren eta prozesuan parte hartu nahi duten administrazioen artean -aukeratutako eran eta moduan parte hartuz- lotura juridiko bat sortuko da; beraz, onartutako eta baztertutakoen zerrenda argitaratzean, bereizi egin beharko da hautagai bakoitzak zein txanda hautatu duen.

Sarbidea gidatzen duten printzipioak eta aipatu dugun araudia ikusita, eta hautaketa prozesu bat dela kontuan hartuta, eta jakinda plazetako batzuk ezgaitasunen bat dutenen txandarako gorde direla, gainontzeko parte hartzaileek eskubidea izan beharko lukete jakiteko zeinek hartzen duen parte ezgaitasunen bat dutenen txandan eta hautaketa prozesua nola ari den bideratzen, horrela, beharra ikusiz gero, euren eskubideak baliatzeko aukera izateko, ezen txanda horretako plazarak hutsik gertatzen badira, txanda librekoiei gehituko baitzaizkie.

Adibidez, uste badute “ezgaitasunen bat duten pertsonen” txandako hautagairen batek ez zituela txanda horretan parte hartzeko baldintzak betetzen eskabideak aurkezteko epea bukatzen zen unean (2.1 oinarria orokorra), onartuen eta baztertuen

behin-behineko edo behin betiko zerrendari aurka egiteko legitimazioa izango dute; izan ere, oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ez dituen hautagaien onarpena egiteaz gain, parte hartzaileak tratatzeko modua ere ez baitzen bera izango, eta, ondorioz, horrek urratu egingo luke funtzio publikoan “baldintza berdinetan” sartzeko eskubidea; eta eskubide hori Konstituzioaren 23.2 artikuluan dago jasota. Gainera, pertsona bat behar ez den bezala onartzea kaltegarria da gainontzekoentzat, gerta litekeelako ezgaituen artean baztertutakoen ondorioz txanda librean plaza bat gehitzeko aukera galtzea.

V

Hori guzti hori hala bada ere, esan beharrean gaude kontsultan azaldutako prozesuan jokoan dagoen oinarrizko eskubidea ahalik eta gutxien kaltetuta, funtzio publikoan sartzeko printzipio gidariak bermatzeko neurriak, hartu direla. Esate baterako, argitalpena egitean ez da ezgaitasuna barematzearen gaineko informazioarik ematen, eta datuetarako sarbidea murriztuta dago eta interesdunak identifikatuta sartu behar dira, kontsulta-egileak berak dioenez (*“notak ikusteko gakoak ditugu”*). Administrazioak emandako sarbide-gako pertsonalizatuak erabiliz gero, bermatu egiten da hautaketa prozesuan interesa dutenek bakarrik -hautagaiek- izatea aukera prozedurarekin lotutako hirugarrenen datu pertsonalak atzitzeko, eta lortzen da prozesutik kanpo daudenak datu horiek ez atzitzea.

Hartutako neurri horiek garrantzi handia dute datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea eta sarbidean publizitate eta gardentasun eskubidea bateragarriak izan daitezen. Baina, datu sentzible bati buruz ari garenez, gomendatzen dugu hautagaien ezgaitasunari buruzko datuaren alferrikako zabalkunderik ez egiteko; eta, ondorioz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian egin behar diren argitalpenetan ez jasotzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendetan edo karrerako funtzionarioen izen-dapenetan “ezgaitasuna duten pertsonak” delako datua, aldizkaria jendearen eskurako iturria delako. Era berean, gomendatzen dugu sarbide murriztua duten publikazioetan ere “ezgaitasuna duten pertsonak” txandaren ordeaz, gako, edo letraren bat jartzea edo prozesuaren oinarriari buruzko aipamenen bat egitea, berariaz aipatu gabe, baina identifikatzeko moduan.

Eta ez dugu ahaztu behar DBLOren 4. artikuluan aurreikusitako helburuaren printzipioak dioenez, datu pertsonal guztiak ezereztu egin beharko direla erregistratu zireneko helbururako beharrezkoak edo garrantzitsuak ez diren unean bertan. Beraz, horren arabera, argitalpenaren oinarrian dagoen administrazio prozedura bukatu bezain pronto, datu horiek kendu egin beharko dira iragarki-oholetik eta web orrian daudenak blokeatu.

Beraz, esandako guztia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak, honakoa adierazi behar du:

ONDORIOA

1.- Datu babesaren esparrutik begiratuta, aipatu dugun hautaketa prozesuan izenaren eta abizenaren datua argitaratzeko erabilitako sistema zuzena da.

2.- Ezgaitasunari buruzko datuari buruz, ordea, esan behar dugu lortu behar dela ahalik eta gutxien kaltetzea hautaketa prozesuan daudenen intimitaterako eta datu pertsonalak babesteko eskubideak, batez ere ikusita datu pertsonalak babesteari buruzko araudiak babes berezia ematen diela hemen aipatu dugun osasun datuari bezalakoei.

3.

PUBLIZITATE AKTIBOA ETA DATU PERTSONALAK WEB ORRIAN ARGITARATZEKO AUKERA

Udalaren Web orrian osoko bilkuren eta udalbatzako batzordeen aktak argitaratzea

Data: 2006-10-02

CN06-015

Donostiako Udalbatzakok datu pertsonalak babesteko araudiak udalaren web orrian osoko bilkuren eta udalbatzako batzordeen akten argitalpenean zen-bateraino eragiten duen galdetuz egindako kontsultari buruzko txosten juridikoa.

AURREKARIAK

206ko apirilaren 24an Donostiako Udalbatzako ...ren idatzi bat sartu zen Datuak Babesteko Euskal Bulego honetan, goian aipatutako gaiari buruzko kontsulta eginez.

Kontsulta egiteko bidalitako idatzian ondokoa adierazten da:

- *“Donostiako Udalak udal-organoen batzarretako aktak eta Udalbatzan edo Udalbatzako batzordeetan aurkezten diren ekimenak udalaren web orrian argitaratzeari buruzko mozio bat onartu zuen 2005eko azaroaren 29an”*
- *“Osoko bilkuraren aktetan gaur egun bertan egindako grabazioaren transkribapena jasotzen da, hartutako erabakiekin, emandako botoekin eta gertakariekin batera.”*
- *“Udalbatzako batzordeen aktetan jasotzen diren erabaki- eta ekimen-proposamenen testu osoak, emandako botoak eta, laburki, emandako botoaren zergatia eta aurkeztutako ekimenen jarduera azaltzen dituzten esku-hartzeak”*
- *“Bakoitzaren izaeraren arabera, aipatutako organoetan aurkeztutako proposamen eta ekimenek datu pertsonalak jaso ditzakete.”*

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, bere 17. artikulua(n) atalean, honako zeregina ematen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1. artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Goian aipatutako arautegiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egindako kontsultari erantzuteko txostena bidaltzea.

IRIZPIDEAK

I

Egindako kontsultari erantzuna ematen saiatzeko, Bulego honen ustez, beharrezkoa da, datuak babesteko araubide juridikoaren ikuspegi hertsitik, kontsulta egin duen administrazioak, autoantolaketarako duen ahalmena erabiliz, burutu nahi duen lana kalifikatzen hastea. Lan hori, hain zuzen, kontsultan bertan definituta dago funtsean (*“Udalaren web orrian udal-organoen batzarretako aktak eta Udalbatzara edo Udalbatzako Batzordeetara iristen diren ekimenak argitaratzea”*) eta, kontsulta jasotzen duen idatzian esandakoaren arabera, 2005eko azaroaren 29an onartutako mozioak eragin du.

Ikuspegi hertsia horretatik, eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko Lege Organikoko (LOPD) 3. artikulua eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legeak *“datu pertsonalez”* eta *“haien tratamenduaz”* ematen dituzten definizioak kontuan hartuta, zalantzarik gabe, udalaren gobernu-organoen bilkuren aktak eta udalbatzara edo udalbatzako batzordeetara iristen diren ekimenak argitaratzea datu pertsonalen tratamendu bat izango da, fisikoki identifikatuta dauden edo identifikatu daitezkeen pertsonen datu pertsonalak badituzte; beraz, lehen aipatutako araudian tratamendu horrentzat aurreikusitako araubide juridikopean daude.

Eta erregimen juridiko horrek, funtsean, DBLOko 4. eta 6. artikuluetan jasotako bi printzipio nagusi ditu oinarri.

Lehenak dioenez (helburuen arabera datuen kalitatea), izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legitimoak izan beharko dira eta ezin izango dira erabili xede horrekin bateraezinak diren xedeetarako.

Bigarrenaren arabera, datu pertsonalak tratatzeko titularraren adostasuna beharko da, legeak beste zerbait xedatzen duenean salbu.

Horrela bada, lortu nahi den xedeari loturik lan horretaz egiten den azterketaren eta egiaztatapenaren arabera eta behar adinako legezko estaldura izatearen arabera izango da burutu nahi den lan zehatzak datu pertsonalen araudia betetzea ala ez betetzea.

II

Bulego honek, bere helburu nagusia pertsona fisikoen datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea behar bezala zaintzea dela jakinik, ezin du ahaztu batzuetan, kontsultak mintzagai duen kasuan dirudienez gertatzen den bezala, babes hori konstituzio-mailako beste printzipio eta eskubide batzuen babesarekiko bateragarri egin behar dela.

Hau da, erraz ondoriozta daiteke kontsultako gai den lanaren xedea ez dela, ezta guxtiagorik ere, apeta edo burutaldi baten ondorioa; aitzitik, adibidez 1997ko urtarrilaren 31n onartutako Herritarren Partaidetza Araudiaren beraren (1997ko otsailaren 13ko 29. GAO) arrazoiaren azalpenean oso ondo adierazita dagoen bezala, *“udal-kudeaketaren gardentasuna bermatzeko beharraren eta herritarren partaidetza demokratikoa suspertzeko konpromisoaren proiektzioa da”*.

Gai publikoen gardentasuna eta partaidetza, jada aipatutako arrazoiaren azalpenean adierazten den bezala, modu egoki eta eraginkorrean burutu ahal izateko informazioaren alde aurreko transmisio egokia behar duten *“konstituzio-esparruaren isla”* dira. Hau da, informazioa jaso ahal izatea funtsezko elementua da babesa merezi duten skubide eta printzipioak behar bezala erabiltzeko.

Aurreko premisak kontuan hartuta eta jokoan dauden interes eta eskubide desberdinak ikusirik, antzeko egoeretan Datuak Babesteko Euskal Bulego honek jada aukeratu du irtenbide bat, eskubideen *“aurkakotasuna”* eta *“lehentasuna”* duen eskubide edo printzipioa aukeratzea bezalako planteamenduak gainditzin dituen, eskubide batzuei kalterik eragin gabe, beste batzuen funtsezko edukian eraginik izango ez duen edo ahalik eta gutxien eragingo duen oreka-bide bat hartzen saiatzeko.

Eta oreka-bide horren bilaketaren abiapuntuak aztergai dugun hipotesian aplikatzekoa den araudiak izan behar du, nahitaez, toki-administrazioaren araubide juridikoari dagokionetik hasita.

III

Beraz, hasteko, toki-administrazioaren esparruan informazioa lortzeko eskubidearen araubide juridikoa, oinarrizkoena, transkribatu behar da. Lehenik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 18.1 e) artikulua, abenduaren 16ko 57/2003 Legean, Tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoan, idatzita dagoen bezala. Honen arabera, herritarren eskubide bat da:

e) Arrazoitutako eskaria aurrez eginik, informazioa jasotzea, eta udal-espeditente eta udal-agiri guztien gainean udal-administrazioari eskaerak egitea, Konstituzioko 105. artikuluan aurreikusitakoaren arabera”.

Gai hau aztertzean nahitaez aipatu behar dugu Oinarriak arautzen dituen Legearen V. Tituluko V. Kapitulua. Bertan, 69. artikulua goiburuan jada ezarrita dago ondokoa:

“1. Toki-korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jardueri buruz eta herriko kontuetan herritar guztien partaidetza bultzatuko dute.

2. Korporazioek beren burua antolatzeko ahalaz baliatuz ezar ditzaten partaidetzako moduek, baliabideek eta prozedurek inolaz ere ezin izango dituzte gutxietsi lege bidez araututako ordezkartza-organoei dagozkien erabakitze ahalmenak”.

Kontsulta egin duen erakundearen galdera zehatzera gehiago hurbiltzeko, Lege horren 70. artikulua azpimarratu behar da. Bertan xedatutakoaren arabera,

“1. Toki-korporazioen osoko bilkurak jendaurrekoak dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan aipatutako herritarren oinarritzko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu. Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak.

2. Toki-korporazioek hartutako erabakiak legean aurreikusi bezala argitaratu edo jakinarazten dira. Ordenantzak, hirigintzako planetako arauen artikuluzatiak barne, baita hirigintzako planetako erabakiak ere horien behin betiko onarpena toki-erakundearen eskumenekoa denean, probintziako “Aldizkari Ofizialean” argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko testua osorik argitaratu eta 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igaro arte; aurrekontuak eta ordenantza fiskalak salbuespen dira, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legean ezarritako moduan argitaratu eta jarriko baitira indarrean. Hirigintza-arloan eskumenak dituzten herri- administrazioek beren lurralde-eremuan indarrean dagoen plangintzako kopia osoak izan behar dituzte eskatu nahi dituzten herritarren eskura.

3. Herritar guztiek dute toki-korporazioen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erre-gistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko le-gedian xedatutako eran. Eskubide hori ukatzea edo mugatzea, Estatuaren segur-tasun eta defentsari dagokienean, eta delituak ikertzeari edo pertsonen bizitza pribatuari ukitzen dienean, arrazoitutako ebazpenen bidez frogatu beharko da.”

Bestalde, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bitartez onetsitako Toki Erakun-deen Antolakuntza eta Jarduera Arauditik ondoko artikulua eduki behar dira, gu-xtienez begi-bistan. 88. artikulua.

“1.1. Jendaurrekoak izango dira osoko bilkurak. Halere, Espainiako Konsti-tuzioko 18.1 artikulua aipatzen duen herritarren oinarritzko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa isilpekoak izan daitezke, ge-hiengo osoak hala erabakitzen badu.”

196. artikulua, “Ekitaldiak eta erabakiak argitaratu eta jasota uzteari buruzko VI. Titu-luko”, II. Kapituluko lehena:

“1. Udalbatzak eta Gobernu Batzordeak hartzen dituzten erabakiak, erabaki-tzaileak badira, Legeak aurreikusitako moduan argitaratu eta jakinarazten dira. Neurri berberak aplikatuko zaizkie Alkatearen, Udalbatzaren Lehendakariaren eta ordezkaritza duten Udalbatzako kideen ebazpenei.”

Halaber, 207. artikulua, Kapituluko horretako azkena:

“Herritar guztiek dute toki-erakundeetako gobernu- eta administrazio-organoek hartutako erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105 b) artikulua garatzeko legediak xedatzen duen moduan. Baldintza berdinak aplikatuko zaizkio Alkateari edo Udal-batzaren lehendakariari eta ordezkarietza duten Udal-batzako kideei.”

Aztergai dugun hipotesian erabat interesgarria den akten gaiari dagokionez, ondokoa xedatzen du apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren, toki- araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onetsi duenaren 50. artikulua:

“Udalbatzako edo dagokion organoko idazkariak bilkura bakoitzaren akta idatziko du eta bertan jasoko ditu, gutxienez, data eta hasierako eta amaierako orduak; lehendakariaren eta gainerako partaideen izenak; landutako gaiak; emandako botoen emaitzak eta hartutako erabakiak. Osoko bilkuretan, eman diren iritziak ere jasoko dira laburki.”

Gorago aipatutako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak garatzen duen Aginduko, 109. eta 110. artikulua.

Azkenik, ezin da aipatu gabe utzi Arautegi horretako VII. Tituluko II. Kapitulua, “Herri-tarren Estatutua,” eta bereziki 227., 229. eta 230. artikulua.

Kontsulta egin duen organoak zalantzarik gabe Kapitulua hori hurbiletik ezagutuko duenez transkribatu beharrik ez badago ere, komeni da 230. artikulua horretako 2. puntua transkribatzea, 109. artikuluearekin loturik, beherago aipatuko diren ondorioetarako. Bertan, ondokoa xedatzen da:

“Toki-korporazioen erabakiak edo horien aurrekariak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko baimena ere, aipatutako Bulegoari eskatuko zaizkio; honek ofizioz egingo ditu eskatzaileak eskatutako informazioa ahalik eta epe laburrenean lortzeko beharrezkoak diren kudeaketak, udal-zerbitzuaren zereginak oztopatu gabe.”

Orain arte idatzitakotik erraz ondoriozta daitekeenez, aztertzen ari garen hipotesi honetan eragina duten gaiek erregulazio bereizia dute eta, Bulego honen iritziz, horiek guztiak integratzea ahalbidetuko duten lotuneak ezarri behar dira, nabaria baita —eta jasotako kontsulta horren frogara dugu, osoko bilkuren izaera eta funtzionamenduaren, aktak eta erabakiak argitara emateko erregimenaren, akten erregulazioaren eta herri-tarren partaidetza egituratzeko moduaren arteko erlazioa. Gai hauetan gainera, kontsultak berriro ere agerian jartzen duen bezala, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideak (hain zuzen, gorago aipatutako artikuluetan, datuak babesteko araudia ezarri eta oinarritzko eskubide gisa zehaztu baino lehenagokoak direlako, aipatu ere egiten ez den eskubidea) behar besteko babesa behar du.

Jada aipatutako Herritarren Partaidetzari buruzko Araudian eta Donostiako Udalbatzaren Araudi Organikoan (2004ko urriaren 6ko 193. GAO) gai horiei buruz jasotzen diren arauak gehitu behar zaizkie gorago aipatutako arau ugariei.

Era berean, ezin da alde batera utzi Bulego honek 2005eko martxoko data duen “Herritarren partaidetzari buruzko arau organikoa” izeneko zirriborro baten eta “Hiritarren partaidetza Donostiako Udalean. Hiritarren partaidetza araudia. Herritarren partaidetza araudiaren eztabaida soziala. Emaizten txostena” izeneko dokumentu baten berri izan duela. Eta bi horietan ere, hain zuzen, Konstituzioko 18.4 artikulua aipatu ere ez da egiten.

IV

Toki-administrazioen osoko bilkurak arautzen dituen araubide juridikoaren azterketa zorrotzago bat eginez gero, zalantzarik gabe aterako lirakeen ondorio ugarietatik, bilkura horietako erabaki eta ebazpenak argitara emateko erregimenetik, eta hiritarren partaidetzaren egituraketatik azpimarratzekoak dira, Bulego honen ustez, lehenik, osoko bilkuren publikotasun-printzipioa ondo bermatuta ageri dela (Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.1 artikulua eta AJAko 88. eta 227. artikulua) eta, era berean, bigarrenik, osoko bilkuretan hartu diren erabaki eta ebazpenei buruzko informazioa jasotzeko herritarrek duten eskubidea ere ondo bermatuta dagoela (Oinarriak arautzen dituen Legearen 69., 70.2. eta 70. 3. artikulua keta AJAko 207. eta 230. artikulua).

Ezin da alde batera utzi, beraz, herritarrei zuzenean informatzeko baliabide gisa eta, ondorioz, herritarrek udal-kontuetan parte hartzea ahalbidetzen duen mekanismo gisa osoko bilkurak argitara emateak duen funtzio garrantzitsua.

Orain dagokigun ikuspegitik araudi horren testua bera kontuan hartuta, objektiboa izanagatik eta une honetan inolako baloraziorik egin gabe, era berean bistakoa den beste ondorio bat gehitu behar zaie aurreko ondorio nabariari: hau da, ez dago datu pertsonalen babesari eta haren araubide juridikoari buruzko inolako erreferentziarik, ezta Konstituzioko 18.4. artikulua aipamenarekin ere.

Beraz, ikusteko dago argitara emateko eta parte hartzeko araubide juridikoa orain interesatzen zaigun oinarrizko eskubidearekin nola batera daitekeen.

Osoko bilkuren jarduera-erregimenak bete behar duen publikotasun-printzipiotik hasita, esan beharra dago, neurri zabal batean bermatuta dagoela aitortzeari utzi gabe, badituela bere mugak ere.

Muga horiek dira gorago transkribatutako araudian espresuki zehaztuta daudenak eta, Bulego honen iritziz, horiek bakarrik dira.

Horrek esan nahi du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko (TAOL) 70.1. artikuluan aurreikusitako hipotesian (ohorerako eskubideari, norberaren eta fa-

miliaren intimitaterako eskubideari edo norberaren irudiari ukitzen dienean) eta berau AJAko 88. artikuluan aurreikusitako moduan erabakia denean salbu (gehiengo osoak), gainerako hipotesietan edozein joan ahal izango da bilkura horietara eta, gutxienez, han azaltzen dena entzun eta 88. artikulua horretan ezarrita dagoen moduan parte hartu ahal izango du.

Ondorio berera garamatza, orain aztergai dugun kasurako, Araudi Organikoan xedatutakoaren analisiak.

Eta hori guztia, nahiz eta eztabaidan datu pertsonalei buruzko aipamena egin; izan ere, ikus TAOL 70.1 artikuluan berariaz aipatzen da 18.1 artikulua, baina ez, ordea 18.4 artikulua, azken hori ez baita behin ere aipatzen.

Bulego honek aurreko ondorioa atara du, lehenik, osoko bilkuren jarduera-erregimen horrek tokiko bizitzan **parte hartzeko eskubidearen**, TAOLeko 69. artikulua onartzen duenaren, zuzeneko kausa delako iritzitik eta, bigarrenik, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziatik; izan ere, hark espresuki adierazitakoaren arabera "... batura horretatik (AJAko 88. artikulua idatz-zati desberdina) ondoriozta daiteke publikotasunaren eskubide hori, informazioaren eskubideak duen funtsezko elementu gisa, bere alderdi pasiboan nahiz harrerakoan, bilkuretar joaten direnen onurarako bakarrik sortua dela kasu honetan, eta ez udalbatzako kideen onurarako, aipatutako oinarriei buruzko legearen 77. artikulua pribatibo eta berezitutik argi eta garbi ondoriozta daitekeenez"

Horrela, herritarren partaidetza eskubidearen ondoriozkoa den osoko bilkuren publikotasun-printzipioak, Konstituzioko 18.1 artikulua eraginez hala erabakitzen den hipotesi berezietan salbu, bertara joaten den jendeak hirugarrenen datu pertsonalen berri izatea ahalbidetzen du, betiere haien ohorerako eskubideari, norberaren edo familiaren intimitaterako eskubideari eta norberaren irudiaren eskubideari kalterik eragiten ez badie, eta ez da hirugarren horien oinarrizko eskubidearen kontraketat hartuko; gainera, udalaren bizitzan zuzenean parte hartzeko mekanismo bat izango da.

Aurrekoak ezin du eta ez du esan nahi oinarrizko eskubide hori babesik gabe gertatzen denik.

Osoko bilkurek bete beharreko argitara emateko erregimenaren ondorioz hauek ez dira bilakatzen, datuen babesaren ikuspegitik, "jendeak erraz eskuratzeko iturri" LO-PDko 3 j) artikulua ezarri bezala.

Beraz, datu pertsonal horiek bildu jaso eta tratatu nahi dituen pertsona orok Lege Organiko horretan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Osoko bilkurak argitara ematea ez den beste zerbait arautzen da osoko bilkura horietatik kanpo herritarrek duten informazioarako eskubidean.

Informaziorako eskubide hori ez da ageri, ezta gutxiagorik ere, baldintzarik gabe. TAOLeko 18.1. e) artikulua berak informazio-eskaera arrazoitzeke eskatzen du eta ondoren Konstituzioko 105. artikulura igortzen du. Igorpen hori legezko testu horren 70.3 artikuluan eta AJAko 207. artikuluan ere jasotzen da.

Halere azpimarratu behar da aipatutako azken bi agindu horietatik, eta AJAko 230.2 artikulutik eta bereziki horietan “bai eta” espresioa erabiltzeko modutik Datuak Babesteko Euskal Bulego honek honako ondorio hau atera duela: helburuari loturik, informaziorako eskubide hori erabiltzeko bi modu desberdin daude.

“Udalbatzek hartutako erabakien kopiei eta ziurtagiriei dagokienez” eta Kataluniako Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren epaia hitzez hitz emanez:

“ez dago inolako eragozpenik herritarrek herritar gisa osoko bilkuraren aktaren kopia informatzaile soil bat eskuratu ahal izan dezaten.”

Aurreko ondorioak kontsultan egindako lehen galderari erantzuten dio, hau da, hala eskatzen duten herritarrei udalbatzaren osoko bilkuraren aktaren kopia emateak ez luke datuak babesteko araudia hautsiko, baina TAOLeko 18.1 d) artikulua aplikatuz, eskaera arrazoiu egin behar da.

Eskatutako kopia soilak jasotzen duen aktaren edukiari dagokionez, Bulego honen iritziz, ez dago arrazoirik bertan AJAko 108. artikuluan aurreikusitakoa ez den beste eduki bat eta, beraz, “hartzen diren erabakien xedapenak” jasotzeko, jarraian aipatuko den salbuespenean izan ezik.

Bulego honen ustez salbuespen horren jatorria Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak azaroaren 4ko 596/2003 Ebazpena bezalakoetan ezarritako doktrina da. Haren arabera:

“Aipatutako araudiak informazio publikoko betebeharrak ezartzen dizkie Udalbatzei. Halere, informazio-betebehar horiek bateratu egin behar dira informazioa eskuratu ahal izatea mugatzen duten legezko beste aurreikuspen batzuekin, hain zuzen 7/1985 Legearen bertan eta kasu guztietan DBLOn jasota dauden legezko beste aurreikuspen batzuekin.

Hortaz, adibide gisa aipa daitezke 7/1985 Legearen 70.3. artikulua eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikulua, bertan artxibo eta erregistro publikoetan sartzeko mugak ezartzen baitira. Eta kasu guztietan DBLOko 7.5. artikulua, administrazioko arau-hausteei buruzko datu pertsonalak bereziki babestutzat kalifikatzen dituen, 10. artikulua, isilpekoaren betebeharra ezartzen duena eta 44.3.g) artikulua, espresuki era horretako informazioari dagokion isilpekoaren betebeharra haustea arau-hauste larri gisa tifipikatzen duena.”

Doktrina hori aplikatuz, zentzuz atera daitekeen ondorioa da, kopia eta ziurtagiri horietan bereziki babestutako datu pertsonalik egon ezean, hau da, LOPDko 7. artikuluan adierazitako daturik egon ezean, gainerako hipotesietan kopia eta ziurtagiri horietan agertzen diren datu pertsonalen komunikazioa TAOLeko 70.3. artikulua babestuko lukeela, DBLOko 11.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, gainerako dokumentazioa eskuratu ahal izatea, etengabe aipatu ditugun TAOL eta AJAko artikuluetan aurreikusitakoaren indarrez, azaroaren 26ko 30/1002 Legearen 35. eta 37. artikuluetan aurreikusitako erregimen juridikoaren menpe geratzen da.

Aginduen hitzez hitzeko edukitik zailtasunik gabe lortzen den ondorio horrek zuzena dirudi, gainera, gorago aipatutako Epaiazen arabera ere. Hain zuzen, hark dioenez,

“Ondorio bera atera behar da Kataluniako Udalei eta Toki Erregimenari buruzko Legearen 140.2.b) artikuluan xedatutakoa eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluan xedatutakoa ikusita, interesdunei ez baitie mugatzen artxibo eta erregistro publikoetarako sarbidea, pertsonen intimitateari buruzko datuak jasotzen dituztenean edo autoen hipotesian gertatzen ez diren beste zirkunstantzia espezifiko batzuk aldi berean gertatzen direnean salbu.”

Kasu hartan, jarritako helegitearen onespina eta, ondorioz, eskatzaileak eskatutakoa lortzeko eskubidea zuela ondorioztatzeko,

“...helegileak kasu honetan behar hainbat justifikatzen du eskatutako dokumentazioa eskuratzeko duen interesa: dokumentu horien bitartez ezagutu nahi du, berak dioenez, bere jabetzako lursail batean eragina duten obren antzeko kasuetan Udalbatzak nola jokatu duen.”

V

Aktak argitaratzeari dagokionez, AJAko 229.2. artikulua ondokoa ezartzen badu ere,

“Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoari kalterik eragin gabe, Udalbatzak osoko bilkuren edukia eta Udalbatzaaren eta Udalbatzako Batzordearen erabaki guztiak laburtuta argitaratuko ditu, bai eta Alkatearen ebazpenak eta ordezkariak ordezkari gisa ebatzitakoak ere.”

Bulego hau bat dator gorago aipatutako Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren doktrinarekin, eta haren arabera,

“DBLOko aurreikuspenei ezin die indarra kendu Udalak alegatutako legezko betebeharrak, izaera orokorra duenak, irizpide horrek ez baitu betetzen azaroaren 30eko Auzitegi Konstituzionalaren 292/2000 Epaian adierazitakoa (9.etik 12.era bitarteko Zuzenbideko Oinarriak).”

Gure ustez, herritarrek duten informazioa eskuratzeko eskubidearen erabilera eraginkorrari dagokionez, informazio-eskaerak dituen helmen desberdinetik ateratzen da ondorio hori. Informazio-eskaera hori TAOLeko 18.1. e) artikuluan ("eskaera arrazoitua") eta gorago transkribatutako AJAko 229.2an aurreikusitako argitalpenean oinarrituta dago.

Lehenari dagokionez, datu berezien kasuan adierazitakoak baino muga gehiago ondorioztatzea ezinezkoa den bezala, bigarren honetan "laburpena" aipatzeak datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidearen proiektzio handiago baten ideia ematen du, eta hori, alde batetik, laburpen horrek nolakoa izan behar duen zehazten ez duenez, eta akten argitalpenaren aipamen espezifikorik egiten ez duenez, laburpen horrek aktentzako 109. artikulua aurreikusten duen eduki bera (eta beraz bilkuran hartzen diren erabakien xedapenak ere) eskaini behar duela dioen legezko agindurik ez dagoelako. Bestalde, herritarrek duten informaziorako eskubidearen funtsa ukitu gabe geratzen da, haiek, laburpen horren argitalpena alde batera utzita, informazioa eskuratzeko eskubidea beti zuzenean erabil dezaketelako.

Doktrina hori aplikatuz, agindu horrek aipatzen duen "laburpenetik" egokiak ez diren eta gehiegizkoak diren datu pertsonalak kentzea aholkatzen du, herritarrei informazio "orokorra" eskaintzeko xedez eta, jakina, inolaz ere ez du datu pertsonal berezirik jasoko.

Gainera, irtenbide horren aldeko hirugarren arrazoi bat ere badago, gorago transkribatutako AJAko 196. artikulutik ondorioztatzen dena: izan ere, artikulua horrek argitalpenaz eta jakinarazpenaz hitz egitean "Legean aurreikusita dagoen modura" igortzen du, hau da, 30/1992 Legera, eta ondorioz, ebazpenaren testu osoa argitaratu beharko da (informazio gisa bakarrik ez) Lege horren 60.1. artikuluan aurreikusitako hipotesietan, eta aplikatzekoa izango da, halaber, Lege horren 61. artikuluan aurreikusitako hipotesietan ere.

Gainerako hipotesietan egokiena izango da interesdunei jakinaraztea, eta horrek hasiera batean behintzat ez du arazorik planteatu beharrik datu pertsonalen babesaren aldetik.

Eta hori, gorago aipatutako Araudi Organikoko 87. artikuluan xedatutakoari kalterik eragin gabe:

"87. artikulua. Bilkura-egunkariak.

Osoko Bilkuraren Lehendakariaren Ebazpen bitartez, Osoko Bilkuraren Idazkari Nagusiak proposaturik, osoko Bilkuraren egunkari bat sortuko da.

Egunkari hori ofiziala izango da eta bertan jasoko dira, osorik, osoko bilkuretan gertatutakoa, esku-hartzeak eta hartutako erabakiak idatzirik utziz."

Eta baita Laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakori ere:

“Bilkura-egunkaria benetan martxan jartzen ez den artean, osoko bilkuren aktek bilkuraren grabazioaren transkribapena jasoko dute, hartutako erabakiekin, emandako botoekin eta izandako gertaerekin batera. Batzordeen aktek bertan hartutako erabakiak, emandako botoak eta aurkeztutako ekimenen jarduera jasoko dituzte.”

VI

Bulego honen iritziz, irizpen honetako erantzuna zein zentzuzkoa den jakiteko balio du, gutxienez, irtenbideak berak gaia beste ikuspegi batetik aztertzeke aukera eskaintzeak.

Ikuspegi hori da osoko bilkuren jarduerak bete beharreko publizitate printzipioaren artean eta bertan hartutako erabaki eta ebazpenen hedapenari dagokion argitara emateko erregimenaren artean bereiztea.

Horrekin esan nahi dugu, betiere Bulego honen ustez, osoko bilkurak oro har jendaurrekoak izateak ez duela esan nahi, ez bahintzat nahitaez, bertan hartutako erabaki eta ebazpen guztiak era berean osorik argitaratu behar direnik.

Osoko bilkura egitean eztabaidagai diren eta hartutako erabakien xede diren pertsonen datu pertsonalak babesteko eskubidea kaltetuko ez den bezala, gerta daiteke erabaki eta ebazpen horiek osorik argitaratuz gero, pertsonak identifikatzen dituzten edo identifikagarri uzten dituzten datu pertsonalak biltzen badituzte, datuak babesteko eskubide horri kaltea eragitea, eta kalte hori bai eragingo da datu horien argitalpena bere helburuari dagokionez, hau da, kasu honetan herritarrek duten informazioa eskuratzeko eskubidea ahalbidetzekari dagokionez, desegokia eta gehiegizkoa denean.

Gorago ateratako ondorioak ez dira aldatzen argitalpena aurrera eramateko erabili eta aldi berean herritarren partaidetza ahalbidetuko duen baliabidea bat zein bestea izan (papera, web orria, etab.).

Zentzu horretan eta Donostiako Udalari dagokionez, gorago aipatutako Araudi Organikoko 58. artikulua “in fine” ondokoa adierazten du espresuki:

“Osoko bilkuren garapenaren hedapena areagotzeko, megafoniako sistemak, telebista- zirkuituak edo Internet bezalako komunikazio-sareak erabili ahal izango dira.”

Ondorioa zentzuzkoa dela erakusten du, halaber, gorago aipatu dugun “Herritarren partaidetzari buruzko arau organikoaren” zirriborrokoak ere, arauaren zenbait artikulutan ildo hori bera markatzen baita.

Beraz, herritarrek duten informazioa lortzeko eskubidea espresuki jasotzeaz eta eskubide hori erabiltzeko mekanismoak ezartzeaz gain, besteak beste web orriaren sustapenari arreta berezia eskainiz (10. eta 38. artikulua), aztertzen ari garen gaiari buruzko aipamen espezifikoak daude.

lido horretakoa da, 14. artikulua, "Bilkuren eta erabakien publikitatea", ondokoa ezartzen duena:

"1. Donostiako Udalbatzaren eta Gobernuaren deialdiak eta eguneko gai-zerrendak argitaratu egingo dira, herritarrek horri buruzko informazioa jaso dezaten.

2. Ekitaldiak eta erabakiak jakinarazteari buruz eta argitaratzeari buruz indarrean dagoen araudiak xedatutakoaren kalterik gabe, Udalak laburbildurik argitaratuko ditu Udalbatzaren eta Gobernu Batzordearen erabakiak, egokiak iruditzen zaizkion bitartekoen bidez, esate baterako, Udalaren web orriaren bidez."

Edo 40. artikulua "Udalaren web orria":

"1. Udalak herritarren eskura web orri bat jarriko du, eta horri esker, interes orokorreko jarduerak, Udal Gobernuko organoen eta Udalbatzaren erabakien laburpenak, eta udalerriarentzat garrantzi handiena duten jardueren agendari buruzko informazioa eskuratu ahal izango dute.

2. Web orri honetan udalerriarentzat garrantzia duten aurrekontuei eta proiektuei buruzko informazioa eskainiko da. Era berean, kontsultak eta administrazio-izapideak egin ahal izango dira, erabakitzen diren prozeduren bitartez.

3. Web orrian gunee bat jarriko da, udal intereseko gaiak eta antzekoak buruzko ideiak, iritziak, iradokizunak eta eztabaida-forumak aurkeztu ahal izateko."

VII

Udalbatzako Batzordeei dagokienez, erantzunak are zehatzagoak izan behar du, Araudi Organikoak haien argitalpenari buruz jasotzen dituen arau desberdinak kontuan izanik. Hortaz, Araudi Organikoko 126.1a) artikulua ondokoa ezartzen du:

"Herritarrei udalaren jarduerari buruzko informazio hobea eman ahal izateko, udalbatzako batzordeen bilkurak irekiak izango dira behar bezala akreditatuta dauden komunikabideentzat. Bilkura bat ez da argitara emango, Udalbatzaren gehiengo osoaren ordezkari izango den batzordeko bozeramaileen gehiengo batek hala erabakitzen badu. Berari bururatuta edo batzordekide batek proposatuta lehendakariak gonbidatuz gero, batzordekoak ez diren pertsonak joan daitezke bilkurara, aztertzen den gaiarekin zerikusia dutela-eta haiek bertan egotea egokitzat hartzen bada."

Artikulu hori irakurrita erraz ondoriozta daiteke batzordeen bilkurak argitara emateko erregimena eta osoko bilkurak argitara ematekoa oso desberdinak direla. Izan ere, honen arabera, behar bezala akreditatutako komunikabideentzat irekiak izango dira eta, era berean, ez dira argitaratuko gehiengoak hala erabakitzen badu, baina are

interesgarriagoa dena, adierazpen horrek ez du Konstituzioko 18.1. artikularekin lotuta egon behar.

VIII

Azkenik, Bulego honen ustez, aipatu behintzat egin behar dira, bilkuren eta erabakien hedapenerako baliabide gisa eta datu pertsonalen tratamendu bat den neurrian, Interneteko argitalpen orok gutxienez bete behar dituen baldintzak, datu horiek babesteko eskubidea errespetatzeko.

Beraz, datu horien tratamenduari dagokionez bete beharreko protokoloak honako alderdi hauek kontuan hartu behar ditu:

a) Fitxategiak berak bete behar dituen alderdi formalei dagokienez:

- DBLOko 20. artikuluan jasotakoak, hau da, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez araututa egotea.
- Segurtasun-dokumentu bat egitea, DBLOko 9. artikuluan eta 994/1999 Errege Dekretuan (Segurtasun-neurriei buruzko araudia) jasotako haren zehaztapenean ezarritakoa betez.
- Datuak Babesteko Erregistroan erregistratuta egotea, DBLOko 39. artikuluan eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko Legeko 18. artikuluan ezarritakoa betez.

b) Informazioa eskuratzeko eskubideari dagokionez:

Web orrian tratatu eta argitaratuko diren datu pertsonalak biltzeko erabiliko diren dokumentuetan idatzita utziko da DBLOko 5. artikuluan jasota dagoen informazioa eskuratzeko eskubidea eta, beraz, honako hauek adierazi beharko dira:

- bildutako datu pertsonalak [XXXX] helburua duen [XXXX] fitxategiari erantsiko zaizkiola eta bertan tratatuak izango direla,
- datu horiek ez direla emango,
- fitxategiaren organo erantzulea [XXXX] dela,
- interesdunak informazioan sartu, zuzendu, ezeztatu eta hari kontra egiteko eskubidea erabili ahal izango duela [XXXX] helbidean,
- erabakietan agertzen diren datu pertsonalak web orrian argitaratuko direla, [XXXX] prozesurako eta helegite egokietarako beharrezkoa den aldian.

Adibide gisa, informazioari buruzko klausula-eredu batek ondoko testua izan dezake:

“Bildutako datu pertsonalak [XXXX deskribatu] helburua duen [XXXX izena jarri] fitxategiari erantsiko zaizkio eta bertan tratatuak izango dira, [XXXX adierazi]-ri eman ahal izango zaizkio, Legeak aurreikusitako beste lagapen batzuez gain. Fitxategiaren organo erantzulea [XXXX adierazi] da, eta interesdunak informazioan sartu, zuzendu, ezeztatu eta hari kontra egiteko eskubidea erabili ahal izango du [XXXX adierazi] helbidean. Horren guztiaren berri ematen da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, betez.”

c) **Web orrian argitaratzen diren elementu** desberdinei buruz web orrian bertan ematen den informazioari dagokionez, idatzirik utziko da bertan biltzen diren datuen izaera.

Era berean, paragrafo bat idatzi behar litzateke ondokoaz informatzeko: hau da, Web orri horrek jasotzen dituen datu pertsonalak sarbide publikoko iturri ez direla eta ezin- go direla osorik edo zatika kopiatu, ezta informazioa berreskuratzeko edozein sistemaren bitartez transmititu edo erregistratu ere, dagokien adostasunik gabe.

Paragrafo horrek, gainera, aipatu behar luke web orri horretan jasotako datu pertsonalen hedapenak helburu bakarra duela, alegia, toki-administrazioaren araubideko legeetan jasota dagoen publikotasunaren eta herritarren partaidetzaren printzipioa betetzea.

4.- **Datuen kalitateari dagokionez**, hauek DBLOko 4. artikulua eta zehazki 3tik 5era bitarteko puntuetan ezarritakoa betez tratatu beharko dira:

“... ”

3. Izaera pertsonaleko datuak zehatzak eta eguneratuak izango dira, ukituak une bakoitzean duen egoerarekin benetan bat etor daitezen.

4. Erregistratutako izaera pertsonaleko datuak zehaztugabeak badira, oso-osoan zein zati batean, edo osagabeak, datu horiek ezereztu eta, ofizioz, halakoen ordez kasuan kasuko datuak erregistratuko dira, zuzenduta edo osatuta, 16. artikulua ukituei aitortutako ahalmenei kalterik egin gabe.

5. Izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, jaso edo erregistratu ziren xederako beharrezko edo egoki ez direnean....”

ONDORIOAK

Hala eskatzen duten herritarrei toki-korporazioaren erabakiak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak emateak ez du urratzen datu pertsonalen babesari buruzko araudia irizpen honetako IV. irizpidean jasotako moduan.

Hala eskatzen duten herritarrei AJAko 109. artikuluan zehaztutako edukiarekin aktaren kopia soil bat ematea, eta betiere pertsonen intimitateari kalterik eragiten ez badio, ez da datu pertsonalen babesari buruzko araudia haustea.

Aktak jendaurrean eta laburtuta jartzeak, horretarako erabilitako baliabidea edozein izanik ere, ez da datuen babesari buruzko araudiaren kontrakoa, irizpen honetako V. eta VI. irizpideetan adierazitako moduan.

BOE eta TUE etxebizitzak lortzeko zozketetan parte hartutako pertsonen zerrendak eta esleipen zerrendak agertzea herritarrentzako arreta bulegoan eta web orrian

Data: 2007-09-12

CN07-024

XXXko Udalak babes ofizialeko etxebizitzaren eta tasatutako udal etxebizitzaren esleipenari buruzko kontsultaren inguruan egindako txostena

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2007ko ekainaren 15ean XXX Udalaren Langile, Antolaketa eta Informatikako Sailaren Arduradunak posta elektroniko bat bidali zuen Datuak Babesteko Euskal Bulegora. Kontsulta horretan babes ofizialeko etxeak eta tasatutako udal etxeak adjudikatzeko prozedurari buruz galdetzen zen.

BIGARRENA: Kontsultaren idazkian ondorengo gaiak aipatzen dira:

“1.- Udalak behin-behineko zerrendak, behin betikoak eta adjudikazio eta itxaron zerrendak Herritarren Zerbitzurako Bulegoan agertzeko aukera.

2Udalak behin behineko zerrendak, behin betikoak eta adjudikazioak eta itxaron zerrendak Udalaren web orrian agertzeko aukera

3.- Izen-abizenak eta NAN zenbakia agertzeko aukera.”

HIRUGARRENA: Otsailaren 25eko 2/2004 legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak 17n) artikuluan Datuak Babesteko Euskal Bulegoari hurrengo funtzioa egokitzen dio.

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio, goian aipaturiko araudiaren arabera, kontsultari erantzuteko txosten bat jaulkitzea.

GOGOETAK

I

Kontsultaren lehenengo gaia behin-behineko zerrendak, behin betikoak, adjudikazioak eta itxaron zerrendak Herritarren Zerbitzurako Bulegoan agertzean datza.

Gai hau ebatzitzat eman dezakegu Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkideko Legearen Araudi Juridikoan, 60.1 artikulua esaten baitu:

“Administrazio ekintzak jakinaraziko dira prozedura bakoitzeko arauak horrela ezartzen dutenean edo erakunde eskudunak interes publikoko arrazoiengatik horrela gomendatzen duenean.”

Bestalde, 59.5 artikulua, b paragrafoan, adierazten du:

“Jakinaraztea, hurrengo artikulua terminoetan, oharpena ordezkatzeko du, eta eragin berdinak izango ditu ondorengo kasuetan:

b) “Hautaketa prozesu baten ekintzak direnean edo edozein motako lehienak direnean. Kasu honetan, prozeduraren deialdiak zein iragarki-taulan edo komunikabidean egingo diren jakinarazpenak, eta bestelako tokietan egiten direnek ez dute zilegitasunik izango.”

Ildo horretatik, XXX Udalak prozedura arautzen du, zehatzago, 2007ko apirilaren 27ko Aldizkari Ofizialaren 82. zenbakian argitaratutako udal-ordenantza bidez. Ordenantza honetan Jendearentzako Harrera Bulegoan agertzea zehazki aurreikusten da. Horrela, etxebizitzaren esleipenerako prozedura arautzean, 4. artikulua esaten du: “adjudikaziodunen hautaketan parte hartuko duten pertsonen izen-abizenak jendeak ikusteko moduan egongo dira Jendearentzako Harrera Bulegoan.”

Aipaturiko publikazioak, beraz, legearen babesa du.

Hala ere, fitxategiaren arduradunak kontuan izan beharko du Datuak Babesteko Lege Organikoaren 4.5 artikuluan jasotzen den ezeztapen lege aurreikuspena. Ondorengo esaten du:

“Izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, jaso edo erregistratu ziren xederako beharrezko edo egoki ez direnean.

Ez dira gordeko, interesduna nor den jakitea ahalbidetzeko moduan, datu horiek jaso edo erregistratzeko xedeak zein izan eta xede horiek betetzeko behar den denbora baino gehiago.”

Irizpen honetan ez dugu hausnartuko, baina bai aipatu, bai inskripzio inprimakian, zein antzeko beste hainbat dokumentuetan ere, DBLOren 5. artikuluan agertzen den informaziorako eskubidea jasota geratu beharko dela. Horrela jakinarazi beharko da:

- Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea

- egingo diren lagatzeak

- fitxategiaren erakunde arduraduna

- datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea non egin daitekeen.

- Emaitzak erakundearen iragarki-taulan eta bere web orrialdean publikatuko direla, hauen ezagutzerako beharrezkoa den epean, bai eta egin beharreko errekurtsuak egiteko ere.

II

Aipatzen den bigarren gaia, udalak behin-behineko eta behin betiko zerrendak, esleipenak eta itxaron zerrendak bere web orrialdean argitaratzeko aukerarena da.

Gai hau, berriro ere, ebatzitzat eman dezakegu Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura erkidearen araubide juridikoko legean, 59.5 artikuluan hau aipatzen baitu:

“Herri Administrazioek jakinarazpen era osagarriak ezarri ahalko dituzte gainerako zabalkunde-bideen bidez, jakinarazteko betebeharra baztertu gabe, aurreko bi paragrafoetan esaten denarekin bat.”

Aurreikuspen bat da, jakinarazpen helburua behar bezala betetzea nahi duena: interesdunei ukitzen dien ekintzen jakinaraztea.

Gai honekin lotura daukalako, aipatu behar da 11/2007 lege berria, Zerbitzu Publikoetarako herritarren sarbide elektronikoarena, ekainaren 22koa. 4. artikuluan jasotzen ditu oinarri orokorrak eta zehatzago, c) paragrafoan informaziorako eskuragarritasunaren oinarria. Honakoa azaltzen du:

“c) Gai honen inguruan indarrean dagoen araubidean ezartzen da informaziorako eta bide elektronikoen bidez zerbitzuetarako eskuragarritasunaren oinarria. Era ulergarrian eta ziurrean informazioa lortzeko sistemen bidez, eskuragarritasun unibertsala bereziki bermatuz, euskarri, kanal eta ingurune guztietarako diseinuaren bidez, pertsona guztiek beren eskubideak berdintasunean erabil ditzaten, horrela eskatzen duten talde guztiek eskuragarritasuna bermatuta izateko ezaugarriak gaineratuz.”

Arau honen 12. artikulua informaziorako eskuragarritasunaren oinarriaren gauzatzea suposatzen du, honakoa ezartzen duelako:

“Egintzen eta jakinarazpenen publikazioa, legeak edo arauak horrela esaten duelako, iragarki-taulan edo ediktuetan agertu behar direnak, ordezkaturak edo osaturak izateko aukera izango du dagokion erakundearen egoitza elektronikoan.”

Oraingoan ere, fitxategiaren arduradunak aurretik aipatu dugun ezeztapen lege aurreikuspena kontuan hartu beharko du.

III

Orokorrean, zerrendetan eta web orrialdean eskaintzen den informazioan, horietan jasotzen den informazioaren izaera jasota geratu beharko da. Publikatu diren eta izaera pertsonaleko datuak dituzten zerrendak indarrean dagoen datuen babesaren legeari egokitu beharko dira, trataeraren helburua bezala.

Informazio paragrafo bat egon beharko da eta jaso beharko da “zerrenda hauek ez direla publikorako iturri izango eta ezingo direla errepikatu, ez zatika ez eta osotasunean ere, transmititu edo erregistratu informazio berreskuratze sistema batengatik ukituaren adostasuna izan gabe. ”

IV

Hirugarren gaiari dagokionez, kontsulta egileak ezartzen du “zerrendetan izena eta bi abizenak soilik aipatu ditugu. Egokia izango litzateke NAN zenbakia agertzea ala espedientearen zenbakia, zozketan egokitutako zenbakia...bezalako datu hauek ez aipatzea hobe litzateke?”

Kontsulta hau zuzenean lotua dago datuen kalitatearen oinarriarekin, adostasunaren oinarriarekin batera, eta hauek dira araudi honen bi zutabeak.

DBLOren 4.artikuluak ondorengo ezartzen du:

“Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xedekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legítimoak izan beharko dira.”

Prozedura arautzen duen udal ordenantzan zozketaren parte hartzaile bakoitzari zenbaki bat egokituko zaiola esaten da. Datu honen helburua, uste dugu, beste batzuen artean, bat etorri daitezkeen pertsonen izen-abizenak identifikatzea eta desberdintzea dela. Hori dela eta, eta datuen kalitatearen oinarriarekin bat, NANaren jakinarazpenak izaera pertsonaleko datuen gehiegizko trataera izango litzateke, dagoeneko helburua lortzeko datu bat dagoenean.

Zozketarako egokitutako zenbakia erabiltzea, izaera pertsonaleko datuen babesarekin adeitsuagoa da NANA erabiltzea baino.

ONDORIOAK

Lehenengoa. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak, adjudikazioak eta itxaron zerrendak publikoari erakusteak eta XXX udalerrian babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatutako udal etxebizitzak emateko prozedurak ez du izaera pertsonaleko datuen babesaren araudiaren kontra egiten.

Bigarrena. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak, adjudikazioak eta itxaron zerrendak udaleko web orrialdean publikatzeak eta xxx udalerriko babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatutako udal etxebizitzak emateko prozedurak, ez du izaera pertsonaleko datuen babesaren araudiaren kontra egiten.

Hirugarrena. Aipaturiko prozeduretan, zozketan egokitutako zenbakia jakinaraztea, izen-abizenak berdinak dituzten pertsonak identifikatu eta desberdintzeko helburuarekin egindakoa, datuen babesarekiko zuzenagoa da NAN zenbakia erabiltzea baino.

Gogoan izan beharreko datuen babesaren inguruko alderdiak unibertsitateko lan-eskaintza publikoan

Data: 2007-12-18

CN07-028

XXX administrazioko zerbitzu juridikoek administrazio honen lan-eskaintza publikoaren inguruko kontsultari erantzuteko egindako txostena

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2007ko uztailaren 24an Datuak Babesteko Euskal Bulego honetara Lege Zerbitzuaren posta elektroniko bat iritsi zen. Postan goian aipaturiko gaiari buruzko kontsulta egiten da.

BIGARRENA: Igorritako kontsulta-idazkian ondorengoa adierazten da:

“Gu gehien kezkatzen gaituen gaietarikoa bat da hautagaiei eragiten dieten jardueren gaineko informazioa ematearen eta izaera pertsonaleko datuak babestetik eratorritako eskubideak babestearen arteko oreka aurkitzea.”

Hori dela eta, eskatzen dizuegu ondorengo gaiei buruzko informazioa eman diezaguzuela.

Hautaketa-prozesutik sortutako zerrendei gehitu beharreko informazio-eremuak (onartutakoak eta baztertutakoak, lehenengo ariketa gainditu dutenak, bigarrena, etab.), edo beste era batean esanda, datuen bateraezintasunaren zein irizpide aztertu behar dugun.

Web orrian publikatzen diren datuek daukaten babes bera eduki behar dute iragarki taulan publikatzen direnek?

Komenigarria litzateke, oinarri orokorretan klausula bat aurreikustea, interesdunak baimena eman dezan hautaketa prozesurako bere datuak kudeatzeko?. Hala balitz, eskatzen dizuegu, mesedez, klausula horren idazketa-eredu bat bidal diezaguzuen.

Jakina, badakit, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaeran datuen babesaren gaineko berariazko baimena aurreikusi behar dela.

Zuek uste baduzue, hemen aipatutako gaiez gain, bestelakorik ere hartu beharko genukeela kontuan, jakinaraz ezazue erantzunean, arren.”

HIRUGARRENA: 2007ko uztailaren 26an Datuak Babesteko Euskal Bulegoak XXX-ko lege zerbitzuetara posta elektronikoa bat bidali zuen eskatzeko zehatz zitzatela galde-tutako gaiak. Postan adierazitako gaiak zehaztuko direla esaten da; txosten hau egin denean ez da eskaera horren erantzunik jaso.

LAUGARRENA: Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Pu-blikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, 17n) artikuluan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari hurrengo funtzioak egokitzen dizkio:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korpora-zioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio egindako kontsultari erantzuteko txosten bat egitea.

GOGOETAK

I

Kontsultan Bulego honi eskatzen zaion gaien inguruko iritzia, nahiz eta kontsultan “zehatzak” direla esan, datuak babesteko araubide juridikoa zuzentzen duten oinarri batzuekin zuzenean bat egiten du. Oinarriok Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO), abenduaren 13koa, II atalean jasotzen dira.

Horrela, gure ustez, ez da zaila, gai horiek datuen kalitatearen, segurtasunaren, ados-tasunaren eta informazioaren oinarriekin harreman estua dutela ikustea.

Azaldutako gai bakoitzari erantzuna emateko azterketa bat behar da, oinarri hauen azaletik bederen.

Aurrez, eta izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiak ematen duen ikuspuntutik, kontsulta egilea kezkatzen duena, hau da, prozesuaren fase ezberdinetan egin beha-rreko publikazioak aztertu beharko lirateke.

Horrela, hautaketa prozesuan nahitaez izango diren publikazioek, urriaren 24ko Eu-ropar Legebiltzarreko eta Batzordeko 95/46 KE Zuzentarauaren datu pertsonalen inguruan pertsona fisikoak babesteko eta datuon zirkulazio librea, 3. artikuluen 1 atalean ezartzen denaren arabera eta 2/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa, Datu Per-sonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, izaera pertsonaleko datuen trataera osatuko lukete.

Are gehiago, eta aurretik aipaturiko arauarekin ere bat etorrira, datuon lagatze edo jaki-naraztea dakar, interesduna ez den beste pertsona bati jakinarazten zaizkion unetik.

DBLOren 11.1 artikulua arabera, tratatuko diren izaera pertsonaleko datuak hiru garren bati soilik jakinaraziko zaizkio lagatzailearen eta jasotzaileen lege funtzioekin harremana duten helburuekin, interesdunaren aurreko adostasunarekin. Hala ere, artikulua beraren 2. paragrafoan salbuespen sorta bat arautzen da, eta horien artean, ustezko honekin lotuta, lagatzea onartuko duen lege maila duen arau bat egiteko aukera agertzen da.

Dagokigun balizko egoerarako, eta funtzio publikorako legedian egon daitezkeen egokitzapenez gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koa, 59.6 b) artikulua aipa daiteke. Honen arabera, publikazioak jakinarazpena ordezkatuko du.

“Hautaketa prozesu bateko edo edozein motatako norgehiagoka baten jardura osatzen duenean.”

Lehenengo ondorioa (nahiz eta agerikoa irudit, kontuan hartu beharrekoa) izaera pertsonaleko babesaren ikuspuntu zorrotzetik, egin nahi den datuen “trataera” egin beharreko publikazioen bidez hauen “jakinaraztea edo lagatzea” egitea da, eta honek lege maila duen arauan babes nahikoa aurkitzen du.

II

Aurreko ondorioa iritsi ondoren, deialdia egin duen Administrazioari dagozkion lege betebeharrak betetzeko egindako datuen jakinaraztea eta trataera, izaera pertsonaleko datuak babesteko, funtsezko eskubidea arautzen dituzten oinarri eta araei egokitu beharko dira, aurretik aipaturiko oinarriak tartean daudela.

Horrela, bada, eta lehenengo gai eta oinarriarekin hasita, datuen kalitatearena, DBLOren 4. artikuluan esaten dena azertu beharko da:

“Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean, datu horiek zein esparrutan eta zein xedekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legitimoak izan beharko dira.”

Bulego honen lehenengo xedapenetan eta bestelako kontrol organoen esperientzia jaso ondoren, esan zen aginduak gordetzen duen oinarriaren interpretazio egokiak, aurrera eraman nahi den tratamendurako arrazoizko eta proportziozko irizpideak erabiltzera eramaten gaituela, lortu nahi den helburuarekin bat.

Aurkezten den ustezkoan, tratamenduak alegia, (kanporatutakoen datuak argitaratzea, onartutakoenak, emaitzak, etab...) bulego honen ustetan, ezin du bestelako helbururik izan, Herri Administrazioaren zerbitzurako lan egiten duten langileen hautaketa zerbitzuak hautatzen dituen argitaratze oinarria betetzearena ez bada (Euskal Funtzio

Publikoaren Legeko 33. artikulua). Artikulu honek, azkenean, funtzio publiko eta kargu publikoetara baldintza berdinetan eskuratzeko funtsezko oinarria betetzen laguntzen du, jakinarazpen honek prozesuaren kontrola ahalbidetzen duelako.

Irizpide orokor bezala, ezarri dezakegu, jakinaraziko diren izaera pertsonaleko datuak, jakinarazpen honek lortu nahi duen helburua betetzen lagunduko dutenak soilik izango direla.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak irizpide hau ezartzea baino ez dezake egin, berari ez baitagokio ezartzea zeintzuk izango diren kasu zehatz bakoitzerako tratatu beharreko eremuak edo datuak eta tratamendu hau egiteko modua, Administrazio bakoitzaren lana delako, prozesu bakoitzaren izaera eta ezaugarriak behatuz. Era berean, Administrazio bakoitzari egokituko zaio prozesua arautuko duten oinarriak finkatzea, izaera pertsonaleko datuen tratamendu egokia egon dadin, orain dagokigun alderdian ere bai.

III

Bulego honek uste du, kontsultan azaltzen den bigarren gaiari ekiteko, ikuspuntu interesgarria litzakeela Internet bidez argitaratzen diren izaera pertsonaleko datuen xehetasunak azpimarratzea, bide honetatik datuak argitaratzeko aukera ematen duen premisatik abiatuta, (*"kasu honetan, deialdiaren prozedurak adierazi beharko du zein iragarki-taulan edo komunikabidetan egingo diren argitarapenak..."* 30/1992 Legearen 59.6b) artikulua). Kontuan izan beharko da, bestalde, 11/2007 Legeak, ekainaren 22koak, herritarren zerbitzu publikoen sarrera elektronikoarenak, informazioaren teknologiei eman dien bultzada garrantzitsua.

Bultzada hau ez da eragozpen bat legegilearentzat Lege honen zioen azalpenean onartzen delako *"...irtenbidea eman behar zaien beste hainbat ondorio..."* eraginez *"lehenik,.... ematen diren datu batzuen pribatutasunaren arazoa, baina... erabileraren arazoa sortzen duena..."*.

Hori dela eta, Zioen Azalpenak berak ezartzen du: *"Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak ezartzea daukan erronka nagusia.... bere erabilerari lotuta dauden arriskuak ezabatzeko edo gutxitzeko konfiantza nahikoa sortzea da"*.

Horretarako, eta kontuan hartuta izaera pertsonaleko datuak babesteko funtsezko eskubideaz gain dagoen arriskurik nagusiena Interneteko bilatzaileen bidez partikularren buruzko informazioa biltzeko ematen duen gaitasunean datzala, eta Datuen Babeserako Lantaldeak 2000ko azaroaren 21eko lan dokumentuan emandako gomendioei jarraiki, Datuak Babesteko Euskal Bulego honek txosten honetara atxikitzen zaion Interneten zerrendak argitaratzeko protokolo bat eratu du.

Azkenik, aipatu beharko litzateke, orain arte azaldu diren bi ikuspuntuak lotzeko aukera ematen digun gai bat. Kontsulta egileak honen inguruan ezer ez esan arren, komeni-

garria litzateke, arreta jartzea, Bulego honen aldetik, datuen kalitatearen oinarriarekin harremana daukalako eta Internet bidez egindako argitalpenetarako interes handia daukalako.

DBLOren 4. artikulua, 5. paragrafoan, gai honi buruz hitz egiten du:

“Izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, jaso edo erregistratu ziren xederako beharrezko edo egoki ez direnean.

“Ez dira gordeko, interesduna nor den jakitea ahalbidetzeko moduan, datu horiek jaso edo erregistratzeko xedeak zein izan eta xede horiek betetzeko behar den denbora baino gehiago.”

Internet bidez egindako argitalpenen oinarria ezartzeko, lehenik eta behin, kontuan hartu behar da bide hau ez dela publikorako iturri eskuraeraza DBLOren 3j) artikulua-ren terminoen arabera. Honek esan nahi du ezarri daitekeen araubide juridikoa, orain dagokigunaren gainean, aldizkari ofizialetan ezar daitekeenetik ezberdina izango dela.

Horregatik, Interneteko argitalpenei kalitatearen oinarria ezarrita, bide honetan denbora mugarik gabe datuak mantentzea galarazten du, eta behin prozesuaren fase bakoitzerako aurreikusitako epea bukatuta ezeztatu beharko dira. Egin beharreko inpugnazioak egiteko ezarritako epea igaro ostean, inolako helbururik ez duelako betetzen datuok mantentzea.

IV

Azaldutako hirugarren gaia aztertzean, datuen titularrak datuak lagatzeko inolako klausularik aurreikusteko egokitasunaren ingurukoa, orokorrean eta DBLOren 6. artikuluan esaten denaren arabera, ez da beharrezkoa bere datuak tratatzeko interesdunaren adostasuna izatea, datuok herri administrazioek beren eskumenen barne dauden funtzioak aurrera eramateko jaso direnean.

“Inolako klausularik” sartzeko “*egokitasunari*” buruz galdetzen denean, eta aukera irizpideak emateko beharrezkoa den ardura kontuan hartuta eta kontsultak nahi duen lagatze mota zein den ez dakigulako, esan beharra dago, lehenik eta behin, aurretik aipaturiko 6. artikuluan jasotzen den aurreikuspenak kudeaketa guztiak biltzen dituela, prozesuaren garapena egokia izan dadin.

Idea honi erantzuten dio fitxategiaren helburuaren, hautaketaren eta postuen horniketaren deskribapenak, 2007ko otsailaren 28ko Ebazpenaren 14. zenbakian jasotzen dena eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean otsailaren 8ko saioan onartutako Akordioa argitaratzea onartzen duenak, izaera pertsonaleko datuak sortzeko, aldatzeko eta ezeztatzeko akordioa hain zuzen ere.

Hori dela eta, errepikatu nahi da, ez dela gomendagarria deialdiaren oinarrietan baimen klausula sartzea kudeaketa arrunt honetarako.

Edonola ere, eta eskatu eta eskaini daitekeen baimenari (onarpena) dagokionez, askea, informatutakoa eta zalantzarik gabekoa izateaz gain, zehatza izan behar du. Gomendagarria da, kudeaketa akzio bat antzematen denean, eta aurretik aipaturiko 6. artikuluan babesik aurkitzen ez badu, klausula bat sartzea baimen zehatz bat eskatzeko.

V

Aldez aurretik, argudio bera, goian aipaturiko ardura berdinekin, balizkoa da laugarren gaiari erantzuteko, hautaketa prozesuan parte hartuko dutenen izaera pertsonaleko datuak tratatzeko baimen orokor bat eskatzeko beharra ikusten ez delako, datuok eta tratamendua kalitatearen eta egokitasun oinarria betetzen dutenean, dena dela unea, (oinarri orokor edo zehatzen argitalpen edo prozesuan onartzeko eskaera). Baina egia era bada, une hau egokiena izango litzatekeela, beharrezkoa den kasuetan, baimena eskatzeko.

Azkenik, informaziorako eskubidea aipatu beharra dago.

Aurreikusten denez, onarpenaren formalizazioa inprimaki baten bidez egingo dela, eta hau izango delako parte hartzaileen izaera pertsonaleko datuak jasoko diren unea, DBLOren 5.artikuluak 1 eta 2 paragrafoek honakoa jasotzen dute:

1. Datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esan-bidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko zaie, ondoko hauen inguruan:

a) Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea eta informazio horren jasotzaileak ere.

b) Egingo zaizkien galderei erantzutea nahitaezkoa edo borondatezkoa den.

c) Datuak lortzearen ondorioak edo datu horiek ez ematearen ondorioak.

d) Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea.

e) Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea edo, hala denean, arduradun horren ordezkariarenak.

“Datuak biltzeko galdera-sortak edo beste inprimaki batzuk erabiltzen badira, aurreko idatz-zatian aipatutako ohartarazpenak jasoko dira halakoetan, argiro irakurtzeko moduan jaso ere.”

Arau honen arabera, prozesurako onarpena eskatzeko erabiliko diren inprimakietan informazio klausula bat egon beharko litzateke.

ONDORIOAK

Kontsultan aurreikusitako tratamenduak izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiarekin bat datozen txosten honetan jasotzen diren terminoetan.

Aldi baterako lan poltsa bateko gainontzeko parte-hartzaileen datuak atzitzea

Data: 2010-12-23

CN10-031

XXXXX-(e)k ondoko gaiari buruz egindako kontsultaren gaineko irizpena: ea datuak babesteko eskubidea urratzen duen XXXXX-(e)ko udaleko aldi baterako lan poltsak osatzen dituztenen zerrendak argitaratzen badira.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2010eko azaroaren 30ean XXXXX-(e)k bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkian honakoa adierazi zuen:

“XXXXX-(e)ko Funtzio Publikoko Sailari eskatu diogu kontroleko ofizialen lan poltsetan dauden zerrenda bat argitaratzeko, zerrendan duten hurrenkeraren araber eta hizkuntza eskakizuna duten ala ez adierazita.

Udaleko Funtzio Publikoko zinegotzi ordezkariak emandako erantzunak ukatu egiten du eskaera eta honako arrazoiak ematen ditu:

“Ukatu egin behar da, izenaren datua datu guztiz identifikatzailea delako, eta datu hori eskatzaileak eskatutako moduan zabalduz gero, datuak babesteko legea urratuko litzatekeelako.”

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazioetan ohikoa da lan poltsen zerrendak argitaratzea bertan dauden izenekin, bai eta administrazioarekin era bateko edo bestelako harremana izan duten pertsonen zerrendak ere bai (enplegu publikoaren eskaintzak, bekak edo laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzan zozketak eta abar). Hori ikusita, hainbat galdera egin beharrean gaude:

Aurreko guztia kontuan izanda, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eskatzen diogu ondoko galderen gainean duten iritzia emateko:

Lehenengoa: ea euskal administrazio publikoek argitara ditzaketen bertako lan poltsetan izena emanda dauden zerrendak, eta erantzuna baietz bada, ea zein baldintza bete behar diren.

Bigarrena: ea XXXXX-(e)ko Udaleko Funtzio Publikoko Sailak datuak babesteko legea urratuko lukeen zerrendak argitaratuko balitu eskatutako datu guztiekin; erantzuna baietz bada, ea Udal horretako Aldi Baterako Kontratazioen Zerrendak

Kudeatzeko Erregelamendua aldatuz gero, zerrendak argitaratzea zilegi izango litzatekeen datuak babesteko legedia urratu gabe.

Hirugarrena: Osakidetzak, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak beza-lako beste administrazio publiko batzuek ere lan poltsak argitaratzen dituzte, izen eta guzti, zerrendan daudenak identifikatzea ahalbideratuz. Horrek ere datuak babesteko legedia urratzen du?

“Parte-hartzaile batek –interesduna– EPE bat gauzatzeko administrazio-prozedura bateko lehiaketa fasean gainontzeko parte hartzaileek alegatutako merezimenduak direla-eta aurkeztu dituzten dokumentuak atzitzeko eskubideak (Kontitutazioaren 20.1, 103 eta 105 b) artikuluek babesten dute eskubidea eta 30/1992 Legearen 37. artikulua garatzen du) DBLOren manu eta printzipioak urratzen dituen. Beste era batera esanda, ea EPE batean parte hartu duen batek –interesduna– eskubidea duen ala ez gainontzeko lehiakideek lehiaketa fasean aurkeztutako merezimendu profesionali buruzko dokumentuen kopia jasotzeko, ala, halakorik ezean, dokumentuak ikusi eta aztertzeko; hori eginda, interesdunak erreklamazio eskubidea modu eraginkorrangoan baliatu dezakeelakoan. Ala zilegi da eskubide hori ukatzea, DBLOk xedatutakoa urratzen duelako?”

Idazkiarekin batera, kontsulta-egilearen NANaren kopia bat eta lan poltsako beste 43 pertsonen zerrenda ere aurkeztu dira. Zerrenda taula formatuan aurkeztu dute datu hauekin: NANA, izen-abizenak eta lan poltsa.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak egin digun galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Hasteko, esan behar da planteatu diguten gaiak zer ikusi gehiago duela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen duen fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidearekin, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearekin baino. Kontsultaren edukia ikusi eta gero, eta kontsultari atxikitako arrazoiketa juridikoa ikusita, argi dago hala dela.

Administrazio zuzenbidearen esparruko auzia bada ere, eta ez hainbeste datu-babesaren esparrukoa, hainbat ohar egin beharrean gaude, laguntzeko asmo hutsez.

II

Kontsultan aipatzen den datu-tratamendua datu-komunikazioa edo datu-lagatzeta da, hala xedatzen baitu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3 i) artikulua:

“Interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea.”

DBLOk dioenez, datuak lagatzeko bete behar den arau orokorra adostasuna da:

Hona hemen 11.1 artikulua xedatzen duena

“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotutako dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.”

Bigarren artikuluko 2. idatz-zatian arau orokor horrek dituen salbuespenak arautzen dira, eta gure kasuan a) atalak xedatutakoa kontuan hartu beharrekoa da:

“Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Datu-lagatzeta gaitzen duen legea, kontsulta-egileak ere hala dio, honakoa da: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea. Zehatzago esanda, Legearen 35 a) eta 37 artikulua.

“35 a) artikulua: Herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan eskubide hauek dituzte:

Herritarrek, prozedura batean interesatu izaera dutenean, tramitazioa zertan den edozein unetan ezagutzeko eskubidea dute eta prozedura horietako agiriaren kopiak lortzeko eskubidea dute.”

37.1 artikulua honakoa xedatzen du:

“Herritarrek erregistroetara jotzeko eskubidea dute eta, espedienteren batekoak izanik, administrazioko artxiboetan dauden agiriak irispidea izateko eskubidea, edozein dela ere agiriaren adierazpidea -idatzia, entzunezkoa nahiz irudizkoa- eta euskarri materiala, espedienteak ikusteko eskaera egiten den egunean espediente horien prozedurak amaituta badaude.”

Bi artikulu horiek arautzen dute fitxategiak eta erregistroak atzitzeko era. Lehenengoak izapidetzen ari diren prozedurak arautzen ditu, eta interesdun izaera duten herritarrei fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidea aitortzen die. Bigarrena, bukatutako prozedurei buruzkoa da, eta hasiera batean herritar orori uzten dio horiek atzitzen.

Konstituzioaren 104 b) artikuluan dago manu horien jatorria:

“Legeak arautuko du:

...

*“herritarrek artxibo eta erregistro administratiboetara sartzea, salbu eta estatua-
ren segurtasun eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen bizitza pribatuari
dagokienez.”*

30/1999 Legeak arautzen duen atzipen-eskubidea eta DBLOk arautzen duena ez dira berdinak. Izan ere, DBLOren 15.1 artikulua arautzen duen eskubidea da interesdu-
nak duena doan eskatu eta jasotzeko tratamendupean dauden bere datu pertsonalei
buruz, eta jakiteko ea zein den datuen jatorria eta ea zein komunikazio egin diren edo
egingo diren datuekin. Eskubide hori eskubide guztiz pertsonala da, eta norbere da-
tuak kontrolatzea du helburu. Fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubide, ordea,
ez da norbere datuei buruzkoa, hirugarrenen datuei buruzkoa baizik.

30/1992 Legeak arautzen duen atzipen eskubidea kontrolatzea ez da Datuak Babeste-
ko Euskal Bulegoaren eginkizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren
2009ko uztailaren 8ko epaiak dioenaren arabera:

*“Demandatzaileak azaldutako jokaerek ez dute zer ikusirik oinarritzko eskubide
honekin, fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidearekin baino. 30/1992 Le-
geak arautzen du azken eskubide hori (35 a) eta 37.2 artikulua). Hau da, proze-
dura jakin bateko dokumentazioa eskuratzea da kontua, eta hori Datuak Babes-
teko Euskal Bulegoaren eskumen esparrutik kanpo dago.”*

Beraz, hautaketa prozesua izapidetzeko ahala duen organoak erabaki behar du ea
eskatzailea prozeduran interesduna den ala ez.

Hona hemen interes legitimoari buruz Konstituzio Auzitegiak eman duen definizioa:
*“interes legitimoa da norbaitek helburu bat erdiesteko duen abantaila edo erabilera juridiko
baten titulartasun potentziala, ondare-edukia izan dezakeena ala ez, eta hura gauzatuz gero,
benetako bihurtzen dena. Beraz, interes legitimoa egongo da, baldin eta argi eta garbi bada-
go aurkatutako jarduerak eragina duela prozesura doan esfera juridikoan” (Martxoaren 23ko
45/2004 KAE, 1. oinarri juridikoa).”*

Bulegoak hainbat ohar egin nahi ditu, baina hautaketa-prozesuaren kudeaketa-orga-
noaren eginkizunetan esku hartzeko asmorik gabe. Hona hemen:

Hona hemen Isabel-Cecilia del Castillo Vázquez-ek dioena: *“DBLOk are gehiago indartu du gardentasunaren eta sekretuaren artean, jakiteko eskubidearen eta isilik egoteko eskubidearen artean, administrazioak daukan informazioaren berri izateko eskubidearen eta pertsonen pribatasunerako eskubidearen artean dagoen tentsioa. Eta horrek alderdi juridikoa erabat zaildu du, doktrina sendoenak ere erakusten duenez.*

Era berean, kontuan izan behar dugu LUCAS DURANek dioena ere, hau da, bi printzipio horien arteko tentsioak esan nahi duela printzipio bakoitza ezin dela etengabe aurrera joan norabide batean (hau da, erabateko publikotasuna bultzatuz ala erabateko isiltasuna bultzatuz), kontrako norabidean bultzatzen duen beste printzipio bat dagoelako, eta indarra kentzen diolako -kontrako norabidean bultzatzen eginez- eta gardentasunerako norabidean ala isiltasunerako norabidean doazen indarrei kontra egiten dien beste indar bat jartzen dielako parean, bi indarrak ponderatu beharra sortuz. Hartara, zenbaitetan gertatuko da administrazio gardentasuna murriztu egin behar dela interes zehatz bat dagoelako tartea, eta ponderazioa egin eta gero ikusten delako interes hori interes orokorraren gainetik dagoela.”

...

“Hori dela eta, sekretuak babesten dituen alderdiak atzipenarekin bateragarriak badira, administrazioak ezin izango du ukatu espediente baten atzipena.”

Gure aburuz, aztertzen ari garen kasuaren ezaugarriak dira, batetik, izapidetze fasean dagoen prozedura bateko datu-atzipena dela, bestetik, aldi baterako lan poltsako kideak interesdunak direla, eta, hirugarrenik, datu-babesaren ikuspuntutik ez dagoela eragozpenik interesdunek jakin dezaten lan poltsan daudenen izena, zein tokitan dauden lan poltsan eta zein hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duten, baldin eta hizkuntza eskakizunaren datua garrantzitsua bada lan poltsaren funtzionamendurako. Beste kontu bat da izango zen datu horiek ingurune ireki batean argitaratu nahi izatea, baina lan poltsan daudenek baino ez dituzte ikusiko, DBLOren 4.1 artikulua xedatutakoaren arabera.

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.”

Zentzu horretan oso argigarria da Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agenciaren apirilaren 25eko 2/2008 Gomendioa. Hona hemen Gomendioaren 14.4 eta 14.5 puntuek diotena:

“Norgehiagoka prozedurei buruzko izapidezko administrazio egintzak Interneteko aldizkari ofizialetan edo erakunde-webetan argitaratu ordez, erakunde-webetan sarbide murriztua duten gune pribatuetan argitaratzea.

Adibidez, izapidezko administrazio-egintzetan dauden datu pertsonalez ari garelara, norgehiagoka prozedurek ukitutako herritarren merezimenduen baremazio partziala egitea dakarren administrazio-izapideren bat gehitu behar bada bertan,

halakoetan gomendatzen da baremazio partziala sarbide murriztua duen gune pribatuaren bidez argitaratzea erakunde-webetan, Interneten zabalik dagoen kanal elektronikoan ala telematikoa, iragarki ohol elektronikoetan edo, hala bada-gokio, dena delako administrazio-intranetean.

Gune pribatuak erabiliz gero, bermatu egingo da parte hartzaileek jakin dezaketela zertan dauden espedientetik eratorritako administrazio egintza guztiak, horretarako, sinadura elektronikoa aurreratuko sistemak erabilita identifikatuz euren buruak, nortasun agiri nazionalak dituenak edo bestelakoak, adibidez, erabiltzaile izena eta pasahitz segurua erabiliz, alde biek baino ezagutzen ez duten informazioa erabiliz edo beste mekanismo baliokide batzuk erabiliz.

14.5. Ukitutako herritarren datu pertsonalak dituzten norgehiagoka prozeduretatik eratorritako izapidezko administrazio egintzak erakunde-webetan argitaratzeko, baina datuak atzitzeko murrizketarik eta identifikaziorik gabe, halakoetan, gomendatzen da, organo eskumendunak ukituen berariazko eta idatzizko adostasuna eskuratzea alde aurretik. Gorago esandakoarekin bat, adostasuna lortu ezean, gomendatzen da izapidezko administrazio egintzok argitaratzeko, erakunde-webeko edo Interneten irekitako kanal elektronikoa edo telematikoko, edo, hala badagokio, administrazio intraneteko iragarki oholetako gune pribatuak erabiltzeko, eta lehen adierazitako identifikazio bitartekoetako edozein erabilita datuak atzitu nahi duen pertsonaren zalantzarik gabeko identifikazioa eskatzeko nahitaez.”

Ondorioz, eta aurreko gogoeta guztiak kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Burlegoaren zuzendariak honakoa ondorioztatu du:

ONDORIOA

Aldi baterako lan poltsa batean dagoen pertsonak zerrendako gainontzeko pertsonen identitateari, zerrendan duten tokiari eta egiaztatuta duten hizkuntza eskakizunari buruzko datuak (baldin eta hizkuntza eskakizunaren datua garrantzitsua bada lan poltsaren kudeaketarako) atzitzuz gero, ez da datu pertsonalei buruzko araudia urratzen.

Datuak argitaratzea web orria batean

Data: 2013-06-11

CN13-017

XXXXX(e)k ea Kontzejuaren aktak bertako web gunean argitara daitezkeen, ea akordioen ziurtagiriak egin daitezkeen eta akten kopiak herritarrei eman ahal zaizkien galdetuz egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2013ko maiatzaren 17an XXXXX(r)en idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkia goian adierazitako gaiari buruzkoa zen.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak babesteko oinarritzko eskubidearen ikuspegitik abiatuta, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3. artikuluan adierazitako definizioak ikusita -“datu pertsonala” eta “tratamendua”- eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen arabera, argi dago kontzejuaren bilkuretako aktek pertsona fisiko identifikatuen edo identifikagarrien datu pertsonalak badituzte, akta horiek argitaratzea, aipatu berri diren lege bi horietan datu pertsonalen tratamenduetarako aurreikusitako lege erregimena bete behar duten datu tratamendutzat jo behar dela.

Esan behar da lege erregimen horren oinarrian daudela DBLOren 4. eta 6. artikuluan jasotako oinarritzko printzipioak.

Lehengo printzipioaren arabera (datuen kalitatea helburuekiko), datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta

neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko, eta ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako.

Bigarrenaren arabera, datu pertsonalak tratatu ahal izateko, titularraren adostasun garbia beharko du, baldin eta legeak besterik xedatu ez badu.

Beraz, jakiteko ea burutu nahi den operazioa bat datorren datu pertsonalak babesteko araudiarekin, operazioa bera eta operazioak lortu nahi duen helburua aztertu eta alderatu beharko dira, eta ikusi beharko da ea baduen behar bete lege babesik.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak adierazi du lehenago ere gai honen gaineko iritzia (adibidez, CN08-011), eta saiatu izan da tarteko bide bat topatzen, hau da, eskubide batzuk baliatu ahal izaten beste batzuk ahalik eta gutxien kaltetuz.

Kontsulta honetan planteatzen diren tratamenduak legezkoak diren ala ez zehazteko, lehendabizi aztertu beharko da ea administrazioaren gardentasunaren, politikan parte hartzeko eskubidearen eta datu pertsonalak babestearen artean orekarik dagoen.

Orduan kontsulta-egilea udal bat izan zen, baina irizpenean egindako azterketak eta ateratako ondorioek berdin-berdin balio dute oraingo kasu honetarako, antzekoak direlako; hain zuzen ere, kontzejua lurralde izaerako toki erakunde bat da, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna ditu, eta udalerriak baino lurralde-esparru txikiagoan du jurisdikzioa. Baina, gure azterketa egiteko, kontuan hartuko dugu **XXXXX(e)**ko Kontzejua kontzeju-mugarteko adin nagusiko auzotar guztiek osatzen dutela eta kontzejuko batzarburua bertako lehendakaria dela, hala xedatzen baitu Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 21. artikulua.

II

Irizpen horretan honakoa adierazi genuen:

“Administrazio arloko doktrina kontuan hartzen badugu “administrazioaren gardentasuna legeetan jasota dago eta herritarren informaziorako eskubideari datxekio, eta toki entitateen lurralde esparruan egon beharko zen beste inon baino babestuago, toki administrazioak herritarrengandik oso gertu daudelako, herritarren interesei berehala eragiten dielako eta tradizio historiko handiena ere han duelako” (Jiménez Plaza, 2003).

Administrazioaren gardentasunaren adibide bat da osoko bilkurak publikoak direla, hala xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.1 artikulua. Baina, hala ere, izatez publikoak izan arren, *“Konstituzioaren 18.1 artikuluan xedatutako herritarren oinarritzko eskubideei eragiten dieten gaiak eztabaidatzeko eta bozkatzeko saioak isilekoak izan daitezke, gehiengo osoak hala egitea erabakitzen badu”.*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua ondokoa xedatzen du (abenduaren 16ko 57/1985 Legean idatzitakoa):

1. Toki erakundeetako udalbatzak publikoak izan ohi dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan aipatutako herritarren oinarriko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.

Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak.

2. Toki-korporazioek hartutako erabakiak legean aurreikusi bezala argitaratu edo jakinarazten dira. Ordenantzak, hirigintzako planetako arauen artikulua zatiak barne, baita hirigintzako planetako erabakiak ere horien behin betiko onarpena toki-erakundeen eskumenekoa denean, probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko testua osorik argitaratu eta 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igaro arte; aurrekontuak eta ordenantza fiskalak salbuespen dira, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legean ezarritako moduan argitaratu eta jarriko baitira indarrean. Hirigintza-arloan eskumenak dituzten herri-administrazioek beren lurralde-eremuan indarrean dagoen plangintzako kopia osoak izan behar dituzte eskatu nahi dituzten herritarren eskura.

3. Herritar guztiek dute toki-korporazioen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko kopia eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko legedian xedatutako eran. Eskubide hori ukatzea edo mugatzea, Estatuaren segurtasun eta defentsari dagokienean, eta delituak ikertzeari edo pertsonen bizitza pribatuari ukitzen dienean, arrazoi tutak ebazpenen bidez frogatu beharko da."

Artikulu horretako 2. idatz-zatiari erreparatzen badiogu, tokiko korporazioen erabakiak legeak esandakoaren arabera argitaratu edo jakinarazi behar dira. Oso argigarria da erabakiak argitaratzeko moduez Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren (AJA) 229.2 artikulua dioena:

"Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua xedatutakoa alde batera utzita, Korporazioak argitaratu egin beharko ditu, laburtuta, udalbatzetako eta gobernu batzordeko erabaki guztiak, alkatearen ebazpen guztiak eta alkateak eskuordetuz ordezkariak ematen dituztenak."

Hirugarren atalak, gutxienez hiru hilean behin, informazio-buletin bat argitaratzeko ematen du.

AJAK erabakiak “laburtuta argitaratu” behar direla esaten du, baina ez du zehazten zer den argitaratu behar den gutxienekoa. Beraz, hortik ondorioztatzen duguna da lege ez dagoela inon jasota erabaki eta ebaizpen horien laburpenak izan behar duen edukia eta udalbatzarren aktena berdina izan behar denik (Akten laburpenak izan behar duen edukia AJAren 109. artikuluan dago xedatuta). Kontuan izan behar dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 18.e) artikulua honako xedatzen duela herritarren betebeharrak eta eskubideak arautzean:

“Udal espediente eta dokumentazio guztien gaineko informazioa izateko eskubidea, baldin eta lehendabizi eskaera arrazoitua egin badiote udal administrazioari, eta beti ere Konstituzioaren 105. artikulua xedatutakoaren arabera”.

Udalbatzaren erabakien edukia web gune batean argitaratzeak esan nahi du informazio hori zabaldu egiten dela, edonork eskura dezan, kontuan hartu gabe bertako herritarra den ala ez. Beraz, gure ustez, AJAren 109. artikulua aktetarako xedatzen duenak ez du balio udal web orrian argitaratzen denaren edukiari ezartzeko. Eta uste hori berresten du AJAren 229.2 artikulua “laburtuta argitaratu” behar dela baitio.

Beraz, artikulua horrek arautzen duen laburpenak esan nahi du kendu egin behar direla edukitik egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak, informazio orokorra emateko helburua ez baldin badute, eta ezingo dute inola jaso datu pertsonal sentisiblerik.

Azkenik, aipatu behar ditugu Interneten egiten diren argitalpenek gure ustez bete behar dituzten gutxieneko baldintzak, argitalpenok datu babesaren eskubidearekiko errespetuz jokatzeko dutela esan ahal izateko, argitalpen horietan bileren eta erabakien berri ematen delako eta datu pertsonalen tratamenduak egiten direlako.

Beraz, datu tratamenduari buruz bete behar den protokoloak honako baldintzak bete beharko ditu:

a) Fitxategiak **alde formaletik** bete behar dituen baldintzak:

- DBLOren 20. artikuluan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4. artikuluan xedatutakoak: hau da, izaera orokorreko xedapen baten bidez araututa egon behar da eta xedapena dagokion aldezkaririk ofizialean argitaratuta.

- Segurtasun agiria egitea, DBLOren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera eta hura zehazten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren arabera.
- Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzea, DBLOren 39. artikulua eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikulua arabera.

b) Informaziorako eskubidearen aldetik bete beharrekoak:

Tratatu beharreko eta Interneten argitaratu beharreko datuak jasotzeko erabiltzen diren dokumentuetan jaso egin beharko da DBLOren 5. artikulua xedatzen duen informaziorako eskubidea. Beraz, hau guzti hau azaldu beharko da bertan:

- Biltzen diren datuak [XXXX] fitxategian jasoko direla eta fitxategiak honako helburua duela: [XXXX].
- Datu horiek ez zaizkiola inori lagako.
- Fitxategiaren kontrolatzailea honako organoa dela: [XXXX],
- Interesdunak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea baliatu nahi izanez gero, helbide honetara jo behar duela: [XXXX],
- eta erabakietan agertzen diren datu pertsonalak web orrian argitaratuta egongo direla ondoko prozesua egiteko behar adina denbora: [XXXX], bai eta egoki ikusten diren errekursoak egiteko epeak irauten duten bitartean ere

Adibidez, informazio klausula baten ereduak honakoa jaso behar ditu:

“Honen bidez biltzen diren datu pertsonalak honako fitxategian sartuko dira: [XXXX Sartu hemen fitxategiaren izena]. Fitxategiaren helburua honakoa da: [XXXX deskribatu helburua]. Datu horiek honakoari utzi ahal izango zaizkio: [XXXX esan nori], legeak aurreikusten dituen bestelako lagapenez gain. Bestalde, interesdunak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidez baliatu nahi badu, honako helbide honetara jo beharko du: [XXXX adierazi helbidea]. Horren guzti horren berri ematen da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua xedatutakoa betetzeko”

c) Web orrian jarriko den informazioa dela eta, argi eta garbi adierazita egon beharko da zeintzuk datu mota agertuko diren.

Horrez gain beste informazio ohar bat ere jaso beharko dute honakoak adierazteko: web orrian jasotako datuak ez direla jendearen eskurako iturri eta ezin direla zati batean edo osorik erreproduzitu eta ezin direla informazioa berreskuratzeke ezelako sistemen bidez eman edo erregistratu, baldin eta ukituek ez badute adostasunik adierazi.

Horiez gain paragrafo horrek adierazi beharko luke web orrian jasotako datu pertsonalen zabalkundeak helburu bat eta bakarra duela eta zera dela, toki erregimenari buruzko legedian jasota dagoen publizitatearen eta herritarren parte hartzearen printzipioa betetzea.

4.- Datuen kalitateari buruz esan behar da DBLOren 4. artikulua hiruugarren eta bosgarren zenbakietan xedatutakoaren arabera tratatu behar direla:

“...”

3. Datu pertsonalak zehatzak eta eguneratutakoak izango dira, eta tartean denaren gaur egungo benetako egoeraren berri eman beharko dute.

4. Erregistratutako datu pertsonalak ez badira zehatza, zati batean nahiz osorik, edo datuak ez badira osoak, datuak ofizioz ezereztu eta ordeztu beharko dira, eta datu zuzenduak edo osatuak jasoko dira, 16. artikulua ukituei aitortutako ahalmenei kalterik egin gabe.

5. Datu pertsonalak ezabatu egingo dira, horiek jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean. ...”

III

Bestalde, auzotarrek erabakien ziurtagiriak eskatuz gero, ziurtagiriak emateri buruzko eta akta oso-osoen kopiak emateari buruzko kontsultari erantzuteko, lehen aipatu dugun irizpenean egin genuen azterketa dakargu hona:

“Lehen ere esan dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 18 e) artikulua honako xedatzen duela herritarren betebeharrak eta eskubideak arautzean:

Udal espediente eta dokumentazio guztien gaineko informazioa izateko eskubidea, baldin eta lehendabizi eskaera arrazoitua egin badiote udal administrazioari, eta beti ere Konstituzioaren 105. artikulua xedatutakoaren arabera.

AJAren 207. artikulua zerbait gehiago dio eta honako baieztapena egiten du:

Herritar guztiek dute toki-korporazioen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko lege-dian xedatutako eran. Udalbatzetako eta Gobernu Batzordeko akordioak, erabaki izaera badute, legeak aurreikusitako eran argitaratu eta jakinarazi beharko dira. Betekizun berberak bete beharko dituzte alkatearen edo korporazioaren lehen-dakariaren eta hango kide izanik eskuordetzaren bat dutenen ebazpenek.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.3 artikulua honakoa ere xedatzen du:

3. Herritar guztiek dute toki-korporazioen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko le-gedian xedatutako eran. Eskubide hori ukatzea edo mugatzea, Estatuaren segur-tasun eta defentsari dagokienean, eta delituak ikertzeari edo pertsonen bizitza pribatuari ukitzen dienean, arrazoituta ebazpenen bidez frogatu beharko da."

Datu babesaren ikuspuntutik eta bereziki DBLOren 3 j) artikuluan xeda-tutakoa kontuan hartuta, udalbatzek izaera publikoa badute ere, horrek ez du esan nahi "jendearen eskurako iturri" direnik.

Beraz, baten batek horko datuak jaso eta tratatu nahi baditu, Datu per-sonalak babesteari buruzko Lege Organikoa ezarritako betekizunak bete beharko ditu nahitaez.

Orain arte aztertu dugun udalbatzen saioen argitalpena alde batera u-tzita, beste kontu bat da udalbatzetatik kanpo herritarrek informatuta egoteko eskubidea dutela.

Baina informazio eskubideak hainbat baldintza bete behar ditu. Toki Araubidearen Oinarriak (TAOL) arautzen dituen Legearen 18.1 artikulua informazioa eskaera arrazoitu egin behar dela xedatzen du eta Konsti-tuzioaren 105. artikulua aipamena egiten du. TAOLen 70. 3 artikulua eta AJAren 207. artikulua ere Konstituzioaren artikulua bera aipatzen dute.

Konstituzioaren 105 b) artikulua arabera, herritarrek artxiboetara eta erregistroetara sartzeko eskubidea dute. Eskubide hori gehiago garatu zuten izaera orokorrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea-ren 35. eta 37. artikuluek.

Gure ustez, Udalak bere asmoa, hau da, udalbatzetako aktak etxebizi-tzetara bidaltzeko asmoa agertzen duenean, ulertu behar dugu Konsti-tuzioaren 23. artikulua xedatzen duen eskubidea dela, hau da, gai pu-

blikoetan parte hartzeko eskubidea gauzatzeko modu batez ari direla eta ez duela zerikusirik atzipen eskubidearekin.

Informazio hori emateko, gure ustez, eta batez ere informazioaren edukiari dagokionez, osoko bilkuren zabalkunderako erregimen bera bete behar da, helburu bera duelako. Beraz, zilegi da osoko bilkuretako akten laburpenak bidaltzea etxeetara. Eta, lehenengo galdera aztertu dugunean esan dugunez, aktak laburtuta egon behar dutenez, horrek esan nahi du kendu egin behar direla edukitik egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak, informazio orokorra emateko helburua ez baldin badute, eta ezingo dute inola jaso datu pertsonal sentsiblerik.

Udalak bidaltzen dion informazio orokorra ikusi eta gero, herritarrek atzipen eskubideaz baliatzeko aukera izango du, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluetan xedatutako baldintzak betetzen baditu.”

Edozelan ere, kontsulta-idazkia ikusita, **XXXXX(e)**ko Kontzejuaren funtzionamendu erregimena kontzeju irekikoa da, eta, beraz, kontzeju irekia edo auzo batzarra da entitatearen organo gorena; eta organo hori kontzejuko adin nagusiko auzotar guztiek osatuta dago (Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 11. artikulua).

Beraz, foru arau horren 31. artikulua dio:

“Bilera batera joan diren Administrazio-Batzordeko partaide guztiek izenpetu behar dituzte batzar-agiri edo aktak, ondorengo zortzi egunen barruan; norbaiten izenperik ez egoteak ez dio inolako erantzukizunik kentzen izenpetu ez duen kideari, horrelakorik gertatuz gero.

Bilerara joan diren beste partaideek hamar eguneko epea izango dute ekintza aztertzeko, hala nahi badute, eta haiei buruzko ezadostasunak edo erreparorak adierazteko.”

Eskumenak ikusita, auzo batzarrak nola funtzionatzen duen kontuan hartuta, aipatu ditugun lege eta arauak ikusita eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22-27. artikuluek eta 37. artikulua xedatutakoaren arabera, esan behar da kontzejuko auzotar adinez nagusi guztiek, denak auzo batzarreko kideak izanik, osoko bilkuren akten kopia jasotzeko eskubidea dutela, kide anitzeko organoek duten berezko eskubidea delako hori.

Era berean, aktetan jasota dauden erabaki guztien ziurtagiriak eman ahal izango zaizkie, eskatuz gero, auzo batzarreko kide guztiei edo herritar guztiei, nahiz eta kasu honetan gomendatzen den ezabatzeko informazio orokorra emateko helbururako ego-

kiak, garrantzitsuak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak. Eta ziurtagiriek ezin izango dute jaso pertsonen intimitatea kaltetu dezaketen datu pertsonalik. Horrez gain, bereziki babestutako daturik ez da argitaratuko eta kontuan izan beharko da adin txikikoen edo genero indarkeriaren biktimen kolektiboek edo antzekoek babes berezia behar dutela datu pertsonalei dagokienez.

Bestalde, gogoan izan behar da auzo batzarreko kideak DBLOren 10. artikulua xedatzen duen isiltasun-betebeharra bete behar dutela: *“Fitxategiaren arduradunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen dutenek lanbide-sekretua izan behar dute nahitaez datu horien gainean, eta datu horiek gordetzeko eginbeharra ere izango dute. Betebehar horiek bere horretan iraungo dute, nahiz eta fitxategiaren titularrekin edo, hala denean, arduradunarekin dituzten harremanak amaituta izan.”*

ONDORIOAK

1. Kontzejuen akta laburtuak kontzejuaren web orrian argitaratzea datu babesaren araudiarekin bat etorriko da, irizpen honetan jasotako baldintzen arabera egiten bada.
2. Kontzejuko auzotarrei korporazioaren erabakien gaineko ziurtagiriak ematea, halakorik eskatzen badute, datu babesaren araudiarekin bat etorriko da, irizpen honetan jasotako baldintzen arabera egiten bada.
3. Aktaren kopia auzotarrei ematea, auzotarrak kontzejuko auzo batzarreko eskubide osoko kideak badira, baldin eta ziurtagiria eskatzen badute, eta AJAren 109. artikuluan ezarritako edukia badute, bat dator datu babesaren gaineko araudiarekin.

Osoko bilkurak grabatzea eta argitaratzea

Data: 2013-11-11

CN13-041

Udaleko osoko bilkurak grabatzea ea datu babesaren arloko araudiarekin bat datorren argitzeko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2013ko urriaren 1ean udal batek helarazitako mezu elektroniko bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Eskaera idazkian honako adierazten da:

“Hasteko, zalantza bat dugu osoko bilkuren grabazioaren gainean. Pentsatuta geneukan aurrerantzean osoko bilkurak audioan grabatzea, ahal bada; eta jakin nahi genuke ea “legezkoa” den bilkuran daudenean, hau da, publikoak edo talde politikoek bilkurak grabatzea, audioan edo bideoan, eta gero Interneten ipini.”

Horrez gain, idazkiak beste hau ere galdetzen du: “ea akta bere horretan argitaratu daitezkeen edo Interneten zintzilikatu, ala daturen bat kendu behar den: izena, nortasun agiria, diru zenbatekoak...”

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu da jakiteko ea oinarrizko eskubidearekin bateragarriak diren toki erakundearen funtzionamenduari zer ikusia duten bi datu tratamendu: udalak osoko bilkuren audioak grabatzea, publikoak osoko

bilkuren audioak eta bideoak grabatzea eta horien zabalkundea egitea, eta aktak web orrian argitaratzea.

Udalak osoko bilkurak grabatzeari buruz esan behar dugu kontu hori toki administrazioen autoantolaketa ahalaren barruan dagoela; baina, datu pertsonalen tratamenduak egitea dakarrela ere esan behar da.

Hasteko, gogora ekarri behar dugu pertsonaren irudia eta ahotsa datu pertsonalak direla, hala xedatzen duelako Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean DBLO) 3 a) artikuluan jasotako definizioak:

“Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio.”

Beste alde batetik, DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 20ko 1720/2007 Errege Dekretuak datu pertsonalaren kontzeptua zabaldu zuen 5.1 f) artikuluan xedatutakoaren arabera:

“Identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoei buruzko informazioa, dela zenbaki bidezkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste era batekoa.”

Osoko bilkuren eta bestelako saioen grabazioen bidez irudiak eta soinuak jasotzea datu-tratamendua da, datu babesari dagokionez. DBLOren 3 c) artikulua tratamendua zer den dio:

“c) Datu tratamenduak: modu automatizatuan edo ez automatizatuan egiten diren operazio edo prozedura teknikoak dira, eta datuak jaso, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu eta ezereztzea ahalbideratzen dute, bai eta komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik etorritako datuak lagatzea ere.”

Datu tratamenduetarako adostasuna behar dela dioen arau orokorra DBLOren 6.1 artikuluan dago jasota:

“1.- Datu pertsonalen tratamenduak interesdunaren adostasun garbia beharko du, legeak besterik xedatu ezean.”

Datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, datu pertsonalak web orri batean argitaratzea edo pertsonen irudiak ematea web atari baten bidez argitaratzea datu lagatzetzat edo datu komunikatuetzat jo behar da, DBLOren 3 i) artikulua xedatzen duena kontuan hartuta: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea.”*

Datu-lagatzeen erregimen orokorra Legearen 11 artikuluan dago xedatuta: *“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitiemoekin lotuta dauden helburuetarako*

izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren aldez aurreko adostasuna beharko da.”

Toki korporazio orokorretako osoko bilkurak grabatzeko lege gaikuntza Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 70.1 artikuluan dago, berariaz dioelako toki-korporazioen osoko bilkurak jendaurrekoak direla.

“70. artikulua.

1. Toki erakundeetako osoko bilkurak publikoak izan ohi dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan, aipatutako herritarren oinarrizko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.

Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak.”

Aztertzen ari garen kasuaren antzekoak diren beste batzuetan ere adierazi dugunez, esan behar dugu osoko bilkurak grabatzeko eta grabazioen zabalkunderako adostasuna eskatu behar izatetik salbuesten duen lege-gaikuntza egon dagoen arren TAO-Len, gure ustez, salbuespenak bakarrik balio beharko luke osoko bilkuretako edo unean uneko batzordeko kideentzat, eta ez bertan parte hartzen duten beste pertsonentzat. Valero eta Fernández Salmerón irakasleek diotenez, bilkuren publikotasuna “tokiko administrazioak duen izaera demokratikoaren eta ordezkaritza izaeraren ondorio kualifikatua” da, eta ordezkaritza-organo horietako kideak behartuta daude euren buruen irudiaren eta ahotsaren tratamendua onartzera, adostasunik adierazi gabe. Baina, kontrara, ahalegina egin beharko da gonbidatuen edo parte hartzaileen irudirik ez grabatzeko.

Beraz, korporazioak erabiltzen badu, herritarren ohorea eta intimitatea babesteko asmoz, eztabaida eta bozketa sekretuak izatea ahalbideratzen duen ahala, halakoetan osoko bilkurak grabatzeko gaikuntzak ez du balioko.

Grabatzeko lege-gaikuntzak honako betebeharra dakar: interesdunei informatzeko betebeharra, DBLOren 5. artikulua xedatzen dena betetzeko:

“5. artikulua.- Informazio-eskubidea datuak biltzean.

1. Interesdun bati datu pertsonalak eskatu baino lehen, ezinbestean eman beharko diote honako hauei buruzko informazioa berariaz, zehatz eta argi:

a) Datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu bat dagoela, datuak zertarako biltzen dituen eta informazioaren hartzaileak nor edo nortzuk diren.

b) Egiten zaizkion galderak derrigorrez ala borondatez erantzutekoak diren.

c) Datuak ematearen edo ukatzearen ondorioak.

d) Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera duela.

e) Tratamendu kontrolatzailearen edo, hala badagokio, bere ordezkariaren identitatea eta helbidea.”

Datuak gordeko dituen fitxategi bat dagoela azaldu dutenez, informazioa jasoko duen fitxategi horren datuen egiturari “irudiak eta ahotsa” aipatu beharko dira.

II

Talde politikoek edo osoko bilkuran bertaratzen direnek bilkurak grabatu eta gero Interneten ipin ditzaketenez ala ez erabakitzeko, Espainiako Konstituzioaren 20.1a) eta 20.1d) artikuluetan aitortutako eskubidea hartu behar dira kontuan.

Konstituzioaren 20.1 artikulua dio onartu eta babestu egin behar direla honako eskubideak:

“a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidetik askatasunez azaldu eta zabaltzeko.

...

d) Ezein hedabidetatik askatasunez egiazko informazioa komunikatu edo jasotzeko. Legeak kontzientzia-klausularako eta lanbide-sekreturako eskubideak arautuko ditu, askatasun horiek egikaritzeko orduan.”

Bestalde, Konstituzioaren 20.2 artikulua dio eskubide hauen egikaritza ezin dela inolara mugatu aldez aurretiko zentsuraren bidez; eta 20.4 artikulua dio askatasun horien guztien mugak honako hauek direla:

“Ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak, bai eta gazteak eta haurrak babesteko eskubidea ere.”

Artikulu horien gaineko azterketa jurisprudentziala egin eta gero, Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urtarrilaren 27ko epaiak ezarritakoa aipatu behar dugu. Epaiak esan zuen erabat deuseza zela alkate baten erabakia, osoko bilkura bat grabatzea debekatu zuelako. Auzitegi horren iritziz erabaki horrek urratu egin zuen Konstituzioaren 20.1d) artikulua aitortu zuen oinarritzeko eskubidea. Hona epaiak dioena zuzenbideko laugarren oinarrian:

“a) Alkatearen ezetzak ez du oinarririk, eta arrazoitu gabea da; izan ere, ez baita egon ordena publikoaren nahasmenik eta nahasmena konpondu beharrik ere ez, bilkurak aurrera segi dezan.

b) Alkateak oso ondo ezagutzen zituen grabazioa egin nahi zuten pertsonak, udalarekin hitzarmen bat izenpetu zuen elkarte bateko kideak zirelako, eta behin baino gehiagotan eskatu zutelako osoko bilkurak grabatzeko baimena, eta sistematikoki ukatu zirelako baimena.

c) Osoko bilkurak publikoak dira eta horrek esan nahi du "edozein herritarrek daukala jakitea bertan gertatzen den guztia zehaztasunez.

d) Gure gizarte honetan informazio transmisioa ez dago bakarrik kazetariei zuzenduta, hau da, edozein herritarrek du informatzeko, datuak tokiz aldatzeko aukera, eta horretarako, datuak tratatzea eta artxibatzea ahalbideratzen duten edozein bitarteko tekniko erabiltzeko ere bai; eta horrez gain, denok eman dezakegu jakinarazten ditugun datuen gaineko iritzia.

e) Osoko bilkurak zaintzeko eginkizunak ez du esan nahi edozein grabazio egi-tea debekatu daitekeenik; bakarrik debekatu daitezke ordena publikoa nahas dezaketenak, osoko bilkuraren martxari trabak jartzen dizkietenak; eta bakar-bakarrik grabazioaren erruz bilkurak aurrera segitzea ezinezkoa bada. Gainera, halakorik gertatzea nahikoa zaila da, grabatzen ari den pertsona grabatzen ari bada eta ez beste ezertan.

f) Demokrazian botere publikoen ezaugarriak koherentzia eta gardentasuna dira. Lehenengo ezaugarriak arrazionaltasuna dakar berarekin; eta bigarrenak esan nahi du herritar guztiek izan behar dutela erabakien berri, eta ez bakarrik erabakien berri izateko aukera izan.

Gauzak horrela, salak bukatu behar du esaten alkateak hartutako erabakia, osoko bilkura grabatzea debekatuz, erabat deuseza dela, Konstituzioaren 20.1d) artikuluan aitortutako oinarrizko eskubidea urratzeagatik."

Goragoko jurisdikziokoek ere antzekoa esan dute. Adibidez, Auzitegi Gorenaren 2007ko maiatzaren 11ko epaiak ezetsi egin zuen udal batek aurkeztutako kasazio errekurso bat, eta esan zuen enpresa auzi-jartzaileak eskubidea zuela osoko bilkurak grabatzeko, nahiz eta udalaren nahia izan udal-zerbitzuak arduratzea osoko bilkurak bideoan grabatzeaz eta hedatzeaz.

Konstituzio Auzitegia honakoa xedatzen du 159/2005, 56/2004 eta 57/2004 epaietan:

"Informazio askatasunari buruzko legedi arautzailea (Konstituzioaren 20.4 artikulua) eta debeku orokorrak ezartzea ez dira bateragarriak, nahiz eta baimena emateko aukera egon kasu jakinetan entzunaldi publikoetan irudiak grabatzeko eta hedatzeko bitartekoak sartzeko; izan ere, bitarteko horiek erabiltzea ahalbideratzen baitu Konstituzioak aitortzen duen informazio askatasunerako eskubideak, eta legegileak ez dio eskubide horri mugak jarri izaera orokorrenekin. Hasiera batean

halako bitartekoak erabiltzea zilegi den arren, debekatu ere egin daitezke, baina debekua kasu bakoitzean berariaz adierazi beharko da eta organo judicial batek...."

Doktrina jurisprudentzial guzti hori judizio-aretoetarako bada ere, aztertzen ari garen kasurako ere guztiz baliokoa da.

Horiez gain, merezi du aipatzea Arartekoak antzeko gaiei buruz hartutako erabakia (2013ko martxoaren 6ko Ebazpena, udal bati gomendatzen diona baimena emateko partikular batzuei osoko bilkurak grabatzeko), Andaluziako Herriaren Defentsariaren Ebazpena, 13/1837 kexari buruzkoa eta Espainiako Herri Defendatzailearen 2012-06-19ko Ebazpena (Esp. zk.: 12000513). 2013ko martxoaren 6ko Ebazpenean, Arartekoak zera ebazti zuen:

*"Hedapenezko funtzio hori **"lehentasunez"** (beltzez dago jatorrizkoak) komunikabideek burutzen ohi duten arren, ezerk ez du eragozten informazioaren eskuratzeko osoko bilkura grabatzea erabakitzen duen herritar batek burutu ahal izatea eta, are gutxiago gaur egun, informazioaren hedapena askoren eskura dagoenean. Gure ustez, ezin da egin oinarritzko arauan oinarririk ez duen interpretazio murriztailerik, Konstituzioaren 20.1.d) artikulua ez dituelako komunikabideen eskubideak aipatzen, herritarrek hedapenezko edozein bitartekoren bidez komunikatzeko edo egiazko informazioa askatasunez jasotzeko dituzten eskubideak baizik."*

Azkenik, beste kontrol agintaritza batzuen balorazioak ere hartu behar dira kontuan, adibidez, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, 2004ko abenduaren 20ko 0389/2009 eta 0526/2009 ebazpenetan, adierazi zuen osoko bilkurak grabatzeko bat datorrela datu babesari buruzko araudiarekin, bai eta grabazioen zabalkundea ere; eta tratamendu horietarako lege gaikuntza Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.1 artikulua dela, DBLOren 11.2.a) artikulua xedatutakoarekin bat.

III

Kontsulta idazkiak, Agentziaren iritzia eskatzen du, osoko bilkuretako aktak Interneten argitaratzeari buruz.

Auzi hori CN08-011 Irizpenean aztertu zuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoak. Hona han esandakoaren zati bat:

"Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua ondokoa xedatzen du (abenduaren 16ko 57/1985 Legean idatzitakoa):

1.- Toki erakundeetako udalbatzak publikoak izan ohi dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan aipatutako herritarren oinarritzko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.

Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak.

2. Toki-korporazioek hartutako erabakiak legean aurreikusi bezala argitaratu edo jakinarazten dira. Ordenantzak, hirigintzako planetako arauen artikuluko zatiak barne, baita hirigintzako planetako erabakiak ere horien behin betiko onarpena toki-erakundeen eskumenekoa denean, probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko testua osorik argitaratu eta 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igaro arte; aurrekontuak eta ordenantza fiskalak salbuespen dira, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legean ezarritako moduan argitaratu eta jarriko baitira indarrean. Hirigintza-arloan eskumenak dituzten herri-administrazioek beren lurralde-eremuan indarrean dagoen plangintzako kopia osoak izan behar dituzte eskatu nahi dituzten herritarren eskura.

3. Herritar guztiek dute toki-korporazioen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko legedian xedatutako eran. Eskubide hori ukatzea edo mugatzea, Estatuaren segurtasun eta defentsari dagokienean, eta delituak ikertzeari edo pertsonen bizitza pribatuari ukitzen dienean, arrazoiak ebazpenen bidez frogatu beharko da."

Artikulu horretako 2. idatz-zatiari erreparatzen badiogu, tokiko korporazioen erabakiak legeak esandakoaren arabera argitaratu edo jakinarazi behar dira. Oso argigarria da erabakiak argitaratzeko moduz Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren (AJA) 229.2 artikulua dioena:

"Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua xedatutakoa alde batera utzita, Korporazioak argitaratu egin beharko ditu, laburtuta, udalbatzetako eta gobernu batzordeko erabaki guztiak, alkatearen ebazpen guztiak eta alkateak eskuordetuz ordezkariak ematen dituztenak."

Hirugarren atalak, gutxienez hiru hilean behin, informazio-buletin bat argitaratzeko ematen du.

AJAk erabakiak "laburtuta argitaratu" behar direla esaten du, baina ez du zehazten zer den argitaratu behar den gutxienezkoa. Beraz, hortik ondorioztatzen duguna da lege ez dagoela inon jasota erabaki eta ebazpen horien laburpenak izan behar duen edukia eta udalbatzarren aktena berdina izan behar denik (Akten laburpenak izan behar duen edukia AJAren 109. artikuluan dago xedatuta). Kontuan izan behar dugu Toki Arabidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 18.e) artikulua honako xedatzen duela herritarren betebeharrak eta eskubideak arautzean:

Udal espediente eta dokumentazio guztien gaineko informazioa izateko eskubidea, baldin eta lehendabizi eskaera arrazoitua egin badiote udal administrazioari, eta beti ere Konstituzioaren 105. artikulua xedatutakoaren arabera.

Udalbatzaren erabakien edukia web gune batean argitaratzeak esan nahi du informazio hori zabaldu egiten dela, edonork eskura dezan, kon-tuan hartu gabe bertako herritarra den ala ez. Beraz, gure ustez, AJAren 109. artikulua aktetarako xedatzen duenak ez du balio udal web orrian argitaratzen denaren edukiri ezartzeko. Eta uste hori berresten du AJA-ren 229.2 artikulua "laburtuta argitaratu" behar dela baitio.

Beraz, artikulua horrek arautzen duen laburpenak esan nahi du kendu egin behar direla edukitik egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak, informazio orokorra emateko helburua ez baldin badute, eta ezingo dute inola jaso datu pertsonal sentsiblerik.

Beste kontrol agintaritzak batzuk ere antzekoa diote; esate baterako, Kataluniako agintaritzaren CNS36/2009 irizpenaren arabera, osoko bilkurak publikoak badira ere, horrek ez du gaikuntzarik ematen osoko bilkuren aktak bere horretan eta osorik argitaratzeko, aktak datu pertsonalak badituzte.

Azkenik, aipatu behar ditugu Interneten egiten diren argitalpenek gure ustez bete behar dituzten gutxieneko baldintzak, argitalpenok datu babesaren eskubidearekiko errespetuz jokatzeko dutela esan ahal izateko, argitalpen horietan bileren eta erabakien berri ematen delako eta datu pertsonalen tratamenduak egiten direlako.

Beraz, datu tratamenduari buruz bete behar den protokoloak honako baldintzak bete beharko ditu:

a) Fitxategiak **alde formaletik** bete behar dituen baldintzak:

- DBLOren 20. artikulua eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4. artikulua xedatutakoak: hau da, izaera orokorreko xedapen baten bidez araututa egon behar da eta xedapena dagokion aldezkarri ofizialean argitaratuta.
- Segurtasun agiria egitea, DBLOren 9. artikulua xedatutakoaren arabera eta hura zehazten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren arabera.
- Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzea, DBLOren 39. artikulua eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikulua arabera.

b) **Informaziorako eskubidearen aldetik** bete beharrekoak:

Tratatu beharreko eta Interneten argitaratu beharreko datuak jasotzeko erabiltzen diren dokumentuetan jaso egin beharko da DBLOren 5. artikulua xedatzen duen informazioarako eskubidea. Beraz, hau guzti hau azaldu beharko da bertan:

- Biltzen diren datuak [XXXX] fitxategian jasoko direla eta fitxategiak honako helburua duela: [XXXX].
- Datu horiek ez zaizkiola inori lagako.
- Fitxategiaren kontrolatzailea honako organoa dela: [XXXX],
- Interesdunak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea baliatu nahi izanez gero, helbide honetara jo behar duela: [XXXX],
- eta erabakietan agertzen diren datu pertsonalak web orrian argitaratuta egongo direla ondoko prozesua egiteko behar adina denbora: [XXXX], bai eta egoki ikusten diren errekurtsoak egiteko epeak irauten duten bitartean ere

Adibidez, informazio klausula baten ereduak honakoa jaso behar ditu:

“Honen bidez biltzen diren datu pertsonalak honako fitxategian sartuko dira: [XXXX Sartu hemen fitxategiaren izena]. Fitxategiaren helburua honakoa da: [XXXX deskribatu helburua]. Datu horiek honakoari utzi ahal izango zaizkio: [XXXX esan nori], legeak aurreikusten dituen bestelako lagapenez gain. Bestalde, interesdunak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidez baliatu nahi badu, honako helbide honetara jo beharko du: [XXXX adierazi helbidea]. Horren guzti horren berri ematen da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua xedatutakoa betetzeko.”

c) **Web orrian jarriko den informazioa dela eta**, argi eta garbi adierazita egon beharko da zeintzuk datu mota agertuko diren.

Horrez gain beste informazio ohar bat ere jaso beharko dute honakoak adierazteko: web orrian jasotako datuak ez direla jendearen eskurako iturri eta ezin direla zati batean edo osorik erreproduzitu eta ezin direla informazioa berreskuratzeke ezelako sistemen bidez eman edo erregistratu, baldin eta ukituek ez badute adostasunik adierazi.

Horiez gain paragrafo horrek adierazi beharko luke web orrian jasotako datu pertsonalen zabalkundeak helburu bat eta bakarra duela eta zera dela, toki erregimenari buruzko legedian jasota dagoen publizitatearen eta herritarren parte hartzearen printzipioa betetzea.

d) **Datuen kalitateari buruz** esan behar da DBLOren 4. artikulua hirugarren eta bosgarren zenbakietan xedatutakoaren arabera tratatu behar direla:

“ ”

3. *Datu pertsonalak zehatzak eta eguneratutakoak izango dira, eta tartean denaren gaur egungo benetako egoeraren berri eman beharko dute.*

4. *Erregistratutako datu pertsonalak ez badira zehatza, zati batean nahiz osorik, edo datuak ez badira osoak, datuak ofizioz ezereztu eta ordeztu beharko dira, eta datu zuzenduak edo osatuak jasoko dira, 16. artikulua ukituei aitortutako ahalmenei kalterik egin gabe.*

5. *Datu pertsonalak ezabatu egingo dira, horiek jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean. ...”*

Protokolo hori lagungarria izan daiteke udalarentzat informazioa Interneten argitaratzeko orduan, oinarritzko eskubideari zor zaion begirunea eta herritarren parte hartze politikorako eskubidea bateratzen lagundu dezakeelako.

Beraz, irizpen honetan esandako guztia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak, honakoa adierazi behar du:

ONDORIOA

Lehenengoa. Udalak osoko bilkurak grabatzea ondo ezkontzen da datu babesari buruzko araudiarekin, irizpen honetan jasotako eran.

Bigarrena. Osoko bilkurara bertaratzen direnek egiten dituzten osoko bilkuren grabazioak ondo ezkontzen dira datu babesari buruzko araudiarekin.

Hirugarrena. Erabakiak laburtuta argitaratuko dira.

Kirol federazioko web batean argitaratzea

Data: 2013-12-12

CN13-047

Hauteskunde prozesu baterako, kirol federazio bateko kideen datu pertsonalak interneten argitaratzeari buruzko eta federatuen datuak lagatzeari buruzko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2013ko urriaren 28an goiburuan adierazitako gaiari buruzko irizpena eskatzen zuen herritar baten idazkia jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

BIGARRENA: Idazki horretan honakoaren berri eman zioten Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Federazio honetako asanbladako hautagai izateko aurkeztu nuen neure burura, eta hautatu izan banindute, lehendakari kargura aurkezteko aukera izango nuen...”

“Hauteskundetan zenbait irregulartasun egon ziren, handiena izan zen Hauteskunde-batzordeak ukatu egin zizkidala hautesleekin harremanetan jartzeko bitartekoak. Hautesle erroldako pertsonen eta erakundeen helbideak, harremanetarako telefonoak eta helbide elektronikoak eskatu nizkien, nire hauteskunde programa bidaltzeko, baina ez zizkidaten eman (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen aitzakiarekin). Horren ondorioz, nire hautagaitza bertan behera utzi behar izan nuen, pentsatu nuelako hautagaiek ezin bagenuen harremanetan jarri hautesleekin, sistema demokratikoaren oinarritzko ondoko printzipioak erabat urratu zirela: hautesleen eskubidea informazioa jasotzeko eta hautagaiek izan behar dute auker berdintasuna.

...

“Ez dirudi hautesleen helbideak ez emateko benetako arrazoia hautesleen pribatutasuna babesteko ardura denik; hala balitz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legea beteko zutelako eta ez zuten jarriko guztiz irekia den Interneteko orri batean inolako murrizketarik gabe, hautesle-erroldako pertsona guztien izena, abizenak, NANA. lizentzia zk. eta jaiotze data.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia eskatu digute bata bestearekin zer ikusirik ez duten bi gairen gainean, nahiz eta biak izan datu lagatzeei buruzkoak. Hala ere, kontuan hartu behar da kontsultako gai diren tratamenduen arduradunak kirol federazioak direla, eta izaera juridiko pribatua dutela. Beraz, kirol federazioen eginkizun publikoei erreparatu behar diegu, Agentziaren esku hartzea arrazoitzeko.

Horretarako, Auzitegi Nazionalaren 2011ko apirilaren 1eko Epaia dioena ekarriko dugu hona:

“Auzitegi Gorenak 2010eko abenduaren 12an eman zuen epaian berretsi egin zuen federazioek duten izaera, hau da, gaiari buruzko jurisprudentzia zabalak dioenez, kirol federazioak erakunde pribatuak dira, eta bertan kirol modalitate bera praktikatzen duten kirolariak, epaileak eta elkarteak batzen dira, eta federazioan sar daitezen ahalegina egiten da, federatuta egotea baldintza bat delako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, diru laguntzak bideratu ondoren; ondorioz, esan daiteke federazioak izaera pribatuko elkarteak direla, baina aldi berean izaera publikoa duten administrazio eginkizunekin.

Baina, errekurtsio-egileak dioenez, kirol federazioek, eskuordetza bidez, 33.1 artikuluko f) idatz-zatiko (diziplina ahala) administrazio izaerako eginkizun publikoak gauzatzeaz gain, artikuluko horretan zehatzen diren bestelako jarduerak guztiak ere burutzen dituzte. Kirolari buruzko Legearen 33.1 a) artikuluko xedatzen du Espainiako kirol federazioek, Kirol Kontseilu Gorenak koordinatuta eta bere ardura-pean, honako eginkizunak burutuko dituztela: “kalifikatzea, eta, hala badagokio, antolatzea estatu mailako jarduera eta kirol lehiaketa ofizialak.”

Jurisprudentzia ikusita, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak esan duena kontua hartuta, aipatu dugun legeak federazioei aitortutako eginkizun publikoak Datuak Babesteko Euskal Agentziaren eskumenpean sartzen ditu federazioak. Era berean, otsailaren 25eko 2/2004 Euskal Legeak ere 2.1 artikuluan dio legearen ezarpen eremuan daudela “Zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu edo kudeatuak behar dute izan fitxategi horiek; honako hauek sortuak edo kudeatuak...”

Kirol federazioek ordezkaritza bidez jarduten dute ahal publikoak baliatuz. Ekainaren 11ko Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen 15.3 artikulua zera dio:

“Kirol-federazioek, beren eskurantzez gain, administrazio-egiteko publikoak ere burutuko dituzte eskuordetzan. Kasu horretan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa arituko dira.”

14/1998 Legearen 25.1 artikulua dio zein diren euskal federazioek burutu behar dituzten izaera publikoko administrazio eginkizunak:

- a) Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, bideratzea eta baimentzea.*
- b) Euskal kiroleko ordezkaritza bideratzea Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan.*
- c) Federazio-lizentziak ematea eta tramitatzea.*
- d) Kirol-jarduerako indarkeria aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea.*
- e) Dopatzea aurrezaintzea, kontrolatzea eta zigortzea.*
- f) Kirol arloko diziplina-ahalmena erabiltzea.*
- g) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak betetzea.*
- h) Beren estatutuak eta araudiak onartzea.*
- i) Herri-administrazioarekin batera parte hartzea eta elkarlanean aritzea kirol-programak garatzen, batez ere goi-mailako kirolarientzako programetan eta esko-la-kiroleko programetan.*
- j) Federazioetako hauteskunde-prozesuak kontrolatzea.*
- k) Araudi bidez eskuordetzan eman daitekeen beste edozein egiteko publiko.”*

Kontsultako gaiari buruz ari garenez, esna behar dugu kontsultako galderak federazioen hauteskunde prozesuen ingurukoak direla (batetik, hautesleen zerrendako datuak eskatzea botoa eskatzea; eta, bestetik, erroldako pertsonen buruzko informazioa argitaratzea Interneten). Beraz, gure ustez argi dago eginkizun publikoekin duten lotura.

II

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia behar duen lehenengo galdera da ea zilegi den federazioak ez ematea kontsulta egileari hautesle erroldako pertsonen eta erakundeen gaineko datu pertsonalak (helbideak, harremanetarako telefonoak eta helbide elektronikoak eskatu zizkien). Bere hauteskunde programa bidaltzeko eskatu

zituen datuak, eta kontsulta eskabidean dio datuak ukatu zizkiotela esanez datuak babesteko ukatzen zizkiotela.

Datuak babesteko oinarritzko eskubidearen muina da, dudarik gabe, ukituaren adostasuna beharrezkoa dela. Eta horixe dio, hain zuzen ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 6.1 artikulua:

"1. "Datu pertsonalen tratamenduak interesdunaren adostasun garbia beharko du, legeak besterik xedatu ezean.

2. Ukituaren adostasunik ez da behar izango izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzen direnean; datuak negozio-, lan- edo administrazio-harremanen kontratu edo aurrekontratuetak aldeldiei buruzkoak izan eta harreman horiei eusteko zein halako harremanak betetzeko beharrezkoak direnean; datu-tratamenduaren xedea interesdunaren berebiziko interesen bat babestea denean, lege honen 7. artikuluko 6. idatz-zatiaren arabera; edo datuak jendearen esku dauden iturrietara bilduta egon eta datu horien tratamendua beharrezkoa denean fitxategiaren arduradunaren edo datuak komunikatzen zaizkion hirugarrenaren interes legitimoa betetzeko, betiere, interesdunaren oinarritzko eskubide eta askatasunak urratu gabe."

Interesatzen zaigu arreta berezia jartzea interes legitimoa betetzeari buruzko 6.2 artikulukoaren azken zatian; izan ere, aurreikuspen hori Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 95/46/CE Zuzentarauaren 7 f) artikulua xedatutako barne zuzenbidera ekartzea beste baita:

"7. artikulua.

"Estatu kideek xedatuko dute datu pertsonalen tratamendua honako kasuetan baino ez dela egingo:

...

f) tratamendu kontrolatzailearen edo datuak komunikatzen zaizkien hirugarrenen interes legitimo bat lortzeko beharrezkoa bada, eta beti ere tartean ez badaude pertsona fisikoen interesak edo oinarritzko askatasunak eta eskubideak, Zuzentarau honetako 1. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, babestu beharrekoak direnak."

Legeak (lehen ere aipatu dugu Legearen 6.2 b) artikulua) eta Erregelamenduak (10.2 b) artikulua) zuzentaraun ageri ez den beste betekizun bat gehitu zuten interes legitimoa aplikatzeko: datuak jendearen eskurako iturrian egotea.

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2011ko azaroaren 24ko Epaiak auzia hau ebatzi zuen esanez betekizun osagarri hori ez zetorrela bat hori zuzentaraunaren 7 f)

artikuluak xedatutakoarekin; eta, Auzitegiak zuzeneko eragina aitortzen dio zuzentarauari. Beraz, Europar Batasuneko araudiak eta jurisprudentziak onartzen dute egoitea datu tratamendu batzuk, jendearen eskurako iturrietan ez badaude ere, ukituen adostasunik gabe egin daitezkeenak, hain zuzen ere, tratamendu horiek beharrezkoak direlako arduradunaren edo lagapen-hartzailearen interes legitimo bat asebetetzeko; eta muga bakarra da interesdunen askatasunak eta eskubideak errespetatzea.

95/46 Zuzentarauaren 7 f) artikuluak aurreikusitakoa hartu du oinarritzat Auzitegi Nazionalak hautagaitza bateko zerrenda-burua zen elkargo bateko kide batek hautesleen datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea zuela ebazteko, Auzitegiaren ustez datuak atzitzeko interes legitimo bat dagoelako tartean: elkargoko kideei bere proposamenak jakinaraztea eta botoa eskatzea. (2012ko martxoaren 15eko Auzitegi Nazionalaren Epaia)

Gure ustez epai horrek zer ikusi handia du kontsultako gaiarekin; horregatik, uste dugu oso ondo egokitzen dela aztertzen ari garen kasuan ere Europar Batasuneko Zuzentarauak aurreikusitako interes legitimoa. Baina, proportzionaltasunaren eta helburuaren printzipioak aplikatzen bada, eskatzaileak, helburua erdiesteko egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoa diren datuak baino ezin izango ditu eskuratu (DBLOren 4. artikuluan jasotako kalitatearen datua). Beraz, lagatzaileak aztertu egin beharko du zelan jokatu, eskatzaileak nahi duena lortzeko, baina ahalik eta daturik gutxienarekin.

III

Kontsultako bigarren galdera kirol federazio bateko kideen datu pertsonalak irekian argitaratu izanari buruz; hau da, hautesle zerrendako pertsonen izen-abizenak, NAN zk. eta jaiotze-data argitaratu izanari buruz.

Datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, datu pertsonalak web orri batean argitaratzea datu lagatzetzat edo datu komunikaziotzat jo behar da, DBLOren 3 i) artikuluak xedatzen duena kontuan hartuta: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”*

DBLOren 11.1 artikuluan daude jasota datuak lagatzeko bete behar diren betekizunak:

“11. artikulua. Datuen komunikazioa.

“1.- Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legiti-moekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da”

Nahiz eta adostasuna beharrezkoa izan, salbuespenak ere baditu, eta 11. artikuluko 2. idatz-zatian daude jasota. Kasu honetan aipatzekoa da a) idatz-zatian dagoena: *“Lege batek baimentzen badu lagapena”*

Jakin nahi badugu ea lege batel baimentzen duen lagapena, araudi sektorialera jo behar dugu. Eta horretarako, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 17.4 artikulua dioena ikusi behar da:

“Bere organoak hautatzeko, kirol-federazio bakoitzak bere hauteskunde-araudi propioaren arabera egingo du hauteskunde-prozesua, Eusko Jaurlaritzak horretarako finkaturiko epearen barruan eta arauari lotuta.”

Legearen erregelamendu bidezko garapena Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuan dago, eta ez du jasotzen hautesle erroldak jendarean jartzeari buruzko arauak.

Euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak Interneten argitaratzea arautzen duen Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 37. artikulua honakoa dio:

“37. artikulua.- Publizitatea Interneten.

Interneten web-orri bat duten kirol federazioek bertan sartu beharko dituzte hauteskunde-erroldaren testuak, hauteskunde-egutegia eta hauteskunde-erregelamendua, eta interes orokorrekoak diren hauteskunde-batzordeen ebazpenak. Publizitate horrek bertan aipatzen diren pertsonen ohorea eta intimitatea errespetatu beharko ditu.”

Gure ustez, legearen azpikoa den agindu horretako Interneteko publizitateak ez du esan nahi publizitatea modu irekian egin behar denik. Kasu honetan araudiak dio pribatasuna errespetatu behar dela; beraz, gure ustez, federazioaren web guneak informazioa modu librean edonork eskuratzeko moduan jarri badu, oinarritzko eskubidea urratuko dute; informazio hori federazioko kideak bakarrik ikusteko moduan jarri behar zutelako, erabiltzailea eta pasahitza erabiliz ala beste erabateko moduren batez, interesdunak bakarrik sartu ahal izateko.

Bukatzeko, federazioaren estatutuek diotena ikustea falta da; izan ere, Euskal Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 3. artikulua kirol federazioen lege erregimen arautzen duenean, honakoa baitio:

“3. artikulua. Erregimen juridikoa.

Honako hauek arautzen dituzte kirol federazioak: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Kirolaren Legeak; dekretu honek eta garatuko duten xedapenak; federazio bakoitzaren estatutuek eta arautegiek, eta federazio bakoitzeko organoek balioz hartutako erabakiek.”

Kontsultan aipatzen den federazioaren estatutuak aztertu eta gero, ikusi da VI. tituluak hauteskunde erregimena arautzen duela, eta bertan ez dagoela jasota publizitatea egin daitekeenik kontsulta honetan aztertu den moduan.

4. PARTIKULARREK ADMINISTRAZIO INFORMAZIOA ATZITZEA

4.1. OROKORREAN

Erizainen elkargo ofizial batek osasun erakundeetako plantilletako erizainen zerrendetan sarbidea izatea

Data: 2008-12-30

CN08-038

XXXXXXko erizainen elkargo ofizialeko lehendakariak honako gaiari buruz egingako kontsultaren gaineko irizpena: erizainen zerrendak lagatzeko eskabideak.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko azaroaren 4an Xxxxxxko Erizainen Elkargo Ofizialeko lehendakariaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

“Elkargo honek ondoko eginkizunak ditu, hala xedatzen baitute otsailaren 3ko 2/1974 Legeak (5. artikulua) eta profesionalen elkargoei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko legeak (24. artikulua), besteak beste:

- Elkargokideek lanbidean nola jardun arautzea, dagokion esparruan, etika profesionala eta duintasun profesionala zainduz eta partikularren eskubideei zor zaien begirunearekin jokatzuz, eta diziplina-ahalmena erabiltzea lanbidearen eta elkar-goaren esparruan.*
- Administrazio publikoei denon interesak lortzen laguntzea.*

Profesionalen elkargoek:

- Administrazio-organoetan parte hartzea, partaidetza hori organoen arauetan erabakita baldin badago, eta, betiere, arau horietan zehazten den moduan.

-Dagozkion organo eta erakundeek eskatzen dizkieten txostenak eta beren ekimenez egin nahi dituztenak egitea.

- Lege orokorrak nahiz bereziak, estatutu profesionalak nahiz barne araubideri buruzko erregelamenduak eta elkargoko organoek, haien eskumeneko gaien gainean hartutako arau nahiz erabakiak betetzea eta betearaztea elkargokideei.*

Xxxxxxko Erizaintzako Diplomatuaren Elkargo Ofizial honek behin baino gehiagotan jasan behar izan du osasun arloko erakunde publikoek nahiz pribatuek erakunde horietako plantilletan dauden erizainen zerrendak ukatu izana. Zerrendak ukatzeko erabili ohi den arrazoi orokorra da “Datu Pertsonalak Babesteko

15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa kontuan hartuta” ezinezkoa dela guri informazio hori ematea.

Eskabide hori egiten dugu elkargokideen interes profesionalak babesteko bete-beharra dugulako. Zehatzago esateko, zerrendak eskatzen ditugu ondo kontrolatu behar dugulako Gipuzkoan erizain lanetan ari diren guztiek titulua dutela (eta/edo beste herrialde batzuetakoak badira, haien titulazioak behar bezala homologatuta daudela), eta horrela, intrusismo profesionalaren aurka egin. Bestalde, uste dugu erakunde publiko nahiz pribatuak bat datozela helburu horrekin.

Arreta handiz irakurri dugu DBEBk egindako CN06-002 Irizpena eta uste dugu bertan XXXXXko Abokatuen Elkargo Ofizialak egindako kontsultaren gainean ematen diren arrazoiak guztiz ezargarriak direla gure aldarrikapenetan. Hona hemen gure aldarrikapenak:

...

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eskatzen diogu irizpen bat egin dezan, eta bertan elkargo honek duen eginkizun publikoa argi uzteaz gain, elkargoaren eskaera ere legezkoa eta legitihoa dela ere aitortzea; eta horren ondorioz, erakunde pribatuek nahiz publikoek nahitaez helarazi behar izatea Elkargoari aipatutako helburuetarako eskatzen diegun informazioa.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Planteatutako kontsultaren edukia eta helburua ikusita, eta goiko lege-aurreikuspenak Bulegoari esleitzen dion eskumena kontuan hartuta, komenigarritzat jotzen da beste ezeren aurretik, Bulegoak eman dezakeen erantzunak izan dezakeen helmenaren gaineko ohar bat egitea.

Hain zuzen ere, jaso dugun idazkiaren azken paragrafoari erreparatzen badiogu, ikusten da bertan eskatzen dela Bulegoak irizpen bat eman dezan, besteak beste, argi

uzteko elkargoak eskatzen duen informazioa bidaltzea “nahitaezkoa” dela; horren aurrean Bulegoak esan behar du ezin duela iritzirik eman, elkargoak eskatu duen informazioaren bidalketa dela-eta, tartean dauden erakundeek informazioa bidaltzeko duten “obligazioaz”.

Planteatu diguten kasuan Bulegoak bakar-bakarrik esan dezake kontsulta-egileak egin-dako eskaerari erantzuteagatik egiten diren edo egin daitezkeen datu lagatzeak datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera diren ala ez. Aitzitik, Bulegoak ezin du esan informazio hori lagatzea nahitaezkoa den ala ez; halako obligaziorik egonez gero, beste araudi batean bilatu beharko delako.

Izan ere, BDLOra jotzen badugu, beste gauza batzuen artean eta guri interesatzen zaiguna kontuan hartuta, datu pertsonalen lagapenari buruzko lege-araubidea ikus dezakegu bertan. Han dago jasota lagapenak noiz egin daitezkeen eta zein printzipio eta arau bete behar dituzten. Baina arau horretan ezin da topatu derrigorrezko datu-lagapenei buruzko araubiderik.

DBLOren 11. artikulua xedatutakoa ikusi behar da lagapen horien printzipio nagusiaz jabetzeko; artikulua xedatzen duenez, lagapenak egitea aukerakoa da, ez da obligazioa: *“datu pertsonalak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik ...”*

Beraz, Bulego honek ezin du esan informazio eskea jaso duten erakundeek elkargoak eskatutako informazioa emateko obligaziorik duten ala ez. Hori eginez gero, erakunde horiek duten erabakitze ahalmenetan sartzen egongo litzatekeelako eta erabakia hartzeko ahalmena erakunde horiena delako, ez beste inorena; eta kontuan izan behar da gainera, erabakiak hartzeko eskumenaz baliatzeko araudiak ez duela zerikusirik datu pertsonalak babesteko araudiarekin, beste arlo bateko legediarekin baizik. Bulego hau, ordea, ez da beste, araudi horretan aditua.

II

Planteatutako gainontzeko gaiei buruz antzeko zerbait esan beharrean gaude (“elkar-go honek duen eginkizun publikoa argi uzteaz gain, elkargoaren eskaera ere legezkoa eta legitimoa dela ere aitortzea”).

Kontsultak Elkargoaren “funtzio publikoa” ere aipatzen du. Bulegoak horretaz gehienez egin dezakeena da jurisprudentziak eta doktrinak horren gainean esandakoa biltzea. Eta eskabidearen legezkotasunari eta legitimotasunari buruz esan behar da datuak nahitaez emateari buruzko gai bera dela, baina beste alderdi batetik ikusita.

Edozelan ere, Bulegoak uste du ez lukeela bere eginkizuna beteko, aurreko guztia azaldu eta kontua bere horretan utziko balu, besterik gabe.

Arrazoi horregatik, baina zuhurtziaz eta kontu handiz jardunda -gaian aditua ez izateaz gain, ez dakigulako zehatz zer gertatu den eta zergatik ukatu dituzten behin baino

gehiagotan eskatutako zerrendak-, Bulegoak badauka jarraibide orokor batzuk ematea (argi utzi nahi dugu zuhurtziaz eta kontu handiz egiten dugula hori), baina beti ere kontuan izanda Bulegoari dagokion ikuspuntutik ematen dituela, hau da, datu pertsonalen babesaren ikuspuntutik.

Zentzu horretan, kontsultaren planteamenduan aipatzen den txosteneko doktrinatik abia gaitzke, gai berari buruz beste kontrol-erakunde batzuk egindako txostenek ere eduki bera dutela eta jurisprudentzia bera berresten dutela ikusirik.

Korporazio publikoek duten izaera da doktrina horren abiapuntua, berezia baita.

Hona Auzitegi Nazionalaren 2007ko ekainaren 12ko Epaiak dioena:

“Profesionalen elkargoak administrazio korporatibo izenez ezagutzen den administrazioaren baitan daude; hau da, izaera mistoko administrazioak dira, batetik, profil publiko garbia dutelako, eta bestetik, interes pribatuak ere badituztelako oinarrian. Horregatik, administrazio korporatiboak erakunde pribatu eta publikoen arteko muga daude. Administrazio korporatiboak duen izaera bereziak lege-araubide mistoa dakar, zuzenbide publikoko arauekin eta esparru pribatukotzat jo beharreko arauekin.”

Konstituzio Auzitegiak ere hainbat aldiz eman du entitate horien izaera bereziari buruzko irizpena. Adibidez, 1988ko otsailaren 18ko KAEk honako dio:

«Auzitegiak behin baino gehiagotan adierazi duenez (abuztuaren 5eko 76/1983, otsailaren 20ko 23/1984 eta uztailaren 15eko 123/1987 Konstituzio Auzitegiaren epaiak), profesionalen elkargoak korporazio sektorialak dira, eta korporazioko kideen interes pribatuak defendatzeko eratzen dira batez ere. Baina interes publikoko helburuak ere badituztenez, pertsona juridiko-publiko edo zuzenbide publikoko korporazio gisa eratzen dira legez. Bestalde, korporazio horien jatorria, antolaketa eta eginkizunak ez daude bakarrik korporazioko kideen esku, batez ere legegileak emandako nahitaezko izendapenetan daudelako. Legegileak oro har lurralde-administrazioen berezko betekizun berak esleitzen dizkie, edo lurralde-administrazioei korporazio horien lankidetzak eskuratzen uzten die, administrazio-eskumenen eskuordetzen bidez. Horren ondorioz, korporazioak lurralde-administrazioen mendean edo babespean jartzen ditu, lurralde-administrazioak direlako korporazioek baliatzen dituzten eginkizun edo eskumenen titularrak».

Argi dago elkargo profesionalen helbururik behinena bertako kideen interes pribatuen alde egitea dela. Hala ere, korporazioek badute osagai publikoren bat. Osagai horiek bi tokitatik datoz: batetik, korporazioen sorreratik, hau da, korporazioen egitura organikoa arautzen duen Estatuaren botere ekintza batetik; eta bestetik, korporazioei helburu edo eginkizun publikoak esleitzetik; Izan ere, Konstituzio Auzitegiak dioenez, helburu edo eginkizun publiko horiez baliatzea lurralde-administrazioen eginkizunez

baliatzea bezala da, edo, bestela, korporazioek egiten dutena da lurralde-administrazioekin lankidetzan aritu lurralde-administrazioenak diren eginkizunetan.

Beraz, ondoko paragrafoan jaso dugu, oro har, datu babesaren ikuspuntutik ateratzen den ondorioa. Kontsulta-idazkian aipatzen den irizpenean ere gauza bera esan zen:

“Beraz, oro har esan daiteke datu pertsonalen fitxategi / tratamendu batzuk elkargoek duten izaera publikoarekin lotutako eginkizunekin zerikusia dutela eta elkargoen zuzenbide publiko eskumenekin lotuta daudenez, administrazioaren lege erregimenaren menpe daudela. Horrelako fitxategien artean dago, izaera orokorrarekin, honako hau:

• Elkargokideen/profesionalen fitxategia. Lanbidean nola jardun arautzeko funtzio publikoaz baliatzea.”

Zehatz esanda, erakunde kontsulta-egileak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erregistratu zuen ondoko fitxategi hau sortu eta argitaratu zuen: “Elkargoko Erroldaren Fitxategia.” Fitxategiaren helburua honako da: “legeek eta estatutuek elkargoari esleitutako helburuak eta eginkizunak betetzea.” Bestalde, Erizaintzako Diplomatuaren XXXXXXko Elkargo Ofizialaren estatutuen 39. artikulua xedatzen du fitxategi hori sortzea nahitaezkoa dela (2004ko apirilaren 20ko 73. zk.ko EHAA; 2005eko urtarrilaren 18ko 11. zk.ko EHAA, hutsen zuzenketena).

Datu babesaren ikuspuntutik abiatuta, fitxategi horren gainean esan behar da Elkargoak benetako administrazio publikoa balitz bezala jarduten duela, eta, beraz, bertako datuen tratamendua ere gauzatu egin behar duela, esleitura dauzkan interes publikoko helburuak bete nahi baditu (batez ere, elkargoko lanbidearen antolamendua), horretarako, indarrean dagoen legediak esleitzen dizkion administrazio-ahalez baliatuz edo dagokion lurralde-administrazioak eskuordetzan emandakoez baliatuz.

Hori horrela izanik, fitxategian dauden datuen jatorria hartu behar da kontuan, eta hori ikusita esan behar da DBLOren 6.2 artikulua ezarri behar dela, guri interesatzen zaiguna kontuan hartuta, honakoa xedatzen duelako: “Ukituaren adostasunik ez da behar izango izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzen direnean.”

Ondorioz, eta erakunde kontsulta-egilearen ikuspuntutik begiratuta, fitxategi horretan dauden datu pertsonalak “biltzeko”, ez da behar datuen titularren adostasunik.

Balitzko datu-lagatzaileen ikuspuntutik begiratuta, ordea, datuen lagapenak honako legeen babesa izango du: Elkargo Profesionalak arautzen dituen otsailaren 13ko 2/1974 Legea eta Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko Eusko Legebiltzarraren 18/1997 Legea.

Azken ondorio hori berretsita geratzen da, gure ustez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 10.2 artikulua dioenari erreparatuz gero. Hona hemen:

“Dena den, aukera egongo da datuak tratatu eta besteri uzteko ere, nahiz eta interesatuak horretarako baimenik eman ez, ondorengo kasuetan:

a) Lege mailako arau batek edo zuzenbide komunitarioko batek hori egitea baimentzen bada, eta bereziki ondorengo egoeretakoren bat gertatzen bada:

Datuak tratatzearen edo besteri uztearen helburua tratamenduaren erantzulearen edo datuak hartu dituenaren legezko interesa betetzea bada, hain zuzen ere goian aipatutako arau horiek babestutako legezko interesa, baina baldin eta interesatuen interesa edo oinarrizko eskubide eta betebeharrak gailentzen ez badira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 1. artikuluan esaten denaz bat.”

Horretaz aparte, Bulegoak ez du ikusten (berriro adierazi nahi dugu, gure ustea guri dagokigun esparrutik ematen dugula) aurreko ondorioak alda daitezkeenik, nahiz eta balizko lagatzaileak izaera publikoa ala pribatua izan, eta nahiz eta behin eta berriz aipatu dugun fitxategian administrazio publikoetatik datozen datuak edo interesdunak berak edo bere legezko ordezkariak emandakoak baino ezin diren jaso.

III

Planeatu diguten kasu konkretuan, eta erizaintzako diplomatuen lanbideak dituen berezitasuna kontuan hartuta, kontuan hartzekoen ataletan aipatu diren arauetaz gain, Lanbide Sanitarioak Antolatzen dituen azaroaren 21eko 44/2003 Legea ere hartu behar da kontuan.

Lege horren 5. artikuluko 2. atalean profesional sanitarioen eta pertsonal sanitarioak atenditzen dituzten pertsonen arteko harremanei buruzko printzipio orokorrak daude jasota:

Aurreko paragrafoan aipatutako eskubideak benetan gauzatu eta erabil daitezen ziurtatzeko, elkargo profesionalek, batzorde autonomikoei eta batzorde orokorrekin profesionalen erregistro publikoak eratu beharko dituzte, bakoitzak berari dagokion lurralde esparruan. Eta lege honen arabera, erregistro horiek herritarren eskura egongo dira eta osasun arloko administrazioek ere eskuragarri izango dituzte. Erregistro horiek ezargarria den araudian finkatutako konfidentzialtasun printzipioak bete beharko dituzte bertako datu pertsonalekiko eta aukera eman beharko dute honako datuak jakin daitezen: izena, titulazioa, espezialitatea, non aritzen den lanbidean eta legearen arabera publikoak diren bestelako datu guztiak.

Lege-agindu horrek berretsi egiten du lehenago aipatu dugun ondorioa, hau da, gure ustez zentzuzkoa ematen duela legearen aurreikuspen horrek (azpimarratu nahi dugu lege batek xedatu duela) behar bezalako babes ematen diola, datu pertsonalak babestearen ikuspuntutik, hain zuzen ere, lege-aurreikuspen hori betetzeko behar den datu-lagatzeari.

Irizpenaren hasiera-hasieratik ahalegindu gara argi uzten beste kontu bat dela zein mekanismo edo bitarteko erabiliko den zehatz-mehatz legean aurreikusicatkoa betetzeko behar diren datu komunikazioetarako.

Ildo horretan, Giza Baliabideen eta Ekonomia eta Aurrekontu Zerbitzuetarako Zuzendaritza Orokorraren Ebazpen baten bidez argitaratu zen Profesional Sanitarioen Erregistroei buruzko Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Batzordearen Erabakiak dioena ekarri behar dugu hona:

Batzorde orokorrak badira, Estatuak finkatuko ditu bertako profesionalen erregistro publikoen gutxienerako irizpide eta betekizunak. Profesionalen elkargoak edo batzorde autonomikoak badira, ordea, autonomia erkidegoek finkatuko dituzte. Era berean, autonomia erkidegoek finkatu beharko dituzte hitzartutako osasun zentroen eta osasun zentro pribatuen erregistro publikoen gutxienezko irizpideak eta betekizunak, bai eta gaixotasunen esparruan ari diren aseguru entitateenak ere. Eta horretarako ondoko printzipio orokorrak bete beharko dituzte.

Bulegoak dakiela gutxienerako irizpide eta betekizun horiek ez daude finkatuta, eta Bulegoa ez da horretan sartu behar. Gehienez ere, Erabakiarekin bat datorrela esan dezake eta han xedatutakoaren arabera “datu pertsonalak babesteari buruzko araudia bete beharko dutela”, eta, ondorioz, datu babesaren arloko araudian jasota dauden printzipioak eta erregelak bete beharko dituztela.

ONDORIOAK

Erizaintzan diplomatutako profesionalen datuak profesionalen elkargoari komunikatzea datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren araberakoa da, hala xedatzen baitu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2a) artikulua.

Hildako pertsona baten historia klinikoa eskuratzea

Data: 2009-10-26

CN09-044

XXXXX-ko foru aldundiak izapidetutako espediente bat atzitzeko eskubideari buruz egindako kontsulta baten gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2009ko uztailaren 13an XXXXX-(e)k bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkian honakoa adierazi zuen:

“Nire XXXXX 2009ko urtarrilaren 3an zendu zen. Ez zeukan nahitaezko jarauns-lerik (ez gurasorik ez seme-alabarik; hiru XXXXX dauzka, ordea). Ni ez naute XXXXX. Badakit nire XXXX-k gaitasun bolitiboa eta kognitiboa oso murriztuta zituela testamentua egin zuenean (XXXXX Ospitaleko neuropsikiatra batek egin-dako txostenaren arabera; Pazientearen Legearen babespean egindako eskaera baten bidez eskuratua), eta XXXXXko Foru Aldundiak izapidetutako txosten bat eskuratu nahiko nuke (Gizarte Politikako Gizarte Zerbitzuetako Laguntza eta Sarrera Zerbitzuari martxoaren 20an eskatuta idatziz eta hartu izanarekin). Hona hemen zergatiak. 2005, 2006 eta 2007an nire XXXXX-(r)i mediku balorazio batzuk egin zizkioten “diruz lagunduta” egoitza (Geriatriko) batean sartu ahal izateko “itxaron-zerrenda” batean geratzeko. Hori dela eta, mediku-balorazio horiek eskuratzeko eskaera bat egin dut (lehen aipatu dudana, martxoaren 20ko data duena). Zertarako? XXXXX Ospitaleko mediku-txostena benetan latza da (peritu-txostena falta den arren), eta informazio gehiago izan nahi dut, testamentua inpugnatu ala ez erabakitzeko. Aldundian esan didate idatziz erantzungo didatela, auzia aztertzen ari direla, baina seguruago dela nire eskaera ukatzea onartzea baino (hiru hilabete igaro dira eta oraindik ez didate ezer erantzun). Bere XXXXX naizenez (eta ez informazio pribatua hedatzeko asmoa duen edozein egunkari), uste dut informazioa eskuratzeko eskubidea dudala (hain zuzen ere, XXXXX Ospitaleak, pazientearen arretarako zerbitzuaren bidez –XXXXX andrea-, ospitalean daukaten mediku espediente osoa helarazi dit).

Hori dela eta, eskatzen dut, ahal den neurrian eta zuen eskumenen arabera, auzi honen gainean duzuen iritzia emateko (hau da argitzeko ea eskatutako informazioa eskuratzeko eskubiderik dudan ala ez), eta hala badagokio, Aldundiaren aurrean nire alde egin dezazuela, bukatuta dagoelako administrazioek eskaera bati erantzuteko ezarrita dagoen epea.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta honetan aztertu beharreko gaia hildako paziente baten gaineko datuak eskuratzearen ingurukoa da. Kontsulta-egileak eskatzen du XXXXXko Foru Aldundiko XXXXX-(e)k izapidetutako administrazio-espeditente batean jasotako “mediku-balorazioak” eskuratu ahal izatea. Hain zuzen ere, diruz lagundutako modalitatean geriatriko batean sartzeko mediku-balorazioak eskatzen dira.

XXXXXko Foru Aldundiak “zaharrentzako egoitzak” izeneko fitxategia deklaraturik dauka, eta argi dauka fitxategiaren helburua dela zaharren egoitzetan ingesaturik dauden pertsonak zein diren jakitea eta kontrolatzea. Fitxategiaren datu-egiturari hainbat datu mota ikusi ditugu, eta osasun datuak ere tartean daude.

Gizarte Langileen Kode Deontologikoaren 3. artikulua xedatzen duenez, “historia klinikoa” tresna dokumental bat da eta erabiltzen da bertan jasotzeko, zehaztasun osoz, erabiltzaile bakoitzaren datu pertsonalak, familia egoerari buruzkoak, osasunari eta etxebizitzari buruzkoak, ekonomikoak, lanekoak, hezkuntza arlokoak eta erabiltzailearen egoera soziofamiliarren inguruko bestelakoak ere bai, garrantzitsuak badira. Horretaz gain, bertan jasotzen dira erabiltzaileak eskatutakoa, egindako diagnostikoa eta horren ondorioz, pertsonaren egoeraren bilakaeran egindako esku hartzea”.

Aztertzen ari garen kasuan, hilda dagoen pertsona baten historia sozialaren zati bat eskuratu nahi dute; hain zuzen ere, zerbitzu batzuk eskatu ahal izateko mediku-balorazioen gaineko zatia, eta historia eskuratu nahi duena hilik dagoen pazientearen XXXXX da.

II

Kontsulta ikusita, argi ikusten da eskatzaileak batez ere mediku-balorazioei buruzko dokumentazioa nahi duela. Beraz, hilda dagoen XXXX-(r)en osasun datuak eskatzen ditu.

Datuak Babesteko Madrileko Autonomia Erkidegoko Agentziaren abuztuaren 5eko 1/2005 Gomendioak historia soziala zer den azaltzen du: *“historia soziala tresna dokumental bat, eta erabiltzen da bertan jasotzeko, zehaztasun osoz, erabiltzaile bakoitzaren datu pertsonalak, familia egoerari buruzkoak, osasunari eta etxebizitzari buruzkoak, ekonomikoak, lanekoak, hezkuntza arlokoak eta erabiltzailearen egoera soziofamiliarraren inguruko bestelakoak ere bai, garrantzitsuak badira. Horretaz gain, bertan jasotzen dira erabiltzaileak eskatutakoa, egindako diagnostikoa eta horren ondorioz, pertsonaren egoeraren bilakaeran egindako esku hartzea”*. Definizioa Gizarte Lanetako Diplomatuaren lanbideko Kode Deontologikoan dago, handik atera baitute, eta definizioan argi ikusten da historia sozialean jasotako datuen izaera guztiz heterogeneoa dela.

Datuak Babesteko Madrileko Autonomia Erkidegoko Agentziak argitaratutako gizarte zerbitzu publikoentzako datuak babesteko gidaliburuaren hitzaurreak honakoa dio: *“Historia klinikoek badute araudi zehatz bat (Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren arloko Eskubideak eta Betebeharrak erregulatzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legea; Oviedoko Ituna eta abar) eta han esaten da zein den historien edukia eta egitura, legezko erabilerak eta aplikazioak, nork duen eta nola historia atzitzeko eskubidea, historia gordetzeko zein epe dauden eta abar. Historia sozialek, ordea, ez dute araurik esateko zein legezko erabilerak duten, zenbat denbora gorde behar diren, nork daukan atzitzeko eskubidea eta abar”*.

“Edozelan ere, historia soziala datuak babesteko araudiaren eta datu babesaren printzipioen menpe dago guztiz. Gainera, historia sozial automatizatuak badira, gainontzeko fitxategi automatizatuak ezartzen zaien erregimen bera ezarri behar zaie. Horretaz gain, kontuan izanik zer nolako datu motak izaten dituzten historia sozialek (osasuna, arraza edo etnia, sinesmenak eta abar), normalean goi-mailako segurtasuna behar duten fitxategiak dira, bertan dauden datuak bereziki babestuak direlako.”

Beraz, kasu honetan datu pertsonal askoren kopia bat emateaz ari gara. Datu horiek Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren menpe daude eta kopia horietan izaera askoko datu pertsonalak egon daitezke.

III

Kontsulta-egileak hilda dagoen XXXX-(r)en gaineko zenbait osasun datu eskatzen ditu. Osasun datuak berariaz daude jasota DBLOn, eta bereziki babestutako datuak dira 7. artikuluan xedatutakoaren arabera. Datu horien araubidea, 7. artikuluko 3. idatz-zatian dago jasota. Hona hemen:

“Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori”

Hildako pertsonen osasun datuen atzipenak araubide propioa du eta Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren arloko Eskubideak eta Bete-

beharrak erregulatzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 18.3 artikuluan dago jasota. Hona hemen 4. idatz-zatiak dioena:

“Osasun zentroek eta beren kontura ari diren mediku fakultatiboek hildako pazientearekin harremana duten pertsonen baina ez diete utziko hildakoen historia klinikoa atzitzen. Hildakoarekiko harremana familiakoa edo izatezkoa izan daiteke. Edozelan ere, osasunean arriskuren bat izan dezakeela eta, hirugarren batek historia klinikoa atzitu nahi badu, beharrezko datuak baino ezingo ditu atzitu. Ez da emango hildakoaren intimitatea kaltetu dezakeen informaziorik, profesionalen ohar subjektiborik eta hirugarrenen kaltetu dezakeen informaziorik.”

Historia klinikoa dela eta, gaur egun arte behintzat, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, eskubideak babesteko zenbait espedientetan, utzi egin die senideei hildakoaren historia klinikoa atzitzen. Espainiako Agentziak honakoa esan du: “41/2002 Lege Organikoaren 18.4 artikulua interpretazio bat egiteko, eta interpretazio horrek Lege organikoa onartu zeneko testuinguru arauemailearekiko koherentea izan nahi badu, onartu egin beharko du hildakoaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea dutela hildakoaren ezkontideak edo hildakoarekin antzeko beste harreman bat duenak, bere aurrekoek eta ondorengoek eta hildakoak, 1/1982 Lege Organikoa aipatzen dituen jarduerak burutzeko, izendatutako pertsonen eta, azkenik, hildakoaren oinordekoek. Azken horiek oinordekoak izateaz gain, familia harremanen bat edo familia harremanaren antzeko izatezko harremanen bat izan beharko dute”.

Madrilgo Erkidegoko Agentziak ere gauza bera adierazi zuen 2007ko iraileko 29. zenbakiko aldizkarian, hau da, berretsi egin zuen datuak babesteko araudiarekin bat datorrela hildako baten semeak hildako gurasoaren etxetik etxeko zerbitzuko espedienteko datuak atzitzea.

Beraz, datu babesaren ikuspuntutik, ez da ikusten eragozpenik hilik dagoen senidearen osasun datuak atzitu ditzan, senide horrek berariaz debekatu ez bazuen behintzat -eta debekua egiaztatu egin beharko da- eta atzipenak ez badu hildakoaren intimitatea urratzen edo ez badu eraginik espedientean parte hartu duten profesionalen ohar subjektiboetan edo ez badie hirugarrenei kalterik eragiten.

Azken zehaztapen horiek 41/2002 Legearen 18.3 artikulua finkatu zituen:

“Pazienteak bere historia klinikoa atzitzeko duen eskubidea ezin izango du erabili, baldin eta historialean pazientearen interes terapeutikorako jasota dauden datuek hirugarren pertsonen konfidentzialtasunerako eskubideak kaltetzen badute, eta baldin eta profesionalen historialean parte hartzeko duten eskubidearen kalterako bada, izan ere, profesionalak atzipen eskubidearen aurka egin dezakete haien ohar subjektiboen erreserba erabiliz.”

Gure ustez, ez dago arrazoirik aipatu ditugun kontrol agintaritzen iritzia aintzat ez hartzeko.

Aurreko gogoeta juridikoak kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak, honakoa xedatzen du:

ONDORIOA

XXXXXXko Foru Aldundiak bertako gizarte zerbitzuen erabiltzaile izandako pertsona bati buruz egindako historia sozialeko osasun datuak pertsona horren XXXXX-(r)i ematen badio -kontuan izanda pertsona hilda dagoela-, hori ez dago Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoaren aurka, txosten honetan jasotako baldintzen arabera.

Hirigintza datuak lagatzea herritarrei

Data: 2011-12-12

CN11-033

Herritar talde batek obra lizentzia batzuei buruz egindako informazio eskaera dela eta, XXXXX udalak egindako kontsulta eskaeraren gainean Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egindako irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2011ko martxoaren 2an XXXXX Udaleko alkateak bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Hona hemen idazkiak zioena:

“Honen bidez zenbait herritarrek aurkeztutako idazki bat helarazten dizut. Udalerrian emandako obra lizentzien zerrenda eskatzen dute. Halakoetan zer egin dezakegun azaltzeko eskatu nahi dizuegu.”

Idazkiari atxikita herritarren eskaerak zeuden. Hona hemen eskaerek ziotena:

“2011ko irailaren 1etik urriaren 6ra bitartean eman diren obra lizentzien zerrenda emateko (udalbatzen arteko epea da hain zuzen ere, udalbatzetan aurkeztu baidiziren zerrendak, eta erritmo berean egingo dituztela uste baitut). Zuentzat modurik erosoenean egin dezakezue: dokumentuaren fotokopia bat emanaz edo dokumentua ikusten utziz.”

Ekintza eta baimena jarraituak izatea nahiko nuke, horrela, ahalik eta enbarazu gutxien egiteko.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Hasteko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kontsulta egiten duen udalaren portaera datu-babesaren ikuspuntutik kalifikatu behar du.

Datu-babesaren ikuspegitik begiratuta, eta kontuan izanda “zerrendak datu pertsonalak dituela, zerrenda eskatzaileei ematea *“datu-lagatzeara edo datu-komunikazioa dela”* esan behar dugu, hau da, *“interesduna ez den hirugarren bati datuak erakustea”* da, GBLOren 3. artikulua dioenez.

Datu-lagatzeara bada, kontuan hartu behar da DBLOren 11. eta 21. artikuluek xedatutakoa, bertan baitago azalduta datu-lagatzeara eta datu-komunikazioen erregimena.

Beraz, planteatutako kasuan begien bistakoa da ezin dela bigarren artikulua horri ezarri (21. artikulua), administrazio publikoen arteko komunikazioetarako delako. Beraz, kasu honetan DBLOren 11. artikulua hartu beharko dugu kontuan.

Hona hemen manu horrek dioena, gure interesekoa baita:

“1. Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.”

2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango hone-lako kasuetan:

a) Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Kasu honetan interesekoena dela diogu, kontsulta-egileak egindako deskribapena eta Bulegoak duen informazioa ikusita ez delako aukerarik ikusten inondik inora eskatutako titularren adostasunik gabeko datu-lagatzeara egiteko, DBLOren 11.2 artikuluko letretan xedatutakoak ez duelako horrelako datu-lagatzeari aurreikusten, eta babesik izatekotan a) letran aurreikusitakoa baino hartu ahal izango da kontuan.

Alde batera utzita DBLOren 21. artikulua ez duela babesten eskatutako datuen komunikazioa balizko lagapen-hartzailea ez bada administrazioa, udalak pertsonen datuak laga ahal dizkien ala ez jakiteko, hau da, datu-babesaren esparruko araudiarekin bat datorren jakiteko, jakin beharko da zein “legek” “baimentzen duen” lagapena.

Hasteko, esan behar da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea ezin dela izan, ez behintzat

zuzenean, ez eta legearen 37. artikulua ere, ez duelako ematen eskatzaileak interesdunak direnik, Lege horren 31. artikulua xedatutakoaren arabera.

Baina, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa oker badabil, eta eskatzaileak interesdunak badira, orduan, 30/1992 Legeak gaitu egingo du datu-lagatzea.

Kontsulta-idazkia eta aurkeztu duten dokumentazioa ikusita ez dago garbi eskatzaileak zinegotziak direnik. Beraz, ondoko arauak ere ez dute eskatutako datu-lagatzea baimentzen: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (77. artikulua), legea garatzen duen araudia eta Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamenduen 14., 15. eta 16. artikulua.

II

Irizpide pertsonal edo subjektiboak ikusita (hau da, eskatzaileen izaera eta eskatutako datuak ikusita) ematen du ez dagoela datu-lagatzea gaitzen duen araurik. Beraz, alderdi materiala edo objektiboa aztertu beharko da, hau da, eskaera zein "gairi" buruzkoa den; eta ikusita obra lizentziei buruzko eskaera dela, gaia hirigintza dela esan behar dugu. Hobeto esanda, hirigintza diziplinako gai bat da, edo Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean esaten denez, honakoa da gaia: "*Hirigintzako Antolamendua Bermatzea eta Babestea*".

Edozelan ere, termino bat ala bestea erabili, jurisprudentziak honakoa dio horrelako lizentzien gainean:

... horrelako baimenen helburua da ikustea ea jarduerak beste eskubide batzuekiko edo dena delako jabetzaren statusa zehatzen duen ordenamenduarekiko eragozpenik dakarren" (1983-6-9ko ANE)

edo

"...egiaztatzea (lizentzia behar duen) jarduerak ez ote duen arriskuan jartzen lege ordenamenduak babesten duen interes orokorra (1987-10-10ko ANE)

Antzekoa dio 1983-2-22ko ANEK:

"Justiziako Epaitegi Gorenaren hainbat epaik berretsi dutenez, doktrina zuzen dabil esaten duenean lizentziak ematea jarduera arautua dela, eta bere helburua dela egiaztatzea ea partikularren jabari-ahalmenak bat datozen, interes publikoa tarteko, lizentziaren arloko arauekin eta interes publikoarekin hirigintza alderdiari, alderdi higienikoari eta apainketako alderdiari dagokionez, eta ea bat datozen onura orokorrekin zer ikusia dute bestelakoekin; eta udalek bete egin beharko dituzte arauok, batetik, arau horien aurka dauden lizentziak ukatuz, eta, bestetik, arauak betetzen dituzten lizentziak emanez." 1970eko maiatzaren 9ko epaia. Beraz, eraikuntza lizentzia bat ukatzeko hartzen dituzten akordioak arrazoi-

tzeko, hirigintza ordenamenduko irizpideak hartu behar dira kontuan, alde batera utzita interes pribatuak defenditzeko asmoak, nahiz eta interes horiek guztiz errespetagarriak izan,...”

Hori ikusita, gaiaren lege-erregimenak guri dagokigun oinarritzko eskubidearekiko zer dioen gogoratu behar dugu orain.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zioen Adierazpenak, eta, zehatzago esanda, Legearen I. tituluan jasotako printzipio nagusiei buruzko IV. puntuak berariaz diote honakoa:

*“ (...) legearen printzipio orokorrak ezartzen ditu. Horien artean, jakina, hirigintzaren arloan administrazioak zein partikularrek burutzen duten jardun osoa interes publikoaren mende jartzea dago. Horretarako, auzi-bidean guztiz kontrolatuko da, **ekintza publikoaren bidez** (hori ere aitortua izan da), interes hori badagoela; lurzorua eraldatzeko eta erabiltzeko ekintza guztiek ingurumenarekiko eramangarriak izatea bermatuko da eta **herritarrek parte hartzea ere bermatuko da**.”*

Zioen Adierazpenaren III. Puntua Lege honen bidez lortu nahi diren helburuei buruzkoa da, eta 6. atala parte-hartzeari buruzkoa da eta parte hartzeko modu bat da *“ Herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzea”*.

Adierazpen horiek Legearen zioen adierazpenen atalean daude islatuta.

Legearen 2.3 e) artikulua dio *“Hirigintza-arloko zeregin publiko hori garatzeko orduan”*, administrazioak erabilgarri dituen ahalmenetako bat dela honako hau:

“e) Herritarren partaidetza bermatu, bideratu eta sustatzea”.

Lurzorua eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. eta 9. artikuluek finkatzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintzako printzipio nagusiak: herritarren parte hartzea eta informazio publikoa. Hona hemen artikulua biak:

“8. artikulua.– Herritarren parte-hartzearen printzipioa.

1.– Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzekoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.

2.– Parte-hartzearen printzipio horrek eskubide hauek dakartza berarekin:

a) Plangintza izapidetzeko eta egikaritzeko prozeduretan eta hirigintzako diziplinari dagozkion prozeduretan interesatu gisa agertzeko eskubidea, horretarako legitimazio berezirik egiaztatu beharrik gabe.

b) Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri-administrazioak erabakitako eran eta legeetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.

c) Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herri-administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.

9. artikulua.– Jendaurreko informazioaren printzipioa.

1.– .– Indarrean dagoen plangintza osatzen duten agiri guztiak publikoak izango dira. Jendarteaz ezagutaraziak direla bermatzeko, eskumena duten herri-administrazioek, iragarpen eta argitalpen ofizialak egiteaz gain, eginbehar hauek izango dituzte.

a) Planak argitaratu egin beharko dituzte, argitalpen horiek eguneratuta eduki eta jendearen eskura jarri.

b) Planak sare telematikoaren guneren batean jarri beharko dituzte, oso-osorik eta edukia eguneraturik dutela. Libre izango da gune horretan sartzea.

c) Edozein pertsonak ondasun higiezin jakin batzuei aplikatzekoa zaien hirigintza-antolamenduaren ziurtagiriak edo kopia ziurtatuak eskatuz gero, eman egin beharko dizkiote.

2.– - Pertsona guztiek, fisiko nahiz juridikoek, aurreko c) idatz-zatiaren arabera emandako administrazio-agirietan jasotzen den informazioarekin bat etorritik jardun ahal izango dute. Informazio horren egiazkotasunari eta zuzentasunari buruz izan daitekeen konfiantza bidezkoztat joko da, hala badagokio, herri-administrazioen ondare-erantzukizunaren ondorioetarako. Okerrik izanez gero, eginiko dokumentuek ez dute administrazioa lotzen, kalte eta galerengatik ordainak alde batera utzita.

3.– Plangintzaren agiriak izapidetzerakoan, udalek jendaurrean ezagutaraziko dituzte agiri horien edukiak, egitasmoak eta aurreikuspenak. Horretarako, egungo egoera eta etorkizuneko plangintzaren zehaztapenak aurreikusten duten irudia adierazi eta alderatuko dituzte, informazio-tresna batzuen bidez.”

Bi artikuluko horiek irakurrita (batez ere, 8.2 artikulua irakurrita), esan daiteke bertan jasotako printzipioak ondo egokitzen direla hirigintza-jarduerak jendaurrean jarri behar diren eta jardutearen ahalekin.

Hori hala izanik, eta printzipio horiek ezarri behar zaizkienez Legearen VI. Tituluko II. Kapituluaren araututako lizentziei, esan behar da datuen komunikazioa ez dagoela

DBLOren 11.2 a) artikuluan ezarritakoaren aurka, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera.

Datuak Babesteko Espainiako Agentzia ere ondorio berera heldu da printzipio eta irizpide horiek jasotzen dituen araudia aplikatzean (Lurzoruaren Legearen Testu Bategina onartzen duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua). Eta jurisprudentziak ere gauza bera dio, adibidez, Madrilako Justizia Auzitegi Nagusiko Auzien Salaren 2004ko urtarrilaren 27ko Epaiak:

“... herritar guztiek egiaztatu ahal badute hirigintzaren arloko legedia betetzen dela, horrek esan nahi du esparru horretan haratutako erabakien berri izan behar dutela, eta lokalak atontzeko obra-lizentzien espedienteak esparru horretakoak dira. Azken finean, ekintza publikoaz baliatzeko, jardueren berri eduki behar da, eta hori ezin da ukatu, nahiz eta eskatzaileak ez hasi prozedura eta ez aurkeztu prozeduran ebazpena eman baino lehen, ekintza publikoaz baliatzeko epea ez delako bukatzen espedienteak bukatzen denean, ez eta obrak bukatzen direnean ere, hirigintzako legedia babesteko neurriak hartzeko ezarritako epeak bukatu ondoren baizik...”

Gauza bera dio Valentziako Auzitegi Nagusiaren 2005eko irailaren 1eko Epaiak ere.

III

Azkenik, eta kontuan izanda datu-komunikazioa egitearen aldeko erabakia har daitekeela, kontuan izan behar da DBLOren 4. artikuluko lehenengo bi idatz-zatietan aipatutako datuen kalitatearen printzipioa eta helburuaren printzipioa funtsezkoak direla oinarritzko eskubidea behar bezala bermatzeko.

Horien arabera:

“1.- Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

2. Tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako. Ez dira joko helburu bateraezintzat datu horiekin gero egiten diren tratamenduak, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako badira.”

Printzipio horien asmoa da informazioa erabiltzen denean arrazoizkotasun eta proporzionaltasun irizpidea gehitzea, tratamenduaren helburua kontuan hartuta.

Kasu honetan herritarrek zera eskatu dute: *“... 2011ko irailaren 1etik urriaren 6ra bitartean eman diren obra lizentzien zerrenda emateko”*, eta zerrenda hori da komunikatu beharrekoa.

Beste alde batetik, herritarren eskabideetan esaten da zerrenda udalbatzetara eramaten zela. Beraz, esan daiteke udalbatzara eramandako zerrendan dauden datu pertsonalak baino ezin direla laga.

Azkenik, esan behar da laga beharreko datuen titularren oinarritzko eskubidea ez dela behar bezala babesten kontu honekin: "*(...) ekintza eta baimena jarraitua izatea (...).*"

Bulegoak uste du ez dela ekintza jarraitu bat, ekintza asko baizik, nahiz eta eska-tzaileei bakarria iruditu eta beti egin beharrekoa iruditu.

Hori horrela izanik, esan behar da oinarritzko eskubideari hobeto lotzen zaiola udalbatzetan lizentzien berri eman ahala egitea eskabideak ere; izan ere, Bulegoaren ustez horrek ez baitakar lan handiegirik herritarrentzat: Gainera, ezin da esan administrazioarentzat eragozpen bat denik.

ONDORIOA

1.- Eskatutako datuak lagatzea ez dago kontrajarrita datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko eskubidearekin, irizpen honetan II. kontuan hartzekoen atalean adierazten denaren arabera.

2.- Datuen komunikazioak DBLOren 4. artikuluan aipatzen den kalitatearen printzipioa bete beharko du, irizpen honetako III. Kontuan hartzekoen atalean adierazten denaren arabera.

Artxibo historikoak atzitzea

Data: 2012-11-23

CN12-010

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena, artxibo historikoetan dauden dokumentuak atzitzeari buruz.

AURREKARIAK

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu zuen EAEko administrazio orokorrari eskualdatutako probintziako artxibo historikoen atzipen erregimenari buruz, artxibo horietan dauden datuen babesari dagokionez, egungo legedia esku artean, hainbat zalantza dituztelako.

Datuak Babesteko Euskal Bulegora bidalitako idazkiak honako legeak aipatzen ditu: Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57.1 c artikulua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua; Gerra zibilean eta diktadura garaian jazarpena eta indarkeria jasan zutenen aldeko eskubideak zabaltzeko neurriak ezarri dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 22. artikulua; Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (aurrerantzean DBLO), eta, azkenik, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeki buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeki buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

II

Kontsultaren xedea da “datu pertsonalak babesteko araudia ezarri ahal izateko irizpide garbia eskuratzea, eta pertsonen ohorea, intimitatea eta irudia eta bizitza pribatuaren eta familiaren segurtasuna bermatzeaz gain, ikertzaileei ahalbideratu ahal izatea izaera historikoko dokumen-

tazioaren xahutu gabeko kopiak eskuratzea eta segurtasun juridikoa ematea artxibo historikoe-tako arduradunei”.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako galderari erantzuten saiatuko gara txosten honetan, baina lehendabizi esan beharrean gaude gai konplexua dela, eta, agian, artxibo historikoetarako sarbidearen erregimena argitzeko, legeak aldatu beharra ere gerta daitekeela auzia behin betiko ebatzi ahal izateko.

III

Irizpena hasiaz batera, esan behar da artxibo historikoetan dagoen informazioa atzitu nahi bada, eta bertan pertsona fisiko identifikatuen edo identifikagarrien gaineko datu pertsonalik badago, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa (DBLO) eta legea garatzen duen araudia bete beharko dela nahitaez.

DBLOren 3. artikulua dio datu pertsonala *“pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarriei buruzko edozein informazio”* dela. Beraz, datu pertsonal horien tratamenduak datu babesaren arloko legeak agindutako printzipio eta bermeak bete beharko ditu; hau da, besteak beste, DBLOren 4.2 artikulua arautzen duen helburuaren printzipioa bete beharko du. Helburuaren printzipioaren arabera, tratatu beharreko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezikiak diren helburuetarako. Baina, artikulua berak dio horrek ez duela esan nahi datu horiek ezin direnik helburu historiko, estatistiko edo zientifikoekin tratatu. Beraz, horrek esan nahi du helburu jakin batekin bildutako datuak tratatu ahal direla beste helburu horiekin, helburuak bateragarriak izan daitezkeelako; eta bateragarriak diren ala ez zehazteko, unean-unean ezargarria den legedia erabili beharko da. Orain, aztertzen ari garen gaiari dagokionez, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57.1 c artikulua da erabili beharrekoa; bai eta, araudi autonomikoa ere, hala xedatzen baitu abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak onartzen duen DBLOren 9. artikulua.

Kalitatearen printzipioaz gain, datuak lagatzeko edo komunikatzeko, DBLOren 11. artikulua agindutako erregimena betetzeko premia ere aipatu behar da. Datu lagatzea edo komunikatzea zer den DBLOren 3i) artikuluan dago definituta: *“Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”*.

DBLOren 11.1. artikulua xedatzen duenez *“Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du”*.

Baina, hori hala izanik ere, artikulua bereko 2. idatz-zatiak dioenez, ukituaren baimenik ez da behar izango bertan aipatzen diren baldintzetako bat gertatuz gero. Baldintza horietako bat, interesatzen zaiguna, da honako hau: *“Lege batek baimentzen badu lagapena”* (DBLOren 11.2 a) artikulua edo datu lagatzeak administrazio publikoen artean

egiten badira, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoekin (11.2 e) artikulua]. Ondorioz, datu pertsonalak komunikatzeko ukituen baimenik ez badago, aztertu egin behar da ea komunikazioak baduen lekurik DBLOk xedatzen dituen salbuespenen artean.

Horrek guztiak artxibo historikoetan dauden dokumentuak eskuratzeari buruzko lege erregimena aztertu beharra dakar. Horretarako, lehendabizi, *artxibo eta erregistro administratiboetara sartzeko* erregimen orokorra aztertuko dugu, eta segidan artxibo historiko horietan dauden dokumentuak atzitzeko berariazko araudia.

Artxibo eta erregistro administratiboetara sartzea

Hasteko, gogora ekarri behar da 1978ko Konstituzioak aldarrikatu zuela herritarrek administrazio erregistroak eta artxiboak atzitzeko eskubidea dutela; eta hala dioela 105 b) artikuluan hain zuzen ere: *“Legeak arautuko du herritarrek artxibo eta erregistro administratiboetara sartzea, salbu eta estatuaren segurtasun eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen bizitza pribatuari dagokienez”* (azpimarratuak guk jarritakoa da).

Konstituzioak aldarrikatutako eskubide hori 30/1982 Legeak arautzen du; zehatzago esanda, legearen 35h) artikulua aldarrikatzen du herritarrek artxibo eta erregistro administratiboetan sartzeko eskubidea dutela; eta 30/1992 Legearen 37. artikulua garatu egiten du eskubidea. Lege horrek arautzen duen sarbide-erregimena kontuan hartuta, herritarrek administrazio artxiboetan dauden agiriak irispidea izateko eskubidea dute, espedienteak ikusteko eskaera egiten den egunean espediente horien prozedurak amaituta badaude (37.1 artikulua).

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluen 2. idatz-zatiak, ordea, mugak jartzen dizkio pertsonen intimitateari buruzko datuak atzitzeko eskubideari, hau da, dokumentuen ondorioz kaltetu ditzaketen pertsonetara mugatzen du. Beraz, zehaztu egin behar da ea dokumentazioan datu intimorik dagoen ala ez, datu intimorik egonez gero, ukituek baino ezin izango dutelako dokumentazioa eskuratu. Hemen dago arazoaren muina da, doktrinak ere luze-zabal esan duenez: zehaztea zein diren intimitatea ukitzen duten datuak eta zein ez; izan ere, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 37.2 artikulua intimitate pertsonala ukitzen duten datuak direnean aplikatuko baita, eta ez bestelako datuak direnean.

Gogoratu behar dugu datuak babesteko eskubidea oinarritzko eskubidea dela (292/2000 KAE) eta eskubide horren jatorria Konstituzioaren 18.4 artikulua dela, eta informazioaren babesa intimitate pertsonalaren eta familia intimitatearen esparruan onartzeaz gain, intimitaterako eskubideaz haratago doala.

Hona hemen Konstituzio Auzitegiak azaroaren 30eko 292/2000 Epaian esandakoa. Hona 6. oinarri juridikoak esandakoa:

“Hori horrela izanik, datu-babeserako oinarritzko eskubidea ez da bakar-bakarrik pertsonaren datu intimoetara mugatzen, baizik eta edozein motatako datu pertsonaletara, intimoa izan ala ez, kontuan izanik, hirugarrenek horien berri izanez gero edo horiek erabiliz gero, datuen jabearen eskubideei kalte egin diezaikeetela, oinarritzko eskubideak izan ala ez, bere helburua ez delako bakar-bakarrik norbanakoaren intimitatea, norbanakoen intimitatea babesteko Konstituzioaren 18.1 artikulua baitago, baizik eta datu pertsonalen babesa. Ondorioz, datu pertsonal publikoak ere harrapatzen ditu; izan ere, edonork eskuratzeko modukoak badira ere, ukituak baino ez du haietaz baliatzeko ahalmena, ukituak datu babeserako duen eskubideak horrela izan dadin bermatzen duelako. Horregatik hain zuzen ere, datuak pertsonalak direlako, pertsonaren bizitza pribatuari edo intimoari buruzko datuez gain, pertsona identifikatzen duten edo identifikagarri egiten duten datu guztiak daude babestuta, hau da, pertsonaren arraza, profil ideologikoa, sexuala, ekonomikoa edo beste edozein profil osatzeko balio duten datuak edo egoera jakin batzuetan norbanakoentzat kaltegarriak izan daitezkeen bestelako helburuetarako erabilgarriak izan daitezkeen datuak (292/2000 KAE, 6. oinarri juridikoa).”

Hona 292/2000 Epaia xedatzen duena Konstituzioaren 18.1 artikulua aurreikusitako eta Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak garaturako intimitaterako eskubideaz:

“6. Konstituzioaren 18.1 artikulua aitortzen duen intimitaterako oinarritzko eskubidearen eginkizun garrantzitsuena da babestea pertsonen bizitza pertsonala eta familia-bizitza hirugarrenek bertan egin ditzaketen mutur sartzetatik, batez ere pertsonak ez badute nahi halakorik gertatzerik (epai guztien ordez, honakoa aipatuko dugu: uztailaren 22ko 144/1999 Epaia, 8. lege-oinarria). (...) Azken finean, intimitaterako eskubideak balio du lortzeko hirugarrenek ez dezaten jakin pertsonen datuak, eta hala xedatu du Konstituzio Auzitegiak (uztailaren 15eko 134/1999 Epaia, 5. lege-oinarria; 144/1999 Epaia, 8. lege-oinarria; apirilaren 10eko 98/2000 Epaia, 5. lege-oinarria eta maiatzaren 10eko 115/2000 Epaia, 4. lege-oinarria). Beraz, aukera ematen die pertsonari nahi ez dute publizitatetik babesteko bizitza pribatua (...).”

Beraz, datu intimoak norberaren bizitza pribatuaren arlo pertsonal-pertsonalekoak dira, hau da, besteen jakin-minetik babestu nahi diren datuak dira.

Jurisprudentziak behin eta berriz berretsi du intimitatea, ohorearekin batera eta norbere irudirako eskubidearekin batera, balio absolutu, iraunkor eta aldagaitza dela; baina, zenbaitetan intimitatearen babesak mugak izaten ditu, eta mugak legeek edo unean-unean gizartearen dauden balore kulturek jarritakoak dira, edo norberak norbere portaera eta jarreraren gainean duen ideiek jarritakoak; eta 1/1982 Lege Organikoaren 2.1 artikulua, hain zuzen ere, horixe bera dio honakoa aldarrikatzean: *“Legeek eta gizarte-usadioek zehaztuko dute ohorearen, intimitatearen eta norberaren irudiaren gaineko*

babes zibila. Horretarako, kontuan hartuko da, nork bere egintzen arabera, berarentzat nahiz bere familiarentzat erreserbatzen duen esparrua”.

Edozelan ere, ideologiari, sindikatu afiliazioari, erlijioari, sinismenei, arrazari, osasunari eta bizitza sexualari buruzko datuak beti dira datu intimoak, eta DBLOren 7. artikulua bereziki babestutako datutzat jotzen dituen datuak dira hain zuzen ere.

Esanak esan, aipatu behar da 30/1992 Legeak ere atzipen erregimen bereziak ezartzen dituela.

Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37.7 artikulua xedatzen du herritarrek aztertu nahi dituzten agiriak banaka zehaztu behar dituztela eskaeran, eta eskatzaileak ikertzaile badira eta historian, zientzian edo kulturen interes handia dutela egiaztatzen badute, espedienteak zuzenean aztertzeko baimena eman dakieke, beti ere, pertsonen bizitza pribatua behar bezala bermatuta”.

Gainera, eta orain interesatzen zaigunez, 30/1992 Legearen 37.6 artikulua beste hau ere xedatzen du: *“Xedapen berezien bidez arautuko dira: Artxibo historikoetako dokumentu-funtsetan kontsulta egitea”.*

Horrek guzti horrek artxibo historikoetako sarbideari buruzko araudia aztertu beharra dakar.

Artxibo historikoetarako sarbidea

Artxibo historikoetan dauden dokumentuak atzitzeko arauak honakoak dira gaur egun: Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea eta esparru horretako lege autonomikoak, bai eta horiek garatzen dituzten araudiak ere.

16/1985 Legearen 48. artikulua ezartzen du Espainiako ondare historikoaren zati direla ondare historikotzat jotzen den dokumentu eta bibliografia ondarea, artxiboetan eta bibliotekan egon ala ez egon.

Legearen 49. artikulua definitzen du dokumentua zer den legearen ondorioetarako, eta zein diren ondare dokumentalaren zati:

“49. artikulua.

1. Lege honen ondorioetarako, dokumentutzat joko dugu, edozein euskarri materialetan, baita informatika-euskarritan ere, jasotako edonolako adierazpena, hizkuntza naturalean edo konbentzionalen egindakoa, baita adierazpen grafikoak, soinu-adierazpenak eta irudien bidezko adierazpenak ere.

2. Ondare Dokumentalaren zati dira edozein garaiko dokumentuak, izaera publiko edozein erakundek, Estatuak kapitalaren gehiengoa duen pertsona juridikok, edo bestelako erakunde publikok sortuak, kontserbatuak edo bilduak badira,

bai eta aipatu zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten pertsona pribatuak, fisikoak edo juridikoak sortuak, kontserbatuak edo bilduak badira ere.

3. Modu berean Ondare Dokumentalaren zati dira berrogei urte baino gehiagoko antzintasuna duten dokumentuak, betiere izaera politiko, sindikal edo erlijiosoa duten erakundeek edo elkarteek eta izaera pribatuko erakunde, fundazio eta kultur elkarteek eta hezkuntza-elkarteek sortuak, kontserbatuak edo jasoak badira.

4. Aldi berean Ondare Dokumentalaren barruan sartuko ditugu ehun urte baino gehiagoko antzintasuna duten dokumentuak, betiere beste edozein erakunde partikular edo pertsona fisikok sortuak, kontserbatuak edo jasoak badira.

5. Estatuko Administrazioak Ondare Dokumentalaren barruan sartu ahal izango ditu beste hainbat dokumentu, eta aurreko ataletan aipatutako antzintasunik ez eduki badute ere, Ondare Dokumentalaren barruan sartzeari merezi duten."

Dokumentu horiek kontsultatzeari dagokionez, hona 16/10985 Legearen 57.1 artikulua xedatzen duena:

*"a) **Orokorrean, dokumentuen tramitazioa egin ondoren eta dokumentuak Eskubide Publikoko erakundeetan dagokien Agiritegi nagusietan gordailatu eta erregistratu ondoren** dokumentu horiek **konsultatu ahal izango dira**, betiere araubidea errespetatzen bada, Sekretu Ofizialen Legearen barruan sailkatuta dauden dokumentuen kasuetan izan ezik, edo Legearen berariazko xedapen baten ondorioz jendartearen ezagutzera ematea debekatuta dauden kasuan izan ezik, edo dokumentuaren edukiaren hedapenaren ondorioz Estatuko segurtasuna eta defentsa arriskuan jartzen den kasuetan izan ezik.*

b) Aurreko paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta, kontsulta publikotik at geratu diren dokumentuak kontsultatu nahi badira administrazioan baimena eskatu beharko da. Dokumentu sekretu edo erreserbatuen kasuan, aipatu baimena aitortzen egin zuen Agintaritzak eman ahal izango du, eta gainontzeko kasuetan dokumentuak gordetzeaz eta zaintzeaz arduratzen den Saileko buruak emango du.

*c) Pertsonen segurtasuna, **edo ohorea, pertsonen bizitza pribatuaren eta familiaren intimitatea, eta norberaren irudia eragin dezaketen eta izaera poliziala, prozesala, klinikoa edo bestelako izaera duten datu pertsonalak biltzen dituzten dokumentuak ezin izango dira publikoki kontsultatu, eragindako pertsonak berariazko baimenik ematen ez badute, edo eragindako pertsona hil eta hogeita bost urte igaro arte, betiere hil zen eguna ezagutzen bada, eta ezagutzen ez bada, dokumentuak kontsultatu ahal izateko berrogeita hamar urte igaro beharko dira, dokumentuaren datatik hasita. (...)."***

Ikusten denez, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legeak ondare dokumentala atzitzeko modua arautzen duenean, bereiztu egiten du, batetik, bizirik dauden per-

tsonen gaineko datu intimoak dituzten dokumentuen atzipena (horiek atzitzeko, ukituen berariazko baimena eskatzen baita) eta, bestetik, hildako pertsonen gaineko datu intimoak dituztenenak; eta dokumentu horiek atzitu ahal izateko epeak ezartzen ditu: heriotzaren data ezagutzen bada, 25 urteko epea, eta “ezagutzen ez bada”, 50 urteko epea, dokumentuaren datatz geroztik.

Lege-manu horren idazkera, baina, nahasgarri samarra da. Eta horixe da Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (AEPD) adierazi zuena 0120/2012 txostenean: *“lege-manua anbiguoegia da, ez duelako argi finkatzen zertaz ari den aipatzen duen bigarren kasuan, hau da, zein diren heriotza data jakina ez den pertsonen kasuak. Beraz, ematen du zilegi dela pentsatzea pertsona hilda dagoela jaso beharko dela, nahiz era noiz hil den ez jakin, edo, bestela, ulertu beharko da “ezagutzen ez bada” esaten denean, esan nahi duela beste edozein kasutan, heriotza gertatu gertatu dela jasota egon ala ez”*.

Hain zuzen ere, 57.1 c) artikulua inguruko zalantzak “eta ezagutzen ez bada” baldintzan du oinarria, bi interpretazio egin daitezkeelako: lehenengo interpretazioak aukera ematen du artxibo historikoetan dauden dokumentuak mugarik gabe kontsultatzeko, hau da, dokumentuen datatik 50 urte igaro izana nahikoa da, eta berdin dio ukitua hilda dagoen ala ez; eta bigarren interpretazioaren arabera, dokumentua atzitzeko askatasun osoa egongo da dokumentuaren datatik 50 urte igaro badira, ukitua hilda badago, nahiz eta ez jakin noiz hil zen.

Interpretazio biak oso desberdinak dira.

Ohikoena lehenengoa da, hau da, dokumentuak askatasunez atzitu daitezkeela dioena; eta iritzi berekoa da Datuak Babesteko Espainiako Agentzia ere. Ikustea baino ez dago lehen aipatu dugun irizpena. Eta iritzi berekoa da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ere CN07-041 irizpenean dioenez.

Hala ere, oraindik orain ez dago erabat argi Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 77.1c) artikulua nola interpretatu behar den. Gainera, Estatuko araudiaren eta zenbait autonomia erkidegoetako araudiaren artean badira ezberdintasun garrantzitsuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 55.1 artikulua honakoa xedatzen du: “Orain duen eta etorkizunean izango dituen jabea eta kokagunea direnak direla, egiteko edo lanak Euskal Herrian egiten dituen edozein administrazio, erakunde edo norbanakok egin edo jasotako interesgarritasunezko agiri-sortak osatzen du Euskal Herriko agirizko ondarea”.

Artikulu horretako 2. eta 3. idatz-zatiek zera diote: *“Edozein titulartasuneko dokumentuak, artxibo funtsak eta dokumentu bildumak, 50 urtetik gorako antzinakotasuna badute, historikotzat joko dira, eta, beraz, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Inbentarioan jasoko dira”* eta *“Beste dokumentu batzuk ere euskal dokumentu-ondare deklaratu ahalko ditu Eusko Jaurlaritzak, baldin eta, dagozkion kontsulta-organoek aurrez emandako txostenen arabera, eta, aurreko paragrafoan aipatutako antzinatasuna ez eduki arren, deklarazio hori merezi badute”*.

Ondare dokumentalaren atzipena Legearen 60. artikuluan dago xedatuta:

“60. artikulua.

1. “Edonork izango du nomahirentzako gordetegiko ondasunetarako irispidea. Ondoren ematen diren kasuetan baino ez zaio jarriko mugarik irispideari:

Oro har, isilpeko ofizialei buruz indarrean dauden legeen indarrez sailkatutakotzat aldarrikatutako argipideak izanezko agiri-sailak, aldarrikapen hori indarrik gabe utzi ez bada, edo nor bakoitzaren bizitza eta barnekoitasunari buruzko argipideak eta merkataritza, industri eta zizentzialdetikako lege babestutako isilpekoak izan daitezenean.

Aldi baterakotasunez, agiri-paperak ondatuta edo zainketa-egoera txarrean eukizko agiriak, agiri-sortak eta gordetegiko ondasunak izan daitezenean.

2. Irispide-modu eta irizpideak araudiz eratuko dira.”

Ikusten dugunez, Euskal Kultura Ondarearen Legeak artxibo publikoetarako sarbidea librea dela badio ere, sarbideari mugak jarri ahal zaiola ere esaten du, baldin eta pertsonen bizitza pribatuari edo intimitateari buruzko informazioa badago bertan.

Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatze arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuak arautzen du zein diren euskal dokumentazio-ondarea kontsultatzeko baldintzak.

232/2000 Dekretuaren 18. artikulua dio herritar guztiek dutela euskal erakunde publikoen zaintzapean dagoen euskal ondare dokumentala kontsultatzeko eskubidea, eskubide unibertsala eta librea dela eta ez-diskriminatzailea. Baina, 19. artikulua hainbat baldintza jartzen ditu:

“19.–. artikulua.- Baldintzak.

1.- Kontsultatzeko eskubidea irizpide hauen arabera arautuko da:

a) Herritarrek dokumentuak kontsultatzeko eskubidea izango dute, horien hizkuntza eta euskarri materiala dena dela, beti ere, espediente bateko zati badiara, eskaria egiten den egunean espediente horri dagokion prozedura amaituta badago, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37.1 artikulua xedatzen duena betez.

b) Dokumentuetako informazioak segurtasunean, ohorean, intimitatean edo norberaren imajinan eraginik badu edo bestelako datu pertsonalak

jasotzen baditu eta legeak horiek guztiak babesten baditu, dokumentu horiek ezin izango dira ikusi, salbu eta eragindakoei berariaz baimena ematen badute. Eragindakoa hil zenetik hogeita bost urte igaro badira, ordea, ez da eragozpenik izango dokumentuak ikusteko. Hil zen eguna ezaguna ez bada, berriz, berrogeita hamar urte igaro beharko dira, dokumentua egin zenetik, ikusi ahal izateko.

c) Jarraian aipatzen diren dokumentuak edo espedienteak ezin izango dira ikusi, arauak eragozten dutelako:

1.- Merkataritza- edo industria-sekretupean daudenak.

2.- Delituen ikerketari eta Estatuaren moneta-politikari, defentsari eta segurtasunari buruzkoak,

3.- Gobernuak zenbait eskumen gauzatzeari buruzkoak, hain zuzen ere, Konstituzioaren arabera administrazioz kanpokoak diren eskumenak,

4.- Beste hainbat, arautzen dituzten xedapenen arabera eraenduko direnak.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako kasuetan, idatziz arrazoitu beharko da zergatik ukatzen edo murrizten den dokumentuak kontsultatzeko aukera. Idazkian, administrazio-egintzetan eska daitezkeen inguruabarrak eta alderdiak jasoko dira.”

Ikusten denez, euskal dekretuaren 19.1b) artikulua Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 57. artikulua dioenaren antzekoa dio, nahiz eta dirudien edozein datu pertsonal babesten duela, ez bakarri intimoak.

Beste autonomia erkidegoetako araudiak, ordea, ez datoz bat Estatuko araudiarekin. Madrileko Erkidegoko Artxiboetako eta Ondare Dokumentaleko apirilaren 21eko 4/1993 Legeak adibidez (38.3 artikulua) 50 urtetik 100 urtera luzatzen du segurtasunari, ohoreari eta intimitateari eragiten dioten dokumentuak atzitzeko epea, sortu zirenetik.

Bereziki aipatzeko modukoak dira Nafarroako eta Kataluniako araudiak. Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Nafarroako Foru Legeak, dokumentazioaren atzipenari buruzko 20. artikuluko 4. idatz-zatian dio pertsonen segurtasunari, ohoreari, intimitateari edo irudiari kalte egin diezaieketen datuak dituzten dokumentuak kontsultatu ahal izango direla ukituek horretarako baimena eman badute edo 25 urte igaro badira hil zirenetik, edo, noiz hil ziren jakin ezean, dokumentua bukatu zenetik 50 urte igaro ostean.

Artxiboei eta Dokumentuei buruzko uztailaren 13ko 10/2001 Kataluniako Legearen 36.1 artikulua aukera ematen du dokumentu publikoak kontsultatzeko, dokumentua sortu zenetik 30 urte igaro ostean, “berariazko legediak ez badu besterik esaten”. Baina, horretaz gain, beste hau ere badio, hau da, pertsonen segurtasunari, ohoreari, intimitateari edo irudiari eragiten dioten datuak dauzkaten dokumentuak publiko orok kontsultatzeko moduan jar daitezkeela ukituek horretarako baimena ematen badute

edo, ukituak hiltzen direnetik hogeita bost igaro badira, edo, noiz hil diren jakin ezean, dokumentua sortu zenetik berrogeita hamar igaro ostean”.

Aipatutako bi lege autonomikoetako lege-manuen literaltasunak aukera ematen du Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen gainean egindako interpretazioarekin bat ez datorren beste bat egiteko: artxibo historikoetan dauden dokumentu funtsak atzitzeko, baldin eta dokumentuak datu historikoak badituzte, nahitaezkoa da ukituaren berariazko baimena, ukitua bizirik badago; edo, bestela, denbora tarte jakin bat edo beste igaro izana pertsonen heriotza dataz geroztik, edo dokumentuen dataz geroztik, heriotza data ezaguna ez bada.

Ikusten denez, araudia nahasgarri samarra denez, erakunde honek uste du egokiena dela arau guzti horiek kontuan hartuta, pertsonen intimitaterako eta datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin ahalik eta begirunerik handiena erakusten duen interpretazioa egitea.

Gure ustez, Konstituzioaren 18.1 eta 4 artikulua aitortzen dituen oinarritzko eskubideak hobekien betetzen duen tesia da esaten duena Estatuko legediak eta autonomia erkidego honetako legediak ezartzen duten 50 urteko epea aplikatu behar dela datuen titularra hilik badago baina ez heriotzaren data ezezaguna denean. Izan ere, bestela, ulertu beharko da denbora pasatu izanak berez ezabatze dituela bizirik dauden pertsonen eskubideak, pertsona horien datu intimoak agertzen badira 50 urteko antzinakotasun duten dokumentuetan; eta horrek esan nahiko luke pertsona horien eskubidea bertan behera geratzen dela berrogeita hamar urteko epe hori bukatzean. Gure erakundeak, ordea, ez du irizpide horren alde egiten, bizirik dauden pertsonen datu pertsonalak, artxibo historikoetan egon ala ez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legeak babestuta daudelako.

Horri dagokionez, gogorarazi behar dugu ideologia, sindikatu afiliazioa, erlijioa eta sismenak ageriaz uzten dituzten bereziki babestutako datuak bakar-bakarrak tratatu daitezkeela ukituaren berariazko eta idatziko baimenarekin (DBLOren 7.2 artikulua), eta gainera ezinezkoa da legeak kontrarik xedatzea. Beraz, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea aitortu aurrekoa den Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legeak berak ere ezin du legeko bihurtu horrelako datuen tratamendua, ukituaren baimenik ez badago, baldin eta ukitua bizirik badago.

Lege organikoaren 7.3 artikulua honakoa xedatzen du arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezkeela interes orokorreko arazoak direla bide eta legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean. Beraz, nekez esan daiteke Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legeak legeko bihurtu dezakeenik bereziki babestutako datuen lagapena, nahiz eta dokumentu horiek 50 urteko antzinakotasuna izan, datuen titularra bizirik badago.

Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legeak mugak jarri dizkio pertsonen segurtasuna, intimitatea, ohorea edo irudia bezalako bestelako ondasun juridikoak babestu nahi dituzten dokumentu-funtzen kontsulta libreari. Horregatik, nahitaez berretsi behar dugu justifikatzen zaila izango litzakeela datu intimoak dituzten dokumentuak kontsultatzea erabat librea izatea dokumentuak 50 urte bete dituelako; eta, aldiz, informazio hori bera, ukitua hiltzen denetik, 25 urtetan babestea. Hala balitz, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legeak hobeto babestuko luke hildako pertsonen informazioa, bizirik daudenena baino.

Gainera, kontraesanekoa dirudi, batetik, denbora jakin bat igarotzea (50 urte) baldintza nahikoa izatea, dokumentuak argitara ateratzea zilegi izateko, bizirik dauden pertsonen gaineko informazio sentsiblea dutenean, eta, bestetik, hildakoaren ohore, intimitate edo irudiaren gaineko babes zibilaren akziorako eskubideak ukitua hil zenetik laurogei urte baino gehiago irautea, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 4.3 artikulua xedatzen duenez; nahiz eta 8.1 artikulua beste hau esan: *“Orokorrean, ez da bidegabeko esku-sartze gisa hartuko agintari eskudunak legearen arabera baimendu edo erabakitako jarduna. Gauza bera gertatuko da, interes historiko, zientifiko edo kultural garrantzitsua nagusitzen denean”*.

Beraz, esandako guztiarekin bat, eta ondorio moduan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak irizten dio:

- Bizirik dauden pertsonen datu pertsonalak, artxibo historikoetan egon ala ez egon, DBLOren babespean daudela.
- Ondare dokumentalari buruzko Estatuko eta Euskadiko araudian aurreikusita dagoen 50 urteko epea igaro izanak ez du legezkotzen artxibo historikoetan dauden dokumentuen atzipena, dokumentu horiek datu pertsonal intimoak badituzte eta datuen titularra bizirik badago.
- Datu pertsonal horiek guztiak DBLOren babesa dute.
- Araudian ezarritako denbora irizpideak ezartzeko, datuen titularra hilik dagoela egiaztatu beharko da.

IV

Segidan, Gerra zibilean eta diktadura garaian jazarpena eta indarkeria jasan zutenen aldeko eskubideak zabaldu eta haientzako neurriak ezarri dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 22. artikuluari helduko diogu. Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ere aipatzen du bere txostenean.

Hona lege horrek dioena:

“22. artikulua. Artxibo publiko eta pribatueta artxiboetako funtsak atzitzeko eskubidea.

1. Lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, artxibo publikoetan dauden dokumentu funtsak atzitzeko eskubidea eta nahi diren kopiak eskuratzeko eskubidea bermatzen da.

2. Aurreko atalean aurreikusitakoa berdin-berdin ezarriko zaie zati batean edo oso-osorik diru publikoarekin mantendutako artxibo pribatuak.

3. Botere publikoek neurriak hartuko dituzte dokumentu horiek denak babes-teko, dokumentuen osotasunerako eta katalogaziorako, are gehiago narriadura edo degradazio egoera txarrean dauden dokumentuen kasuan.”

Baten batek pentsa dezake lege horrek gaitzen duela Espainiako gerra zibilari eta diktadurari buruzko dokumentu funtsen atzipen librea. Baina, gure ustez interpretazio hori ezin da egin Legearen 22.1 artikulua xedatzen duena kontuan hartuta; izan ere, informazio atzipena legezkoa dela baitio, baina bakar-bakarrik legeak berak aurreikusi-tako ondorioetarako, hau da, legearen beraren helburuak erdiesteko helburuetarako. Helburuak 1. artikuluan daude jasota:

“1.- Lege honen xedea da Gerra Zibilean eta Diktadura garaian, arrazoi politikoen-gatik, ideologikoen-gatik edo erlijio sinismenengatik, jazarpena edo indarkeria nozitu zutenen aldeko eskubideak aitortzea eta handitzea; eta neurriak ezartzen ditu erreparazio morala egiteko, memoria pertsonala eta familiarena berreskura-tzeko, eta herritarren arteko banaketa elementuak ezabatzeko neurri osagarriak hartzeko; printzipio, balio eta askatasun konstituzionalen inguruan Espainiako hainbat belaunaldiren arteko kohesioa eta elkartasuna sustatzeko asmoz.

2. Lege honen bidez, politika publiko gisa, balio eta printzipio demokratikoak sustatu nahi dira, Gerra Zibilean eta diktadura gertatutakoak jakitera ematea ahalbideratuz, eta garai historiko hori buruzkoak diren eta artxibo publikoetan gordeta dauden dokumentuak babesten direla bermatuz.”

Lege horren helburu behinena beraz, zera da, Gerra Zibilean eta diktadura jazarpena edo indarkeria nozitu zutenen aldeko eskubideak aitortzea eta erreparazioa egitea. Be-raz, hori hala izanik, gure ustez nekez lortuko da helburu hori pertsona horien oinarri-zko eskubidea babestu gabe eta biktimen esparru pribatuari eragiten dion informazioa atzitzen lagata horien baimenik gabe, batez ere pertsonok bizirik badaude.

Ez dugu zalantzan jartzen denbora igarotzean dokumentuek galdu egiten dutela pribatutasuna, eta gero eta indar handiagoa hartzen duela dokumentuen interes historikoak. Horri dagokionez, azpimarratzekoa da Konstituzio Auzitegiak esandakoa ikerketarako askatasunaren eta Konstituzioaren 18.1 artikuluan aitortutako eskubideen arteko talka aztertu zuenean. Hona, beraz, 2004ko martxoaren 23ko KAEn xedatutakoa:

“Horregatik guztiagatik, hilda dauden pertsonen iraganean burututako ekintzak ikertzeko eskubidea gailendu egin behar zaio, zabalkunde publikoari dagokionez, pertsonen ohorerako eskubideari, baldin eta zientzia historikoaren erabilera eta metodoen araberakoa bada” (azpimarratua guk jarri dugu).

Memoria Historikoaren Legean helburua kontuan hartuta egindako interpretazioa bada ere, legean jasotako atzipen erregimenaren interpretazio horrek ez du ahalbidetzen 52/2007 Legea izatea, ukituen baimenik gabe, dokumentu funts horien atzipena egiteko gaikuntza ematen duen legea. Batez ere dokumentuek biktimei buruzko informazio sentsiblea badute.

ONDORIOAK

Artxibo historikoetara sarbidea arautzen duen egungo lege esparrua nahiko konplexua eta nahasgarria da. Horregatik, komenigarria litzateke lege erregimen ezargarria argituko lukeen lege erreforma burutzea, oso lagungarria izango litzatekeelako artxiboen kudeaketa-arduradunentzat, segurtasun juridikoa handiagorekin aritu daitezen.

Pertsonen intimitateari eragiten dien informazioa duten eta artxibo historikoetan dauden dokumentuak atzitzeko, ukituaren berariazko baimena beharko da, ukitua bizirik badago.

Datu horien tratamendua Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen printzipioen eta betebeharren menpe dago.

Dokumentazio hori atzitzen uzteko, komenigarria litzateke ukitua hilda dagoelako egiaztatzea eskatzea atzipen eskatzaileari.

Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroko datuak lagatzea

Data: 2014-01-30

CN13-052

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkarteak Erregistroak egiten dituen datu pertsonalen lagapenei buruzko kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: datuak babesteko euskal bulegoaren irizpena eskatu dute goiburuan adierazitako gaiari buruz. 2014ko abenduaren 10ean eusko jaurlaritzak ... bidalitako idazki bat jaso genuen datuak babesteko euskal bulegoan, eta bertan honako baieztapenak zeuden besteak beste:

“Beste ezeren aurretik komeni da aipatzea euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 legearen 40. Artikuluak zera dioela: “kirol erakundeak erregistroa publikoa izango da eta edozein pertsonak edukiko du kontsultatzeko eskubidea. Publikotasuna araudi bidez zehazten den moduan gauzatuko da.” eta aldi baterako hirugarren xedapenak zera dio: “kirol erakundeak erregistroa modu berrian antolatze eta jarduteko beharrezkoak diren xedapenak ematen ez diren bitartean, erregistroaren egitekoak apirilaren 3ko 94/1990 dekretuaren arabera burutuko dira.” 94/1990 dekretuaren 11. Artikuluak dio erregistroa publikoa dela, eta “edozein normabakorki edo nortasundunek, publikoki zein pribatuki idatziz eskatuz gero, dagozkion izenematearen egiaztagiria egingo dituela erregistroaren arduradunak.”

...Zuzendaritza honek hiru zalantza garrantzitsu hauek ditu:

1.- ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO ESKABIDEETAN EA ADOSTASUNA ESKATZEKO BETEBEHARRA DAGOEN.

15/1999 Lege Organikoaren 6.1 artikulua argi eta garbi dio datu pertsonalak tratatzeko ukituaren zalantzarik gabeko adostasuna behar dela. Baina, bigarren idatz-zatiak, ordea, beste hau dio: “Ukituaren adostasunik ez da behar izango izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzen direnean.”

Gure ustez, kontuan hartzen bada Euskadiko Kirol Erakundeak Erregistrotik jasotzen dituen datuak 14/1998 Legeak esleitzen dizkion eginkizunak burutzeko jasotzen dituela, orduan erregistro horrek ez du ukituaren adostasunik eskatu beharrik publikitate formala egiteko, hau da, datuak lagatzeko hirugarrenei.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 5. artikulua ere antzekoa xedatzen du:

Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik dauden herri-administrazioek eta gainerako erakunde, korporazio eta entitateek beren aginpideak gauzatzeko egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak dituztenean baino ezin ditzaizkete bildu, tratatzeko asmoz, datu pertsonalak. Legez bestelakorik agintzen ez bada behinik behin, datu horiek biltzeko ez da tartean direnen adostasuna eskatu behar, baina biltzerakoan datu horiek zituzten helburu jakin, zehatz eta zilegiatarako bakarrik erabili behar dituzte, nahiz eta gero helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako erabil daitezkeen, aplikatu beharreko legeen arabera.”

Beste agentzia batzuk ere interpretazio horixe egin dute administrazio erregistroen esparruan, eta uste dugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere horixe interpretatu duela, eta, beraz, jakin nahi dugu ea hala den.

Edozelan ere, esan behar dut adostasuna eskatzea beharrezkoa izango balitz, egoera zentzugabea izango litzatekeela, hau da, berez publizitate helburuarekin sortu zen Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroak ezin izango bailuke bere berezko eginkizun bakarra gauzatu; eta horren arrazoia da, Erregistroan dauden milaka eta milaka datuak ez direla bildu, hainbat arrazoi tarteko, aldez aurretik berariazko adostasuna eskatuta; baina, batez ere ez dagoelako legez ezarrita inskripzio eskatzaileek adostasun eskaera jasota duten inprimaki ofizialen bidez egin behar dutenik inskripzio eskabidea. Eta Eusko Jaurlaritzak erabakitzen badu adostasun eskatzeko obligazioa ezartzen duen araudi berri bat onartzea, arazo larri izango du jadanik jasota dauden milaka datu horiek direla eta.

Eta jakin badakigun arren Erregistroa publikoa dela eta nahi duen orok atzitu ahal dituela bertan dauden datuak, atzipena egiteko aukera ez dela erabatekoa, mugatua baizik. Datu babesa da, hain zuzen ere, Erregistroaren publikotasunak duen mugetako bat. Fundazioen, elkarteen edo kirol taldeen administrazio erregistroak datu pertsonalak dituzten datu baseak dira, eta erregistro horiek hirugarrenek ikusteko moduan jartzeko, nahitaez bete behar da 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritako lege erregimena.

Ondorioz, Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroaren arduradunak publizitate formaleko eskabide guztiak baloratu behar ditu bana-banan eta egiaztatu ea helburu hori eta datu bilketako helburua bat eta bera den, eta datu lagatze horrekin bete egiten direla eskatzailearen eta Erregistroaren interes legitimoekin zuzenean lotutako helburuak. Gure Erregistroak har dezakeen irizpide bat izan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuaren 5.2 artikuluan xedatutakoa; eta Agentziaren iritzia behar dugu horren gainean:

2.– Errolda publikoa izango da bertan inskribatutako elkarteen estatutuen eta idazpenen edukiari dagokionez, bai eta erregistroko orrien edukiarekin zerikusi zuzena eta berehalakoa izateagatik bertan gordailatu diren agirien edukiari dagokionez ere. Nolanahi ere, Erroldaren publizitatean ez dira sartuko gordailatutako agirietan azaltzen diren datu pertsonalak, hala nola egoera zibila, helbidea, NANA edo beste batzuk, salbu eta Erroldako arduradunak, kalifikazio-eginkizunaz baliatuz eta informazio-eskaeraren xedea kontuan hartuz, datu horiek ematea beharrezkoa dela irizten badio.

2.- INFORMAZIO EMATEKO BETEBEHARRA BETETZEKO OBLIGAZIOA.

15/1999 Lege Organikoaren 5.1 artikulua xedatzen du datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esanbidez informazio zehatza eta zalan-tzarik gabea eman beharko zaiela, hainbat gairen inguruan (fitxategi bat dagoela, AZETA eskubideak erabil ditzaketela, eta abar). Era berean, laugarren idatz-zatiak dio datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez direnean, fitxategiaren arduradunak edo horren ordezkariak esanbidez informazio zehatza eta zalan-tzarik gabea eman beharko dio interesdunari, datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteetan. Eta esan behar da Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroaren ka-suan gehienetan ez direla jaso interesdunarengandik.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak uste du datu lagatzea edo komunika-zioa lege mailako arauen batean jasota dagoenean (eta gure kasuan hala da), “15/1999 Lege Organikoaren 5.5 artikuluan xedatutakoa ezarri beharko dela; eta, beraz, kasu honetan ez da bete beharko informazio betebeharra” (60/2004 Txostena). Esandakoa oso ondo ezkontzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 25eko 95/46/CE Zuzentarauaren 11.2 artiku-luan xedatutakoarekin: “1. ataleko xedapenak (lehenengo atala informatzeko betebeharrari buruzkoa da, datuak ukituarengandik jaso beharrean beste iturri batzuetatik jaso behar badira) ez dira ezarriko tratamenduak xede historiko, estatistiko edo zientifikoak dituenen, edo ezinezkoa denean interesdunari infor-mazioa ematea, neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direnean, edo lege batek baimentzen duenean erregistroa edo hirugarrenei jakinaraztea.”

... Zuzendaritzan uste dugu publizitate formalaren bidez hirugarrenei datuak lagatzea edo komunikatzea zilegi dela 14/1998 Legearen arabera, eta horregatik uste dugu ... Zuzendaritzak ez duela informatzeko betebeharra bete beharrik.

Baina, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste badu bete egin behar dugula informazioa emateko betebeharra, orduan argi adierazi nahi dugu Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroak ezin dituela informatu ukitutako pertsonak (kirol entitateetako bazkideak, biltzarkideak, zuzendaritzakoak eta abar), hirugarrenen (ukituen) daturik ez duelako, milaka eta milaka pertsonen jakinarazpena egiteko. Hori egiteko, ... Zuzendaritzak 2/2004 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako dispenza beharko du:

“Interesdunei datu pertsonalik eskatzera, jakin beharrekoak azaldu behar zaizkie aurretiaz, halako datuak babesteko legeen arabera. Baina datu horiek ez badituzte interesdunarengandik berarengandik jaso, eta ezi-nezkoa bada hari informazioa ematea edo informazioa emate horrek neurrigabeko ahaleginak egin beharra eskatzen badu interesdunak asko di-relako, datuak zaharrak direlako edo ordaina eman beharra legokeelako, halakoetan Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, aipatutako legeekin bat eginik, fitxategiaren erantzulea interesdunei informazioa eman behar horretatik libre utz daiteke.”

3.- KIROL TALDE BATEKO LEHENDAKARITZA EDO IDAZKARITZA KARGUETAN INSKRIBATUTA DAUDEN PERTSONA FISIKOEN IZEN-ABIZENEI BURUZKO ERREGISTROKO DATUAK ESKATZEA, AUZI-ESKEETAN ERABILTZEO.

Kirol federazio bateko kide batek dio 2012ko federazio hauteskundeetako hauta-gaia izan zela, eta ondokoa eskatu ziola Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroari:

“1.- Hauteskunde batzordeak behin betikotzat jo zuen erroldan dauden kirol erakundeetako LEHENDAKARIEN ETA IDAZKARIEN IZEN eta abizenak.

2.- Horien izendapenak noiz egin ziren (DATA).

Gaia arretaz tratatzeko eskatu nahi dizut, administrazioarekiko auzi-es-kea egin nahi dudalako. Lana errazteko, taula bat bidaltzen dizut BEHIN BETIKO ERROLDA osatzen duten kirol erakundearen zerrendarekin, Eusko Jaurlaritzako erregistro-zenbaki eta guzti.”

Erregistroaren publizitate eskaera hau baloratzeko orduan, ez dugu argi horren helburua bateragarria ote den datu bilketa egitean zegoen helburuarekin. Hau da, ea eskatutako informazioa lagaz gero, lagatzen diren datuen titularren interes legitimoarekin zuzenean lotutako helburuak eta Erregistroarenak beteko diren ala ez.

Labur esanda, asko eskertuko dugu Agentziak esatea ea ... Sailak egindako in-terpretazioak zuzenak diren ala ez, eta ea hau bezalako kasu praktiko batean Erregistroak hirugarren bati laga ahal dizkio (hirugarren horrek administrazioare- kiko auzi-errekurtso bat aurkezteko) kirol federazio bateko hauteskunde errolda osatzen duten kirol erakundeetako lehendakari eta idazkari karguak dituen per-sonen izen-abizenak.”

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babes- teko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artiku- luko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpidea eskatu dute datu lagatzeei eta oinarri-zko eskubidearen funtsezko printzipioei buruzko hainbat gairi buruz, adibidez, informazioarako printzipioari edo adostasunaren printzipioari buruz.

Lehengo galdera da ea interesdunen adostasuna behar den ala ez erregistroaren publizitate formala egiteko, publizitateak hirugarrenei datuak lagatzea dakarrelako.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantz DBLO) 3.i artikulua definitzen du zer den datu lagatzea:

“3.i c) Datuak lagatzea edo komunikatzea: interesduna ez den beste bati datuak erakustea.”

Datu-lagatzearen gaineko erregimena DBLOren 11. artikuluan dago araututa, eta 11. artikulua 1. idatz-zatiak irizpide orokor bat ezartzen du datuak lagatzeko, hau da, adostasunaren irizpidea.

“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legiti-moekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da.”

Adostasuna beharrezkoa ez izateko salbuespenak 11. artikuluko 2. idatz-zatian daude jasota. Guri dagokigunez, a) atalean jasotakoa da garrantzitsuenak:

“a) Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Salbuespen horrekin erkatu behar da kirol entitateen erregistroaren publizitate formala. Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen III. Tituluko VII. Kapitulua arautzen du kirol erakundeen erregistroa. Zehatz esateko, 39. artikulutik 43. artikulura bitartean arautzen du.

39. artikulua xedatzen du erregistroaren izaera, eta Euskal Autonomia Erkidegoan helbidea duten kirol-erakundeak inskribatzea izango du helburu.

40. artikulua erregistroaren publizitate formala arautzen du, eta honakoa dio hitzez-hitzez:

“Kirol Erakundeen Erregistroa publikoa izango da eta edozein pertsonak edukiko du eskubidea kontsultatzeko. Publikotasuna araudi bidez zehazten den moduan gauzatuko da.”

Erregistroan jaso beharreko egintzak 41. artikuluan daude zehaztuta:

“Kirol Erakundeen Erregistroan egintza hauek jaso beharko dira:

a) Kirol-klub, kirol-elkarte eta kirol-federazioen eratzea.

b) Euskal Kirol Federazioen Batasunaren eratzea.

c) Kirol-erakundeen estatutuen eta araudien onartzea eta aldatzea.

d) Kirol-erakundeen ordezkaritza eta administrazio organoetarako hautatutako kideen izendatzea eta kargu-uztea.

e) Kirol-klubak herri-onurakotzat jotzea.

f) Kirol-erakundeen desagitea eta likidazioa.

g) Kirol-federazioen onarpenaren ezeztatzea.

h) Orokorrean, beste xedapen batzuek inskribitzeko agintzen dituzten egintza.”

Euskal Herriko kirol elkarte eta Federazio erregistroaren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 3ko 94/1990 Dekretuaren 11. artikulua ere jasota dauka Erregistroaren publikotasun formala. Hona zer dioen:

“1.- Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazio Erregistroa publikoa da.

2.- Edozein norbanakok edo legezko nortasundunek, publikok zein pribatuk idatziz eskatuz gero, dagozkion izenematearen egiaztagiriak egingo ditu Erregistroaren arduradunak.”

Dekretu horrek dio nola egin behar den publizitatea eta Erregistroaren arduradunak egingo dituela egiaztagiriak; baina, ez du mugatzen zein subjektuk duten inskripzioak eskatzeko legitimazioa eta zeintzuk ez. Gainera, ez du esaten erregistroko inskripzioen publizitatea egingo denik bakarrik, hau da, ez du esaten inskripzio batzuk atzitu daitezkeenik eta beste batzuk ez. Horregatik, Euskadiko Kirolaren Legearen 40.

artikulua xedatzen badu publizitatea eta 41. artikulua xedatzen badu zeren publizitatea egin behar den, gure ustez alferrik da ukituei adostasuna eskatzea, hau da, kirol elkarteetako ordezkaritza eta administrazio organoetako kideei adostasuna eskatzea. Adostasunik ez da behar badagoelako datu-lagatzea baimentzen duen lege gaikuntza: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 40. eta 41. artikulua -DBLOren 11.2 a) artikulua dioena betetzen da horrela-.

Beste kontu bat da helburua, hau da, informazioaren lagapen-hartzaileek errespetatu egin beharko dutela informazioa publikoa egiteko arrazoia, eta ezin izango da beste ezertarako erabili informazioa, eta erabiltzen bada, oinarritzko eskubidea urratuko da hasiera-hasieratik.

Erregistroaren publizitate formala ez da nahastu behar kirol elkarte edo federazioetako kideek duten eskubidearekin kide diren erakundeko dokumentazioa atzitzeko. Gure ustez, eta gai honetan adituak ez garela kontuan hartuta, erregistroa publiko egiten da pertsona guztientzat, eta Kirolaren Legearen 41. artikulua xedatzen du zein egintza jasoko diren publiko egiteko erregistroan. Baina, uste dugu kideek edo federatuek badutela, erregistroan publiko egindako informazioaz gain, bestelako informazioa jasotzeko eskubidea ere bai, kontuan hartuta kideen edo federatuen eta dena delako kirol erakundearen artean lege harreman berezia dagoela. Kideek edo federatuek duten eskubidea eta publiko orokorrak duena ez dira berdinak, eta araudiak (adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuak onartu egiten du eta arautu federatuek informazioa eskatzeko eskubidea dutela) eta kirol elkartearen estatuek diotenaren arabera baliatu beharko dute eskubidea kideek edo federatuek.

Bestalde, ... Zuzendaritzak Agentziaren iritzia eskatu du jakiteko ea Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan xedatutakoa bete behar duen. Gure aburuz Agentziaren eskumenen esparrutik kanpo dagoen kontu bat da hori, eta Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroak berak erabaki behar du zein den bere esparrua arautzen duen araudia, bere funtzionamenduari buruzko irizpideak jarritz.

II

Bigarren galdera DBLOren 5. artikuluko informazio betebeharrari buruzkoa da, eta zuzenean lotuta dago aurrekoarekin.

DBLOren 5. artikulua informaziorako printzipioa finkatzen du, eta lege bereko 6. artikuluko adostasunaren printzipioari lotuta dago.

DBLOren 5. artikulua honakoa xedatzen du:

"1. Interesdun bati datu pertsonalak eskatu baino lehen, ezinbestean eman beharko diote honako hauei buruzko informazioa berariaz, zehatz eta argi:

a) Datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu bat dagoela, datuak zertarako biltzen dituen eta informazioaren hartzaileak nor edo nortzuk diren.

b) Egiten zaizkion galderak derrigorrez ala borondatez erantzutekoak diren.

c) Datuak ematearen edo ukatzearen ondorioak.

d) Atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera duela.

e) Tratamendu kontrolatzailearen edo, hala badagokio, bere ordezkariaren identitatea eta helbidea.

Tratamendu kontrolatzailea Europako Batasunean establezimendurik izan ez eta datuak tratatzean Espainiako lurraldean kokatutako bideak erabiltzen dituenean, ordezkari bat izendatu beharko du Espainian, salbu eta bide horiek igarobide-xe-deekin erabiltzen direnean, tratamenduaren arduradunaren aurka jar daitezkeen akzioak gorabehera."

Datu bilketan bete beharreko informaziorako printzipioa beti bete behar da, eta kontsulta honetan printzipio hori betetzeko, informazio klausula bat ipini beharko da herri-tarrek kirol elkarte batean izena emateko bere behar dituzten inprimaketan.

Interesdunei informatzeko betebeharrari dagokionez, esan behar da ez zaiela esan behar beraien datuak tratatu egin behar direnik (laga egingo direnik) Erregistroaren publizitate formala egingo delako. Halakoetan, argi dago 5. artikuluko 5. idatz-zatiko salbuespena ezarri behar dela:

"5. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatuko, legeren batek esanbidez horixe ezartzen duenean, tratamenduak xede historiko, estatistiko edo zientifikoak dituenean, edo Datuak Babesteko Agentziaren zein horren pareko autonomia-erkidegoko erakundearen arabera ezinezkoa denean interesdunari informazioa ematea, edo neurriz kanpoko ahaleginak egin behar direnean, interesdunen kopurua, datuen antzintasuna eta izan daitezkeen konpentsazio-neurriak kontuan hartuta.

Orobat, ez da aplikatuko aurreko idatz-zatian xedatutakoa, datuak jendearen esku dauden iturrietatik atera eta publizitate-jarduerarako zein merkatu-prospektiorako erabiltzen direnean. Halakoetan, interesdunari zuzendutako komunikazio bakoitzean datuen jatorriari eta tratamendu kontrolatzailearen identitatearen zein interesdunak dituen eskubideen gaineko informazioa emango da."

Erregistroaren publizitate formala egitetik datozen datu lagatzeak Euskadiko Kirolaren Legean berariaz jasota badaude, ez da bete beharko 5.4 artikuluan xedatutakoa, 5.5 artikuluko salbuespenak balio duelako.

III

Kontsulta-idatziko hirugarren galdera da ea zilegi den federatu bati ondoko informazioa lagatzea:

"1.- Hauteskunde batzordeak behin betikotzat jo zuen erroldan dauden kirol erakundeetako LEHENDAKARIEN ETA IDAZKARIEN IZEN eta abizenak.

2.- Horien izendapenak noiz egin ziren (DATA).

Datu lagatzea eskatzeko arrazoa da administrazioarekiko auzi-eskaera bat egitea. Horregatik dio kontsulta idazkiak honakoa: "erregistroaren publizitate eskaera hau baloratzeko orduan, ez dugu argi horren helburua ea bateragarria den datu bilketa egitean zegoen helburuarekin."

Gure ustez ezin da esan beste helburua bat dela; eta, horregatik, informazioa ukatu. Azken finean auzia da kirol erakunde batek egindako jarduera batekin dagoen desadostasun bat dokumentatzea, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko modukoa delako. Era berean, gogora ekarri behar dugu kirol federazioek, berezkoak diren jardueraz gain, ahal publikoak ere gauzatu behar dituztela eskuordetzan. Ekainaren 11ko Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen 15.3 artikulua zera dio:

"Kirol-federazioek, beren eskurantz ez gain, administrazio-egiteko publikoak ere burutuko dituzte eskuordetzan. Kasu horretan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa arituko dira."

Bestalde, eskatu dituzten datuak datak eta datu identifikatiboak dira, eta datu horiek jasota daude Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 41. artikuluan, bertan daudelako adierazita zein datu jaso behar diren Erregistroan.

Azkenik, merezi du hona ekartzea CN13-047 Irizpenean, federatu bati datuak lagatzeari buruz, azaldutakoa:

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia behar duen lehenengo galdera da ea zilegi den federazioak ez ematea kontsulta egileari hautesle erroldako pertsonen eta erakundeen gaineko datu pertsonalik (helbideak, harremanetarako telefonoak eta helbide elektronikoak eskatu zizkien). Bere hauteskunde programa bidaltzeko eskatu zituen datuak, eta kontsulta eskabideak dio datuak ukatu zizkietela esanez datuak babes-teko eskubidea oinarri hartuta.

Datuak babesteko oinarritzko eskubidearen muina da, dudarik gabe, ukituaren adostasuna beharrezkoa dela. Eta horixe dio, hain zuzen ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 6.1 artikulua:

“1. “Datu pertsonalen tratamenduak interesdunaren adostasun garbia beharko du, legeak besterik xedatu ezean.

2. Ukituaren adostasunik ez da behar izango izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzen direnean; datuak negozio-, lan- edo administrazio-harremanen kontratu edo aurrekontratueta alderdiei buruzkoak izan eta harreman horiei eusteko zein halako harremanak betetzeko beharrezkoak direnean; datu-tratamenduaren xedea interesdunaren berebiziko interesen bat babestea denean, lege honen 7. artikuluko 6. idatz-zatiaren arabera; edo datuak jendearen esku dauden iturrietara bilduta egon eta datu horien tratamendua beharrezkoa denean fitxategiaren arduradunaren edo datuak komunikatzen zaizkion hirugarrenaren interes legitimoa betetzeko, betiere, interesdunaren oinarritzko eskubide eta askatasunak urratu gabe.”

Interesatzen zaigu arreta berezia jartzea interes legitimoa betetzeari buruzko 6.2 artikulukoaren azken zatian; izan ere, aurreikuspen hori Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 95/46/CE Zuzentarauaren 7 f) artikulua xedatutako barne zuzenbidera ekartzea beste baita:

“7. artikulua.

“Estatu kideek xedatuko dute datu pertsonalen tratamendua honako kasuetan baino ez dela egingo:

...

f) tratamendu kontrolatzailearen edo datuak komunikatzen zaizkien hirugarrenen interes legitimo bat lortzeko beharrezkoa bada, eta beti ere tartean ez badaude pertsona fisikoen interesak edo oinarritzko askatasunak eta eskubideak, Zuzentarau honetako 1. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, babestu beharrekoak direnak.”

Legeak (lehen ere aipatu dugu Legearen 6.2 b) artikulua) eta Erregelamenduak (10.2 b) artikulua) zuzentaraun ageri ez den beste betekizun bat gehitu zuten interes legitimoa aplikatzeko: datuak jendearen eskurako iturrian egotea.

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2011ko azaroaren 24ko Epaia auzia hau ebatzi zuen esanez betekizun osagarri hori ez zettorrela bat hori zuzentarauaren 7 f) artikulua xedatutakoarekin; eta, Auzitegiak zuzeneko eragina aitortzen dio zuzentarauari. Beraz, Europar Batasuneko araudiak eta jurisprudentziak onartzen dute egotea datu tratamendu batzuk, jendearen eskurako iturrietan ez badaude ere, ukituen adostasunik gabe egin daitezkeenak, hain zuzen ere, tratamendu horiek beharrezkoak direlako arduradunaren edo lagapen-hartzailearen interes legitimo bat asebetetzeko; eta muga bakarra da interesdunen askatasunak eta eskubideak errespetatzea.

95/46 Zuzentarauaren 7 f) artikulua aurreikusitakoa hartu du oinarritzat Auzitegi Nazionalak hautagaitza bateko zerrenda-burua zen elkargo bateko kide batek hautesleen datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea zuela ebazteko, Auzitegiaren ustez datuak atzitzeko interes legitimo bat dagoelako tartean: elkargoko kideei bere proposamenak jakinaraztea eta botoa eskatzea. (2012ko martxoaren 15eko Auzitegi Nazionalaren Epaia)

Gure ustez epai horrek zer ikusi handia du kontsultako gaiarekin; horregatik, uste dugu oso ondo egokitzen dela aztertzen ari garen kasuan ere Europar Batasuneko Zuzentarauak aurreikusitako interes legitimoa. Baina, proportzionaltasunaren eta helburuaren printzipioak aplikatzen badira, eskatzaileak, helburua erdiesteko egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoa diren datuak baino ezin izango ditu eskuratu (DBLOren 4. artikuluan jasotako kalitatearen datua) eta tratatu.

Esandako guztia kontuan hartuta, zilegi da kontsulta honetan aipatzen diren datuak lagatzea datu-eskatzaileari, horrek ez duelako datu pertsonalak babesteari buruzko araudia urratzen.

Aurrezki Kutxetako Goi-kargudunen Erregistroa Atzitzea

Data: 2014-02-12

CN13-053

Aurrezki Kutxetako goi-kargudunen erregistroko datu pertsonalen lagapenei buruzko kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak babesteko euskal bulegoaren irizpena eskatu dute goiburuan adierazitako gaiari buruz. 2013ko abenduaren 26an eusko jaurlaritzako ogasun eta finantza saileko finantza zuzendaritzak bidalitako idazki bat jaso genuen datuak babesteko euskal bulegoan, eta bertan honako baieztapenak zeuden besteak beste:

“.. Honekin batera bidali dizuet madrileko unibertsitate autonomoko irakasle batek egindako kontsulta, aurrezki kutxetako goi-kargudunen erregistroa atzitzeko baimena eskatuz. Datu horiek eta izendapenak ez dira aldizkari ofizialetan argitaratzen.

Lehenengo, esan behar dugu eskatzailea ez dela beste administrazio bat (irakasle bat da), eta, bigarrenik, uste dugu datu horiek babestu egin behar direla.”

Madrialeko Unibertsitate Autonomoko katedradun batel bidalitako idazkia ere helarazten dizuegu. Bertan zera dio:

“Honen bidez, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 e) artikulua babesarekin, eskatu nahi dut, nik neuk zuzentzen dudana Madrialeko Unibertsitate Autonomoko gobernu korporatiboari buruzko ikerketa taldearentzat, Aurrezki Kutxetako goi-kargudunen erregistroan sartzeko baimena, 2004tik gaur egunera arte:

Administrazio publiko batek egiten du eskaera, eskatzailea Madrialeko Unibertsitate Autonomoan (Finantzazio eta Merkataritza Ikerketako Saila) plaza duten katedradunen kidegokoa delako.

Gobernu korporatiboari buruzko ikerketa egiteko behar den informazioa (aurrezki kutxetako aholkularien eta goi-kargudunen profila) erregistroa horretan dago.

Helburua guztiz zientifikoa da, “Gobernu korporatiboa, kapitalen merkatuak eta finantza krisia” izenburudun ikerketa proiektu baten babesa du, eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatuta dago 2013-2015 epe aldirako (ECO2012-32554 erref.). Bestalde, eskatzailea proiektuaren ikerlari nagusia da eta bertan hainbat unibertsitatetako ikerlariak hartzen dute parte.

Interes ekonomiko, enpresa interes eta gizarte interes handiko gaia da, helburua ez delako bakarrik hobeto ezagutzea nolakoa zen garai batean Espainiako aurrezki kutxen gobernua, finantza entitateen gobernu korporatiboaren esparruan etorkizuneko erronkei berme guztiekin aurre egiteko konponbideak bilatzea eta proposamenak egitea baizik.”

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu dute aurrezki kutxetako goi-kargudunen erregistroa atzitzea zilegi den ala ez ebazteko. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasle batek eskatu du erregistroa atzitzeko baimena. Datuak babesteko oinarrizko eskubideari dagokionez, auzia ez da erregistroa atzitzea zilegi den ala ez, datuak lagatzea zilegi den ala ez baizik. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (Aurrerantzean DBLO) 3 i) artikulua honela definitzen du datu lagatzea zer den:

“i) Datuak lagatzea edo komunikatzea: interesduna ez den beste bati datuak erakustea.”

Datu lagatzei buruzko lege erregimena DBLOren 11. artikuluan dago jasota. Hona lehenengo idatz-zatiak dioena:

“1. “Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legiti-moezin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da.”

Artikulu horren 2. idatza-zatiak xedatzen du zein diren adostasunaren arau orokor-rrak dituen salbuespenak; eta unibertsitate eskatzaileak 2 e) puntuko salbuespena aipatzen du.

"e) Lagapena administrazio publikoen artean egiten bada eta lagatzearen helburua bada gero datu horiek xede historiko, estatistiko edo zientifikoarekin tratatzea."

Helburuak direla eta, DBLOren 4.2 artikulua dio tratamenduko datu pertsonalak ezin izango direla erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako; eta honako zehaztapena egiten du gero:

"Ez dira joko helburu bateraezintzat datu horiekin gero egiten diren tratamenduak, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako badira."

Jurisprudentziak *"helburu bateraezin"* terminoaren esanahia interpretatu du eta *"desberdin"* esan nahi duela iritzi dio. DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 9. artikulua asko zehatzago arautzen du zer den helburu estatistiko, historiko edo zientifikoa duen tratamendua.

"9. artikulua. Helburu estatistiko, historiko edo zientifikoa duen tratamendua.

1. Aurreko artikulua 3. paragrafoan aurreikusitakoetarako, ez da bateraezina izango datu pertsonalak helburu historiko, estatistiko edo zientifikoekin tratatzea.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren helburuetarako diren edo ez erabakitzeko, kasu bakoitzean betetzekoa den legeria hartu beharko da kontuan, eta bereziki ondorengo legeetan esaten dena: Funtzio Estatistiko Publikoa arautzen duen maiatzaren 9ko 12/1989 Legea;; Espainiaren Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea eta eta Ikerketa Zientifiko eta Teknikoaren Sustapen eta Koordinazio Orokorrari buruzko apirilaren 14ko 13/1986 Legea. Lege horiek garatzen dituzten xedapenetan eta gai hauei buruz autonomia-erkidegoetako araudian xedatzen dena ere bete beharko da."

9. artikulua 1. idatz-zatiko bigarren paragrafoan aipatzen den legeria sektorialak Konstituzioaren 44.2 artikuluan du jatorria:

"2. Botere publikoek, interes orokorraren mesederako, zientzia eta ikerketa zientifiko nahiz teknikoak bultzatuko dituzte."

Bestalde, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak ikerketari buruzko kapitulu bat ere badu (VII. kapitulu), eta gure ustez azpimarratzekoa da 40. artikulua dioena, esaten duelako ikerkuntza unibertsitateetako langileen eskubidea eta betebeharra dela. Gerora, apirilaren 12ko 4/2007 Legeak aldatu egin zuen aurreko lege hori, eta garrantzi handiagoa aitortu zion ikerkuntzari. Eta lege horren ondorio dira 40.1 artikulua eta inguruko 40.3 artikulua.

"40. artikulua.- Ikerkuntza, unibertsitateetako langileen eskubidea eta betebeharra.

1. Ikerkuntza unibertsitateetako irakasleen eskubidea eta betebeharra da, unibertsitatearen helburu orokorrekin bat eta lege ordenamenduak ezarritako muga barruan gauzatu beharrekoa.

1 bis) Unibertsitateak lagundu eta sustatu egingo du irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiek ikerkuntza zereginak burutu ditzaten.

2. Ikerkuntza batez ere ikerketa-taldeen, departamentuen edo ikerketarako unibertsitate institutuen bidez egingo da, baina kalterik egin gabe unibertsitateek euren garapenerako askatasun osoz sortzea eta antolatzea erabakitzen dituzten egiturei eta norbanakoen ikerketa askeari.

3. Ikerketa jarduera eta dedikazioa eta unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileen garapen zientifikoari, teknologikoari edo artistikoari egindako ekarpena garrantzi handiko irizpidea izango da, eta ebaluatu egingo da, zehaztu ahal izateko zenbateraino den eraginkorra jarduera profesionalaren garapenerako. Unibertsitateak irakaskuntza eta ikerkuntza bateragarriak izateko erraztasunak emango ditu eta irakaskuntza edo ikerkuntza jarduerari dedikazio handiagoa eskaintzea ahalbideratzen duen ibilbide profesionala garatzea sustatuko du.

4. Unibertsitateek irakasleen eta ikertzaileen mugikortasuna sustatuko dute, haien prestakuntza eta ikerketa-jarduera hobetzeko. Horretarako, baimenak eta lizentziak emango dituzte, ezargarria den Estatuko eta autonomia erkidegoko legegialaren esparruaren baitan, eta estatutueta jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta.”

Konstituziogileak eta legegileak ikerkuntza jarduerari aitortutako interes orokorra da hain zuzen ere adostasunik behar ez dela arrazoitzeko motiboa (DBLOren 11.2 e) artikuluan jasotako salbuespena).

Hala ere, ikerkuntza jarduera aipatzea ez da nahikoa 11.2 e) artikuluko salbuespena onartzeko, goi-kargudunen erregistroa atzitzeko eskabidea egin duenak salbuespen horixe ezartzeko eskatzen badu ere. Hasteko, lagatzailea eta lagapen hartzailea administrazio publikoak izan beharko dira; eta, bestetik, lagapen hartzaileak helburu estatistikoa, historikoa edo zientifikoa izan beharko du datua tratatzeko.

Kontsultatu diguten kasuan eskatzaileak “*Madrialeko Unibertsitate Autonomoko gobernu korporatiboari buruzko ikerketa taldea*” zuzentzen du. Ikerketa proiektuak egiteko egin izan diren eskaerak aztertzean, datu babesaren esparruko agintaritzek ulertu dutena izan da administrazio publikoek sailei, unibertsitate institutuei eta ikerketa taldeei egindako datu lagatzeak bakarrik direla administrazio publikoen arteko datu komunikazioak, eta interesdunaren adostasunik gabe egin daitezkeela. Era berean, pentsatu izan dute ikerketa lana ez dela irakasle bakarraren kontua izan behar, erakunde batena baizik; eta pertsona bakarrak eginez gero ikerketa lana, ukituen adostasuna beharko da datuak lagatzeko.

Kontsulta-idazkiak dio eskatzailea ikerketa talde bateko zuzendaria dela; eta, beraz, hori hala bada, betebeharrak subjektiboa betetzen dela ulertu behar dela. Hala ere, benetan hala dela bermatzeko, pertsona horri eskatu ahal zaio Madrileko Unibertsitate Autonomoaren egiaztagiri bat aurkezteko, bertako ikerketa talde bat dela frogatzeko.

Ikerketaren helburu zientifikoari dagokionez, gogoratu behar dugu Eusko Jaurlaritzako Finantza Zuzendaritzak jasotako eskabidean esaten dela proiektuaren helburu zientifikoak burutzeko egin dela eskaera. Ikerketa proiektuaren izena “Gobernu korporatiboa, kapitalen merkatuak eta finantza krisia” da, eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatuta dago 2013-2015 epe aldirako (ECO2012-32554 erref.).

Ministerioaren web orrian begiratuta, eskatzaileak esandakoa egia dela ikus daiteke; izan ere, “Gobernu korporatiboa, kapitalen merkatuak eta finantza krisia” ikerketa proiektua (ECO2012-32554 erref.) web orrian agertzen da, eta “Zuzendu gabeko oinarritzko ikerketa proiektuen azpiprograma-2012ko deialdiko” diru laguntza baten onuraduna dela 2014ko abenduaren 31n bukatzen den exekuzio epea duela ere jasota dago. Edozelan ere, uste dugu eskatzailea arduratu behar dela bere eskaera arrazoitze dokumentazioa aurkezteaz.

II

Kasu honetan ukituen adostasunik zergatik ez den behar aztertu eta gero, ezinbestean aztertu behar dugu orain zein den atzitu nahi den informazioa. Eskaera-idazkiak *“Aurrezki Kutxetako goi-kargudunen erregistroan sartzeko baimena eskatzen du, 2004tik gaur egunera arte”*, *“Gobernu korporatiboari buruzko ikerketa egiteko behar den informazioa (aurrezki kutxetako aholkularien eta goi-kargudunen profila) delako”*.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen ekainaren 14ko 11/2012 Legeak 76. artikuluan arautzen du goi-kargudunen erregistroa:

“76. artikulua Goi Kargudunen Erregistroa

1.- Kutxek beren gobernu-organismoetako kide bakoitzaren eta zuzendari nagusien izendapen, kargu-uzte eta berrautaketaren berri eman beharko diote finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, 15 eguneko epean.

2.- Sail horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxetako Goi Kargudunen Erregistroa izango dute, eta komunikazio horiek denak hara bidaliko dira, inskribaturik utz ditzaten, indarrean dagoen arauan zehazturiko moduan eta epeetan.

3.- Inskripzioak eragingo dituen ondorioak lege honetako 11. artikuluan jasota daudenak dira”

Legearen 11. artikulua honakoa xedatzen du:

" 11. artikulua.- Aurrezki Kutxen Erregistroa.

1.- Finantza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroa izango du, eta bertan hauek agertuko dira, nahitaez:

a) Erakundearen izena.

b) Helbidea.

c) Pertsona edo erakunde fundatzaileen identifikazioa.

d) Erakundea arautzen duten estatutuak eta erregelamenduak.

Honako hauek ere inskribatuko dira, erregelamendu bidez ezarritako eran: estatutu-aldaketak, xurgatzeak, bat-egiteak, lege honetako I. tituluko III., IV. eta V. kapituluetan jasotako erakunde-antolamenduari buruzko aldaketak, desegiteak eta likidatzeak, eta, halakorik egonez gero, jarritako zehapenak.

2.- Euskadiko Aurrezki Kutxen Erregistroa publikoa izango da. Interesa duen edonork eskuratu ahal izango ditu erregistro horretan ageri diren datuei buruzko egiaztagiriak.

3.- Aipatutako inskripzioen ondorioek ez diete kalterik ekarriko, edo eragozpenik eragingo, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera nahitaez egin beharreko beste inskripzio batzuetatik eratorritako ondorioei."

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxen urriaren 14ko 240/2003 Dekretuak goi kargudunen erregistroa arautzen du 12. eta 13. artikuluetan:

"12. artikulua.- Egitura

Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten Aurrezki Kutxetako Goi Karguen Erregistroak inskripzio-liburu bat izango du kutxa bakoitzerako. Liburu bakoitza lau ataletan banatuko da eta hauetan honakoa jasoko da, hurrenez hurren: Batzar Nagusian, Administrazio Kontseiluan, Kontrol Batzordean eta Zuzendaritza Nagusian karguren bat duten pertsonen buruzko informazioa.

13. artikulua. Edukia.

Goi Karguen Erregistroan honako informazio hau jasoko da, gutxienez:

a) Kutxetako gobernu-kontseiluan karguren bat duten pertsonen zerrenda, bai eta Zuzendari Nagusi edo antzekoaren kargua dutenena ere.

b) Aurrezki-kutxaren egiaztageria, kargurako betekizunak betetzen direla eta bate-raezintasun edo mugapenik ez duela agertzen duena.

c) Administrazioari arau-hausteak egin dituztenei jarritako zehapenak.”

Dekretuaren 13. artikulua xedatzen du goi karguen erregistroen gutxieneko edukia, eta edukiaren zati bat da administrazio arau-hausteei buruzko informazioa. Horrelako informazioa badago tartean, DBLOren 7.5 artikulua xedatutakoa hartu behar da kontuan:

“Arau-hauste penal eta administratiboen inguruko izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publiko eskudunen fitxategietan bakarrik jaso daitezke, kasuan kasuko arauetan ezarritako kasuetan.”

Auzitegi Nazionalaren 2010eko urriaren 6ko Epaia oso agigarria da. Epaia aztertzen duen kasua da “bezero potentzialen” fitxategi bat zuen enpresa batena, eta fitxategiak trafikoko zehapenei eta bide segurtasunari buruzko aldizkari ofizialetan argitaratutako ediktua zituen. Epaia ebatzi zuen hori egitea DBLOren 15/1999 Lege Organikoaren aurkako portaera zela. Hona epaiak dioena:

“(…) ez da zilegi eta debekatuta dago halako fitxategiak sortzea, hau da, trafikoko zehapenekin lotutako fitxategiak sortzea, horren gaineko eskumena duen administrazio publikoa ez bada. Kontuan izan “bezero potentzialak” fitxategian jasotako datuak dauden web orriak aukera ematen duela “2,5 milioi isunen bilaketa bat egiteko,” hau da, aukera ematen duela beste administrazio huts batzuegatik ezarritako beste hainbeste zehapenen arteko bilaketak egiteko; beraz, fitxategi horretan jasotako datuak tratatzea, ikusita edonork eskuratu ditzakeela www.autoplus.es web gunean, eta ikusita bilaketak nola egin daitezkeen, ez da bateragarria DBLOren 7.5 artikuluan xedatutakoarekin.

Berdin dio datu horiek jendearen eskurako iturri diren (DBLOren 3 j) artikulua) aldizkari ofizialetatik datozen ala handik jaso diren. DBLOren 6.2 artikulua esaten badu ere, ez dela ukituaren adostasunik beharko datuak tratatzeko, datuak jendearen eskurako iturrietan daudenean, esan behar da hau bezalako kasuetan ezin dela salbuespen hori ezarri, datu hauek DBLOren 7.5 artikuluan xedatutako arauaren babesa dutelako. Beraz, datuen jatorria publikoa izatea ez da nahikoa arrazoi, aztertzen ari garen kasuan bezala, entitate pribatu batek administrazio zehapenak fitxategi batean jasotzeko (2,5 milioi trafiko isun baino gehiago) eta datu horiek tratatzeko. Hori administrazio publikoek egin dezakete bakarrik, eta bertako araudi erregulatzailean aurreikusita baldin badago. Ondorioz, esan behar dugu portaera hau DBLOren 7.5 artikuluan xedatutakoaren kontrakoa dela.”

Gure ustez, eta aurreko gogoeta guztiak kontuan hartuta, goi-kargudunen erregistro datuak eskuratu daitezke, baina ezin izango da eskuratu administrazio zehapenen gaineko informaziorik. Era berean, ezin izango dira eskuratu DBLOren 7.2 eta

7.3 artikuluetan jasota dauden bereziki babestutako datuak, legegileak babes berezia ezarri dielako:

“2. “Ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio eta sinesmenaren berri ematen duten datu pertsonalak ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin bakarrik trata daitezke. Horren salbuespen dira politika-, filosofia-, erlijio- edo sindikatu-izaerako xedea duten alderdi politikoen, sindikatuen, konfesio edo erkidego erlijiosoen eta elkarteen, fundazioen nahiz irabazteko asmorik gabeko beste entitate batzuen fitxategiak, euren kideen inguruko datuei dagokienez; hala ere, datu horiek laga daitezten ukituak aurretiaz emandako adostasuna behar da beti.

3 Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori.”

Gure ustez, DBLOren 11.2 e) artikuluko salbuespena ezin da baliatu era horretako dokumentazioa eskuratzeko.

Baina, helburu zientifikoa duen ikerketa bat egiteko datu eskabide bat denez, kontuan har daiteke informazioa modu disoziatuan egiteko aukera dagoela. DBLOren 3 f) artikulua azaltzen du disoziazio prozedura zer den:

“f) Disoziazio prozedura: datu pertsonalen tratamendu oro, baldin eta lortzen den informazioa ezin bada lotu pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri batekin.”

Helburu zientifikoa lor badaiteke informazio disoziatuaren bidez, datu babesari buruzko araudiaren aldetik ez da trabarik egongo datuak lagatzeko, hala xedatzen baitu 11. artikulua datu lagatzeak xedatzean, 6. puntuan:

“Komunikazioa egin aurretik disoziazio-prozeduraren bat egin bada, ez da aplikatuko aurreko paragrafoetan ezarritakoa.”

Horregatik guztiagatik, datu pertsonalak utzi aurretik, aztertu beharko da ea helburua lor daitekeen disoziatutako informazioaren bidez; hala bada, ez dago eragozpenik, datu babesari buruzko alderdiari dagokionez.

4. PARTIKULARREK ADMINISTRAZIO INFORMAZIOA ATZITZEA

4.2. HAUTAKETA PROZESUETAN

Hautaketa prozesuetako parte hartzaileen datu pertsonalak lagatzea

Data: 2009-10-26

CN09-046

XXXXX-(e)k, hautaketa-prozesuetako parte hartzaileen datu pertsonalak lagatzea legezkoa den ala ez galdetuz egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: XXXXX-(e)k idazki bat bidali zion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari. Idazkiak honakoa zioen:

“Honako idazkia helarazten dizugu zuen laguntza eskatzeko argitzeko, ea zein informazio eman behar zaien eta zein eman ahal zaie sindikatu-ordezkariei hautaketa-prozesuetan, eta hala badagokio, ea zein den komunikazioa egiteko modua.

XXXXX-(e)k 2008/2009 ikasturtean egin du lehenengo aldiz lan eskaintza publiko (LEP) bat, eta ez da datu-babesari buruzko gora beherarik egon.

Argitaratu izan diren zerrendak ikusteko, interesdunek NANA eta identifikazio-kode bat erabili behar izan dituzte identifikatzeko. Identifikazio-kodea LEPn parte hartzeko eskaera egitean eman zitzairen. Gainera, zerrendak XXXXX-(r)en iragar-ki-oholean ere argitaratu genituen.

2009ko LEPn berdin jokatu dugu. Deialdia 2009ko apirilaren 27ko EHAA argitaratu zen.

2009ko uztailaren 7an onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda web-orrian (eta web-orrirako NANA eta identifikazio-kodea eskatzen ziren) eta XXXXX-(r)en egoitzako iragarki-oholean argitaratu zen.

XXXXX-(e)n ordezkaritza duten sindikatuetak batek eskatu digu onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen zerrenda bidaltzeko posta elektronikoz eta/edo zerrenden kopia bat helarazteko.

Guk erantzun diogu ezin diegula zerrendarik bidali posta elektronikoz, datu pertsonalak babesteko zeragatik. Hain zuzen ere, zerrenda horietara sartu ahal izateko, HAAE-IVAPek kudeatzen duen aplikazio bat erabiltzen da, eta NANA eta identifikazio-kode bat eskatzen ditu. Identifikazio-kodea eskabidea egiten duenean unean esleitzen zaio parte-hartzaile bakoitzari. Era berean, esan diegu iragarki-oholean ere eskuragarri dagoela zerrenda, eta, beharrezkoa izanez gero, XXXXX-(r)en egoitzara joan daitezkeela behar dituzten datuak egiaztatzen. Gai-

nera, Langileen ardura duen pertsona ere prest agertu zen eskatutako datuak emateko egoitzara joan beharrik gabe.

Kontuan izanda, XXXXX-(e)k ez duela dokumentaziorik ukatu nahi eta sindikatu-ordezkarien eskubiderik urratu nahi. Aitzitik, XXXXX-(e)k, eguneroko kudeaketaren arloko eginkizunetan langileen datu pertsonalak babesteko betebeharrak zaintzeko asmoa eta interesa izateaz gain, sindikatu-ordezkaritzaren eskubidea bermatu nahi du. Hori dela-eta, eskatzen dizuegu auzi hau argitzeko, legearen eskakizunak kontuan hartuta jardun dezagun.

Bukatu aurretik, Langileen Estatutuaren 64. artikulua arautzen dituen zenbait eskubideren gaineko hausnarketa bat egin nahi dugu, azaletik bada ere, hau da, langileen ordezkarien informaziorako eta kontsultarako eskubideei eta eskumenei buruz. XXXXX-(e)k uste du eman duen erantzunak ez dituela horiek urratsen.”

Irizpen-eskaerarekin batera, XXXXX sindikatuak, gai honi berari buruz, XXXXX-(r)i aurkeztu zion idazkia ere helarazi zitzaigun. Uste dugu merezi duela han adierazitakoa hona ekartzea:

“XXXXX-(e)k, sindikatuen informaziorako eskubidearen eta datu-babeserako eskubidearen arteko oreka dela-eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egin dion kontsultaren berri izan dugunez, idazki honen bidez hainbat ohar egin nahi ditugu, kontuan hartuko direlakoan eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoko teknikariei eta abokatuei helaraziko zaizkielakoan. Hona hemen:

1.- Sindikatu honek zintzotasunez jokatu izan du beti datu-babeserako eskubide-tik eratorrirako betebeharrekin.

2.- Uste dugu datu-babesaren arloan ezartzekoa den legediak ezin duela murriztu lan eta ekonomia arloko informaziorako eskubidea eta, oro har, sindikatuen intereseko informaziorako eskubidea, legeen bidez ezarritako eskubidea izanik.

3.- Behartuta gaude, gure erantzukizunpeko esparruaren barruan, zenbait informazio zehazkia handiz eta legeak ezarritako kontuarekin erabiltzen; baina enpresa-esparruak, pribatuak nahiz publikoak, ezin du erabaki informazioa ukatzea, balizko datu-babesaren aitzakiarekin.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu ez dugula onartuko, inondik ere, auzi honen gaineko bestelako interpretaziorik, halakorik onartuz gero, gure eskubide sindikalak oinarririk gabe murrizteko baimena ematen egongo ginatekeelako. Horretaz gain, gogorarazi nahi dugu honelakorik ez dela gertatu orain arte beste inon, guk dakigula, eta gure aldetik zehaztu genuela LEPn aurkeztu ziren pertsonen zerrenda eskatu genuela gure afiliatuak identifikatzeko. Beraz, harrigarria egiten zaigu esparru honetan legezko ordezkaritza dugun sindikatuoi informazio hori ukatzea, batez ere kontuan izanik beti jokatu dugula zehazkia handiz arlo horretako legedi

ezargarriarekin, eta jakinik matrikulatuta dagoen edonork ikus ditzakeela zerrendak osorik identifikazio-kodea erabilia.”

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta honetan argitu beharreko auzia da ea legearen arabera den XXXXX-(e) k sindikatu bati lagatzea hautaketa-prozesu batean onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen zerrendako datuak, adostasunik gabe.

XXXXX partzuergo publiko bat da, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko udalen izenean eta ordezkaritzan, eratu zuten 2003ko irailean, bertako udalerrietan 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzako haur eskolak sustatu eta kudeatzeko.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 3.i) artikulua lagapenari buruzko definizio hau ematen du: *“Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea.”*

Datu-lagatzeak DBLOren 11. artikuluan arautzen dira oro har. 1. idatz-zatiak adostasunaren betekizuna eskatzen du eta 2. idatz-zatiak, ordea, betekizun horren salbuespenak.

“11. artikulua. Datu-komunikazioa.

1. Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotutako dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango hone-lako kasuetan:

Lege batek baimentzen badu lagapena.

Jendearen eskurako iturrietatik hartutako datuak badira.

Harreman juridiko bat askatasunez eta modu legitimoan onartzearen ondorioz egiten den datu-tratamendu bat bada, eta harreman juridiko hori garatzeko, betetzeko eta kontrolatzeko ezinbestekoa bada datu-tratamendua hirugarrenen fitxategiekin konektatzea. Kasu honetan komunikazioa legitimoa izateko, komunikazioaren oinarrian dagoen helbururako baino ezingo da egin konexioa.

Komunikazioaren hartzailea Herriaren Defendatzailea, Fiskaltza edo Epaileak edo Epaitegiak edo Herri-Kontuen Epaitegia badira, eta esleituta dauzkaten eginkizunetarako behar badituzte. Era berean, ez da adostasunik beharko komunikazioaren hartzaileak Herriaren Defendatzailearen edo Herri-Kontuen Epaitegiaren antzeko eginkizunak dauzkaten erakunde autonomikoak badira.

Lagapena administrazio publikoen artean egiten bada eta lagatzearen helburua bada gero datu horiek xede historiko, estatistiko edo zientifikoarekin tratatzea.

Osasunari buruzko datu pertsonalak lagatzea ezinbestekoa bada fitxategi batera sartzea eskatzen duen larrialdi bat konpontzeko edo ikerketa epidemiologikoak egiteko, beti ere estatuko edo autonomia erkidegoko legediak ezarritakoa kontuan hartuta.”

Hasteko, deialdiaren oinarriak aztertuko ditugu. XXXXX-(r)en Zuzendaritza-Batzordearen 2009ko martxoaren 18ko 09/02-2009 erabakiaren bidez (2009ko apirilaren 27ko EHAAn argitaratu zen), hezkuntzako langileentzako lan-kontratu finkoko 235 lanpostu betetzeko oposizioaren deialdia egin zen. Deialdiko oinarrien 5. puntuak arautzen du izangaien onarpena. Hona hemen 1. atalak dioena:

“Eskariak aurkezteko epea amaituta, XXXXX-(e)ko Gerentziak 20 egun naturaleko epean onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda adieraziz. Zerrenda hori XXXXX-(e)ko web orrian (www.haurreskolak.net) eta egoitzan (XXXXX) argitaratuko da.

Zerrendan honako datu hauek agertu beharko dute: abizenak eta izena, nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo horren antzekoa atzerriko nazionalitatea dutenen kasuan eta izangaiak zein txandatan hartzen duen parte; baztertuen kasuetan, baztertua izateko arrazoia.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen duen erabakia argitaratuz, egintzat joko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua ezartzen denaren arabera.”

Deialdiko oinarriek finkatu zuten datuak era mugatuan argitaratuko zirela, hau da, ez zen aurreikusi zerrendak aldizkari ofizialetan argitaratzerik (hala eginez gero, jendearen eskurako iturri izango baitziren), XXXXX-(e)ko webean eta erakundearen egoitzako

iragarki-oholean baizik. Beraz, gauzak horrela, ezin da interpretatu prozesu honetan parte-hartzeagatik datuak era masiboan lagatzeko adostasunik adierazten zenik. Gainera, kontuan hartu behar da kontsulta-idazkiak dioela zerrenda ikusi ahal izateko, NANA eta kode bat behar direla, eta kode hori izena emateko unean esleitzen zaiola izangai bakoitzari. Beraz, besterik ezean, adostasunik gabeko lagapenak egin ahal izateko, hori egiteko gaikuntza ematen duen legeren bat topatu behar da nahitaez, azken finean, sindikatuak eskatzen duena datu-komunikazio bat da.

XXXXX-(e)k jada doktrinan jasota dagoen irizpidea erabili du aztertzen ari garen kasu honetan. Datu Pertsonalak Interneteko Aldizkari Ofizialetan, Erakunde Web-orrietan eta Bestelako Bitarteko Elektronikoko eta Telematikoko argitaratzeari buruzko Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziaren apirilaren 25eko 2/2008 Gomendioaren 7.2 eta 15.4 artikuluek honako xedatzen dute:

“7.Publicitate printzipioak gobernatzen duen kasuetan, datuak babesteko araudia aintzat hartuko da, administrazio prozeduran interesa dutenek prozedura horretan dauden datu pertsonalak atzitu ahal izateko, baldin eta datu horiek administrazio publiko batek edo eskumena duen beste administrazio organo batek argitaratzen baditu erakunde-webean edo beste bitarteko elektronikoko edo telematikoen bidez, eta nahitaezko balditzen artean ezarri bada datuak atzitu nahi dituen herritarra identifikatu eta autentifikatu egin behar dela, eta horretarako, sinadura elektronikoko aurreratuko sistemak erabili behar badira, adibidez, nortasun agiri nazionalak dauzkanak, edo beste batzuk, esate baterako, administrazioak alde aurretik esleitutako sarbide-gako pertsonalizatu bat erabili behar bada, edo alde biek bakarrik ezagutzen duten informazioa eman behar bada, edo antzeko beste mekanismo batzuk.”

Izapide-egintzen argitalpenen auzia aztertzean, jarraibidearen 15.4 artikulua honakoa xedatzen du: *“sarbide sistema horien bidez bermatu beharko da hautaketa-prozesuko interesdunak baino ez dituztela atzituko prozedura horrekin lotutako hirugarren pertsonen datu pertsonalak. Eta hori egin ahal izateko, nahitaezko betekizuna da atzipena egiten duen herritarra identifikatzea eta autentifikatzea, eta, horretarako, sinadura elektronikoko aurreratuko sistemak erabili beharko dira, adibidez, nortasun agiri nazionalak dauzkanak, edo beste batzuk, esate baterako, administrazioak alde aurretik esleitutako sarbide-gako pertsonalizatua, dagokion pasahitzarekin, edo alde biek bakarrik ezagutzen duten informazioa eman beharko da, edo antzeko beste mekanismo batzuk.”*

II

XXXXX-(e)k erabilitako irizpideak datu-babesaren arloko araudia betetzen dutela ikusi ostean, bidezkotzat jotzen da aztertzea ea badagoen legerik onartuen eta baztertuen zerrendako datu pertsonalak erakunde sindikal bati lagatzeko gaikuntza ematen duenik.

Puntu hau aztertzeko, eta XXXXX-(r)en izaera juridikoa ikusita, aztertu behar dugu zein eskumen esleitzen dien Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua onartzen duen api-

rilaren 12ko 7/2007 Legearen (aurrerantzean EPOE) 40. artikulua langile-batzordeei eta langile-ordezkariei.

“1. Langileen batzordeek eta langileen ordezkariak, hala dagokienean, honako eginkizun hauek izango dituzte, bakoitzak bere eremuan:

Informazioa jaso behar dute langileen gainerako politikari buruz, eta datuak bereganatu ordainsarien eboluzioaz, dagokion eremuko enpleguak izan dezakeen eboluzioaz eta errendimendua hobetzeko programez.

Txostena egin behar dute, dagokion herri Administrazioak hala eskatzen die-nean, instalazioak osorik edo zati batean beste norabait eramaterakoan, edo antolamendu-sistemak eta lan moduak ezarri nahiz berrikusterakoan.

Falta oso astunak egiteagatik ezarritako zehapen guztien berri izan behar dute.

Jakinaren gainean egon behar dute eta beren iritzia eman, lanaldia nahiz lan-ordutegia finkatzerakoan, baita baimen eta oporretarako araubidea zehazterakoan ere.

Indarrean diren arauak betetzen direla begiratu behar dute lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa, Gizarte Segurantza eta enplegua direla-eta, eta, hala dagokienean, lege aldetik egoki diren akzioak baliatu behar dituzte organismo eskudunetan.

Dagokion Administrazioarekin lankidetzan jardun behar dute, produktibitateari eusteko edo produktibitatea handitzeko hartu beharreko neurri guztiak hartzeko.

2. Langileen batzordeek, kide anitzeko organo modura, kideen gehiengoz hartutako erabaki bidez, eta, hala dagokienean, langileen ordezkariak, era mankomunatuan, zilegitasuna izango dute, interesdun gisa, hasi beharreko administrazio prozedurak hasteko eta beren eginkizunen eremuari dagokionez administrazio-bidean nahiz jurisdikzio bidean akzioak baliatzeko.”

Datu pertsonalak babesteko eskubidearen eta sindikatu askatasunerako eskubidearen arteko gatazka bat da honako hau.

Konstituzio Auzitegiak honako adierazi du auzi horren gainean martxoaren 12ko 70/2003 Epaian:

“Eskubideak ez dira erabatekoak edo mugagabeak, nahiz eta oinarrizko eskubideak izan. Zenbaitetan eskubidea aldarrikatzen konstituzio manuan berak jartzen ditu berariaz muga horiek; beste zenbaitetan, ordea, konstituzioaren babesa merezi duten eskubide edo ondasunak babestu eta zaindu beharrak ezartzen ditu (KAren apirilaren 8ko 11/1981, urtarilaren 29ko 2/1982, martxoaren 15eko

91/1993, apirilaren 11ko 110/1994, otsailaren 23ko 52/1995 eta otsailaren 17ko 37/1998 epaiak)."

Sindikatu askatasunak ez dakar berez araua betetzetik salbuestea. Beraz, aurrez aurre dauden bi eskubide horiek neurtu behar dira eta tartean dauden inguruabarrak kontuan hartuta, erabaki zein diren gehien babestu beharreko interesak.

III

Sindikatu askatasunerako eskubidea Espainiako Konstituzioaren 28.1 artikuluan dago jasota eta Sindikatu Askatasunari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoak garatzen du. Lege horren 2.1 artikulua dio sindikatu askatasunak sindikatu jarduerarako eskubidea biltzen duela, beste batzuen artean, bere baitan. Bestalde, Herri administrazioen zerbitzuan diharduten langileen ordezkaritza-organoak, lan-baldintzak eta partaidetza arautzen dituen ekainaren 12ko 9/1987 Legearen 9. artikulua xedatzen du langile batzordeek eta langile ordezkariak hiru hilean behin sailaren, organismoaren edo toki erakundearen langile-politikari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dutela.

Egun indarrean dagoen EPOEk indargabetu egin du aurreko arau hori. Edukia jasota dago lehen transkribatu dugun EPOEren 40. artikuluan, ezen langile-batzordeek eta langile-ordezkarien langile-politikari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea baitute.

Konstituzio Auzitegiaren doktrinak adierazten du sindikatu-jardueraren eginkizunen artean dagoela enpresako sindikatuko kideak zuzenean nahi zeharka laneko harremanetan eragina duten edo eragina izan dezaketen gai guztien jakitun egotea. Zehatza esanda, 2002ko azaroaren 11ko 213/2002 KAEk xedatzen du sindikatu-ordezkariek zuzenean nahiz zeharka laneko harremanetan eragina duten edo eragina izan dezaketen gai guztien jakitun izan behar dituztela haiek ordezkatzeko dituzten pertsonak. Horretaz gain, Konstituzio Auzitegiak ekainaren 19ko 94/1995 (4. gogoeta juridikoa) eta azaroaren 25eko 168/1996 (6. gogoeta juridikoa) epaietan adierazi du sindikatuaren eta afiliatuan arteko informazio joan-etorria "*parte-hartzearen oinarrian dagoela, fundametzko sindikatu-jardueraz baliatzea ahalbideratzen duela eta, azken finean, sindikatu askatasunerako oinarritzko eskubidearen funtsezko osagaia dela.*"

Ikuspuntu horretatik begiratuta, komeni da Auzitegi Nazionalaren 2007ko abenduaren 19ko epaia aipatzea, batez ere, seigarren gogoeta juridikoa:

*"Behin honaino helduta, eta goian azaldu dugunez, aurrez aurre dauden eskubideen inguruabarrak aztertu eta gero, aurrez aurre dauden interesak ondo neurtu beharra egokitzen da orain; eta, kasu bakoitzeko ingurumariak kontuan hartuta, erabaki zein den babesik handiena behar duen interesa: **datuak babesteko** eskubidearen titularraren interesa -errekurritutako zehapena horregatik jarri zen- ala errekurtsioa jarri duen sindikatuarena; izan ere, sindikatuak, konstituziotik eratorritako sindikatu-jardueraz baliatzean egindakoen berri eman behar baitu.*

Aztertzen ari garen kasuan behintzat, **datu-babeserako** eskubideak ez du uzten salatzailearen **datu pertsonalak** -izena eta abizenak- intranet korporatiboan jar-tzen, 15/1999 Lege Organikoaren 6.1 artikulua xedatzen duen adostasun garbia falta bada, artikulua horren bigarren idatz-zatiko salbuespenik ezin delako ezarri. Hala ere, zehapenak duen babes hori ezin da erabili, lantokiko atal sindikalak -kasu honetan lantokia Caja Canarias da- zabalduko oharren xedea -nahiz eta salatzailearen datu pertsonalak jaso-, sindikatuaren eta afiliatuen eta sindika-tu-ordezkarien eta langileen arteko harreman-fluxua hobetzea bada, fundamen-tuzko sindikatu-jardueraz behar bezala baliatzea ahalbideratuz eta, aurreko go-goeta juridikoetan transkribatu dugun doktrina konstituzionalak esaten duenaren arabera, demokrazia eta aniztasun sindikala garatuz, **sindikatu askatasunerako** oinarritzko eskubidearen funtsezko osagai honen bidez.

Datu pertsonalak babesteko eskubidea izateak norberaren **datu pertsonalen** gainera boterea izatea eta datu horien gainera erabakiak hartzeko gaitasuna izatea dakar, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeak: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati. "Norberaren **datu pertsonalak** kontrolatzeko eta horien gainera erabakiak har-tzeko boterea datu babeserako oinarritzko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasunek gauzatzen dute juridikoki: **datu pertsonalak** biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak eta, ge-roago datu horiekin egiten diren biltegiratzeen eta tratamenduen gainera ados-tasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek" (azaroaren 30eko 292/2000 KAEn zazpigarren gogoeta juridikoa), eta bertan behera geratu behar da **sindi-katu askatasunerako eskubidea**ekin alderatzen denean, kasu honetan gerta-tzen den bezala; izan ere, sindikatu-jarduerari dagokion informazio bat ematea baita xedea, eta ezinezkoa izanik hori egitea dena delako datu pertsonala eman gabe. Gainera, laneko esparrura mugatutako kontu bat da.

Beraz, ez du zentzurik sindikatuaren baitan sindikatu-jardueraren ondorioz ger-tatutako egintza batzuei buruzko kereila kriminal baten gainera txostena egi-teak, ezinezkoa bada esatea kereila noren kontrakoa den, enpresako sindika-tuko kideak informatuta egon daitezen eta jakin dezaten eta balioztatu dezaten, horretarako behar diren datuekin, zein liskar sortu diren sindikatu jardueraren ondorioz, edo ez horren ondorioz, eta zein eragin izango duten ukituen geroko egintzetan, egintzok datu hori jakin behar dutelako ondo ulertzeko.

Era berean, komeni da aipatzea interesak neurtzeko orduan kontuan hartu be-har den beste elementu bat dela informazio-oharrean jasotako informazioa zein esparrutan hedatzen den. Hedapena enpresan egin da, hau da, lantokiko espa-rruan; eta Sindikatu Askatasunari buruzko Legearen 8. artikulua xedatzen due-nez, esparru horretan jaso daiteke sindikatu-jardueratik eratorritako eta langileei eragiten dien gaien buruzko informazioa. Bestalde, kontuan izan behar da oharra erakundearen webean argitaratu zela, eta web hori finantza entitate horretako (Caja Canarias) langileek baino ezin dute ikusi.

Beraz, **sindikatu-askatasunerako eskubideari** dagokionez -eta esan behar da **Datuak Babesteko** Agentziak ez duela hori balioztatuko-, esan behar da **datu pertsonalak babesteko** eskubidearen gainetik dagoela, baldin eta aztertu dugun bezalako kasuan bezala, sindikatu-jarduerak errekurtsioa aurkeztu duen sindikatuak egindakoa babesten badu, hau da, berria ulertzeko datuak banatzea zentroetako langileen artean, kontuan izanda berria ulertzeko ezinbestekoak direna baino ez direla argitaratu eta ikuspuntu sindikaletik begiratuta, garrantzi handiko informazioa dela jakinik.”

Andaluziako Justizi Auzitegi Nagusiak orain aztertzen ari garen kasuaren antzeko batean, bi eskubide horien arteko talka balioztatu behar izan zuen. Hona hemen maiatzaren 28ko 1729/2004 epaiaren bigarren gogoeta juridikoan esan zuena:

“Behin eta berriz errepikatutako doktrina konstituzionalak -Konstituzioaren 28.1 artikuluan aldarrikatu zuen konstituzioak (RCL 1978, 2836), eskubide hori- dioenez, eskubide horrek bi osagai ditu: osagaietako bat minimoa eta derogatu ezina da (sindikatu autoantolaketa eta sindikatu-jarduera eta sindikatu-jarduerarako bitartekoak - greba, gatazka kolektiboen sustapena eta negoziazio kolektiboa). Bigarren osagaia, ordea, legeen bitartez osatu beharrekoa da (erakundeetako ordezkariak, hautagaitzak sustatu eta aurkeztea, eta abar). Azken osagai horrek bere baitan hartzen ditu Sindikatu Askatasunerako Legearen 9. eta 10. artikuluetan aitortutako sindikatu-eginkizunetarako eskubideak eta enpresako ordezkari sindikalek haien eginkizunak era eraginkorrean gauzatu ahal izateko zenbait berme eta erraztasun ere aitortzen ditu. Administrazio publikoen kasuan, berme eta erraztasun horien artean honakoa aipatu behar da: langile-batzordeen eta langile-ordezkarien informazio-eskubidea. Gainera, Sindikatu Askatasunari buruzko Legearen 10.3 artikuluan xedatutakoa berdin aplikatuz gero, analogiatatik, eskubide hori berdin-berdin aitortzen zaie administrazio publikoetako lantokietan erabiltzen diren atal sindikalei eta sindikatu-ordezkariari. Sindikatu askatasuna Legearen 9. artikuluan dago zehaztuta. Artikulu horretan jasotako zerrenda ez da zerrenda itxi eta bukatua, irekia baizik; eta aukera ematen du beste batzuk ere gehitzeko, haien zereginetarako eta sindikatu-askatasuna babesteko beharrezkoak badira. Hain zuzen ere, artikuluen 1. idatz-zatia, “langile politikari” buruzkoa dena, hain da orokorra, bertako beste ataletan jaso ez diren alderdiak jasotzeko aukera ematen duela. Alderdi horietako batzuk, informazio eskubideari buruzkoak dira, eta garrantzitsuak izan daitezke aztertzen ari garen kasuan. Izan ere, kasu honetan Cabra-Lucena-Montilla barrutiko lotura-erizainen lanpostuak betetzeko informazioa baitzen (deialdia, parte hartzaileak, hautatutako langileak, epai-mahaia eta erabilitako baremazioa). Sindikatu errekurtsio-egileak informazio hori eskatu zion, bere ordezkari sindikalaren bidez, salatutako erakundeari (Salaketako eta aurkatutako epaiaren lehen gertakari frogatuko 12, 14, 15, 21 eta 22 atalak) eta erakundeak ukatu egin zion informazioa. Informazioa ukatzeko, erakundeak alegatu zuen informazio hori asistentzia eginkizunari eta antolaketari buruzkoa zela. Baina, alegazio hori ez dator bat orain arte esandako guztiarekin, informazio-eskaera ez zelako lotura-erizaintzako zerbitzuaren funtzionamenduari

eta antolaketari buruzkoa, bertan lan egin behar zuten langileen hautaketa-prozesuari buruzkoa baizik. Beraz, informazioa ukatzean, sindikatuak ezin du jakin zein den zehatz-mehatz osasun-barruti horren langile-politika eta sindikaturi dagokion fiskalizazio eginkizunari oztopoak jartzeaz gain, trabak jartzen ditu afiliatuei eta tartean dauden gainontzeko langileei, nahiz eta afiliatuak ez izan, informazioa helarazteko. Azken finean, aldarrikatutako oinarritzko eskubidea urratu da.”

Bestalde, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak behin baino gehiagotan egin izan du sindikatu-askatasunerako eskubidearen eta datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen arteko balioztapena, datu-babesaren esparruko araudia urratzeagatik aurkeztutako salaketan gaineko ebazpenen bidez, eta gehienetan salaketak artxibatzearen alde agertu da, sindikatu-askatasuna gailentzen delakoan.

Aztertzen ari garen kasuan, lehen azaldu dugun jurisprudentzia ikusirik, uler daiteke onartuen eta baztertuen zerrenda bat ematea sindikatu bati legezkoa dela, eta EPOE-ren 40.1 artikulua dela lagapen hori gaitzen duena, artikulua horrek xedatzen duelako langile-politikari buruzko informazioa jasotzea langile-batzordeen eta langile-ordezkarien eginkizuna dela.

Edozelan ere, komenigarria da gogora ekartzea Auzitegi Gorenaren 2007ko azaroaren 27ko epaia, 2044/2004 kasazio-errekurtsoa (Hirugarren gogoeta juridikoa) ebazten duena.

“Bada, eduki gehigarri horren barruan sar daiteke, beti ere administrazio publikoaren esparruan, langile politikari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. Legearen 9. artikulua langile-batzordeen eta langile-ordezkarien bidez bideratzen du eskubide hori.

Kasu honetan, eta espedientean nahiz Madrileko Udaleko Enplegu-mahaiko idazkariaren egiaztagirian ikus daitekeenez (demandatzaileak ez du hori zalan-tzan jarri), sindikatu errekurtsio-egileak eskura izaten zituen eskatutako datuak Enplegu-mahiaren aldizkako ohiko bileretan. Beraz, sindikatuaren informaziorako eskubidea erabat gauzatzen zen, ezin baitezake eskatu informazioa legezkoak ez den beste bide batetik jasotzea.

Gauza bat da pertsonalari buruzko politikaren gaineko informazioa ukatzea, eta beste bat da informazio hori ukatzea eskubidea ez delako egin legez ezarritako moduan. Eta kasu honetan horixe gertatu da. Beraz, ez du sekula urratuko sindikatu-ekintzarako eskubidea...”

Doktrina horrekin azpimarratu nahi dugu oso garrantzitsua dela datu-eskeak eskaera legez egin dezakeenaren izenean egotea, hau da, langile-batzordearen edo langile-ordezkarien izenean egotea. Izan ere, halakoetan baino, eta baldin eta arrazoitzen badute sindikatu-eginkizunerako behar dituztela datuak, izango delako legearen arabera datu-lagapena. Beraz, sindikatuak alegatu dituen zenbait arrazoi ezin dira oinarritzko eskubidearen gainetik egon. ELA sindikatuak dio azken datu-eskaeraren xedea, hau da, hurrengo EPEn parte hartzeko izena eman duten pertsonen zerrenda eskatzearen

xedea dela “afiliatuak identifikatzea”. Helburu horrek ez du gaitzen zerrendaren lagapena, eta erakundeak afiliatuengandik lortu beharko du informazio hori, eta ez du lagapen masibo bat jasotzeko eskubiderik, gerta zitekeelako hautaketa prozesuan parte hartuko dutenen artean ez egotea inor sindikatuan afiliatuta.

Aurreko gogoeta juridikoak kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak, honakoa xedatzen du:

ONDORIOA

XXXXX-(e)k antolatutako hautaketa-prozesuetan onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda langile-batzordeari eta langile-ordezkariei lagatzea ez dago datuak babesteko araudiaren kontra, txosten honetan jasotako baldintzen arabera.

Norgehiagoka prozesu batean gainontzeko parte-hartzaileen datuak atzitzea

Data: 2012-09-11

CN12-024

Hautaketa prozesu bateko parta hartzaile batek beste parte hartzaileei buruzko datuak eskura ote ditzakeen galdetuz, XXXXX Udalak egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2012ko uztailaren 16an XXXXX Udaleko idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkiak zera zioen: "... Udal honetan 2012ko uztailaren 9ko sarrera-datadun eta 1.017 zenbakidun eskabidea helarazten dizuegu. Eskabidea aisialdiko zenbait begirale kontratatzeko hautaketa prozesuari buruzkoa da. Horrez gain, espedientearen kopia bat eta aurkeztu diren hautagaien titulazioari eta esperientziari buruzko zerrenda ere bidaltzen dizkizuegu."

BIGARRENA: Egun horretan bertan, udalak telefonoz erantzuteko eskatu zuen, pre-sazkoa zelako, eta, horregatik, erantzun egin zitzaion 2012ko uztailaren 16an. Edoze-lan ere, esan genion irizpen bat egingo genuela idatziz, jasotzeko ahoz esandakoa.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko batek datu babesari buruz egin digun galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Hasteko, esan behar da planteatu diguten gaiak zer ikusi gehiago duela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen dituen fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidearekin, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin baino. Kontsultaren edukia ikusi eta gero, eta kontsultari atxikitako arrazoiaketa juridikoa ikusita, argi dago

hala dela. Edozelan ere, administrazio zuzenbidearen esparruko auzia bada ere, eta ez hainbeste datu-babesaren esparrukoa, hainbat ohar egin beharrean gaude, udal kontsulta egileari laguntzeko asmo hutsez.

II

Kontsultan aipatzen den datu-tratamendua datu-komunikazioa edo datu-lagatztea da, hala xedatzen baitu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3 i) artikulua:

“Interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea.”

DBLOk dioenez, datuak lagatzeko bete behar den arau orokorra adostasuna da:

Hona hemen 11.1 artikulua xedatzen duena:

“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotutako dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.”

Bigarren artikuluko 2. idatz-zatian arau orokor horrek dituen salbuespenak arautzen dira, eta gure kasuan a) atalak xedatutakoa kontuan hartu beharrekoa da:

“Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Kasu honetan datu-lagatztea gaitzen duen legea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea da. Zehatzago esanda, Legearen 35 a) eta 37 artikulua.

“35 a) artikulua: Herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan eskubide hauek dituzte:

Herritarrek, prozedura batean interesatu izaera dutenean, tramitazioa zertan den edozein unetan ezagutzeko eskubidea dute eta prozedura horietako agirien kopia lortzeko eskubidea dute.”

37.1 artikulua honakoa xedatzen du:

“Herritarrek erregistroetara jotzeko eskubidea dute eta, espedienteren batekoak izanik, administrazioko artxiboetan dauden agirietara irispidea izateko eskubidea, edozein dela ere agirion adierazpidea -idatzia, entzunezkoa nahiz irudizkoa- eta euskarri materiala, espedienteak ikusteko eskaera egiten den egunean espediente horien prozedurak amaituta badaude.”

Bi artikulu horiek arautzen dute fitxategiak eta erregistroak atzitzeko era. Lehenengoak izapidetzen ari diren prozedurak arautzen ditu, eta interesdun izaera duten herritarrei fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidea aitortzen die. Bigarrena, bukatutako prozedurei buruzkoa da, eta hasiera batean herritar orori uzten dio horiek atzitzen.

Konstituzioaren 104 b) artikuluan dago manu horien jatorria:

“Legeak arautuko du:

...

*“herritarrak artxibo eta erregistro administratiboetara sartzea, salbu eta estatua-
ren segurtasun eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen bizitza pribatuari
dagokienez.”*

30/1999 Legeak arautzen duen atzipen-eskubidea eta DBLOk arautzen duena ez dira berdinak. Izan ere, DBLOren 15.1 artikulua arautzen duen eskubidea da interesdu-
nak duena doan eskatu eta jasotzeko tratamendupean dauden bere **datu pertsonalei
buruzko informazioa**, eta jakiteko ea zein den datuen jatorria eta ea zein komunika-
zio egin diren edo egingo diren datuekin. Eskubide hori eskubide guztiz pertsonala
da, eta norbere datuak kontrolatzea du helburu. Fitxategiak eta erregistroak atzitzeko
eskubidea, ordea, ez da norbere datuei buruzkoa, hirugarrenen datuei buruzkoa baizik.

30/1992 Legeak arautzen duen atzipen eskubidea kontrolatzea ez da Datuak Babeste-
ko Euskal Bulegoaren eginkizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren
2009ko uztaillaren 8ko epaiak dioenaren arabera:

*“Demandatzaileak azaldutako jokaerek ez dute zer ikusirik oinarritzko eskubide
honekin, fitxategiak eta erregistroak atzitzeko eskubidearekin baino. 30/1992 Le-
geak arautzen du azken eskubide hori (35 a) eta 37.2 artikulua). Hau da, proze-
dura jakin bateko dokumentazioa eskuratzea da kontua, eta hori Datuak Babes-
teko Euskal Bulegoaren eskumen esparrutik kanpo dago.”*

Beraz, zenbait begirale kontratatzeko hautaketa prozesua izapidetzeko ahala duen or-
ganoak erabaki behar du ea eskatzailea prozeduran interesduna den ala ez.

Hona hemen interes legitimoari buruz Konstituzio Auzitegiak eman duen definizioa:
*“interes legitimoa da norbaitek helburu bat erdiesteko duen abantaila edo erabilera juridiko
baten titulartasun potentziala, ondare-educia izan dezakeena ala ez, eta hura gauzatuz gero,
benetako bihurtzen dena. Beraz, interes legitimoa egongo da, baldin eta argi eta garbi bada-
go aurkatutako jarduerak eragina duela prozesura doan esfera juridikoan”* (Martxoaren 23ko
45/2004 KAE, 1. oinarri juridikoa).

Bulegoak hainbat ohar egin nahi ditu, baina hautaketa-prozesuaren kudeaketa-orga-
noaren eginkizunetan esku hartzeko asmorik gabe. Hona hemen:

Hona hemen Isabel-Cecilia del Castillo Vázquez-ek dioena:

“DBLOk are gehiago indartu du gardentasunaren eta sekretuaren artean, jakiteko eskubidearen eta isilik egoteko eskubidearen artean, administrazioak daukan informazioaren berri izateko eskubidearen eta pertsonen pribatutasunerako eskubidearen artean dagoen tentsioa. Eta horrek alderdi juridikoa erabat zaildu du, doktrina sendoenak ere erakusten duenez.

Era berean, LUCAS DURANek dioena ere kontuan izan behar dugu, hau da, bi printzipio horien arteko tentsioak esan nahi duela printzipio bakoitza ezin dela etengabe aurrera joan norabide batean (hau da, erabateko publikotasuna bultzatuz ala erabateko isiltasuna bultzatuz), kontrako norabidean bultzatzen duen beste printzipio bat dagoelako, eta indarra kentzen diolako -kontrako norabidean bultzatzea eginez- eta gardentasunerako norabidean ala isiltasunerako norabidean doazen indarrei kontra egiten dien beste indar bat jartzen dielako parean, bi indarrak ponderatu beharra sortuz. Hartara, zenbaitetan gertatuko da administrazio gardentasuna murriztu egin beharko dela interes zehatz bat dagoelako tartea, eta ponderazioa egin eta gero ikusten delako interes hori interes orokorraren gainetik dagoela.”

...

“Hori dela eta, sekretuak babesten dituen alderdiak atzipenarekin bateragarriak badira, administrazioak ezin izango du ukatu espediente baten atzipena.”

Gure ustez, aztertzen ari garen gaia atzipen bat da, hau da, izapidetze-prozedura bat dago eta jakin nahi da ea hautaketa prozesuan parte hartzen duten pertsonak guztiak interesdunak diren. Datuak Babesteko Bulegoak uste du parte hartzaileek hautaketa prozesuan aurkeztu direnek izan dezaketela bata bestearen titulazioaren eta esperientziaren berri, baldin eta datu horiek garrantzitsuak badira hautaketa prozesua ebazteko.

Gauzak horrela, eta nahiz eta XXXXX Udalak izan kontsultan galdetutakoaren gainean ebazteko ahala, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritziz, aisialdiko hiru begirale kontratatzeke udaleko hautaketa prozesuko parte hartzaileek prozesuko gainontzeko parte hartzaileen datuak atzitu ditzakete, horrek ez duelako datu pertsonalak babesteari buruzko araudia urratzen, batez ere datu horiek jakitea garrantzitsua bada hautaketa prozesua behar bezala kontrolatzeko.

Edozelan ere, datu-babesaren ikuspegiaren arabera, ez da onargarria hautaketa prozesuko parte hartzaileei buruzko informazioa ematea, informazio horrek pertsona horien intimitatea urratzen badu eta garrantzirik ez badu lortu nahi dena lortzeko.

4.

**PARTIKULARREK ADMINISTRAZIO
INFORMAZIOA ATZITZEA**

4.3.

**SINDIKATUEK ADMINISTRAZIO
INFORMAZIOA ATZITZEA**

Langileen jaiotza-data hauteskunde sindikaletarako hautesleen erroldan sartzea

Data: 2006-12-01

CN06-029

“Hurrengo hauteskunde sindikaletarako hautesleen errolda osatzeko erakusgai jarriko diren zerrendetako datuen artean langileen jaiotza-data sartzearen arauzko izaerari dagokionez” Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio saileko ...k egindako kontsultari buruzko txosten juridikoa

AURREKARIAK

2006ko urriaren 20an Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saileko XXXXXren idatzi bat sartu zen Datuak Babesteko Euskal Bulego honetan, goian aipatutako gaiari buruzko kontsulta bat eginez.

Kontsulta egiteko bidalitako idatzian ondokoa adierazten da:

“Hautesleen behin-behineko zerrendak iragarki-tauletan eta GEUTZENen argitaratutako ematean datu pertsonalen babesari loturiko hainbat erreklamazio eta kexa jasotzen direnez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko Legearen 17.1 n) artikuluan ezarritako aurreikuspenek babesturik, zure ardurapean dagoen Bulego horri ondoko kontsulta egiten diot.”

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, bere 17. artikulua n) atalean, honako zeregina ematen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Goian aipatutako arautegiaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egindako kontsultari erantzuteko txostena bidaltzea.

IRIZPIDEAK

I

Bulego honen iritziz, komeni da kontsultak xede duen jardueraren datu pertsonalak babesteko araudiaren ikuspegi zehatzetik definitzea.

Horrela bada, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babes-
teko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 3 c) artiku-
luan xedatutakoaren arabera, datuen tratamendua *“eragiketa eta prozedura teknikoak dira
–batzuetan automatizatuak beste batzuetan ez–, eta datuak bildu, grabatu, gorde, landu, aldatu,
blokeatu eta indarrak gabe uzteko aukera ematen dute. Komunikazio, kontsulta, elkarkonexio eta
transferentzien eraginez datuak uztea ere datuak tratatzea da”*.

Era berean, artikuluko horren a) atalaren arabera, datu pertsonalak dira *“identifikatutako
edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio. Zuzenean edo zeharka
nor den jakiteko moduko edonor da identifikagarria, eta, bereziki, nortasun zenbaki baten bidez
edo ezaugarri baten edo batzuen bidez identifika daitekeen edonor, berdin dio ezaugarri horiek
fisikoak, fisiologikoak, psikikoak, ekonomikoak, kulturakoak edo sozialak izan”*.

Definizio horien arabera, eta Zuzendaritza galdegileak berak egindako kontsultak az-
tergai duen ekintzaren deskribapena (*“hautesleen behin-behineko zerrendak iragar-
ki-tauletan eta GEUtzENen argitara ematea”*) eta toki horietan dagoen informazioa
kontuan hartuta, garbi dago argitara emate hori datu pertsonalen tratamendua dela.

II

Bestalde, kontsultaren esparrua *“argitaratzen diren zerrendetan langileen jaiotza-datari
buruzko datua sartzea, arauzkoa den ala ez galdetzer”* mugatzen bada ere (datuen kali-
tatearen printzipioa), kontsultari erantzun zehatzagoa emateko, Bulego honen iritziz,
esparru hori zabaldu egin behar da eta jendaurrean jartzeak oro har datuak babeste-
ko araudia betetzen duen galdetu behar da. Izan ere, araudi hori betetzen duen ala
ez egiaztatuz bakarrik du zentzua argitara emandako datuak- eta, horien artean, kon-
sultari zuzenean aipatzen den datua- datuen kalitatearen printzipioari egokitzen ote
diren aztertzeak.

Bada, lehen arrazoi bidean azaldutako definizioen arabera, eta deskribatutako ekintza
datu pertsonalen tratamendu gisa eta, are zehatzago, komunikazio baten ondorioz
egindako lagapen moduan zehatz daitekeenez, gogoan izan behar da, DBLOren 11.1
artikuluak *“datu pertsonalak hirugarren bati komunikatzeko aukera ematen duela, datuak laga-
tzen dituenaren eta jasotzen dituenaren legezko funtzioekin zuzenean lotuta dauden helburuak
betetzeko bada eta interesdunak alde zuzenetik bere adostasuna adierazi badu”*.

Aurrekoa, alegia datuen titularren adostasunaren beharra, arau orokorra denez, arti-
kulu horren 2. atalak haren salbuespenak jasotzen ditu, eta une honetan, hain zuzen,
a) atalean jasotakoa transkribatzea interesatzen zaigu: *“lagapena Lege batek baimentzen
duenean”*.

Behin puntu honetara iritsita, hemen planteatu dugun galderari erantzuteko, datu per-
sonalak jendaurrean jartzea Legeak baimentzen duen ala ez aztertu behar da.

III

Azterketa horrek zuzenean eramaten gaitu Administrazio Publikoen zerbitzupean lanean dihardutenen ordezkapen organoak eta euren lan baldintzak eta partaidetza-moduak finkatzen dituen ekainaren 12ko 9/1987 Legea, uztailaren 19ko 7/1990 eta ekainaren 30eko 18/1994 Legeen bitartez zati batean aldatutakora.

Eta zehazki haren 21. artikulura, zeinak honakoa baitio:

“Dagokion Administrazio Publikoak funtzionarioen errolda eta hauteskundeak egiteko baliabide pertsonalak eta materialak emango ditu.”

Transkribatutako artikulua hitzez hitz ikusi ondoren, atera daitekeen lehen ondorioa da aztergai dugun kasuan datu pertsonalen tratamendua eta komunikazioa baimentzen duen Lege bat badela.

Egia da agindu horrek ez duela ezartzen komunikazio horren hartzailerak nortzuk izan behar duten, ezta haren edukiak zein izan behar duen ere.

Halere, oraingoan ere Bulego honen ustez, lege horren irakurketa sistematiko bat eginez gero, zailtasunik gabe argitu daitezke zalantza horiek.

Horrela bada, lehen puntuari dagokionez, aipatutako agindua Lege horren 13. artikuluari loturik irakurtzen bada (biak 18/1994 Legeak aldatuak), hau da, orain dagokigunean *“Hauteskundeak sustatzeko ahalmena duten erakunde sindikalek eskubidea izango dute dagokion administrazio publikoarengandik eragindako hauteskunde-unitateetako funtzionarioen errolda jasotzeko, erakundetan edo lantokietan banatuta, esparru bakoitzean sustapen hori egin ahal izateko”* irakurtzen bada eta kontuan hartuta, batetik, 21. artikulua jarrera sistematikoa eta, bestetik, barnean hartu behar duen informazioaren edukiari dagokionez (berehala aipatuko dugu) agindu horrek lortu nahi duen helburua, zentzuz ondoriozta daiteke informazioaren hartzailerak hasitako prozesuan parte hartuko duten *“hautesleen multzoak”* izan behar direla, ez beste inor.

Bigarren puntuari dagokionez, jada ez da beharrezkoa, Auzitegi Gorenaren 1989ko otsailaren 6ko Epaiak egiten zuen bezala, analogiaz, Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikora jotzea.

Eta hala da, irailaren 9ko 1846/1994 Errege Dekretuaren bitartez Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura dauden langileen ordezkaritza-organismoetarako hauteskundearen Araudia onartu zelako. Izan ere, araudi horren 14.1 artikulua ondokoa ezartzen du:

“Aipatutako erroldan hauteskunde unitateko funtzionario guztien izena, bi abizenak, sexua, jaiotza-data, nortasun-agiria eta funtzio publikoan onartzen zaien antzintasuna adieraziko dira.”

Goian adierazitakoaren arabera, esan dezakegu erroldan agertzen diren datu pertsonalen eta, bereziki, jaiotza-dataren argitalpenak ez diola datu pertsonalak babesteko araudiari kontra egiten.

Alde batetik, datuen titularren adostasunik gabeko tratamendu horrek DBLOren 11.2.a) artikuluan du euskarria.

Bestalde, tratamenduaren xede diren datu pertsonalak eta, bereziki, jaiotza-data, ezin dira gehiegizkotzat, lotsagabetzat edo desegokitza hartu argitalpenaren helburuari dagokionez, hauteskunde-prozesuan hautesle edo hautagarri nortzuk diren konplutuki jakinaraztea besterik ezin izan daitekeelako helburua, informazio horrek pertsona horiei dagozkien eskubideak betetzea ahalbidetu dezan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskunderen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzen dituen azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan jasotako araudiak ez dio kontra egiten orain arte esandakoari.

IV

Esku artean dugun kasu zehatzerako datuen tratamenduaren helburua aurreko arrazoibidean aipatu ondoren, Bulego honek ezin dio uko egin, hemen planteatu zaigun kasuari erreferentzia zehatza eginez, datu pertsonalen tratamenduaren funtsezko printzipio horrek duen esanahia eta garrantzia mugatzen saiatzeko aukerari.

Horrela bada, Bulegoari zentzuzkoa iruditzen zaio ondorioztatzea hauteskunde-prozesuan parte hartzen dutenei hautesle eta hautagarri nortzuk diren garbi azaltzea dela tratamendu horren helburua (informazio hori eraginkorra izatea eta hortaz, hautesle edo hautagarri gisa toka lekieteen bezala jardutea ahalbidetuko luketen datuak barne). Beraz, beharrezko ikusten du honako hau baieztatzea: burututako jardueraren helburua hau besterik ez da eta helburu hori betetzera bideratuta daude bertan jasotzen diren datu zehatzak.

Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzietako Salaren 2004ko azaroaren 11ko Epaiak ezarri zuenaren arabera

“...lagapen hori hauteskunde-helburuetarako bakarrik egin daiteke eta, beraz, hauteskunde horietatik hurbil dauden datetan, baina aginduak ez du gaitzen lagapen hori beste helburu edo xede desberdin batzuetarako.”

Epai hori, hain zuzen, funtzionarioen errolda batean datuak behar ez bezala jasota eta ondoren erabilia zeudela-eta eman zen:

“... eta datuok jasotzea justifikatu zuten helburuekin bat ez datozen beste helburu batzuetarako erabili zituen, xedea ez baitzen hauteskundeak egiteko funtzionarioen errolda eta baliabide pertsonalak eta materialak ematea, hainbat

deskontu eta bestelako abantaila batzuk biltzen zituzten txartel jakin batzuk egin eta funtzionario horiei bidaltzea baizik.”

Beste modu batera esanda, eta oraingoan Sala berak eta Organo Judizial berak irakasle funtzionarioen hauteskundeetarako eroldari buruz 2002ko urtarilaren 10ean emandako Epaiaren hitzetan:

“Hain zuzen, hezkuntza-komunitate esamoldearen interpretazio zabal edo hedatua onartu arren, kolektibo horretako kideak dira DOcean sartutako datuak ezagutzeko aukera duten bakarrak eta, beraz, jada aipatutako ekainaren 20ko 1332/1994 Errege Dekretuak jendeak ezagutu ditzakeen datuez ematen duen definizioan datu horiek sartzen ez direla ondorioztatzeko nahikoa da hori. Eta horrek ondokoa baieztatzeri garamatza: Lege Organikoaren 6.2 artikuluan aurreikusitako adostasun-baldintzaren dispentsarik ez dago eta, beraz, Lege horren 6.1 artikulua eskatzen duen interesdunen adostasunik jaso ez denez, auzi-jar-tzailea hain zuzen Lege Organikoaren 45.5. artikuluan tipifikatutako arau-hauste larrian erori zen.”

V

Bulegoak, era berean, aztergai duen kasu zehatzean informazioa argitaratzeko erabili-tako bitarteko bat GEUTZEN izatea aprobetxatu behar du, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 2003ko azaroaren 6ko Epaiak ezarritakoa gogora ekartzeko. Epaiak, izan ere, ondokoa dio

“24. 95/46 Arteztarauaren 3. artikuluko 1. atalak erabiltzen duen “datu per-sonalak” kontzeptuak barnean hartzen ditu, Arteztarau horren 2. artikuluko a) hizkian agertzen den definizioaren arabera, “identifikatutako edo identifika dai-tezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio.” Kontzeptu horrek bar-nean hartzen du, zalantzarik gabe, pertsona baten izena eta telefono-zenbakia edo bere lan-baldintzei nahiz zaletasunei buruzko beste edozein informazio.

25. 95/46 Arteztarauaren 3. artikuluko 1. atalean erabilitako datu horien “trata-mendua” kontzeptuari dagokionez, honek barnean hartzen du, Arteztarau horren 2. artikuluko b) hizkian agertzen den definizioaren arabera, prozedura automati-zatuen bidez egindakoa izan daitekeen edozein eragiketa edo eragiketa-multzo, datu pertsonalei aplikatuta badago.” Azken xedapen honek eragiketa horien hain-bat adibide aipatzen ditu banan-banan, esate baterako transmisio bidezko ko-munikazioa, datuak eskuratzea ahalbidetzen duen hedapena edo beste edozein modu. Hortik ateratzen da web orri batean datu pertsonalak aipatzea era hone-tako tratamendutzat hartu behar dela.

26. Erabakitzeko dago tratamendu hori “zati batean edo osorik automatizatuta dagoen ala ez.” Hori dagokionez, esan beharra dago web orri batean informazioa hedatzeak berekin dakarrela, gaur egun aplikatzen diren prozedura teknikoen eta informatikoen arabera, orri hori zerbitzari batean argitaratzea, bai eta Interneten-

rako konexioa duten pertsonen eskuragarri izateko beharrezkoak diren eragiketak egitea ere. Eragiketa horiek, gutxienez neurri batean, modu automatizatuan egiten dira.

27. Beraz, lehen galderari erantzun dakioke web orri batean hainbat pertsona aipatu eta beren izenez edo beste modu batez identifikatzea "datu pertsonalen tratamendua, hain zuzen zati batean edo osorik automatizatutako tratamendua dela," 95/46

Arteztarauaren 1. artikuluko 1. atalean adierazitako zentzuan:"

Doktrina hori, betiere GEUTZENen ezaugarri bereziek eskatzen duten zuhurtziarekin, aplikagarria dela uste du Bulego honek.

Eta zentzu horretan, komeni da gogora ekartzea web orrian bertan jasotzen diren datuen izaeraz (datu pertsonalak) eta argitalpenaren helburuaz informatzeko premia; eta horrez gain, informatzeko paragrafo bat ere erantsi behar litzateke: *"zerrenda hauek ez dira edozeinek eskuratzeko iturri, eta ezingo dira osorik edo zati batean kopiatu, eta ezingo dira ez transmititu ez inolako informazioa berreskuratzeko sistemaren bidez erregistratu, datu horiek ukitzen dituzten pertsonen adostasunik gabe."*

Horretarako, gainera, eta jarduera egoki gisa, web orriaren metodologiak eta teknologiak berak ere mintzagai ditugun datuak eta dokumentuak jaistea zailtzen saiatu behar lukete.

Azkenik, azpimarratu beharra dago datuen eskuragarritasunak onartua izan den hauteskunde-egutegiarekin bat etorri behar duela, hau da, laguntzen dituzten eskubideetarako finkatutako azken data igaro ondoren, datuek ez dute jendaurrean egon behar betetzen.

ONDORIOA

Jaiotza-datari dagokion datu pertsonalaren tratamendua, irizpen honetan jasotako moduan, ez da datuak babesteko araudiaren kontrakoa.

Ikastetxe publikoen ordezkapen eta plantillen datuak lagatzea sindikatuei

Data: 2007-02-01

CN06-031

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko Arabako Lurralde ordezkariak egindako kontsulta bati buruzko txosten juridikoa. Euskal hezkuntza sarean izan diren ordezkapenak eta ikastetxe publikoen plantilla, non azaltzen baita lanpostuaren eta lanpostua betetzen duen maisu- maistraren deskribapena, sindikatuei aldizka emateko konpromisoari buruz galdetu zuen ordezkariak.

AURREKARIAK

2006ko azaroaren 16an Datuak Babesteko Euskal Bulegora bidali zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Arabako lurralde ordezkari jaunak idatzia, aurretik aipaturiko gaiaren inguruko kontsulta egiteko.

Igorritako kontsulta idazkian haxe adierazten da:

- *“Ordezkaritza sindikalaren eta hezkuntza administrazio honen artean dagoen akordioa dela eta, sindikatuei aldizka euskal hezkuntza sareko ikastetxe publikoetan izandako ordezkapenen berri emateko konpromisoa dago; bai eta, bestalde, urtero, ikastetxe publikoen plantilla eta lanpostu hau betetzen duen irakaslearen deskribapena ematea ere.”*
- *“Konpromiso hau dela eta, jakin beharra dugu zerrenda hauetan jasotzen den informazioa bateragarria ote den, erabat edo zatika, Datuen Babeserako Legean ezartzen denarekin.*
- *Ondorioz, bi zerrenden eredu atxikitzen dira, aztertu ditzazuen, eta gero erantzuna jaso dezagun.”*

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategieak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeko otsailaren 25eko 2/2004 17.1 legeak, bere n) paragrafoan Datuak Babesteko Euskal Bulegoari haxe esleitzen dio:

“Herri administrazioek, instituzioek eta korporazioek Datu Pertsonalen Babesean izan ditzaketen eskaeretaz arduratzea, Lege honen 2.1 paragrafoari dagokionez, bai eta bestelako pertsona fisiko edo juridikoek, Lege honen esparruan ezartzen diren datu pertsonaletako erabilerari dagokionez.”

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio, goian aipaturiko araudiaren ondorioz, eskatutako kontsultaren erantzun txostena egitea.

GOGOETAK

I

Bulego honen aburuz, egokia da kontsulta honen inguruko eginbeharra definitzea, datu pertsonaletarako babesaren inguruan dagoen ikuspuntuarekin bat etorrita, betiere.

Horrela, bada, otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publiko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, c) paragrafoan agertzen duenaren arabera, datuen tratamendutzat hartzen da *“eragiketa eta prozedura teknikoak -batzuetan automatizatuak, beste batzuetan ez- eta datuak bildu, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu eta indarrik gabe uztea, bai eta, komunikazio, kontsulta, elkarren arteko konexio eta transferentzien eraginez datuak uztea ere”*.

Era berean, aipaturiko artikuluen a) paragrafoan datu pertsonaltzat hartzen ditu *“edozein pertsona, zuzenean edo zeharka, nor den jakiteko moduko edonor identifikagarria, bereziki nortasun zenbaki baten bidez edo ezaugarri baten edo batzuen bidez, bai fisikoak, fisio-logikoak, psikikoak, ekonomikoak, kulturakoak edo sozialak zain daitezkeen datuak”*.

Definizio hauek direla eta, eta Lurralde Ordezkaritzak egindako kontsulta honen gaineko ekintzaren deskribapenei eta Bulego honetatik eskaintzen den informazioari erreparatuta, ez dago zalantzarik hau datu pertsonaletarako tratamendua dela, eta Ordezkaritzak erakunde sindikalei datu pertsonalak lagatzen dizkiola.

II

Bestalde, kontsulta orokor samarra denez, Bulego honen aburuz, erantzuna emateko ondorengo bi auziri heldu behar zaie.

Batetik sindikatuen ordezkariei datu pertsonalak komunikatzea, eta, bestetik, zein izan behar diren komunikatutako datuak.

Lehenengo auziari dagokionez, lehenengo oinarrian azaltzen diren definizioekin bat, eta aipaturiko ekintza datu pertsonalen tratamendutzat hartzeko aukera dela eta, are gehiago, datuon lagapena komunikazio baten ondorioz gertatu bada, gogorarazi beharra dago, DBLOren 11. artikuluan esaten dena *“Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu- lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko: interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du”*.

Aurrekoa, alegia, datuen titularraren beharrezko baimena, da arau orokorra, eta artikulua honen 2. atalean agertzen dira arau salbuespenak. Kasu honetan komeni da salbuespenen a) atalean agertzen dena *“legeak lagatzea baimentzen duenean”* transkribatzea.

Horrenbestez, planteatu dugun auzi hau ebazteko aztertu behar dugu ea izaera pertsonaleko datuak komunikatzeko baimena ematen ote duen Legeak.

III

Bulegoak ez du ezagutzen eta ez du jaso kontsulta idazkian aipatzen den akordioa, ez eta, horrenbestez, oinarrizko araudi honen euskarria non dagoen ere, edota, zehazki, euskarri hau urriaren 1eko 228/2202 dekretuan ote dagoen. Dekretu honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan- baldintzak arautzen dituen hitzarmena adostu zen.

Edonola ere, Bulego honi ez dagokio, oro har, antolamendu juridiko honen egokitzapenaren azterketa egitea.

Hala ere, hori ez jakiteak zuhur jokatzeari eskatzen du, eta ez litzateke zentzugabea izango ondorioztatzea, eta orain dagokigunari lotuta, akordioa bera ezin litekeela izan DBLOren 11. 2 artikuluan aipatzen den "Legea".

Horrek zuzenean eraman behar du ekainaren 12ko 9/1987 Legea. Lege horrek Administrazio Publikoen Zerbitzupean Lanean diharduten Ordezkapen Organoak eta euren Lan Baldintzak eta partaidetza moduak finkatzen ditu, eta aldatu zuten uztailaren

19ko 7/1990 eta ekainaren 30eko 18/1994 Legeak.

Eta, zehazki, lege honen 9. artikuluan bertan zehazten da:

"Langileen Batzordeak eta, hala badagokio, langileen ordezkariek, hurrengo ahalmenak izango dituzte, dagokien esparruetan:

1.- Langileen Sailaren, Erakundearen edo Toki erakundearen politikari buruzko informazioa hiru hilero jasotzea.

4.- Jakinaren gainean egotea eta entzunak izatea ondorengo gai eta arazoen inguruan:

a) Lanaldia eta lan ordutegia ezartzea.

b) Baimenen, oporren eta lizentzien araudia.

6- Gizarte Segurantzaren, enplegu eta lan baldintzen gainean dauden arauak betetzen direla zaintzea, eta, beharrezkoa denean, lege ekintzak betetzea erakunde eskudunaren aurrean.

9.-Dagokien Administrazioarekin lan egin, produktibitatea mantentzeko eta areagotzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzeko."

Artikulu hau ikusi ondoren, hasieran, Lege adela ondoriozta daiteke, eta badirudi eman diezaiokeela datuen komunikazioari.

Baina, bestalde, egia da artikulu honen interpretazioak zehaztuko duela lagapenaren muga zein den.

Interpretazio hori jurisprudentzia aztertzearen ondorioa izango da jurisprudentzia, eta jakina, lehenik eta behin, Konstituzioaren 28. artikulua hartu beharko da aintzat.

Konstituzioaren doktrinan errepikatzen denaren arabera, askatasun sindikalaren eskubidea, Konstituzioaren 28.1.artikuluaren konstituzionalki osatu zen, eta oinarritzko gutxieneko eta indargabeko edukia bertan txertatua dago (auto-antolaketa sindikala eta jarduera eta ekintza sindikalerako bitartekoa –greba, talde guztien arazoaren sustapena eta talde-negoiazioa-), bai eta behin-behineko lege zehaztapeneko eduki gehigarria ere (ordezkaritza instituzionala, sustapena eta hautagaien aurkezpena, etab.), SALO (SCT 95/1996 eta 64/1999) 9. eta 10. artikuluetan onartzen diren ekintza sindikaleko eskubideak, eta berme eta erraztasun multzo bat onartzea enpresako ordezkari sindikalak eraginkorrak izan daitezen beren jardueran.

Horien artean, eta Herri Administrazioaren barnean, langileen batzordeek eta langileen ordezkariak informaziorako eskubidea dute, SALOren 10.3. artikuluan ezartzen denaren arabera aplikazio analogikoagatik, onartzen dira baita ere lantokiko sekzio eta ordezkari sindikalak, -aipaturiko legearen 9. artikuluan-; horiek onartzea ezinbestekoa da benetako askatasun sindikalaren eskubidea gauzatu dadin.

Artikulu hori dela-eta, honakoa dio jurisprudentziak:

“Agindu honek ez du zerrenda itxi eta oso bat, irekia baizik, eta aukera ematen du bestelako aginduak sartzeko beren eginkizun eta askatasun sindikalerako defentsarako. Horrela, aipaturiko artikulua 1. zenbakian, “langileen politika-ri” buruzkoa, hain da generikoa, ezen eremu horretan bestelako paragrafoetan agertzen ez diren alderdiak sar daitezkeen. Horien artean, eta orain dagokigunari begiratuta, Cabra-Lucena-Montilla barrutiko loturazko erizainen lanpostuak betetzearen informazioaren ingurukoa (deialdia, parte hartutako langileak, aukeratu-tako langileak, epaimahai hautatzailea eta erabilitako baremazioa) eta sindikatu errekurtsogileak, bere ordezkari sindikalaren bidez, demandatutako erakundeari eskatutakoa (demandaren 12., 14., 15., 21. eta 22. atalak). Barruti honek informazio hau ukatu zion sindikatuari, argudiatuz informazioa erakundeari eta laguntza funtzioari zegokiola. Aurretik esandako guztiarengatik, ez dator bat esandakoarekin, informazio eskaria ez ziolako erakundeari eta loturazko erizaintzaren eginkizunari erreferentzia egiten, baizik eta langileen hautaketa prozesuari. Hori dela eta, jasotako ezezkoak sindikatuari galarazten dio osasun barrutiak langileen politika zein den eta nola zehazten den jakitea. Gainera, kideei eta bestelako langileei, oraindik kide ez direnei, bere fiskalizazio lana eta informazioa ematea galarazten du. Eta azken finean, aipaturiko oinarritzko eskubidea urratzea daka.”

Azaldutako lehenengo galderari baiezko erantzun bat emango zaio. Ondorioz, eman dakizkioke izaera pertsonaleko datuak ordezkaritza sindikalari.

IV

Hala ere, zehazteko egongo litzateke zeintzuk izango diren jakinarazi beharrekoak, eta kasu zehatz honekin, eta emandako dokumentazioa ikusirik, bertan agertzen diren guztiak egokiak ote diren, bereizlea eta ez gehiegizkoa den helburura iristeko (DBLO-ren 4.artikulua).

Zuhurtziaz eta errespetuz jokatu behar dela irizten diogunez, bai eskatutako Administrazioarekin zein ordezkaritza sindikalararekin ere, bulego honek, ez du planteaturiko aferari buruzko erantzun zuzen bat emango ez badu daukana baino informazio gehiagorik eta ordezkaritza sindikalari berari entzun gabe.

Nolanahi ere, eta laguntzearren, bulegoak eman ditzake bere irizpideak, hartu beharreko erabakiaren oinarrian egon beharko liratekeenak.

Irizpideok abiapuntuak behar du izan datuen babesaren ikuspuntuaren azterketak, eta, bereziki, DBLOren 4. artikuluan dagoen oinarri nagusiaren azterketak.

Denok bat baldin bagatoz eta uste badugu 9/1987 Legearen 9. artikulua helburua dela, izaera orokorrarekin, eta Konstituzio Auzitegiaren 142/1993 Epaiaren 10. zuzenbide oinarrian jasotako hitzak erabilita (izan ere, aztertzen ari garen kasuaren antzeko bate bati buruzkoa baita), *“Langileen legezko ordezkariak ere parte hartu behar dutela lan arloko arauak betetzen direla zaintzeko zereginetan”*, hori hala bada, zaintza egin-kizuna burutzeko funtsezkoak diren datuak komunikatu egin beharko dira.

Egia esan, Bulego honek ezer gutxi aurreratu dezake. Benetan motibatutako erabaki honetan, beharrezkoa da ezinbesteko datuak ematea - inplikaturiko aldeek eman beharko lituzketenak- (agian Bitariko Batzordearen bidez) eta behar bezala hartua izan beharko lirateke hirugarrenen oinarritzko eskubide bati eragiten dion heinean (datuen titulardunak). Agertzen diren bi komunikazio moteei arreta jarri behar zaie, bai eta azaltzen diren datu zehatzei ere. Horrenbestez, erantzun zehatza ez, baina hori lortzeko egin beharreko hausnarketa proposatu daiteke.

Hausnarketa hau, izaera pertsonaleko datuen babesari dagokionez eta kontrol organo batetik, oinarritzko eskubideari gutxien eragiten dion hausnarketa egitea baino ez da izango.

Illo horretatik, berriro hartu beharko lirateke datuen babesaren printzipioa eta 9/1997 legeko 9. artikulua bilatzen duen helburua.

Ikuspuntu horretatik, ordezkariak arauen betetzearen zaintzan parte hartzea baldin bada helburua, lehenik zein kontrol mota, generikoa edo orokorra, nahi den galdetu

beharko da. Honen arabera, izaera pertsonaleko datuak jakinarazteko beharra ezberdina izango da.

Administrazioaren jardunaren kontrol eta jarraipen generiko bat egitea bada helburua, izaera pertsonaleko datuak masiboki lagatzeko beharrik ez dago, eta nahikoak izango dira atxikitako datuen lagapena.

Hala ere, pertsona baten edo batzuen izaera pertsonaleko datuak kontrolatu behar izatekotan (eta kontuan hartuta pertsona hauek izan daitezkeela ordezkari-tza sindikalaren bitartekotza eskatzen dutenak), kontrol honetarako beharrezkoak diren izaera pertsonaleko datuak zeintzuk diren jakinaraziko dira

Datuen izaerari dagokienez, ordezkari-ekin bat, Bulego honen ustetan “arrazoiarekin” oso arduratsua izan beharko da. Kontuan hartu behar da bereziki babestutako izaera pertsonaleko datuak tartean egon daitezkeela, osasun edo diziplinazko prozeduren ingurukoak, adibidez.

Aurretik aipatu den bezala, ezer gehiago aurreratu daiteke, kasu bakoitzerako, aplikazio eta interpretazio zehatzen 9/1987 Legeko 9. artikulua-ren laguntzaz baliatuz, izaera orokorreko balioko interpretaziorik ez bada.

Hau da, bestalde, jurisprudentziaren azterketa egin eta gero atera daitekeen ondorioa, emandako erantzunak direla eta, gure ustetan, planteaturiko usteko zehatzarekin harremana daukatenak. Erantzun hauetan, gainera, nabardurak eta desberdintasunak daudela uste dugu, ematen diren jurisdikzio ordenaren arabera. Hala, bada, alderatu beharko lirateke Madrileko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko auzien Salak emandako epai mordoak, sindikatu-ek Madrileko udaltzaingoko funtzionarioei buruzko informazio eskaerak, eta Entzutegi Nazionalaren Lan Arloko Salaren Epaiak, 2006ko ekainaren 7koa.

V

Ezin da, azkenik, albo batera utzi izaera pertsonaleko datuen babeserako funtsezko oinarriaren ikuspuntutik, eta oso garrantzitsua maila bat gehiago delako, funtsezko oinarri honen bermearen katea ixtea.

Beren eginkizunen jardueraren zehar ordezkari sindikalek jasotzen duten informazioa arretaz biltzeari buruz ari gara.

Konstituzio Auzitegiak horrela dio:

“Ordez-kari sindikalek - bai eta hautetsitako langileen eta funtzionario publikoen ordezkari-ek ere- informaziorako eta informatuak izateko eskubidea dute, baina hau ez da mugaezina, “isilbidezko lan beharrak” mugatzen baitu (ekainaren 12ko 9/1987 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzupean Lanean diharduten

Ordezkapen Organoak eta euren Lan Baldintzak eta partaidetza). Honen bidez, langileen ordezkarien enpresak, ordezkarien eskumenen informaziorako funtzio legala betez, ematen dizkien informazio zehatz batzuk ez zabaltzea ezartzen die. Baina isibildezko beharra ere ez da ez mugatzailea. Aldez aurretik, ordea, 65.2 artikulua LETaren terminoetan mugatzen da, ordezkapen funtzioa bete ahal izateko, informatzailearen (enpresaria) eta informazioa jasotzen duenaren (ordezkaria) arteko konfiantza oinarri bat emanez. Horrela, bada, informatzailearen beldurrak edo ardurak gutxitzen dira bere interesak kaltetu ditzakeen informazioa ordezkariori ematerakoan.”

Era berean, Bulego honek ezin du alde batera utzi “praktika egokitza” hartua izan daitekeen aukera ez aipatzea. “Praktika egokitza” har daiteke aldez aurretik publikoki agertuko diren datuen titularrei behar bezala informatzea, eta, beraz, hezkuntza administrazioaren lan metodologian bertan modu egituratu batean araudian jasotzen diren oinarriak gehitzen joatea. Eta, horregatik, ezin da ahaztu informaziorako oinarria berebizikoa dela funtsezko eskubidea babesteko.

ONDORIOA

Ordezkarikari sindikalei izaera pertsonaleko datuak jakinaraztea ez dago izaera pertsonaleko datuen babesaren araudiaren kontra.

Jakinarazten diren izaera pertsonaleko datuak izan beharko dira, komunikazioaren helburuarekiko, zuzenak, egokiak eta ez gehiegizkoak.

Lan poltsei buruzko informazioa lagatzea

Data: 2011-07-18

CN11-019

Sindikatu batek lan-poltsei buruzko informazioa eskuratzeari buruz egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2011ko maiatzaren 24an XXXXX-(e)K idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruz.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

"1.- XXXXX Sindikatua sindikatu independentea da eta Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Saileko Segurtasun Administrazioako Laguntza Zerbitzuetako (aurrerantzean SALZ) eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko (aurrerantzean APPV) lan-legepeko langileek osatzen dute. Sindikatuak langileen % XXXXXaren ordezkartza du.

2.- Aspaldiko urteetan administrazioak iragarki-oholetan argitaratzen ditu, gure hitzarmen kolektiboaren laugarren xedapen gehigarrian esaten den bezala, lan-poltsak eguneratuta. Era berean, langileen ordezkariak ere helarazten dizkie, indarrean dagoen legediak dioena betez (Lan Hitzarmena eta Herri-zaingo sailburuaren 2001eko martxoaren 1eko Agindua).

3.- Orain arte beti bi zerrenda jaso izan ditugu, eguneratuta, zerrendako pertsona bakoitzari buruzko beheko datuekin. Baina, azken aldian, ordea, ez zen horrela gertatu:

Poltsak osatzen dutenen zerrenda ordena alfabetikoan:

- Izen-abizenak

- Lan-poltsa

- Hurrenkera

Poltsa osatzen dutenen zerrenda, lanean emandako denboraren arabera:

- Hurrenkera

- Izen-abizenak

- Egunak
- Hitzarmena
- Antzinakotasuna
- Hizkuntza eskakizuna
- Maila

Lan-poltsa eguneratuak eman zizkiguten azken aldian (2010/12/22an) lan-pol-tsetan dauden pertsona bakoitzari buruzko ondoko informazioa helarazi ziguten:

Poltsak osatzen dituztenen zerrenda NANren arabera:

- NANA
- Lan-poltsa
- Hurrenkera

Poltsa osatzen dutenen zerrenda, lanean emandako denboraren arabera:

- Hurrenkera
- NAN
- Egunak
- Hitzarmena
- Antzinakotasuna
- Hizkuntza eskakizuna
- 50 km
- Egoera

5.- Aldaketa horren (izen-abizenen ordezt, NANA jartzea) ardura duten pertsonak adierazi dute DBLO aplikatzea baino ez dutela egin, eta ezin dituztela zerrendak pertsonen izen-abizenekin argitaratu.

6.- Kontratu bat egiten denean, ordezkari sindikalei helarazten zaien kontratua-ren oinarritzko kopian kontratatu den langilearen izen-abizenak agertzen dira, hala

izan behar dela dioelako langileen estatutuak. Ez da NANA agertzen, babestuta dagoelako.

7.- Lehen ordezkari sindikalei ematen zitzaien lan-poltsei buruzko informazioarekin kontratuaren oinarrizko kopiaren eta lan-poltsetako hurrenkeraren arteko lotura egin zitekeen. Beraz, zilegi zen jarraipena egitea eta arloko legedia behar bezala betetzen zela egiaztatzea. Lan hori egitea da gure eginkizunik funtsezkoena.

8.- Egungo informazioarekin ezin da jakin zein den kontratatu den pertsonaren egoera edo hurrenkera. Gainera, interesa duen pertsonak (lan-poltsetan dauden pertsonak) ezin du jakin nor duen aurretik eta atzetik.

9.- Informazio hori eman ezean sindikatuen lana oztopatzen da eta erakunde sindikalei aitortutako eta Sindikatu Askatasunari buruzko Lege Organikoak jasotako eskubideak urratu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ziur gaude lehen ondo helarazten zizkigutela lan-poltsak, pertsonen izen-abizenekin eta ez NANarekin. Beraz, zuen irizpena eskatzen dugu Herrizaingo Sailari aurkezteko, gure eskaera legez balioztatzeko, eta lan-poltsen zerrendetatik NANak kendu eta izen-abizenak jasotzeko bertan.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta-idazkia ikusita, komenigarria ematen du azaltzea nola lortu izan den konponetzea sindikatu askatasunerako eskubidearen eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen arteko orekaren auzia, gure ustez, hori delako auzi honen muina. Hori egin ostean, auzi orokorraren erantzuna aplikatu eta galdera zehatzei erantzuten ahalegin-duko gara, beti ere kontsulta-egileak egin duen deskribapena kontuan izanda.

Beraz, segidan esaten duguna Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren eta gainontzeko kontrol organoek ezarritakoaren laburpena baino ez da, eta helburu bakarra du, hau

da, marko orokor bat finkatzea eta hor txertatzea gero egin dizkiguten galdera zehatzetarako konponbideak.

Konstituzio doktrinak berretsi duenez, sindikatu askatasunerako eskubideak (Konstituzioaren 28.1 artikuluan jasotako eskubidea da) gutxieneko funtsezko eduki zati bat du, derogatu ezina (sindikatuaren autoantolaketa eta sindikatu jarduera eta ekintzarako bideak dira: greba, gatazka kolektiboen sustapena eta negoziazio kolektiboa), eta beste eduki zati bat lege bidez zehaztu beharrekoa (erakunde ordezkaritza, hautagaitzat sustatzea eta aurkeztea eta abar). Bigarren eduki horrek Sindikatu Askatasunari buruzko Lege Organikoaren 9. eta 10. artikuluek (95/1996 KAE eta 64/1999 KAE) aitortutako ekintza sindikalerako eskubideak biltzen ditu eta zenbait berme eta erraztasun ere aitortzen ditu, sindikatu ordezkariak behar bezala burutu ahal izateko haien eginkizunak enpresan.

Administrazio publikoetan beste hau ere badago: langile batzordeen eta langileen ordezkarien informaziorako eskubidea. Askatasun Sindikalei buruzko Lege Organikoaren 10.3 artikuluan xedatutakoarenaren aplikazio analogikoa eginez, eskubide bera aitortzen zaie administrazio publikoen lantokietan eratzen diren atal eta ordezkari sindikalei. Lege horren 9. artikuluan dago zehaztuta eta eskubide horien aitortpena funtsezkoa da sindikatu askatasuna benetakoa eta eraginkorra izan behar bada.

Hona hemen jurisprudentziak esandakoa artikuluen horren gainean:

“Artikulu horretan jasotako zerrenda ez da zerrenda itxi eta bukatua, irekia baizik; eta aukera ematen du beste batzuk ere gehitzeko, haien zereginetarako eta sindikatu-askatasuna babesteko beharrezkoak badira. Hain zuzen ere, artikulua-ren 1. idatz-zatia, “langile politikari” buruzkoa dena, hain da orokorra, bertako beste ataletan jaso ez diren alderdiak jasotzeko aukera ematen duela. Alderdi horietako batzuk, informazio eskubideari buruzkoak dira, eta garrantzitsuak izan daitezke aztertzen ari garen kasuan. Izan ere, kasu honetan Cabra-Lucena-Montilla barrutiko lotura-erizainen lanpostuak betetzeko informazioa baitzen (deialdia, parte hartzaileak, hautatutako langileak, epai-mahaia eta erabilitako baremazioa). Sindikatu errekurtsio-egileak informazio hori eskatu zion, bere ordezkari sindikalaren bidez, salatutako erakundeari (Salaketako eta aurkatutako epaiaren lehen gertakari frogatuko 12, 14, 15, 21 eta 22 atalak) eta erakundeak ukatu egin zion informazioa. Informazioa ukatzeko, erakundeak alegatu zuen informazio hori asistentzia eginkizunari eta antolaketari buruzkoa zela. Baina, alegazio hori ez dator bat orain arte esandako guztiarekin, informazio-eskaera ez zelako lotura-erizaintzako zerbitzuaren funtzionamenduari eta antolaketari buruzkoa, bertan lan egin behar zuten langileen hautaketa-prozesuari buruzkoa baizik. Beraz, informazioa ukatzean, sindikatuak ezin du jakin zein den zehatz-mehatz osasun-barruti horren langile-politika eta sindikaturi dagokion fiskalizazio eginkizunari oztupoak jartzeaz gain, trabak jartzen zaizkie afiliatuak eta tartean dauden gainontzeko langileei, nahiz eta afiliatuak ez izan, informazioa helarazteko. Azken finean, aldarrikatutako oinarriko eskubidea urratu da.”

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hainbat irizpen egin dituzte argitzeko ea langile publikoen datuak ordezkari sindikalei lagatzeak datu pertsonalak babesteari buruzko legea betetzen duen ala ez, horretarako, jokoan zeuden eskubide guztiak ponderatuz, hau da, datu pertsonala babesteko eskubidea batetik, eta sindikatu askatasunerako eskubidea bestetik.

Bi eskubideak ponderatzeko, langileen ordezkaritza sindikalari dagozkion funtzio eta eginkizunak finkatzen dituen araudia (Herri Administrazioen zerbitzuan diharduten langileen ordezkaritza-organoak, lan-baldintzak eta partaidetza arautzen dituen ekainaren 12ko 9/1987 Legea eta Askatasun Sindikalei buruzko Lege Organikoa batez ere) eta Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta legea garatzen duen araudia batu behar dira.

Esan daiteke emandako urratsek eta agentziek ateratako ondorioek balio dezaketela, zuhurtasun guztiekin eta erabaki orokorreki eskatzen zaien kautelarekin, kasu zehatz hau konpontzeko erreferentzia parametro” moduan erabiltzeko. Hona hemen ondorioak laburtuta:

1.- Sindikatu-ordezkariek datu-eskaerak egiten badituzte, eta administrazioek eskaerak onartzen badituzte, horrek esan nahi du, datuak babesteko oinarritzko eskubidearen ikuspuntutik begiraturik, datu pertsonalak lagatzeaz edo komunikatzeaz ari garela, hau da, interesduna ez den beste bati erakusten zaizkiola datu pertsonalak.

2.- Beraz, DBLOren 11. artikulura jo behar dugu, bertan dagoelako jasota lagapenei buruzko lege-erregimena.

Hona hemen manu horrek dioena, gure interesekoa baita:

“1. Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.”

2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango hone-lako kasuetan:

a) Lege batek baimentzen badu lagapena.”

3.- Legeak xedatzen duen adostasuna zertan den aztertzeko, 9/1987 Legearen 9. artikularekin hasi behar dugu, bertan xedatzen delako langile-batzordeek eta langile-ordezkariek “Hiru hilean behin sailaren, organismoaren edo toki erakundearen langile-politikari buruzko informazioa jasotzeko” eskubidea izateaz gain, ondoko gaien inguruan jakitun egoteko eta entzunak izateko eskubidea ere badutela. Era berean, lege-aurreikuspen hori 30/1984 Legean aztertzen ari garen gaiarekin lotuta jasotako

aurreikuspenekin elkartu behar da. Eta horrek guzti horrek ahalbideratzen dio Datuak Babesteko Espainiako Agentziari honako ondorioa ateratzea izaera orokorrarekin:

*“ ... lan-baldintzak zaindu eta babesteko eginkizuna langile-batzordeak du esleitura, **eta eginkizun hori burutzeko ez da beharrezkoa dena delako organo edo bulegoan lan egiten duen pertsonalaren gaineko datu pertsonalen lagapen masiboak egitea**. Bakar-bakarrik laga ahal izango dira pertsona jakinen datuak, eta baldin eta kontrol edo zaintza eginkizuna pertsona jakin bati buruzkoa bada, eta baldin eta pertsona horrek langile-batzordeari aurkeztu badio kexa.*

*Gure ustez, gainontzeko kasuetan kontrol eginkizuna egintzat joko da **langile-batzordeari behar bezala disoziatutako informazioa lagaz gero**. Disoziazioa egiteko prozedura 15/1999 Lege Organikoaren 3.f) artikuluan xedatuta dago. **Disoziazioaren bitartez, langile-batzordeek zaintza eginkizunaren inguruabarraren berri izan dezakete, pertsona zehatz baten gaineko daturik gabe.***

Ondorioz, informazioa behar bezala eskatzen bada, datu-lagapena zilegi izango da, baina baldin eta datuak disoziatuta lagatzen badira, eta pertsona identifikatuena edo identifikagarria daturik aipatu gabe egin beharko da. Horrela egin ezean, interesdunen adostasuna eskatu beharko da, 15/1999 Lege Organikoaren 11. eta 21. artikuluek eskatzen dutenaren arabera.” (Azpiramarra Bulegoak jarri du).

4.- Funtzionarioak izan beharrean, lan legepeko harremana duten langileak badira ere, ondorioa bera da. Hona hemen:

“1995eko martxoaren 24ko Langileen Estatutuen 64.1 artikulua dioenez, Enpresa Batzordeak honako eskumenak ditu. “Lege honetako 8. artikuluko 3. paragrafoa a) lerroaldean aipatutako moduan, kontratuen oinarritzko kopia jasotzeko eskumena; baita kontratuon luzapenen eta salaketen jakinarazpenak ere, gertatzen direnetik hurrengo hamar eguneko epean.” Bestalde, 9. atalak honakoa xedatzen du: “a) Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren eta enplegu-arloan dauden arauak betetzen diren zaindu behar du, baita enpresan indarrean dauden itun, baldintza eta usadioak ere; eta, premiazkoa bada, bidezko diren lege-egintzak aurkeztu ahal izango dizkio enpresaburuari eta eskumenak dituzten erakunde edo epaitegiei” eta “b) Enpresan lana egiterakoan behar diren segurtasun eta higieneko baldintzak zaindu eta kontrolatu behar ditu, lege honetako 19. artikuluan aurreikusitako berezitasunak kontuan hartuta, eta hurrenkera hartan.”

Enpresa Batzordeari edo Langileen Ordezkariei egiten zaizkien lagapenek Langileen Estatutuen 64.1 artikuluan aurreikusitakoa gaintzen badute, interesdunaren adostasuna beharko da nahitaez. Kasu honetan ukitutako langileen adostasuna beharko da.”

Auzitegiek ere argi dute kontua. Argigarriak dira Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2003ko uztailaren 16ko eta 2005eko otsailaren 16ko epaiak, Kataluniako Justizia

Auzitegi Nagusiaren 2007ko urtarrilaren 9ko epaia eta Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2008ko martxoaren 28ko epaia.

Lan-legepeko langileei buruzko bestelako arauak ere badaude, hitzarmenetan jaso daitezkeen aurreikuspenekin lotuta:

“Lan legepeko langileei dagokienez, Langileen Estatutuen 9. artikuluko 64. idatz-zatiak zera dio: “Legeek edo arauak ezarritakoa errespetaturik, hitzarmen kolektiboetan aukera egongo da artikuluko honek jasotako informazio- eta kontsulta-eskubideen edukari eta gauzatzeko modalitateei buruzko xedapen bereziak ezartzeko, bai eta eskubide horiek gauzatzeko ordezkaritza-maila egokienari buruzko xedapenak ezartzeko ere”.

Era berean, 1995eko martxoaren 24ko Langileen Estatutuko 3. artikulua dio lan hitzarmena kolektiboak lan harremanen inguruko eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen iturrien artean daudela. Beraz, horren ondorioz, badirudi hitzarmen kolektiboaren izaera duen arau batek berariaz badio datuak komunikatu daitezkeela, orduan datu-komunikazioa bat etorriko litzateke Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 11.2 artikuluko c) idatz-zatiarekin, eta, beraz, zilegi litzateke datuak enpresa batzordeari komunikatzea.”

II

Oinarrizko eskubideen arteko harremanetarako esparru orokorra finkatu eta gero, kontsulta-egileak egindako galderarentzako erantzuna ere hortxe kokatu behar dugu:

Baina, hori baino lehen, Bulegoak uste du orain arte deskribatzen saiatu garen ikuspegi orokorra hobeto zehazteko, apirilaren 22ko 142/1993 KAEk ezarritako doktrina konstituzionala ere aipatu beharra dagoela, nahiz eta bertan aztertzen den gaia beste bat izan, uste dugulako azken finean bai epaiak bai aztertzen garen kasuak eduki bera dutela.

Hona hemen epaiak esandakoa:

*“Argi dago **ezinezkoa dela datu horiek** (laneko kontratuak dauden datuez ari gara, NANA, helbidea eta egoera zibilar buruzkoa izan ezik) **langilearen eta bere familiaren esparru intimoan bakarrik kokatzea**, baldin eta kasuan ezgarriak diren legezko edo hitzarmenezko arauen arabera ezarri badira, argitaratu beharrekoak izanik gainera. Gauza bera esan behar da lan prestazioaren edukari, lan baldintzei eta kontratuaren iraupenari eta modalitateari buruzko klausulei buruz, ez direlako esparru pertsonalekoak bakarrik, “lan jardueraren eremuko harreman sozial eta profesionalen esparrukoak ere badirelako” (170/1987 KAE, 4. oinarri juridikoa).”*

*“**Salatutako manua enpresarioek duten informatzeko betebeharraren ondorio diren eginkizunen esparrukoa da**, langileen interesen aldekoa hain zuzen ere, eta gure lan arloko araudiak enpresa batzordeen eta ordezkarien alde eza-*

ria, eta hitzarmen kolektiboen bidez osatua. Horrela, errazagoa delako haientzat legegileak aitortzen dien zaintza lana egitea, hau da, egiaztatzea enpresarioek behar bezala betetzen dituztela lan arloan eta gizarte segurantzia eta enplegu arloan indarrean dauden arauak, indarrean dauden gainontzeko enpresa paktu, baldintza eta ohiturak eta laneko segurtasun eta higiene arloko baldintzak (Langileen Estatutuaren 64.1 art.), horrela, ziurtatzeko enpresariak zorrotz betetzen duela lan arloko araudia bai orokorrean bai kasu jakinetan” (8. oinarri juridikoa).

Dudarik gabe, **arauaren helburua lortzeko neurri ezin hobea da langileen legezko ordezkariak lan arloko arauak betetzen diren ala ez zaintzeko zereginetan parte hartzen uztea.** Balizko gatazka egoeretako neurriez gain, esparru honetako eskumen orokor bat ere esleitura izatea [Langileen Estatutuaren 64.1.8 a) artikulua] eta “administrazioko edo epai-bideko egintzak gauzatzeko ahalmena onartzen bazaie ere” (Langileen Estatutuaren 65.1 artikulua), informazio eskubideak zabaltzea ere neurri ezin egokiagoa da lan arloko arauak betetzen direla bermatzeko. Legezko ordezkariak lan arloan eskumenak dituzten agintariekin lankidetzara aritu beharra dutenez, informazio ahalak indartzen bazaizkie, agintarien eginkizunak eta Lan Ikuskaritzaren ahalik eta eraginkorrenak izateko da, eta, **ondorioz, lan arloko arauak zorrotzago bete daitezke.** Gainera, interes orokorreko garrantzi handiko kontua da, eta hain da garrantzitsua ezinezkoa dela ustez Konstituzioaren 18.1 artikulua ezarpen esparruaren barruan dauden eta pertsonalak diren esparruetan esku-hartzeak egiten uztea (10. oinarri juridikoa).

Dudarik gabe, kontratazioaren unean egiten da nabarmenena enpresariaren eta langilearen artean dagon aldea. Beraz, ezin da esan, langilearen gogo aintzat hartuta, ezin izango zenik kontratazioaren truke “oinarrizko kopia” jasotzeko berariaz uko egin, hartara, legearen helburua erabat baztertuz. Beraz, ez da alferrikakoa gogora ekartzea langilearen “gogoaren printzipioa zorrotz mugatuta dagoela Lan arloko Zuzenbidean, eta horren atzean dagoen arrazoia berdintasunaren printzipioa dela” [34/1984 KAE (1984/34 Konstituzio Auzitegiaren Errekurtsoa), 2. oinarri juridikoa], beraz, konstituzioaren arabera zilegi dela norbanakoaren esparrua langileen ordezkariak babesten dituen eskubide kolektiboen interesen menpe jartzea. Auzitegi honek lehenago ere esanda du honakoa: “askatasun pertsonalarekin guztiz bateragarria izateaz gain, askatasuna are gehiago ziurtatzen du, norbanakoen egoera juridikoen oinarriko bermea ziurtatzeaz gain, langileen lan eta bizi baldintzak hobetzen laguntzen duelako eta gizartearen ongizate orokorra hobetzen.”

Aipua luzea bezain garrantzitsua dela uste dugu, aurrerago esan dugunez, bertan aztertzen den gaiaren muina eta orain aztertzen ari garen kasukoa oso antzekoak direlako (ordezkari sindikalek informazioa eskatzea, eskaeraren unea, datu-motak, langileen adostasun edo baimen eza, hitzarmenean aurreikusitakoa...).

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa bat dator, hala behar duelako, doktrina konstituzionalarekin; eta pentsatzen du doktrinaren oinarriak berdina balio duela irizpen honetan aztertutako kasurako.

Beraz, doktrinarekin bat, Bulegoak ez du eragozpenik ikusten lan-poltsa eguneratuak kontsultako 3. puntuan esan bezala lagatzeko, horrek ez baitu DBLOn ezarritakoa urratzen. Edozelan ere, gure iritzia zuhurtzia guztiekin eta kontu handiarekin esaten dugu, alde batetik ez dakigulako zergatik ez dituen administrazioak datuak ematen; eta, bestetik, kontsulta-idazkian azalduetakoa kontuan hartuta esaten dugulako. Guztiaren oinarrian “DBLOren ezarpena” dago.

Beraz, ondorio horretara heltzeko, honakoak hartu dira kontuan:

- Kontsulta-egileak eskatzen dituen datuak ez dira pertsonen intimitatearen esparrukoak, hau da, ez dira *“bereziki babestutako datuak”*. Horrelako datuak DBLOren 7.2 artikuluan daude jasota.

- Ez dago arrazoirik pentsatzeko lan-poltsen funtzionamenduaren inguruko araudia behar bezala aplikatzen dela kontrolatzeko, jarraipena egiteko eta gainbegiratzeko baino ez direla eskatu datuak.

- Eskatutako datuak egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak direla ematen du, legezko helburua lortzeko.

- Hitzarmenean berariazko aurreikuspen bat dago lan-poltsarako informazioa jakinarazteari buruz. Aurreikuspenak Herrizaingo sailburuaren 2001eko martxoaren 1eko Agindu bat aipatzen du eta Aginduen 9. artikulua zera dago: *“kategoriak kontuan hartuta lan-poltsak egin ondoren, lan-poltsen kopiak emango zaizkie langileen ordezkariak”*. Gainera, aurreikuspen horretan ez da esaten halako edo bestelako datuak bakarrik eman direnik.

Beraz, hori guzti hori kontuan izanda, Bulegoak ez du, berari dagokion ikuspegitik begiratuta, eragozpenik ikusten eskatutako informazioa emateko.

Baina, badaezpada ere, eta lehen aipatu dugun zuhurtziaz eta kontu handiz, esan beharrean gaude kontsulta-egileak argi azaltzen duela zergatik ezin duen berez dagokion kontrol eginkizuna burutu, helarazten dioten informazioak ez badu jasotzen lan-poltsan dauden izen-abizenik.

Bulegoak eskuartearen dituen datuak ikusita, esan daiteke kontsulta-egileak emandako azalpena egokia dela, baina horrek ez du esan nahi azalpen bakarra dagoenik.

Beraz, administrazioak uste badu kontrol eginkizuna berdinean burutu daitekeela disoziatutako datuekin (Bulegoak ezin du aukera hori baztertu), arrazoitu egin behar du zergatik, eta ez da nahikoa DBLO betetzeko egiten dela esatea.

Datuak disoziatuta eman ahal badira eta aukera hori arrazoitzen bada, argi dago aukera hori dela egokia datu-babesaren ikuspegitik begiratuta; baina, ikusita sindikatuak

oso ondo arrazoitu duela bere eskaera, administrazioak beste aukeraren bat eman nahi izanez gero, oso ondo arrazoitu beharko du zergatik.

ONDORIOA

1.- Eskatutako datu-komunikazioa ez dago datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin kontrajarrita, irizpen honetako kontuan hartzekoen bigarren atalean esandakoaren arabera.

2.- Informazioa disoziatuta eman eta ez bada lortzen sindikatuen helburua erdiestea, informazioa emateko beste moduren bat topatu beharko da. Halakorik gertatuz gero, administrazioak izango du beste modu hori zehatz arrazoitzeko ardura.

5.
BESTE ADMINISTRAZIO
BATZUEK ATZITZEA
ADMINISTRAZIO INFORMAZIOA

Alokairuen gaineko datuak poliziari lagatzea

Data: 2009-06-18

CN09-016

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailak ondoko gaiari buruz egindako kontsultaren gaineko irizpena: “*ea zilegi den datu pertsonalak poliziari komunikatzea*”.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2009ko apirilaren 6an Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saileko XXXXX-(e)k egindako txosten-eskea jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkiak honakoa zioen:

“XXXXX-(e)ko Polizia Komisaria Probintzialak idazki bat aurkeztu zuen martxoaren 18an XXXXXX honetan, 2008ko maiatzaren 13az geroztik Bizilagun Zerbitzuaren bidez erregistratutako alokairuen zerrenda eskatuz. Eskaeraren kopia atxikitzen dugu: 1 zk.ko dokumentua.

Dirudienez, lehen Bizkaiko Jabetza Hiritarreko Ganberak helarazten zien zerrenda, baina jada desagertu egin da. Zerrendan honako datuak zeuden: errenta-tzailea, errentaria, kokapena, etxebizitza eta kontratuaren data.

XXXXXX-(e)ko zerbitzu juridikoek eskaera aztertu zuten eta erabaki zuten eskabi-dea ez zettorrela bat abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoaren; eta, ondorioz, ezetsi egin zen, martxoaren 27ko komunikazioaren bidez. Komunikazioaren kopia bat ere helarazten dugu: 2 zk.ko dokumentua.

Data honetan Komisariaren erantzuna jaso da, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren txosten batekin batera. Txostena Agentziaren web-orrian argitaratuta dago, eta dio txostenaren 2. orrialdean aipatzen diren baldintzak betetzen badira, zilegi dela poliziari datuak lagatzea. Honekin batera doakizue kopia bat: 3 zk.ko dokumentua. Gure ustez hor dioena bat dator gure idazkiaren azken zatian azaldutako zenbait gogoetarekin.

Desadostasunak ikusita, eta kasu honetan nahiz aurrerago gerta daitezkeen kasuetan ondo arrazoitutako behin betiko erabaki bat hartzeko asmoz, interes handia du guretzat gaiari buruz Bulegoak duen iritzia jakitea.”

Idazkiarekin batera XXXXX-(e)k bidalitako eskaera bat ere bidali dute. Idazkiak 2009ko martxoaren 18ko data eta zera dio:

“XXXXXX honetan burutzen ditugun ikerketak direla eta, Sail horri eskatzen diogu 2008-05-13az geroztik gaur arte Bizkaian indarrean dauden alokairuen zerrenda.”

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren XXXXX-(e)k eskaera ezetsi zuen 2009ko martxoaren 26ko datadun idazkiaren bitartez. Idazkiak honakoa zioen:

“XXXXX horrek, hilaren 18ko data duen idazki bidez, 2008ko maiatzaren 13az geroztik Bizkaiko Lurralde Historikoan indarrean dauden alokairuen zerrenda eskatuz egindako informazio eskaera dela eta, honakoa adierazi beharrean nago:

Kontuan hartzen bada titulartasun publikoko fitxategi bateko datu pertsonalak eskatzen direla, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa hartu behar dugu kontuan nahitaez.

XXXXX-(e)k, fitxategiaren arduraduna denez, bete egin behar ditu 15/1999 Legearen manu guztiak bai interesdunaren adostasunaren funtsezko printzipioari buruz xedatutakoa, bai sekretu gorde beharrari buruzkoa bai datu-komunikazioei buruz Legearen 11.2 artikulua, 21. artikulua eta Laugarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoa.

Ondorioz, sentitzen dugu jakinaraztea ezin dugula zure eskaera onartu, orokorregia delako.

Edozelan ere, prest gaude gure iritzia berraztertzeko, baldin eta egiaztatzen baduzue eskaera halako edo bestelako etxebizitzei buruzkoa dela edo ikerketa zehatz baterako dela eta informazioa ezinbestekoa dela; izan ere, Legearen 22.3 artikulua aukera hori aipatzen du.”

2009ko apirilaren 1ean XXXXX-(e)k datuak eskatzeko idazki bat bidali zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren XXXXX-(e)ra, adieraziz, honako arauetan oinarritzen dutela eskaera: DBLOren 22.2 artikulua, Prozedura Kriminalaren Legearen 282. artikulua, Estatuko segurtasun indar eta kidegoak, autonomia erkidegoetako poliziak eta udaltzaingoa arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 4. artikulua eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 0133/2008 txosten juridikoan.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultaren helburua da argitzea ea zuzenbidearen arabera den Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak Polizia Komisariak egindako eskaerari erantzunez egin duen datu pertsonalen komunikazioa.

Hasierako eskaeraren testutik abiatu behar dugu: *“XXXXX honetan burutzen ditugun ikerketak direla eta, Sail horri eskatzen diogu 2008ko maiatzaren 31z geroztik gaur arte Bizkaian indarrean dauden alokairuen zerrenda”* (2009ko martxoaren 13a).

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren idazkiak dioenez, “Bizkaiko Jabetza Hiritarreko Ganberak helarazten zien lehen zerrenda eta bertan honakoak jasotzen ziren: errentatzailea, errentaria, kokapena, etxebizitza eta kontratuaren data”.

Lehen ere esan dugunez, eskabidea ez zen onartu eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutako alegatu zen horretarako. Hala ere, atea zabalik utzi zen irizpide aldaketaren bat gertatuko balitz ere: *“baldin eta egiaztatzen baduzue eskaera halako edo bestelako etxebizitzei buruzkoa dela edo ikerketa zehatz baterako dela. izan ere, Legearen 22.3 artikulua aukera hori aipatzen du.”*

Beraz, datu-komunikazio baten aurrean gaude. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 11.1 artikulua arautzen du datu-komunikazioa, eta honakoa dio:

“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotutako dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.”

Datu-komunikazioaren araubide orokorraren salbuespenak 11. artikuluko 2. idatz-zatian daude. Hona hemen:

“2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango hone-lako kasuetan:

a) Lege batek baimentzen badu lagapena.

Jendearen eskurako iturrietatik hartutako datuak badira.

Harreman juridiko bat askatasunez eta modu legitimoan onartzearen ondorioz egiten den datu-tratamendu bat bada, eta harreman juridiko hori garatzeko, betetzeko eta kontrolatzeko ezinbestekoa bada datu-tratamendua hirugarrenen fitxategiekin konektatzea. Kasu honetan komunikazioa legitimoa izateko, komunikazioaren oinarrian dagoen helbururako baino ezingo da egin konexioa.

Komunikazioaren hartzailea Herriaren Defendatzailea, Fiskaltza edo Epaileak edo Epaitegiak edo Herri-Kontuen Epaitegia badira, eta esleitura dauzkaten eginkizunetarako behar badituzte. Era berean, ez da adostasunik beharko komunikazioaren hartzaileak Herriaren Defendatzailearen edo Herri-Kontuen Epaitegiaren antzeko eginkizunak dauzkaten erakunde autonomikoak badira.

Lagapena administrazio publikoen artean egiten bada eta lagatzearen helburua bada gero datu horiek xede historiko, estatistiko edo zientifikoarekin tratatzea.

Osasunari buruzko datu pertsonalak lagatzea ezinbestekoa bada fitxategi batera sartzeari eskatzen duen larrialdi bat konpontzeko edo ikerketa epidemiologikoak egiteko, beti ere estatuko edo autonomia erkidegoko legediak ezarritakoa kontuan hartuta.”

Kontsulta hau ebazteko, batez ere lehenengo salbuespenean jarri behar dugu arreta, lege mailako arau batek baimentzen duelako lagapena.

II

Polizia Komisaria Probintzialak datu-eskea berretsi du, eta honako arauak alegatu ditu datu-lagatzea titularren adostasunik gabe egiteko gaitzen duten titulu gisa: DBLOren 22.2 artikulua; Prozedura Kriminalaren Legearen 282. artikulua; Estatuko segurtasun indar eta kidegoak, autonomia erkidegoetako poliziak eta udaltzaingoak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 4. artikulua eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 0133/2008 txosten juridikoa. Segidan, 22.2 artikulua aztertuko dugu, alegatu dituztenen artean espezifikoena delako.

DBLOren 22.2 artikulua, Segurtasun-indar eta -kidegoen fitxategiei buruzkoa:

“Segurtasun Indar eta Kidegoek datu pertsonalak jaso eta tratatu ditzakete interesdunen adostasunik gabe polizia helbururako, baina muga bat dute, hau da, bakar-bakarrik egin ahal izango dute segurtasun publikorako benetako arrisku bati aurrea hartzeko edo arau-hauste penalak zigortzeko ezinbestekoak diren datuen kasuetan eta datu kategoriekin. Gainera, helburu horretarako ezarritako fitxategietan biltegiratu beharko dira. Fitxategiak fidagarritasunaren arabera kategorietan sailkatu beharko dira.”

Artikulu horrek, beraz, gaitu egiten du lagapena. Hala ere, XXXXX-(e)k bidalitakoa bigarren idazkiak dioenez, hori bezain garrantzitsua da hurrengo idatz-zatiak (22.3 artikulua) bereziki babestutako datuei buruz ezartzen duen irizpidea.

“3. Segurtasun-indar eta -kidegoek 7. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatiek aipatu datuak bildu eta trata ditzakete, halakoak ikerketa jakin baten xedeetarako guttiz beharrezkoak direnean bakarrik, eta jurisdikzio-organismoek administrazio-jardunaren legezkotasun-kontrolaren gainean edo, hala denean, interesdunek aurkeztutako uzien gainean ebazpena emateko duten betebeharrari kalterik egin gabe.”

Poliziak titularraren adostasunik datuak biltzeko espezialitatea du aitortua. Espezialitate hori Estatuko segurtasun indar eta kidegoak, autonomia erkidegoetako poliziak eta udaltzaingoak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak (11. artikulua) Segurtasun eta Indar Kidegoei aitortzen dien polizia-ikerketako jardueraren ondorioa da. Bestalde, jarduera horrek Konstituzioaren 104. artikulua xedatutakoa taxutzen du: eskubide eta askatasunen egikaritzea askea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea.

Polizia-ikerketek berehalako esku-hartzea eskatzen dute, eta, beraz, fitxategiaren arduraduna ezin da datu-eskaera zehatz-mehatz aztertzen hasi, eta nahikoa izango du egiaztatzen badu proportzionaltasunezko gutxieneko baldintzak betetzen dituela. Kasu honetan, Polizia Komisaria Probintzialak Datuak Babesteko Espainiako 0133/2008 txosten juridikoa aipatzen du bigarren idazkian, eta txosten horrek 1999ko beste baten irizpideak berresten ditu, kontuan hartu beharrekoak Poliziak, BLODren 22.2 artikulua babesarekin, eskatutako datuak lagatzeko orduan.

Hona hemen txostenaren zati bat:

“Gure iritziz, artikulu horrek gaitzen ditu Polizia Judizialeko kideak eskatutako datuak biltzeko eta tratatzeko; eta, beraz, datu-eskea zilegi izango da. Baina, hala ere, Polizia Judizialak zenbait baldintza bete beharko ditu, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia berretsi duenez:

a) Behar bezala frogatzea datu horiek eskuratzea ezinbestekoa dela segurtasun publikorako benetako arrisku bati aurrea hartzeko edo arau-hauste penalak zigortzeko; eta, bereziki babestutako datuak badira, ikerketa zehatz baterako guttiz ezinbestekoa direla.

b) Eskaera zehatza eta berariazkoa izatea, ezinezkoa baita datu-eskaera masiboak egitea.

c) Eskaera ondo arrazoituta egotea, eta garbi frogatzea azaldutako alderdiekin zerikusia duela.

d) Datuak ezeztatu egingo direla datu horiek gordetzeko alegatu ziren ikerketak egiteko beharrezkoak ez direnean; hala xedatzen baitu 15/1999 Lege Organikoaren 22.4 artikulua.”

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren ustez, datu-eskeak izan behar dituen baldintzak ez dira 22.3 artikuluan aipatzen diren datuei buruzkoak, 22.2 artikuluan aipatzen direnei buruzkoak baizik. Beraz, gerta daiteke datu-eskea ez izatea bereziki babestutako datuei buruzkoa (ideologia, erlijioa, sinesmenak, afiliazio sindikala, bizitza sexuala, arraza, osasun-datuak). Bestelako edozein datu pertsonal eskatuz gero, aipatu ditugun baldintzak bete beharko dituzte.

Doktrinak ere antzekoa adierazi du, eta horren adierazgarri da Troncoso Reigadak berak erroldako datuak poliziari lagatzearen gainean esandakoa, berak idatzitako datu-babesari buruzko toki erakundeetarako eskuliburuan. Hona hemen:

“Beraz, esan daiteke Segurtasun eta Indar Kidegoek legearen arabera berezko gaikuntza berezia dutela datu pertsonalak eskuratu ahal izateko, udal erroldakoak barne. DBLOK ere DBLOren 11.2.a) artikulua eskatzen duen lege-aurreikuspena jasotzen du, eta berariaz aipatzen ditu Segurtasun eta Indar Kidegoak 22. artikuluan, auzian dauden ondasun juridikoak zein diren kontua hartuta. Edozelan ere, Segurtasun eta Indar Kidegoei egiten zaizkien datu-komunikazioek honako baldintzak bete behar dituzte: batetik, egiaztatu egin beharko da udal erroldako datuak eskuratzeko ezinbestekoa dela segurtasun publikorako, benetako arrisku bati aurrea hartzeko edo arau-hauste penalak zigortzeko; eta bestetik, eskabideak zehatza eta berariazkoa izan beharko du, jasota geratu beharko du eta horrelakoak egiteko gaitasuna duen agintaritzak egindakoa izan beharko du, ondo arrazoituta egon beharko du eta legearen arabera dela egiaztatu beharko du. Ez dago garbi DBLOK udal-erroldako datu-eskaera zabalak debekatzen dituenik, baldin eta segurtasun publikorako benetako arrisku bati aurrea hartzeko edo arau-hauste penalak zigortzeko badira eta arrazoituta badaude. Gainera, badirudi erroldaren arduradunak ez duela zertan jaso datu-eskearen helburuari buruzko informazio zehatza. Legearen eskakizuna, ordea, garbia da; izan ere, ikerketa jakin baterako nahitaezkoa den kasuetarako ezartzen baitu; eta gaikuntza horrek badu zentzua edo edukia. Alde biek jokatu behar dute zuhurtziaz, bai datu-eskea egiten duenak bai ebazpena egiten duenak.”

Prebentzio horrek zentzuzkoa izateaz gain, lege-ordenamenduarekiko koherentea ere bada; izan ere, poliziari uzten bazaio datu atzipen masiboak egiten, berariazko lege batek baimentzen duelako da. Zentzu horretan, azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea aldatu zuen Zazpigarren Xedapen Gehigarria gehitu zuenean. Hona hemen xedapen horren lehenengo bi paragrafoek diotena:

“Atzeritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunen eta atzeritarrek gizarteratzeko Lege Organikoan ezarritako eskumenak gauzatzeko soil-soilik,

hain zuzen Espainian dauden atzerriarrak kontrolatzeko eta bertan egotearen gaineko eskumenak, udalerrietako erroldetan dauden atzerriarren errolda-inskripzioetako zehaztasunetara atzipenak egin ahal izango ditu Poliziako Zuzendaritza Nagusiak, batez ere bide telematikoak erabiliz.

Zehaztasun pertsonalak babesteko legedia estu-estuan beteko dela ziurtatzeko, segurtasun-neurririk handienak erabiliz egin beharko dira atzipenak. Ondorio horietarako, atzipen bakoitza erasota geldituko da Poliziako Zuzendaritza Nagusian, baita erabiltzailea nor izan den, eta zein egun eta ordutan egin den ere, kontsultatuko zehaztasunekin batera.”

Ikusten denez, Erroldan jasotako datuetatik nahi diren guztiak atzitzeko lege-gaikuntza ez da 22.2 artikulua, berariazko lege-manu bat baizik. Irizpide horren beste adibide bat da otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 12. artikulua. Hona hemen dioena:

“Herritarren segurtasunerako garrantzia duten jardueretan diharduten pertsona naturalek edo juridikoek -esate baterako, ostalaritzan, erabilitako objektuen salerosketan edo konponketan, motordun ibilgailuen alokairuan edo desegitean edo metal preziatuen eta bitxiaren salerosketan- indarrean dagoen araudian aurreikusitako dokumentu eta informazio erregistroaren jarduerak burutu beharko dituzte.”

Lege horren oinarrian Schengeneko Hitzarmena dago. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak lege hori dela uste du (152/2003 txostena) titularraren adostasunik gabe Poliziari datuak lagatzeko gaikuntza ematen duena. Beraz, badirudi datu pertsonalak modu masiboan atzitu ahal izateko, berariazko lege baten beharra dagoela, eta lege hori ez da DBLOren 22.2 artikuluan jasotakoa.

Gauza bera esan dezakegu ADNtik Eskuratutako Identifikatzaileei buruzko Poliziaren Datu-baseak arautzen dituen urriaren 8ko 10/2007 Lege Organikoari buruz; espresuki aurreikusten dituelako adostasunik gabeko datu-lagatzeak.

Era berean, ezin dugu alde batera utzi DBLOk ere zenbait fitxategi adostasunetik salbuesten dituela. Esate baterako, 2.2 artikulua honakoa xedatzen du:

“Lege organiko honetan ezarritako izaera pertsonaleko datuen babes-araubidea ez zaie aplikatuko:

...

c) Terrorismoa eta antolatutako delinkuentziaren agerpen arriskutsuak ikertzeko ezarritako fitxategiei. Hala ere, halako kasuetan, fitxategiaren arduradunak aurretiaz komunikatuko dizkio Datuak Babesteko Agentziari fitxategi hori badela eta fitxategi horrek dituen ezaugarri orokorrak eta xedea.”

Salbuespena 15/1999 Lege organikoa garatzen duen Erregelamenduaren 4. artikuluko c) idatz-zatian ere jasota dago.

Lege-manu hori dela eta, Puente Escobar jaunak honakoa dio Erregelamendu berriaren gainean egin dituen oharretan: “fitxategiaren helburua baino ezin izango da hartu aintzat, erabakitzeo ea bidezkoa den orain aipatzen ari garen salbuespen araua aplikatzea.”

Edozelan ere, esandakoaren arabera, manu horren interpretazioak guztiz murriztailea izan behar du, kontuan izan behar baita datu-babeserako oinarritzko eskubidea arautzen duten legeetatik salbuesten duela. Eta bakar-bakarrik ulertu behar dela deskribatu diren helburuak dituzten fitxategien kasurako dela eta ez delitu horiek eta beste batzuk sortzeko asmoarekin sortu direnen kasuan, ez eta zeharka delitu horiek ikertzeko datu baliagarriak dituztenen kasuan ere.”

Salbuespena legitimatzen duten delituak zein diren mugatzeko, terrorismoarekin ez dago zalantzarik, baina “antolatutako delinkuentziaren agerpen arriskutsuak” adierazpenarekin ez da gauza bera gertatzen. Puente Escobar jaunaren ustez, adierazpen horrek duen helmena mugatzeko lagungarria izan daiteke Europol sortzeko Hitzarmena. Hitzaurreak dio hitzarmena egin dela ohartzen direlako “terrorismoak, legez kanpoko droga trafikoa, eta nazioarteko bestelako delinkuentzia modu larriek premiazko arazo larriak dakartzatela”.

Europol Hitzarmenaren 2.1 artikulua dio honako helburua duela: “Estatu kideen zerbitzu eskumendunen eraginkortasuna eta haien arteko elkar laguntza, terrorismoa, estupezak legez kanpoko trafikoa eta nazioarteko bestelako delinkuentzia modu larriak prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko”.

Hitzarmenaren 2.2 artikulua honakoa dio. “Europolek lehendabizi honako esparruetan jardungo du prebentzioaren eta trafikoaren kontrako esparruetan: estupezak legez kanpoko trafikoa, gai nuklear eta erradioaktiboaren trafikoa, inmigrazio klandestinoaren sareak, pertsonen salerosketak eta lapurtutako ibilgailuen salerosketak.” Horretaz gain, dio bi urteko epean Europol honakoez ere arduratuko dela: “bere jardura esparruan egiten diren bizitzaren aurkako, pertsonen osotasun fisikoaren eta askatasunaren aurkako eta pertsonen ondasunen aurkako terrorismo delituez”.

Azkenik, 3. atalak zera dio: “Europolek delinkuentzia modu baten gainean edo delinkuentzia modu horren berriazko alderdi batzuen gainean duen eskumenak delinkuentzia modu horrekin edo delinkuentzia modu horren berriazko alderdi batzuekin lotutako diru zuritzeak eta delinkuentzia horrekin zerikusia duten delituak ere harrapatuko ditu”.

Bukatzeko, esan dezakegu, Puente Escobarren arabera, “2.2 artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera, aipatzen ari garen zerrenda zabaltzeko aukera egon daitekeela alde batera utzita, badirudi zilegi dela “antolatutako delinkuentzia modu larritzat” jotzea 2.2 artikuluan aurreikusitakoak ere: Berdin gertatzen da delinkuentzia modu horrekin kapitalak zuritzearekin eta esandako delituekin zerikusia duten zenbait delituekin.”

Kasu honetan datu-eskea ez da sartzen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 2.2 c) artikuluan jasotako salbuespenean; eta, esan bezala, artikulua horren interpretazioa murriztailea izan behar da, Informazio-eskaera, 15/1999 Lege Organikoaren 22. artikulua babesean egin da, eta, beraz, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren txostenean adierazitako irizpideetara egokitu beharko da. Irizpide horiek argudiatu ditu Polizia Burutza Probintzialak ere.

ONDORIOA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak, datu-eskeko idazkia gehiago arrazoitzeko, XXXXX-(r)i egindako eskera datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera da.

Adin txikikoen datuak lagatzea absentismoa eta desekolatzea desagerrarazteko

Data: 2013-01-24

CN12-029

Adin txikikoen datu pertsonalak lagatzeari buruz, XXXXX Udalak egindako kontsultaren gaineko irizpena.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan XXXXX Udalaren irizpen eskaera bat jaso dugu, izenburuan adierazitako gaiari buruz. Hona eskaeraren zati bat:

“XXXXX Udala XXXXXen eskola-absentismoa eta deseskolatzea desagerrarazteko protokolo bat egiten ari da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta XXXXX Foru Aldundiarekin batera.

Hezkuntza eskubidea bermatuta izatea oinarrizko eskubidea da, eta eskubidea gauzatzeko, derrigorrezko hezkuntza aldi bat dago finkatuta; eta horrek ikastetxe batean matrikula egitea eta eskoletara joan beharra dakar. Hezkuntza administrazioak du eskubide honen jarraipena egiteko eta betetzen dela zaintzeko ardura. Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25n) artikulua xedatzen du udalerriek nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzeko eskumena dutela.

Protokolo honek baditu bi alderdi adin txikikoen datu pertsonaletan eta protokoloa ezartzen zaien umeengan eragina dutenak:

1) Udalak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko ditu udalerrian erroldatuta dauden eta sei urte betetzen dituzten adin txikikoen zerrendak, erroldako datu eta guzti, haur horiek derrigorrezko hezkuntza egiten hasi behar direlako; eta hezkuntza administrazioak egiazta dezan hezkuntza sisteman sartuta daudela.

2) Hezkuntza Ikuskaritzak edo Hezkuntza Ordezkaritzak eskatuz gero, gure udalak nahitaez eman beharko dizkie derrigorrezko eskolatzeko aldian dagoen haur jakin bati buruzko egoera pertsonalari eta familia egoerari buruzko udal erregistroetako datuak, baldin eta ezinezkoa bada egiaztatzea dena delako adin txikikoa ikastetxe batean matrikulatuta dagoela, bere espedientea ez dutelako eskatu, eskolara joateari utzi diolako azalpenik eman gabe eta aurkitu ezin dutelako, edo beste arrazoi batzuegatik. Lagapen honek goi mailako datuak eska ditzake.

Bulegoaren iritzia eskatzen dugu jakiteko ea azaldu ditugun datu lagatzeak legezkoa diren, eta datu lagatzeek ez dutela datu pertsonalak babesteari buruzko araudia urratzen iritzi gero, eskatzen dugu esateko zein den prozedurarik ego-

kiena, eta ea adin txikikoen gurasoen edo legezko arduradunen adostasun motaren bat gehitu beharrik ote dagoen”.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak xedatzen duenez, erakunde honen eginkizuna da honako hau:

“n) Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu dute argitzeko ea datu tratamendu jakin bi datuak babesteari buruzko araudiaren arabera diren XXXXX XXXXX. Udalak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari udalerrian errolatuta dauden eta sei urte betetzen dituzten, eta, beraz, derrigorrezko hezkuntza hasi behar duten adin txikikoen errola datuen zerrendak lagatzea.

Datuak lagatzea Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren -aurrerantzean DBLO- 3) i artikuluan araututa dagoen datu tratamendu bat da. Hona definizioa: “Interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea.”

Datu lagatzearen gaineko erregimena DBLOren 11. artikuluan dago araututa, eta 11. artikuluen 1. idatz-zatiak irizpide orokor bat ezartzen du datuak lagatzeko, hau da, adostasunaren irizpidea.

“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legiti-moekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da.”

Adostasuna beharrezkoa ez izateko salbuespenak 11. artikuluko 2. idatz-zatian daude jasota. Guri dagokigunez, a) atalean jasotakoa da garrantzitsua:

“a) Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Gurasoen edo tutoreen adostasuna falta bada, eta jakin nahi bada ea ba ote dagoen datu lagatzea legeztatzen duen legerik, esparru horretan ezarri beharreko legedia aztertzea behar dugu.

Bulegoak hainbat irizpenetan esan bezala, udal erroldaren lege erregimena honako arau hauetan dago jasota nagusiki: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 15., 16. eta 17. artikuluetan -TAOL aldatzen duen urtarilaren 10eko 4/1996 Legearen idazketaren arabera- eta Atzeritarrei buruzko azaroaren 20ko 14/2003 Legearen. Erroldako datu lagatzearen berariazko tratamendua TAOLen 16.3 artikuluan dago araututa:

“3. “Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira. Datu horiek sekretu estatistikopean dauden estatistika ofizialak egiteko ere erabili ahal izango dira, beti ere Funtzio estatistiko publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen eta arlo honetan eskumena duten autonomia erkidegoetako estatistikari buruzko legeetan xedatutakoa kontuan hartuta (4/2003 LOk emandako idazketaren arabera).”

Beraz, adostasun beharrik gabe datuak lagatzea baimentzen duen legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 16.3 artikulua da. Lege horrek eskatzen du, batetik, lagapen hartzailea administrazio publiko bat izan behar dela, eta kasu honetan halaxe da. Beste alde batetik, eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 16.3 artikuluan xedatzen duenez, *“udal erroldako datuak”* esaten duenean, udal erroldako helburuak betetzeko behar diren datuei buruz ari da: udallerrian bizi dela eta ohiko helbidea zein duen eta egoiliar izaera aitortzea.

Datu babesaren arloko kontrol erakunde guztiek ia iritzi bera dute 16.3 artikuluan xedatzen duenari buruz; izan ere, alde batetik uste dute bakar-bakarrik laga daitezkeela erroldaren helburu bera duten datuak; azken finean identifikazio datuak eta helbideari buruzko datuak dira, ez beste era batekoak. Beste alde batetik, uste dute datu horiek bakar-bakarrik laga daitezkeela lagapen-hartzailearen eskumen bat erabili ahal izateko, eta baldin eta egoitza eta bizilekua horretarako datu garrantzitsuak badira. Horrelakoe-tan, lagapen-hartzaileak egiaztatu egin beharko du horretarako eskumena duela eta erroldako datuak garrantzi handia duela eskumen hori gauzatzeko.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege organikoaren 4.2 artikuluko helburutasun printzipioa ezartzeak eskumena egiaztatu beharra dakar:

“Tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako. Ez dira joko helburu bateraezintzat datu horiekin gero egiten diren tratamenduak, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako badira.”

Eskumena egiaztatu beharri buruz esan behar da erroldari Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ezarritako lege erregimenak ezartzeaz gain, 15/1999 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoak xedatutakoa ere ezarri behar zaiola:

“Populazioaren fitxategi eta erregistroen xedea izango da Administrazio Publiko bakoitzaren organoak eta kasuan kasuko lurraldeetan bizi diren interesdunak komunikatzea, Administrazio Publiko bakoitzaren eskumenek eratorri harreman juridiko administratiboei dagokienez.”

Errolda dela eta, Auzitegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 2004-4-21eko Epaia (bosgarren oinarri juridikoa) ekarri behar dugu gogora, bertan dioelako errolda biztanleen fitxategi edo erregistro bat dela, eta, beraz, administrazio publiko desberdinen eta herritarren arteko komunikazioaren osagai bat dela:

“Datuak Babesteko Lege Organikoaren lege-agindu honek xedatutakoaren arabera, badirudi biztanleriaren fitxategiak edo erregistroak, eta horien artean dago udal errolda, administrazio publikoetako organo desberdinen eta herritarren arteko komunikazioaren osagai bat dela, eta ordenamendu juridikoak esleitutako eskumenen arabera erabili ahal izango dela ala ez.”

Orain aztertzen ari garen datu lagatzearen hartzailea Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza da, Ordezkaritzak bere eskumenetako bat gauzatu ahal izateko: derrigorrezko eskolartzea (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 71.4 artikulua):

“4. Hezkuntza-administrazioek ikasle horien eskolatzea bermatu beharko dute. Era berean, gurasoek edo tutoreek ikasle horien eskolatzeari eta hezkuntza-prozesuetan eragina duten erabakietan izan behar duten parte-hartzea arautu eta ziurtatu beharko dute. Horrez gain, bidezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte ikasle horien gurasoek aholkularitza indibidualizatu egokia eta seme-alaben hezkuntzan lagunduko dien beharrezko informazioa jaso dezaten.”

Guzti honen ondorioa da hezkuntza administrazioaren eskumen horrek legeztatzen duela udalak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari lagatzea udalerrian erroldatuta dauden eta derrigorrezko hezkuntza egiten hasi behar diren adin txikikoen errolda datuak, hezkuntza administrazioak egiaztatu dezan haur horiek benetan daudela hezkuntza sisteman sartuta.

II

Kontsultako bigarren galdera da ia Hezkuntza Ikuskaritzak edo Hezkuntza Ordezkaritzak eskatuz gero, gure udalak *“nahitaez eman beharko dizkien derrigorrezko eskolartze al-dian dagoen haur jakin bati buruzko egoera pertsonalari eta familia egoerari buruzko udal erregistroetako datuak, ezinezkoa denean egiaztatzea dena delako adin txikikoa ikastetxe batean matrikulatuta dagoela, bere espedientea ez dutelako eskatu, edo eskolara joateari utzi diolako azalpenik eman gabe edo aurkitu ezin dutelako, edo beste arrazoi batzuegatik. Lagapen honek goi mailako datuak eska ditzake.”*

Hasteko, galdera honi buruz esan behar dugu ez dagoela lege gaikuntzarik udalei uzten dienik hezkuntza administrazioari lagatzen, ukituen euren adostasunik gabe, adin

txikikoen egoera pertsonalari eta familia egoerari buruz udal erregistroetan dauden datuak; eta udalei datu horiek lagatzeko baimena ematen dien lege gaikuntzarik ere ez dago. Bestalde, 2013ko urtarrilaren 8an protokoloa jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, eta protokoloak ez zuen era horretako datu komunikaziorik aurreikusten.

Bulegoaren iritziz, bidali ziguten testua ikusita eta bertan egoki aipatutako araudia ikusita, ez batean ez bestean ez da aurreikusten hezkuntza administrazioari adin txikikoen egoera pertsonalari eta familia egoerari buruzko informazioa izan dezaketen datuen edo bereziki babestutako datuen adostasunik gabeko lagapenik egin daitekeenik.

Baina are gehiago esan daiteke, protokoloan aipatzen diren lege-manuak kontuan hartuz gero. Esate baterako, Umeak eta Nerabeak Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 25.2 artikulua xedatzen du mota horretako datuak laga daitezkeela, baina kontrako norabidean, hau da, ikastetxeek laga ahal dizkietela adin txikikoen babesaren esparruan eskumenak dituzten administrazioei, edo, hala badagokio, fiskaltzari edo agintaritz judizialari. Hori ondorioztatu daiteke 25.2 artikulutik. Hona hitzez hitz:

“Halaber, hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurrenganako tratatu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan.”

Bidali diguten protokoloa eta araudi ezargarria aztertu eta gero, ateratzen dugun ondorioa da udalak derrigorrezko eskolatzeari duen laguntzeko obligazioa bete dezakeela kontsulta-idazkiko bigarren puntuak aipatzen duen datu tratamendua egin beharrik gabe. Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartu beharrekoak ikusita, esan behar dugu, lege gaikuntzarik ez badago, XXXXX Udalak adin txikikoen gurasoen edo legezko ordezkarietara adostasuna beharko duela nahitaez adin txikikoen egoera pertsonalari edo familia egoerari buruzko datuak lagatzeko.

ONDORIOA

Lehenengoa. Hezkuntza administrazioak, derrigorrezko eskolatzeari kontrolatzeko, udal erroldako datuak lagatzeko bat dator datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin.

Bigarrena. Hezkuntza administrazioari adin txikikoen egoera pertsonalari edo familia egoerari buruz udal fitxategietan dauden eta goi-mailako datuak izan daitezkeen datuak lagatzeko, adin txikikoen gurasoen edo legezko ordezkarien adostasuna beharko da.

Foru ogasun batek egindako ikuskapen prozedura bateko datuak udal bati lagatzea

Data: 2014-03-11

CN14-005

XXXXX Foru Ogasunak Udal bati egindako ikuskaritza espediente bateko informazioa lagatzeari buruzko irizpena.

AURREKARIAK

Herritar batek goiburuan adierazitako gaiari buruzko irizpena eskatu zuen. Hona idatzian, beste gauza batzuez gain, zioena:

“XXXXX Foru Ogasunak zerga ikuskapen bat egin zidan, eta ikuskapen horren baitan hainbat gertakari geratu ziren agerian, eta gertakariok bere horretan onartzea izan nuen, eztabaidak alde batera utzita, hainbat arrazoi tarteko, nagusiki pertsonalak, itxura batean ikuskapena akordio bidez itxiko zelakoan, gertakariei erreparatuta.

Espedientea bukatu ondoren, XXXXX Foru Ogasuneko zuzendariak komunikazio bat bidali zuen XXXXX Udalera. Ni XXXXX Udaleko funtzionarioa naiz. Komunikazioan ikuskapen prozeduran eskuratutako zenbait datu ageri ziren, ikuskapen prozedurari buruzkoak eta espedienteen jasota zeudenak, datu horiek administrazio publikoetako langileen bateraezintasun-erregimenari buruzko 53/1984 Legea urratzea ekar zezaketelakoan.

Komunikazio horren ondorioz hasitako diziplina espedienteen neure burua babesteko ditudan aukerak antolatzeke asmoarekin eskatzen dizuet txostena, jakiteko ea XXXXX Foru Ogasunak edo bertako funtzionario jarduleek datuak babesteko araudia urratu zuten ala ez, Ogasuneko ikuskapen espediente batean jasotako eta espediente horren baitan eskuratutako datuak ofizioz beste administrazio publiko batera bidali zituztelako, ustez datu horiek bateraezintasunei buruzko legea urratzen zutelakoan; baina interesdunaren baimenik gabe babestutako datuak laga zituztelako edo bestelako arrazoiaren batengatik; eta arreta berezia jarritz lehen aipatutako 2/2004 Euskal Legearen 22.3.f) artikuluan eta XXXXX Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94. artikuluan...”

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta

lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu da argitzeko ea oinarritzko eskubidearekin ondo ezkontzen den XXXXX Foru Ogasunak egindakoa, hau da, kontsulta honen egilea eta XXXXX Udaleko funtzionarioa naizen honi, ustez bateraezintasunei buruzko legea urratzeagatik, egindako ikuskapen espedientean jasotako datuak XXXXX Udalera bidaltzea ofizioz.

II

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hainbat aldiz aztertu ditu horrelako tratamenduak, adibidez, CN12-033 Irizpenean. Hona irizpenaren zati bat:

Hasteko, kontsulta ebatzi aurretik, gogora ekarri behar dugu datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideak “intimitate eta ohore eskubideak” eta herritarrek gainontzeko eskubideez ere erabat gozatu daitezen bermatzen duen estatutu izaera duela, eta aldi berean oinarritzko eskubide bat edo askatasun bat ere badela, hau da, tratamendu mekanizatuaren ez-legezko erabilerek pertsonen askatasunaren edo duintasunaren aurka egin ditzaketen erasoaren aurrean pertsonok dugun askatasunerako eskubidea ere badela (254/1993, 143/1994, 94/1998 eta 292/2000 epaiak, besteak beste).

Baina Konstituzio Auzitegiak berak esana du datuak babesteko eskubidea ez dela erabatekoa. Doktrina konstituzionalaren arabera, gainontzeko oinarritzko eskubideetan eta Konstituzioak babestutako beste ondasun juridikoetan bilatu behar dira mugak, hala agintzen duelako Konstituzioaren batasun printzipioak. Oinarritzko eskubideek amore eman behar dute konstituzioaren arabera garrantzi handiko ondasunak edo interesak badaude tartean, baldin eta eskubideari egiten zaion murrizketa beharrezkoa bada aurreikusitako helburua erdiesteko, proportzionala bada, eta murrizten den oinarritzko eskubidearen funtsezko edukia errespetatu behar du behintzat (57/1994 eta 18/1999 epaiak. Epaiok 292/2000 epaian daude jasota).

Azken finean, datuak babesteko eskubidea murriztu ahal izateko, nahitaezkoa izango da garrantzi konstituzionala duten eta babestu beharrekoak diren beste eskubide eta ondasun batzuk egotea tartean; eta

garrantzitsuagoa den interes konstituzionalari dagokionez proportzionala izan beharko du.

II

Konstituzioaren 103.3 artikulua honakoa dio: *“Legeak arautuko ditu funtzionario publikoen estatutua, meritu- eta gaitasun-printzipioen arabera funtzio publikoan sartzea, sindikatzeko eskubidea egikaritzeko berezitasunak, bateraezintasunen sistema, eta beraien eginkizunak betetzean izan beharreko inpartzialtasun-bermeak”*.

Bateraezintasunen gaineko araudia funtzionario publikoen estatutu erregimenean txertatuta dago, eta bateraezintasunaren oinarria dagoen arrazoiak da administrazio publikoan zerbitzuan lan egiten dute pertsonak zerbitzu publikoak eskatzen dizkion jarduerak burutzea, ez beste batzuk; eta horrela lortu nahi da langileon betebeharrak zorrotz betetzea eragozti edo langileon inpartzialtasuna edo idependentzia kaltetu dezaketen bestelako lan edo jarduerarik ez izatea.

Egun abenduaren 26ko 53/1984 Legeak arautzen du administrazio publikoetako langileen bateraezintasun-erregimena, eta bateraezintasunei buruzko arauak ez betetzea arau-haustea larria da, hala xedatzen dute behintzat Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 95.2 n) artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 83 h) artikulua.

Estatuko Administrazio Funtzionarioen diziplina araubidearen gaineko urtarilaren 10eko 33/1986 Errege Dekretuaren 27. artikulua dioenez, *“zehapen-prozedura ofizioz hasiko da beti, organo eskudunak erabakita, eta administrazioaren ekimenez has daiteke ala goragoko organo batek aginduta edo menpekoek arrazoiutako mozio bidez edo salaketa baten ondorioz”*.

Aipatu dugun araudia kontuan hartuta, funtzio publikoaren esparruan, ukituaren adostasunik ez izan arren, badira zenbait datu tratamendu zilegi direnak, baldin eta tratamenduak beharrezkoak badira Konstituzioak enplegatu publikoei esleitzen dizkien eginkizunak behar bezala burutu ditzaten; eta alde horretatik begiratuta, zehapen erregimenak lortu nahi duena da zerbitzu publiko hori ahalik eta ondoen garatzen dela bermatzea.

III

Orain aztertzen ari garen kasu honetan, kontsulta egileak aurkeztu duen informazioak dioenez, XXXXX Foru Ogasunak ikuskapen espediente bat jakinarazi zion XXXXX Udalarari.

Gure ustez Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean ezarritako araudia eta DBLOren 4. artikuluan finkatutako administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa erabili zuen XXXXX Foru Aldundiak hori egin zuenean. Baina, ikuspegi orokorretik begiratuta, informazio autodeterminazio-rako eskubidearen ikuspuntutik aztertu behar da datu tratamendua. Hain zuzen ere, XXXXX Foru Ogasunak XXXXX Udalari informazioa bidali izana datuak komunikatzea edo datuak lagatzea da. Datu lagatzea Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren -aurrerantzean DBLO- 3) i artikuluan araututa dagoen datu trata-mendu bat da. Honako hau da definizioa:

“Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea.”

Datu lagatzei buruzko lege erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago jasota eta artikulua lehenengo idatz-zatiak dio adostasuna behar dela eta hori dela oinarriko araua:

“1.- Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legiti-moezin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da.”

Baina arau orokor horrek hainbat salbuespen ditu. Salbuespenak 2. idatz-zatian dau-de, eta horiei gehitu behar zaie Datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzko eta datu horien zirkulazio libreari buruzko 95/46/CE Zuzen-tarauaren 7 f) artikuluan jasotakoa. Lege manu hori estatu kide guztietan zuzenean ezarri beharrekoa da 2011ko azaroaren 24ko Europako Batasuneko Justizia Auzitegia-ren Epaiaren arabera (Auzitegi Gorenaren 2012ko otsailaren 8ko epaiak berretsi egin zuen horren doktrina). Hona epaiak dioena:

“Estatu kideek xedatuko dute datu pertsonalen tratamendua honako kasuetan baino ez dela egingo:

...

f) tratamendu kontrolatzailearen edo datuak komunikatzen zaizkien hirugarrenen interes legítimo bat lortzeko beharrezkoa bada, eta beti ere tartean ez badaude pertsona fisikoen interesak edo oinarriko askatasunak eta eskubideak, Zuzen-tarau honetako 1. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, babestu be-harrekoak direnak.”

Norbanakoaren datu pertsonalak babesteko eskubideak pertsonen aitortzen die euren da-tuen gaineko boterea, pertsonaren duintasunarentzako tratu kaltegarriarik egin ez dadin.

Lehen ere esan dugunez, datuak babesteko oinarriko eskubidea murritzeko, propor-tzionaltasun azterketa bat egin beharko da nahitaez, eta hori kasuz kasu egin behar.

Kontsulta honi dagokionez, kontuan hartuta tratamenduaren oinarrian interes legítimo bat dagoela, eta bertan dagoen informazioa ezin dela datuen titularraren esparru intimo informaziotzat jo, uste dugu ez dela oinarrizko eskubidea urratu.

GAIEIEN AURKIBIDEA

- 1988ko ekainaren 27ko Auzitegi Gorenaren
Epaia, 10, 27, 28
- 1989ko uztailaren 19ko Auzitegi Gorenaren
Epaia, 10, 27
- 1995eko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren
Epaia, 10, 27
- 1998ko maiatzaren 9ko Auzitegi Gorenaren
Epaia, 10, 27, 28
- 1999ko azaroaren 5eko Auzitegi Gorenaren
Epaia, 10, 27
- 2000ko azaroaren 17ko Auzitegi Gorenaren
Epaia, 10, 27, 28
- 2000ko martxoaren 14ko Auzitegi Gorenaren
Epaia, 10, 27
- 2002ko urriaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaia,
10, 27
- Araubide Juridikoaren eta Administrazio
Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko
30/1992 Legea, 13, 18, 19, 50, 90, 91, 96,
113, 114, 115, 123, 128, 129, 134, 135, 136,
145, 146, 179, 180, 185, 187, 189, 192, 221,
229, 230, 231, 275
- Artxibo eta erregistroak, 90, 91, 109, 110, 113,
114, 134, 136, 141, 145, 154, 187, 229, 231
- Aurrezki Kutxetako Goi-kargudunen Erregistroa,
19, 209, 210, 212, 213, 215
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 15, 121, 125, 133
- Batzar Nagusiak / Biltzar Nagusiak, 10, 11, 35,
36, 37, 38, 39, 41, 43, 45, 47, 49, 214
- Bereziki babestutako datuak, 9, 11, 12, 15, 33,
55, 67, 68, 71, 87, 95, 114, 147, 175, 189, 194,
216, 255, 262, 263, 271
- Bideoa, 16, 148, 149, 152
- Datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak, 12,
15, 40, 48, 57, 58, 62, 66, 137, 139, 142, 146,
155, 162, 183, 208, 255
- Datu pertsonalak lagatzea, 11, 13, 14, 16, 18,
19, 21, 22, 35, 36, 37, 44, 45, 51, 52, 54, 57,
60, 65, 68, 72, 70, 73, 76, 83, 84, 90, 95,
135, 149, 159, 162, 168, 170, 172, 179, 180,
186, 199, 200, 202, 204, 206, 210, 212, 216,
218, 220, 221, 227, 230, 241, 251, 252, 261,
264, 267, 268, 269, 270, 275
- Datuak garrantzitsuak izan beharreko
printzipioa, 31, 35, 62, 131
- Datuen kalitatearen printzipioa, 11, 12, 14, 35,
39, 47, 57, 58, 62, 65, 66, 67, 68, 72, 107, 119,
124, 127, 128, 130, 139, 144, 156, 183, 184,
186, 235
- Elkargo profesionalak, 17, 166, 167, 169, 170,
171, 172
- Espainiako Konstituzioa. 20.1.d) artikulua, 151,
152, 153
- Espainiako Konstituzioa. 23. artikulua, 10, 27,
32, 37, 38, 46, 60, 63, 86, 96, 97, 102, 145
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila, 20,
258, 259, 260, 266
- Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea, 18, 160,
163, 198, 200, 202, 203, 204, 206
- Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989
Legea, 16, 274
- Eusko Legebiltzarra, 9, 10, 12, 41, 49, 51, 52, 53,
55, 58, 69, 70, 71, 72, 73, 80, 107, 139, 170
- Eusko Legebiltzarreko Erregelamendua, 12, 41,
49, 51, 53, 55, 58, 69, 70, 71, 72
- Gardentasuna, 9, 14, 17, 21, 22, 92, 95, 97, 101,
102, 108, 137, 140, 152, 232
- Hautaketa prozesuak, 12, 14, 16, 19, 20, 55,
57, 88, 89, 94, 95, 96, 99, 100, 101, 102,
103, 122, 126, 127, 128, 131, 136, 217, 218,
220, 222, 227, 228, 229, 231, 232, 243, 250
- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006
Lege Organikoa. 71.4 artikulua, 21, 270
- Hildako pertsonen datuak, 13, 17, 18, 56, 78,
81, 82, 173, 174, 175, 176, 177, 191, 195, 197
- Historia klinikoa, 13, 78, 80, 81, 173, 174, 175, 176
- Ikerkuntza, 19, 80, 81, 196, 209, 211, 212, 213,
216, 220, 221, 240, 259, 260, 261, 262
- Internet, 16, 100, 116, 118, 129, 130, 137, 138,
142, 143, 148, 151, 153, 155, 156, 157, 158,
160, 163, 222, 238
- Intimitaterako eskubidea, 29, 30,, 33, 63, 64,
98, 99, 101, 112, 187, 188
- Jendearen eskurako iturriak, 15, 102, 144, 145,
156, 161, 162, 205, 207, 208, 215, 221, 260
- Kontrol eta fiskalizazioa, 10, 11, 61, 63, 64, 66,

227, 243, 250

Langbide Sanitarioak Antolatzen dituen

azaroaren 21eko 44/2003 Legea, 17, 171

Langileen Batzordea, 19, 20, 223, 224, 226,

227, 228, 242, 243, 250, 251, 252

Langileen ordezkariak, 20, 83, 84, 85, 86, 218,

219, 223, 224, 225, 226, 227, 228, 236, 241,

242, 243, 246, 247, 250, 251, 252, 254, 255,

Lege gaikuntza, 10, 11, 12, 14, 15, 16, 18, 19

20, 21, 50, 52, 55, 56, 58, 62, 68, 70, 72, 84,

101, 150, 153, 204, 270, 271

legebiltzarkideak, 10, 12, 37, 38, 41, 42, 46, 49,

50, 51, 52, 53, 54, 55, 58, 69, 70, 71, 72, 73

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren

30eko 2/2006 Legea, 18, 180, 181, 183

Obra lizentziak, 18, 178, 180, 183

Ohar subjektiboak, 18, 176

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua, 12, 76, 77,

78, 79, 81, 83, 134

Osasun datuak, 12, 13, 14, 17, 18, 56, 57, 95,

97, 98, 99, 101, 103, 174, 175, 176, 177, 221,

261, 263

Osasun Saila, 12, 76, 77, 78, 80

Pazientearen Autonomia eta Informazio eta

Dokumentazio Klinikaren arloko Eskubideak

eta Betebeharrak erregulatzen dituen

azaroaren 14ko 41/2002 Legearen, 18, 73,

81, 98, 175, 176

Proportzionaltasun printzipioa, 67, 162, 183, 208

Segurtasun Saila / Herrizaingo Saila/ Barne

Saila, 12, 76, 77, 78, 247, 249, 255

Test psikoteknikoak, 12, 55, 56

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen

7/1985 Legea, 10, 20, 26, 27, 28, 31, 32, 61,

63, 65, 108, 111, 112, 113, 114, 140, 141, 142,

144, 145, 150, 153, 154, 180, 263, 267, 269

Toki korporazioen erabakiak, 28, 32, 33, 51, 58,

73, 89, 92, 106, 109, 111, 114, 116, 136, 141,

142, 145, 146, 151, 154, 204, 219, 223, 224,

231, 244, 251, 258

Toki-korporazioen Antolaketa,

Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari

buruzko Erregelamendua onartzen

duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege

Dekretuaren, 27, 61, 109, 180

Trafiko istripu, 12, 13, 76, 77, 78, 79, 80

Udal aktak, 14, 15, 65, 106, 107, 110, 113, 114,

115, 116, 120, 139, 142, 144, 145, 146, 147,

148, 149, 153, 154, 155

Udal errolda, 21, 26, 32, 63, 64, 263, 264, 267,

269, 270, 271

Udal saioen grabazioa, 14, 16, 17, 106, 116, 148,

149, 150, 151, 152, 153, 157

Ukituaren adostasuna, 13, 52, 55, 70, 81, 95,

124, 161, 170, 198, 207, 215, 274

Web orria, 9, 14, 16, 17, 54, 60, 102, 106, 107,

116, 117, 118, 119, 121, 123, 124, 125, 126,

137, 138, 139, 142, 143, 144, 147, 149, 155,

156, 158, 162, 163, 213, 215, 218, 221, 222,

225, 238, 239, 258

Zinegotziak, 10, 11, 16, 18, 26, 27, 28, 31, 32, 33,

34, 60, 61, 62, 63, 64, 65, 67, 68, 133, 180

